

IMANOL MURUA

Gipuzkoako alkate

Joan Mari Torrealdai

Alkartasuna Fundazioa

Galerazia dago liburu honen kopia egitea, osoa zein zatikakoa, argitaraldi honen baimenik gabe.

Maketa eta fotokonposaketa: Imanol Tapia
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)
Argazkiak: Murua-Uria familiaren artxibokoak

© Joan Mari Torrealdei Nabea
© Alkartasuna Fundazioa

ISBN: 84-95234-21-1
L.G.: SS. 1374/2004

AURKIBIDEA

IRAKURLEARIA. Joan Mari Torrealdai	9
HITZAURREA. Carlos Garaikoetxea.....	13
BIOGRAFIA LLABURRA	15
BIZITZA BIDEZ BIDE	23
1935-1954	25
Ama Joxepa, aita Hilario.....	25
Aitaren herentzia.....	28
Gerrak familia sakabanatu zuenekoak	30
Ohe gurpildunarekin kalera	32
Don Mateo Mujikaren "etxeokak"	34
Ikasle azkar eta bihurria.....	36
Donostian "artaburu"	38
Kiroletan ere "saltseroa"	39
Ifniko gerra: berandu iritsita libratu.....	44
1954-1974	45
Gazte-gaztetan irakasle, eta 27 urtez	45
Sukalde berriko sukaldarien maisu	50
Antoniana Gazteria elkartean	52
"Amoriuak bihotza beti zuregana"	55
Guraso Elkartean (1967-1972)	57
Ikastolako Imanolen "azken" bilera	62
Udaletxera jauzia: barrutik lan egitera	73
Atxiloketak gora eta behera	76
Golf: 20 urte geroago	81
Lan egin eta eragin	84
Tarterik gabekoa	86
1974-1983	89
Alkateen taldean alkate izan gabe ere	89
Ikurrina Udaletxeko balkoian	93
"Lautan" alkate	97
Diputatu Nagusia izateari uko	103

Imanolen “iluminazioa”	107
Madriren etxean bezala	109
Udaletxea poltsikoan	112
Aitaren argazkia mahai gainean.....	114
“On Kixote”	116
Koadrila gazteagoa zenean	119
1983-1995	125
Kulturaren egoera “miserablea”	125
Fedea obrekin	128
Alkateen alkate	130
Madriren bizi zen poetaren itzulera	134
Arteleku	145
Koldo Mitxelena Kulturunea	148
Lanbide Heziketa	151
EAJ/EA: hausturaren prologoa	154
EAJ/EA: “tu quoque fili mi?”	155
EAJ/EA: hausturaren aurka	156
EAJ/EA: Diputazioko Jauregia edo Kafkaren Gaztelua?	159
Nazio ikuspegia, LTHren garaiari	161
“Euskadi trainerua da”	164
Eusko Jaurlaritzari leialtasuna	165
Udaletxeekiko diskriminaziorik eza	166
Autobidea: eite politikoa hartzen	168
Autobidea: proiektu izarra	170
Autobidea: 180 graduko biraketa	173
Artearen munduan	178
Euskararen alde	182
Inazio Santuaren jaiotetxea Jesusen Lagundiari.....	188
Bihotza zabalik, bulegoa ere bai	190
Kazetarien oparia.....	194
Karlos Santamariari omenaldia.....	198
<i>Euskaldunon Egunkaria</i> -ren alde	199
1995-2004	201
“Herri Edertu” enpresa	201

Gardentasuna: legezkoa eta morala	205
Oteitzaren laguna	208
Oposizioan deseroso	218
Azken intsumisoa.....	220
Alderdia eta erakundeak, bi mundu	222
Imanol, "politikaria"?.....	225
Ordezko sartu eta postuaz jabetu.....	231
Sekulako txistukada Belodromoan	234
Auspoa eskuratu nahia	238
Bertsozalea	239
Gipuzkoako Lanbide Eskolen omenaldia	242
Garaian garaiko kudeaketa	244
ELKARRIZKETA	251
IMANOL MURUA PRENTSAN	303

IRAKURLEARI

Joan Mari Torrealdai

Imanolek bere bizitza(z) idazteko proposatu zidanean, ez nekien oso ondo nondik hasi. Zergatik eta zertarako bai, berak adierazi zidan eta: irakaskuntzan hasi zela 50 urte aurrean, politika lanetan hasi zenetik 25 urte eta justizia espainiarrak inposaturiko inhabilitazioaren bukaera, 730 zigor egun igaro ondoren. Hori guztia 2004 urtean.

Lehenik eta behin, ezertan hasi aurretik, Imanoli buruz informazioa behar nuen. Berari eska niezaiokeen. Hori zen bide errazena. Baina ez nuen nahi, nire eskuaz baliatuta idatziriko autobiografia emango baitzuen. Eta nik ez nuen askatasunik nahikoa izango.

Beste bide bat hobetsi nuen, nire ustez aberatsagoa baina gerora ikusi dudanez mila aldiz luzeagoa: Imanol ezagutu dutenengana joko nuen informazio bila. Eta horrelaxe egin nuen: Imanoli berari izen-zerrenda eskatu eta banan-banan jendearekin egon. 50etik gora lagun bisitatu ditut. Elkarrizketa horiei esker lortu dut informazio gehiena. Eta informazioaz gainera Imanoli buruzko iritzia.

Jaso dudan informazioarekin Imanolen biografia osatu nahi izan dut, baina ez biografia klasiko lineala. Haren bizitzaren laburpena nahi duenari prestatu diot hori ere, orrialde gutxi batzuetan: "biografia llaburra".

Liburuaren atal biografiko nagusia, ordea ("Bizitza bidez bide"), beste antolatuta dut. Multzo kronologikotan banatua dago, baina urtealdi bakoitzaren barruan puzzle gisa dator informazioa, puzzle-zati txikiez osatua bailitzan Imanolen bizitza. Irakurterraztasunaren mesedetan, txatalka ematen ditut Imanolen ekimenak eta ekintzak, gertakariak eta anekdotak, Imanolen pozak eta penak, arrakastak eta lorkizun gelditu zaizkionak,

bere jarrera eta motibazioak. Hitz batean, bere bizitza. Pasarte bakoitza, gainera, ahots askotarikoa da, lekukoen testigantzez jantzia. Ez dago lerroz lerro aurrekoarekin eta ondorengoarekin lotu-lotua. Nahi duenak nahi duen moduan irakurtzeko modukoa: hasieratik bukaerara arnasaldi batean irakur dezake batek. Baina ez da preziso: tarteka-tarteka irakurritan ere ez du haria galduko horrela irakurri nahi duenak.

Informatzaileek esan didatena jaso eta moldatu dut, batetik; eta bestetik, informazio hori osatu, zehaztu, kontrastatu egin dut gertakarien garaiko egunkariaren bidez eta Imanoli galdetuz. Gerta liteke han edo hemen esaten denarekin Imanol bera bat ez etortzea, hau edo hura ez izatea Imanolen gustuko. Gerta liteke, gertatuko denez, Imanolek bere burua gehiegitxo “loriatua” ikustea ere hainbat kasutan. Bai batean eta bai bestean, baina, hori nire askatasuna da.

Imanoli berari dagokion ahotsa, bere iritzia libre adierazia, berak nahi duen tonuan eta moduan, hori elkarrizketari dagokion orrietan aurkituko du irakurleak. Elkarrizketa luze-zabala da, eta zabal mintzo da Imanol bere bizitzako pasarte garrantzitsuenak erreparatuz.

Liburuan zehar hainbat istorio eta historia-puska agertzen da, baina hau ez da historia liburu bat. Liburu honek ez du testuingurua edota gertakariaren haria hasieratik bukaeraraino azaldu nahi. Pertsona edo pertsonaia bati dagozkion pasarteak biltzea du asmo, bestelako pretentsiorik gabe.

Informazioaz aparte, Imanoli buruzko iritzia ere bildu dut, bai solaskideena eta bai hemerrotekan bere garaian agertu zena. Egunkariak publikatu zutena liburuaren atzealdean kokatua dago, elkarren ondoan, argitaratu zen ordenan. Elkarrizketatuek esandakotik laburbildu dudana, ordea, liburuan zehar sakabanatuta dator, batzuetan testu barruan txertaturik eta gehienetan aparte. Ez dira testu landuak, ahozkoak eta bat-batekoak baizik.

Liburuaren titulua harrigarri gerta dakioke norbaiti. Gipuzkoako alkate? Liburuak irakurtzen duenak ikusiko du ez dela nik asmatua jatorrian. Eta batez ere ikusiko duena da tituluaren arrazoia: “alkate” izatea Imanolen baitan estiloa da, jarrera, pertsona eta arazoekiko hurbiltasuna, jarduera politikoaz gainera. Ahaldun Nagusi zelarrik, Gipuzkoa herri bat biltzan hartu zuen Imanolek; “herri eder” bat, zioen berak.

Eskerrak emateko orduan, motzean arituko naiz: lehenik eta behin eskerrik beroenak Imanoli, eman didan aukera, konfiantza eta laguntzagatik. Eskerrak, baita ere, solaskide izan ditudan "informatzaileei": harre-
raren kalitatea eta informazioa eskertzen diet guztiei eta bakoitzari banan-banan. Eskerrak, nola ez, Carlos Garaikoetxeari liburu honetan parte hartzeagatik. Eta, azkenik, Alkartasuna Fundazioari eskertu nahi diot eman didan askatasuna.

Usurbil, 2004.11.11

HITZAURREA

Carlos Garaikoetxea

Lehendakari izan nintzen garaiaren hasieran, Gobernuaren egoitza ere inprobisatu behar izaten genuen garai haietan, nire emazteak sarritan honakoa esaten zidan, eta ez zitzaion arrazoirik falta: Begira, Carlos, hemen nabarmena da beren lana ongi betetzen dakiten alkateak direla herriarengandik gertu agintzen dutenak. Francoren diktaduraren ondoren etorri ziren urte nahasi haietan, oraindik autogobernua finkatu gabe zegoenean eta Euskadiko herrietan egoera oso gatazkatsua zenean, alkateek dena konpondu behar izaten zuten: beren bulegoetan gaizki moldatzen zen bikote bat ager zitekeen beren arteko gorabeherak azaltzera eta konpontzen laguntzeko eskatzera, edo atxilotu baten familia laguntza eske, edo bizirik irauteko sostengua behar zuen pertsona babesgabe bat. Eta kasu horietan neurtzen zen alkatearen balioa, bera baitzen herrikoen autoritate naturala.

Imanol Murua, niretzat, beste gauza askoren artean, batik bat alkate ona izan da, herritarren artean beste edozein autoritate baino ikusgarriagoa, nire emazteak esaten zidan bezala, bere agindu eta urratsak berehalaxe hautematen baitzituzten herritarrek, urruneko Legebiltzar edo Gobernu batetik emandako bultzada politiko orokorrak ez bezala. Alkate on batengan kudeaketa pertsonal, zuzen eta berehalakoa ikusten zuten herritarrek, eta inoiz ez bere eginbehar noblearekin gutxi konprometitutakoaren utzikeria edo ezkutaketa.

Imanol Murua, gainera, alkate «herrikoiaren» eredia zen. Jendearekin kalean hizketan geratzen zenean beti jartzen zion gatza eta piperra esandakoari, aipamen egokiren bat, pikaroa batzuetan, atsegina beti. Jendea

zoriontsu egiteko prest egoten zen beti. Astero, adibidez, sindrome bat zeukan mutiko bati uzten zion bere bulegoa, haren ilusiorik handiena alkatetzari zegozkion xedapenak sinatzea baitzen, eta halaxe lortzen zuen hura zoriontsu egitea. Norbaiti garrantzi gutxikoak irudituko zaizkion gauza txiki horiek uzten dute agerian pertsona baten gaitasuna eta balioa, beharrezkoa zenean Ministro bati neurri onartezin batengatik aurre egiten jakiteak bezainbeste.

Imanol pertsona handia (horixe da garrantzitsuena) eta alkate handia zenez, Gipuzkoako Ahalduen Nagusi ere izan behar izan zuen, eta hori oso gauza serioa da Lurralde Historikoen Herri honetan. Eta Lehendakari batentzat oso lasaigarria zen leku horretan gipuzkoarren ereduia bete-betean ordezkatzeko politikari bat ikustea, herrikoia, bere lurraldearen defendatzailea eta, aldi berean, bere nazioa den Euskal Herriarekiko sentimendu sakonaren jabea, hain zuzen ere probintziazalekeria arriskutsu eta banatzaileen tentaldian erortzen uzten ez zion sentimendua...!

Lehendakari izan nintzen garaian, Imanolekin ardurak eta lanak partekatzeke aukera izan nuen, baina baita aisialdi eta dibertsio tarteak ere. Afariak Zarautzen eta binakako pilota partidak bera aurrelari nuela —eta oso ongi etortzen zitzaidan hori, zalantzazko tantoak beti gure alde konstatzen baitzuten...—. Txantxak alde batera utzita, elkarrekin pasatutako une horietan, eta baita bidaietan ere, Imanol oso sakon ezagutzera iritsi nintzen, eta horregatik egin dezaket gaur bere kualitateen hain ongi oinarritutako gorespena. Batez ere, gizon eta politikari azkar eta zintzoa delako. Eta, jakina, oso gauza garrantzitsua: horri guztiari bere ondoan Mari-txu emaztea edukitzearen zortea gehitu behar zaio, bien artean gauza guztiak oreka eta sen onarekin egin ahal izateko bikoterik egokiena osatzen baitute!

Mila esker, Imanol, erantzukizun politikoen urte kritiko hauetan zure adiskidetasunarekin ohoratu nauzulako.



Biografia llaburra

Imanol Murua Arregi Zarautzen jaio zen, Azara kalean, 1935eko ekainaren hiruan. Ama Joxepa eta aita Hilarioren laugarrena zen. Aurretik zituen Iñaki, Kepa eta Garbiñe eta bere hurrengo Jose Mari, frankismo garaian jaioa, izenak berak salatzen duenez.

Urtebete zuela aiton-amonekin bakarrik gelditu zen etxean. Aita abertzalea frontera aldegina zen, Francoren tropak Zarautzen sartu ziren egun berean, 1936ko irailaren 20an. Eta handik gutxira ama bi seme zaharrenekin bidali zuten “zonalde gorrira”. Garbiñe Donostian utzi zuten osaba batekin eta Imanol, esan bezala, aiton-amonekin Zarautzen. Gernikako bonbardaketak azpian harrapatu zituen gurasoak eta bi zaharrenak; eta handik aurrera sakabanaketa areagotu egin zen: anaiak Ingalaterrara, ama Estatu frantsesera eta aitak frontean segitu zuen preso erori arte. 1938ko uda arte ezingo da familia bildu Zarautzen.

Eskolaurrea Txapel Handitan eginda La Sallen hasiko ditu ikasketak. Baina bi urteko atzerapenarekin, lau urte zituela mokorreko ebakuntza berezi bat egin baitzioten. Nahiz eta ikasketak berandu hasi ez zuen arazorik izan. Ikasle bizkorra zen Imanol. Matematikazalea, familia osoa bezala.

Familiako “tradizioa” zen lehen mailako ikasketak egin bezain laster lanean hastea, dirua behar baitzen etxean gerraoste latz eta luze hartan. Imanol izan zen salbuespena, Inazio Olabeaga irakasleak gurasoak konbentzitu zituelako.

Donostiako “Artes y Oficios” ikastetxean bost urte egin zituen. Azken urtean, gainera, goizean Donostian ikasi eta arratsaldean lan egiten zuen Zarauzko Derlan enpresan.

Ikasten bakarrik ez, jolasten ere ez zen atzera gelditzen zena. Aitaren eredura eta anaien sokatik, inguruko joko eta jolas guztietan esku hartu ohi zuen: saltaka krossetan, boxeoa, futboleak bai kostan eta bai klubean, arraunean. Eta etxerako sos batzuk biltzeko, uda partetan tenisera joan ohi zen pilotak biltzera zazpi urterekin hasi eta bederatzita bitartean, eta hamar urtetik hamalau bitartean caddie-lana egitera golf zelaian, bera baino boltsa handiagoa gainean zuela.

Ordukoa du golfzaletasunaren harra. Caddie zelarik amestu zuena, golfean jokatzea, hogeitau urte beranduago gauzatuko du, 1968an golfeko bazkide egiten baita, bera bezala caddie izandako beste batzuekin batera. Golfean irabazitako 50 kopatik gora du etxean. Baina ez gaude momentu honetan. Goazen bere bizitzaren haria jarraitzera.

Ikasketak bukatu orduko, eskola ematen hasten da, uda berean aurrena eta ikasturtean hurrena. Donostiako eskolan zegoela fixatu omen zuen Bitor Gorrotxategik ("Fraia Bitor" frantziskotarrak), Zarautzko Lanbide Eskolako sortzaile eta zuzendariak. 1954an hasi zen irakasle, eta ofizio berean iraun zuen etenik gabe 1981 arte, 27 urte. Irakasle bakarrik ez, eskolako zutabea izan da urte horietan. Politika lanetan buru-belarri murgiltzen delako uzten du eskola, ezinbestean. Bere ziklo politiko nagusia amaitzen duenean, 1991n Ahaldun Nagusi izateari uztean atzera itzuliko da eskolara, klaseak ematera ez baina eskolaren aldeko lanak egitera. 1995 arte, berriz Zarautzko alkate aukeratu zuten arte.

Hamar urte egon da eskolatik kanpo, 1981etik 1991ra, baina ez horregatik Lanbide Heziketatik urrun. Diputazioan programak eta diru partidak jarri zituen abian eta indarrean, eta berari zor omen zaio gaur Lanbide Heziketak duen "izen" onaren eta "izan" hobearen zati handi bat. Horixe aitortu zioten 2004ko maiatzaren 14an Gipuzkoako Lanbide Eskola guztiek, pribatu zein publiko, egiten zioten omenaldikoan.

Frantziskotarren esku zegoen Lanbide Eskolako irakasle izanda ez da harrizkoa Antoniana elkartekoa izatea, frantziskotarren eskoletako gazteria biltzen baitzuen elkarte horrek. Aurrena batzordekide eta gero lehendakari izan zen. Imanolen meritutzat ematen dute bai parrokiako gazteria eta bai frantziskotarrena bildu izana, hala programetan nola ekintzetan.

1961eko irailean ezkondu egiten da Maritxu Uriarekin. Lau seme-alaba izango dituzte: Ane, Ander, Imanol eta Itziar. Ezkontzean Antoniana elkar-tea utzi behar izan zuen, eta urte pare batean inongo "saltsatan" sartu gabe dago, klaseak eman eta eman, eskolan eta partikular.

1967an Guraso Elkarteako batzordekide da eta gero lehendakari hemen ere, 1971 arte. Urte hauetan, Guraso Elkar-teak, ohiko egitekoez gainera, oposizio politikoaren lanak egiten ditu, Imanolen gidaritzapean. Eskuar-teko gai nagusia Zarauzko hirigintza izan zen. Borroka askoren ondoren lortu zuten udaletxearen hirigintza plana geraraztea eta hainbat gauza aldatzea. Autopistaren ibilbidea aldatzeko ere makina bat saio egin zuten, baina deus gutxi lortu, ahalegin franko egin arren.

1972an Zarauzko ikastolako presidente da. Ikastolarekin duen lehen harremana 1965ekoa da, sorrerakoa, guraso bezala. Xabin Unzurrunzaga lehendakari eta lagunari hartzen dio txanda. Basilio Bergararekin batera sartu da ikastolako zuzendaritzan, helburu jakin batekin sartu ere: legalizatzea. Donostiako tramitea egin ondoren, Madrila jotzen du. Handik denbora gutxira legalizatu zen Zarauzko ikastola, urte askoan lortu ezinean ibili ondoren. Hurrengo lehendakaria Basilio Bergara da eta honen eginkizuna ikastola berria eraikitzea izango da.

1974an, Guraso Elkar-teak eta Ikastolako batzordeak elkar-harturik babestuta, "tercio familiar"-etik zinegotzi gisa aurkezten da, Xabin Unzurrunzaga eta Felix Izkeagarekin batera. Bi helburu ditu hirukote honek: ikastola aurrera atera eta hirigintza bideratu.

Zinegotzi gisa joanda parte hartu zuen Alkateen Bergarako Taldearen sorreran, 1975ean. Taldearen bultzatzaileetako bat izan zen geroztik, zinegotzi zenean eta alkate izan zenean ere bai. Berak altxatu zuen ikurrina Zarauzko udaletxean 1977ko urtarrilaren 19an. Eta ikurrinak bihurtu zuen alkate, Gervasio Juaristi alkateak dimititu egin baitzuen orduan protesta gisa. 1977-1979 bitartean jarduneko alkatea izan zen Imanol.

1979an udal hauteskundeak egiten dira eta Imanol EAJtik aurkezten da, gehiengo absolutua bereganatuz. Aldi berean Urola-Kostako ordezkari gisa diputatu ere ateratzen da. Urte hauetan hiru lan uztartu beharrean dago: eskola, udaletxea eta diputazioa. 1981ean eskola utzi eta beste biekkin gelditzen da. Osoki politikara emana. Diputatu soil barik, 1979an,

Diputatu Nagusi izateko aukera eskaintzen diote, baina uko egiten dio zarauztarrei iruzurra egitea delakoan.

1983ko hauteskundeetan berriz alkate eta diputatu da, baina oraingoan Kulturako Diputatua eta Ardanza Ahaldun Nagusiaren bigarrena. Diputaziotik abian jartzen ditu Gipuzkoako kultur zerbitzu eta azpiegiturak. Horrez gainera parlamentaria ere bada, 1987 arte izan ere.

EAJren krisiak bete-betean harrapatzen du Diputazioan. Sektore kritikoan kokatzen da argi eta garbi krisiaren oinarrietan, baina eten edo hausturaren aurka dago. Hutsalak dira hura ekiditeko egiten dituen ahalginak oro. Krisiaren ondorioz Jose Antonio Ardanza Ajuria Eneara doa, eta Imanol aukeratzen dute Gipuzkoako Biltzar Nagusiek Ahaldun Nagusi 1985eko urtarrilaren 30ean. Kultura Diputatu zenean hasi zituen proiektu batzuk indartzeko aukera du orain. Eta berri batzuei heltzeko ere bai, hala nola, Udalkidetza.

Hurrengo gobernualdirako bi urte falta dira krisia lehertzen denean, eta diputatuen ekipoa guztiz erdibituta dago: batzuek sektore ofizialistan eta beste hainbeste sektore kritikoan, gehi Imanol hauekin. Elkarbizitza ez zen eroso, itxura guztien arabera. Diziplina hutsak tarteko, ekipoko bi diputatu kanporatu behar izan zituen.

1987ko hauteskundeetan EAK EAJri irabazten dio Gipuzkoan, eta EErekin bildu eta gobernu berria eratzen du Imanolek. Autonomia Erkidegoko gainerako lurraldeetan, ordea, koalizio honek ez du aliaturik, PNV eta PSE baitira nagusi, bakarka edo elkaturik. Bat bosten kontra dagoela esaten du Imanolek, halaxe gertatzen baita sarri Eusko Finantzen Kontseiluan (CVF). LTHren garaia estreinatu berria da, eta kompetentzien arazoak eta erakundeen arteko koordinazioa dira istilugai, zer dagokion Eusko Jaurlaritzari eta zer Diputazio bakoitzari. Diputatu Nagusi zelarik ere, Imanol Eusko Jaurlaritza indartsu baten aldekoa izan da, paradoxa badirudi ere.

Aurreko legegaldian hasi eta oraingoan lehertu den arazo batek nahiko buruhauste ekarri dio Imanoli, Leitzarango Autobideak, alegia. Hasieran, Nafarroa eta Gipuzkoa lotzeko ametsa izan zena, amesgaizto bihurtu zen urteak aurrera joan ahala. Errepide soila zen hasieran eta gero sokatirako desafioa: batzuek alde batetik tira eta besteek beste aldetik eutsi eta tira.

Imanolen bizimodu pertsonala, soziala eta instituzionala aldrebestu zuen Autobideak.

Prozesuan bertan asko sufritu zuen, eta eman zitzaion irtenbidean engainatua ikusi zuen bere burua. Erakundeek aho batez hartu ohi zituzten erabakiak hitzik aldatu gabe betetzen zituen, kontzeptu orokor asko tartean; eta orain, egoera politiko berrian, beltza zena zuri bihurtzen da. Berak ere egin zezakeela hori, bere lagunek onartu izan baliote, diotsa prentsari. Areago: 1991ko uztailaren 2an, ibilbidea aldatzea aginduz eskuetan zuen Ahaldun Nagusi izateko gehiengo. Eta uko egin zion, irteera gabeko kalea zelakoan.

1991an uzten du, hortaz, Diputazioa, eta EAko bozeramaile gisa hasten da lanean Batzar Nagusietan, 12 urte luzeko aldiari hasiera emanaz. Horrezaz gainera, Zarauzko alkatezara itzultzen da 1995ean, bere herriko alkate izatea baita Imanolentzat ohorerik handiena. Bi gertakari nagusitzen dira agintaldi honetan: gero, inhabilitazio politikoa eragingo dion osoko erabakia; eta, bigarrena, Jose Ignacio Iruretagoiena PPko zinegotzia ETAk hiltzea. Biak pertsonalki mingarriak.

Iruretagoiena Zarauzko Seme Kutun izendatuz (1998.09.16) "habilitatu" nahi izan zuen urteurrenean.

Imanolen inhabilitazioa mingarria adina da lotsagarria. Mingarria da pertsonalki, zeren eta bere bizitzako 25 urteko ziklo politikoa itxura gabeko moduan koroatzen baitu. Eta lotsagarria da justiziarentzat berarentzat: intsumisioa zigorgabetu eta derrigorrezko soldadutza kendu ondoren baitator zigorra.

Inhabilitazioaren jatorria, izan ere, 1996an Zarauzko Udalbatzak hartutako erabakia da: Espainiako Armadari kintoen zerrendarik ez ematea.

Minuskulaz idazten den justiziak emandako zigorra omen da, dio Imanolek. Eta herriak ez omen du inhabilitatu. Alderantziz: Imanolen herria ordezkatzeko duten erakundeek "errehabilitatu" egin dute, bai bere udal txean bai omenaldi baten bidez Batzar Nagusietan 2003ko uztailaren 3an. Gaur egun Imanol lanetatik jubilatutik bizi da, bere zaletasunak, lagunartea eta familia lantzen nahiko lan baduelarik.



**Bizitza
bidez bide**

1935-1954

AMA JOXEPA, AITA HILARIO

Ama Joxepa Arregi Izagirre zuen. Urnietan jaio zen 1900eko urrian, Adarraren magalean dagoen Montefrio baserrian. Zarautza etorri zen bere ahizpari laguntzera, Muebles Arrutiko nagusiarekin ezkondua baitzegoen Sebastiana.

Muebles Arrutin ezagutu zuen hain zuzen Hilario, eta ezkondu egin ziren. Hilario Murua Beristain zarautzitarra zen, 1897ko abenduan jaioa. Hilario Ixpilla deitzen zioten, gurasoak Ispilla baserritik etorriak baitziren.

Biak ziren kristau zintzoak eta abertzaleak, gaztetatik EAJkoak.

Larre motzean hezitakoak biak, lan eta lan bizi ziren.

Aitak ebanista lana egin zuen Muebles Arruti “El palacio del mueble” sonatuan, profesional on eta langile finaren famarekin. Tailerreko lanaz gainera, arrantzarako garaian (martxotik urria bitartean) itsasoan makina bat ordu pasatu ohi zuen txitxarro eta txibitan. Txibitan aritzea ez zen kirola Hilarioentzat, orain Imanolentzat baden bezala. Semeak ere itsasora eraman ohi zituen batzuetan. Asko famatzen dute Hilario, oso ona zela txibitan. Aitak erakutsita omen du Imanolek abilezia, eta hari esker eza gutzen omen ditu txibitako sekretuak. Bigarren soldataren bila joan ohi zen Hilario txibitara.

Ama ere lan eta lan gogoratzen dute. Denei laguntzen, isila, haurren etorkizunaz kezkatua, goiz jaiki, berandu oheratu, etxean eta kanpoan lan, jenio eta guzti gogoratzen du Garbiñek bere ama. Muebles Arrutin ere lan egina da Joxepa. “Harrigarria zen benetan”, dio Imanolek.

Bost seme-alaba izan zituzten. Iñaki eta Kepa Torrelaburraren ondoan jaioak; hurrengo biak, Garbiñe eta Imanol, Azara kalean, eta behin Agere-xoara joan eta gero etorri zen mundura Jose Mari gazteena, erdal izen eta guzti frankismo garaia zenez.

Imanolek "Imanol" sinatu izan du beti, baina bere izena "Manuel Pedro" omen zen ofizialki. Hala uste zuen berak harik eta bere izena euskaldun-tzera joan zen arte. Eskatu zituen ziurtagiriak Elizan eta Udaletxean eta hara non ohartzen den jatorriz Manuel Pedro barik Pa zela. Berrogei urte-tan izena faltsutu ziotela eta amorru bizian ibili zen. Dokumentuak faltsi-fikatzeagatik denuntzia ez jarri izanaz damututa dago orain.

Imanol 1935eko ekainaren 3ko goizeko ordubietan etorri zen mundu-ra. Jaio aurretik ere adarra jotzen hasi zela esaten zion aitak. Izan ere, aurreko eguna Pagoetako gurutzearen inaugurazio eguna zen. Hilariok-eta hilabeteak eman zituzten Pagoetako gurutze-bidea eta gurutzea egiten, eta egindako lanaren sari gisa, festa egin behar zutenean, doi orduantxe Imanol ate joka. Pagoetatik behera korrika eta presaka etorri omen zen abisua hartutakoan. Eta hemen zain egon behar Imanolek ez zuelako irten nahi goizeko ordubiak arte.

FAMILIA SALTZEKO EZ

Oso familiazaleak dira Murua-Arregitarrak. Ezkondu eta gero ere gurasoe-nean bildu ohi ziren, emazte, haur eta guzti. Ez zen umorerik eta kantu-rik falta han. Aitarekin batera aritzen ziren semeak kantuan eta bertso-tan, lehenengo ikasten eta gero abesten. Bertso eta kantu zaharrak, aber-tzaleak, erlijiosoak, folklorikoak; "pikanterik" ez, nonbait. Bazkari guzti-guztiak kantu batean bukatu ohi ziren.

Gerran asko sufrituak ziren Hilario eta Joxepa, baina ez zieten hau-rreri horretaz deus esaten. Politika kontutan ere ez ziren aritzen haurre-kin edo haurren aurrean. Gerrak herrian lagatako zauriez ere ez zuten jarduten. Gorrotoaren ozpinik gurasoengandik jaso zutenik ezin esan. Kontrara baizik.

Politikak, gurasoak desagertu eta urteetara, astindu du familia, baina ez du puskatu. Izan zen bolada bat harremanak pittin bat hoztu zirena,

baina urak bere bidera etorri ziren berandu baino lehen. EAJren puskaketaz ari gara, noski.

Krisia lehertu zenean, Imanolek, artean Ahaldun Nagusi, Laurgainen bildu zituen anai-arrebak. Bere posizioa agertu zien, eta bakoitzak harrezala berea. Iñakik eta Garbiñek Imanolen bide bera egin zuten; eta aldatu gabe gelditu ziren Kepa eta Jose Mari. Politikan sartuenak Imanol eta Kepa izan dira. Udaletxerako hauteskundeetan aurrez aurre egonak ere badira bi anaiak. Egunkarietan ere agertu omen zen bi anaiena, eta horrek odoletan jartzen zuen Iñaki anaia zaharrenaren bihotza.

Anai-arrebek aho batez eta harrotasun puntuarekin azpimarratzen dute politikak ez duela eten familia. Jose Marik bere buruari galdetzen dio: abertzaletasun aldetik zer diferentzia ideologiko dago bada anai-arreben artean? Eta gainera, aitortzen du berak, ez du merezi politikagatik haserretzeak.

AITAREN HERENTZIA

Muruatarrak aita famatzen dute izugarri. Beraiek konturatu ere egin gabe. Txibitan? "Aita onena". Korrikan semeak onak? "Aita gu baino hobea". Umorea? "Hori aitarena da". Bertsozaletasuna? "Aitak erakutsita".

Hitzetik hortzera dakarte aitaren aipua, aitaren eredia, aitaren irudia.

Aitari zor diote, beraien esanetan, kirolzaletasuna, bertsozaletasuna, kantuzaletasuna, herrikoitasuna, umorea, "saltserotasuna" edo herriko mugidetan parte hartzea.

KIROLZALETASUNA

Aita kirolzale amorratua zen. Herriko festetan beti aurrean omen zebilen, saltsa guztietan, korrika, kukañan, futbolean, behar zen lekuan animazioa jarritz. Korrikako karrera dezente irabazi zituen. Getariara joan-etorriko karreretan Aia txikiari irabazi egiten ziola-eta kontatzen zien semeei.

Futbolean Mollarri taldean ibili zen, Zarauzko lehen taldean. 1969an-edo, Zarauzko Kirol Elkartek 25 urte betetzean, kirolari zaharrei omenaldia egin nahi zien: "kirol aitzindariak" gisa. Aitaren adin jirakoek esan omen zieten antolatzaileei: "Egiazue Hilariori eta denontzat balioko du". Eta halaxe jaso zuen Hilariok omenaldia, bere garaiko kirolari guztiak ordezkatzuz.

Enbor bereko ezpalak izaki, semeak ere kirolez kirol ibiliak dira. Iñakik, zaharrenak, arrauna, eskubaloia eta korrika egin ditu; Kepak, korrika, futbola, boxeoa eta golfa; Imanolek, golfa, boxeoa, korrika, futbola, eta arrauna; eta txikienak, korrika eta txirrindularitza. Jose Mari txirrin-
duan ona izan da, gainera. Afizionatuetan ibilia da Mendiburu, Errandonea, Elortza, Arantzabal, Migel Mari Lasa eta puntan ibili den jendearen pare, soldadutzatik bueltan uztea erabaki zuen arte. Enbor berekoa du alaba, Ainhoa "olinpikoa", triatleta ezaguna.

UMOREA ETA BERTSOA

Umorea, kantuzaletasuna, bertsozaletasuna, hirurak batera hartuta aitari zor dizkiotela harro aitortzen dute Muruatarrek. Aita hor ere hobea omen zen, parrokiako koruan abesten zuen, tronboia jotzen zuen, bertso paper

guztiak zekizkien buruz. Eta zarzuelazalea zen. Esaten omen zuen: espainolek gauza bat badute ona, zarzuela. Zati asko zekizkien buruz.

Behin, 1957 edo 1958 urtea izango zen, Eguberriak ziren, hori bai, eta Imanol kalabozotik egun horretan libratua. Garbiñerenean afaldu zuen familia osoak, sekulako umorez. Bere balentriak zirela-eta Imanol erronka jotzen omen zebilen, eta aitak zarzuela pasarte bat kantatu zien, Imanoli parera zetorkiona: "Aunque no tenga fusil ni ningún otro armamento, soy el único alguacil de este ilustre ayuntamiento, yo gano las elecciones, yo persigo a los ladrones y en todas las procesiones salgo yo". Semeek ikasi zuten bada zarzuela zati hori eta afaria bukatu eta gero badoaz etxera hiru anaia, herri kaskotik San Pelaio aldera, hirurak umore onean elkarri lepotik helduta eta ikasiberri zuten kantua abestuz. Beraiek konturatu ez baina han zegoen kale izkina batean serenoa, Krispin serenoa.

Hurrengo goizean, meza nagusian koruan abesten zuen aitak eta Krispin ere han zen; aita aparte hartu eta esaten dio: Hilario, ez ditut kalabozoan sartu Gabon gaua zelako, baina atzo ere zure semeak kalean ibili dira niri burlaka.

Horixe bakarrik falta zitzaion Imanoli: kalabozo batetik atera eta bestean sartzea, zarzuelak ere kalabozo zulora eramatea.

Krispin Otaegi azpeitiarra zen jatorriz, eta Zarautzen zegoen sereno. Sereno edo gaueko alguazila. Gaiztoaren fama zuen gazteen artean. Imanolen koadrila begitan hartuta omen zuen, eta batik bat Imanol.

Aitaren herentziatik zer gehiago jaso duten? Builoso izatea akaso? Ez, ez, hori Imanolena da, berea propioa, diote anaiek. Dirua? Ezta hori ere. Garbiñek gogoratzen du bisitatzera joandakoan nola zioen aitak: "Nik daukadanagatik ez zatozte behintzat, gugatik zatozte".

GERRAK FAMILIA SAKABANATU ZUENEKOA

Andu Lertxundik Martin Ugaldere familia gerrak nola sakabanatu zuen ikusita holaxe dio: “sakabanaturik zeuden senideak, harria botatzen zaion haritz abartsuko txoriak izaturik hegabanatzen diren bezala”.

Imanol Muruaren familiarekin beste hainbeste gertatu zen data berean.

1936ko irailaren 20an aita despeditu eta aurrera joan zen. Hala esaten zen bat gudariekin frontera zihoanean, aurrera joan zela. Etxean gelditu ziren gainerakoak: amona Rosa, aitona Jose, ama Joxepa, Iñaki (10 urte), Kepa (8 urte), Garbiñe (4 urte) eta Imanol (urtebete).

Aitak aldegin eta berehala sartu ziren tropa frankistak Zarautzen, falangistak eta erreketek. Handik hilabete pare batera herritik atera eta frontera bidali zituzten gudarien familiak. Emakume eta umez beteriko bi autobus atera ziren. Autobus horietako batean Imanol txikiaren ama eta bi anaia zaharrenak zihoazen. Garbiñe Donostiako osabarengana eraman zuten, eta Imanol bakarrik gelditu zen Zarautzen aiton-amonekin.

BABESLEKUAN ETA BABESIK GABE

Ihesi joan zirenak, ama, Iñaki eta Kepa, apirilaren 26an Gernikan zeuden bonbardatu zuten egunean. Aita ere han zen, aparte baina. Zirrara ematen du egun hura nola bizi izan zuten irakurtzeak. Gaur balitz bezala gogoratzen da Iñaki:

“Apirilaren 26an Lumoko kanpaiak alarma jo zuenean, ama, Kepa eta hirurok, saltaka hurbilena zegoen babeslekura sartu ginen, hain zuzen Udaletxe azpikora. Berehala hasi ziren bonbaketak, gero eta hurbilago sentitzen genituen, beldurrak akabatzen geunden, eta halako batean bonba bat geure gainean erori zen, izugarritzko txikizioa eraginez. Udaletxe gainean, hau da, gu geunden babeslekuaren gainean, beste bi bonba erori ziren zuzen-zuzenean, eta gureak egin zuela denok pentsatu genuen. Garrasiak, errezoak, ez zen giro... Bigarren bonbak lehenengoak baino txikizio handiagoa eragin zuen, irteera denak zaborrarekin itxiz. Umeak helduen bizkarretan, denak errezatzen, hirugarrena noiz eroriko beldurrez... Erori zen eta ez dakit nola baino babeslekuak eutsi egin zion eta bizirik irten ginen infernu hartatik.

Bonbaketa soinuak isildu zirenean geu ere minutu batzuetan isil-isilik egon ginen, kanpoan jendearen ahotsak sentitzen hasi ginen arte.

Gehiegi mugitzen ere ez ginen ausartzen babeslekua eroriko zen beldurrez. Kanpotik, zaborrak poliki-poliki garbituz, zulo bat egin zuten eta banakabanaka denok irten ginen. Lehenengo umeak eta gero beste denak. Nahiko zorte izan genuen. Babeslektatik irtenda ikusi genuena ere beldurgarria zen. Gernika osoa sutan!

Denok Lumo aldera bidali gintuzten, eta denak ari ziren bere familia-koak aurkitu nahian larrituta batera eta bestera. Gure ama ere aitaren bila buru-belarri, bai baitzekien goizean Gernikan zela. Zerbait lasaitu zen norbaitek esan zionean bonbaketaren ondoren garbiketa lanetan ikusi zuela”.

KALBARIOAREN LUZEA

Murua-Arregitarren kalbarioak bide luzea du aurrean. Bi umeak 1937ko maiatzean Britainia Handiko Scarborough herrira eraman zituzten, eta hantxe izan ziren 1938ko uztaile arte.

Ama beste emakume batzuekin batera arrantzako itsasontzi batean Iparraldera eraman zuten eta han “Ghetary” hotelean jardun zuen lanean.

Aita, aldiz, Laredon erori zen eta Burgosko espetxean egon zen 1938ko urte erdira arte. Osaba Pedrok ezagutzen zuen almirante bati esker atera omen zen aita kartzelatik, kontaktzen du Jose Mari anaiak.

1938ko uztailean bildu zen atzera familia osoa Agerrexonean.

Anaien itzulera gogoan du Imanolek: “Arratsaldea zen. Ni lotan nengoela etorri ziren. Gogoan dut niretzat ezezagunak ziren bi mutilek ulertzen ez nuen hizkuntza batean hitz eginez esnatu nindutela. Hiru urte bakarrik nituen nik, baina harritzekoa bada ere pasadizo hau gogoan dut”.

OHE GURPILDUNAREKIN KALERA

“Esaten dutenez mutil koskor bihurri xamarra, sanao eta nahiko sendoa nintzen, baina lau urte bete eta berehala, aldamenean bizi zen izeko Segunda konturatu zen herren egiten nuela. Sendagilearengana eraman eta alarmak piztu ziren hark emandako berriarekin: ezkerreko hankako mokorreko bi hezur alderantziz neuzkala eta operatzen ez baninduten gero eta okerrago izango nintzela”, kontatzen du Imanolek.

Ebakuntza berria omen zen, oso delikatua, errekupeazio luzekoa eta ondorio ezjakinekkoa. Arriola eta Elozegi sendagile ospetsuek (garaiko traumatologo onenak nonbait) egin zioten ebakuntza. Errekupeazioa bi urte pasatakoa izan zen, klinikan hilabete batzuk eta etxean urte t’erdi. Eta denbora guztia ohean, zangoa mugitu ere egin gabe.

Zer egin behar du mutiko bihurri honek etxezuloan sartuta?, pentsatuko zuen amona Rosak, eta aitari agindu zion, ebanista zenez, ohe bat egiteko gurpil eta guzti, “por ahi” ibiltzeko moduan. Esan eta egin. Imanol ohe mugikorrean hartu eta han ibili ohi zen gure amona progresista paseoan, enkargutan edo Arotzarenarenera lanera zihoanean. Umea elbarria zela pentsatuko zuen jendeak, baina bost axola gure amona modernolari. Hori bai —dio Imanolek—, zumea eskuan eramaten zuen eta behar baino gehiago mugitzen banintzen ederki astintzen ninduen.

Oheari josita etxean egon behar duenean ere kalean badabil, nola harrituko gara bada Imanol helduagoa beti etxetik kanpora ikusita? Ez omen da etxezulo, nola bada!

Ebakuntzaren aztarnarik ez zaio gelditu, ez kirola egiten zuen garaian eta ez gero. Arazoak, izan dituenen, beste mokorrean izan ditu aurrena.

Amak esaten omen zuen Arantzazuko Ama Birjinari esker atera zela Imanol ondo. Imanolek ere baietz dio, baina badaezpada gurasoek garaiko traumatologo onenengana jo zutela, nahiz eta garesti izan. Berak eskerrak gurasoei ematen dizkie.

Ebakuntzak bazuen beste ondorio bat, kostua. Kostu handia. Eta etxean dirurik ez, soil pobreak baitziren gerraosteko urte gogor haietan. Ez dakit Imanolek kontatzen duena frogatzerik ba ote dagoen, aitari asteko hiru egunetako soldata herriko frankistek kentzen ziotela, inongo lege edo dekreturik gabe. Kuestioa da Agerrexonean ez zegoela dirurik ebakuntza

ordaintzeko. Eskerrak lagun batek aurreratu zien. Aitak bildutako txibiekin ateratako sosei esker ordaindu omen zen ebakuntza apurka-apurka.

Alvaro AZPEITIA

Laguna

- Imanol, lehenik eta behin, gizon on bat da. Fede onekoa eta anbiziorik gabekoa, eta mundu guztiarekin konplitzen dakiena. Gizon jatorra da, eta nik uste dut jatortasun horrek dena hartzen duela.
- Lanean ari zenean berarengana joaten bazinen ere ez zizun esango traba egiten ari zinenik, bere borondate ona eta jatortasuna azpimarratuko nituzke.
- Zerbitzu gaitasun izugarria zuen. Imanol egon den lekuetan beti denen onerako gauzak egin nahian aritu da, bere buruari inoiz begiratu gabe. Gehienentzat onena zer ote zen pentsatzen zuen, egokiena eta inor hondatu gabe egiteko modukoa zer ote zen, horretan saiatzen zen.
- Pertsona garbia da. Egon den tokietan egonda gaur egun zaila da hori esatea!

DON MATEO MUJIKAREN "ETXEKOAK"

Agerrexoneatik oso hurbil bizi zen Don Mateo Mujika Gotzaia. Imanolen aita eta ama etxera joaten zitzaizkion laguntzera. Aitak jauregi zaharreko konponketa guztiak egin ohi zizkion. Amak, berriz, etxeko lanak eta enkarguak. Amarentzat lehentasuna Don Mateori laguntzeak zuen. Don Mateok asko maite omen zituen, eta Joxepari "ama" deitzen ziola gogoratzen da Garbiñe.

Gurasoak bakarrik ez, seme-alabak ere han ibili ohi ziren bueltaka. Gotzaiaren jenioa ere ezagutzen zuten, bai horixe. Kepa anaia zen meza-mutila, meza laguntzen ziona, eta nahiko lan, itsua baitzegoen Don Mateo. Imanolek, aldiz, enkarguak egiten zizkion. "Oso etxekoak ginen, —dio Imanolek—, errespetu handia genion, eta gure aita eta amarentzat santu bat bezala zen". Hil zenean, 1968an, Gotzaiaren hilkutxa eramaten Hilario ageri da.

Imanolen gurasoentzat sekulako ohorea izan behar zuen Mujika Gotzaia zerbitzatzea, sekulakoa. Don Mateo ez zen edonor, batez ere garai hartako kristau abertzale batentzat. Euskaldun abertzaleen alde atera zen bakarrenetakoa, bakarra ez bazen.

Don Mateo Mujika Urrestarazu Idiazabalen sortu zen 1870ean. Hiru elizbarrutitan egon zen apezpiku: Burgo de Osman (1917), Iruñean (1923) eta Gasteizen (1928). Hemen zegoen Francoren altxamendukoan. "Non licet" izeneko gutun pastoralak idatzi zuen Errepublikaren eta errepublikarrekin bat egin zuten guztien aurka. Eusko Jaurlaritza tartean. Baina gero frankistek apaizen eta herritarren aurka egiten zituzten gehiegikeriak eta hilketak gertutik ikusi zituenean, horiek salatzeke bi gutun pastoralak idatzi zituen. Horrezaz gainera, 1937ko uztailaren 1ean, apezpiku espainiarrek gutun pastoral bat idatzi zuten, famatua, Francoren alde, honen altxamendua gurutzada gisa bedeinkatuz. Bik ez zuten sinatu: Mateo Mujika Gasteizko Apezpikuak eta Vidal i Barraquer kardinal katalanak. Biak kanporatu zituzten.

Kanbon bizi izan zen 10 urtez, 1937tik 1947 bitartean. Hantxe idatzi zuen bere testu famatua, sasoi hartako euskaldun askorentzat biblia txikia izan zena: *Imperativos de mi conciencia* (1945).

1947an gurutzatu zuen muga alde honetara, 77 urterekin eta itsu, eta Zarautzen jarri zen bizitzen. 1968an hil zen.

Ohorea eta harrotasuna nola ez zen bada izango Joxepa eta Hilario-
rentzat Don Mateoren etxeko izatea?

IKASLE AZKAR ETA BIHURRIA

Eskolako kideek aho batez diote Imanol oso azkarra zela, Muruatarren kasta oso azkarra zela. Batez ere matematika zaleak. Zaletasun hori ere aitarena omen da.

Zaletasun horrek, bidenabar esan, hiru belaunaldiko soka du: aita Hilario aurrena, semeak hurrena, eta hirugarren belaunaldian Ander Imanolen semea, matematiketan berezitua eta aditua.

Aurreneko ikasketak Txapel Handitan egin zituen Imanolek. Baina gero zeharo atzeratu zen mokorreko ebakuntza zela medio. Bera baino gazteagoekin jarri zuten hasieran; laster jarri omen zen bere adinekoen parean eta azkeneko bi urteetan zaharragoekin aritu zen ikasgelan.

Azken bi urteetan bi irakasle izan zituen, biak Hno. Inazio. Lehenengoarekin ikasi zituen matematikekin erraz egin omen zituen Donostiako ikasketak.

Beste Hno. Inazio, Inazio Olabeaga da, euskal idazlea, olerkaria. Ez zuen luze iraun, Zarauztik bidali egin zuten eta. Abertzalea zelako. Guraso batzuk kexatu egin omen ziren. Olabeaga etorri arteko giroa osoki zen erdalduna. Eta eguerdi eta arratsaldetan, eskola orduak amaitutakoan, ilaran jarri eta Azpeitia bidera irteten ziren. "Eskua altxa, 'Viva Franco, Arriba España' esan eta joaten ginen etxera edo jolastera". Giro hori biziki aldatu zen Olabeagarekin. Euskaraz hitz egiten zien honek eta astean behin euskarazko kantak irakasten zizkien eskolan. Iraultza.

Beste aldaketa bat ere ezarri zuen Olabeagak. Eskolak zeukan ikasketak mailaren kalitateaz harriturik edo harro, etorriberria baitzen eta ez nonbait maila hori espero, ikastaroaren amaieran jendaurreko azterketak jarri zituen. Imanol eta hauek izan ziren aurrenak, Parrokiako Aretoa jendez gainezka zegoela. Gero urtero egin ohi ziren Zinema Pilotalekuan, harik eta ikastetxetik bota zuten arte.

Pentsatzekoa da alderdi propagandistikoa ere izango zuela "exhibizio" honek, herriko beste eskolei begira.

OLABEAGAREN ERAGINA

Olabeagak Imanolen ikasketetan zerikusi zuzena du. Irakasle bezala, noski. Baina, batez ere, bere aholkuari esker gurasoek onartu zutelako Imanol Donostiara bidaltzea, ikasketak jarraitu ahal izateko.

Imanol da, izan ere, etxean ikasketak egin dituen bakarra. Etxean dirua behar, eta anaia zaharrago biak eskola amaitu bezain azkar hasi ziren lanera. Imanolek ere berdin egin beharko zuen Anaia Olabeagagatik izan ez balitz.

Jendaurreko azterketaz gainera, lehiaketa edo txapelketa sistema ere dexente erabili ohi zen Salletarren pedagogian, dirudienez. Gramatikakoa egiten zuten, kristau dotrinakoa ere bai. Beste ezaugarri bat buruzko kalkulatu azkarrarena izan daiteke: "cálculo mental rápido" deritzana. Egunero kalkuluak buruz egitea omen zen aurreneko gauza eskolan. Imanolek biziki gustukoa zuen. Buru azkartasun hori seinale omen da La Sallen ibilitakoen artean.

Eskolan bakarrik ez. Etxean ere ariketa beretan jarduten zuten anaiek ohetik ohera jo eta ke, zein baino zein. Hiru oheko gela handi batean lo egiten zuten hiru anaiek, eta kalkulu azkarreko ariketak, algebrako problemak eta dotrinako galde-erantzunak astintzen ibiltzen omen ziren hirurak, beti edo maiz.

Eta bihurrikeriak? Kolore xuabez kontatzen ditu Imanolek berak:

"Ni ikasle ona baina oso bihurria nintzen nonbait, eta hasieran, gelako bi gazteenak ginelako Fidel Eizagirre eta biok lehenengo mahaian jarri gintuzten. Baina gero bolada luzetan azkenengora bidaltzen ninduten, bakar-bakarrik, besteei latarik ez ematearren.

Eguerditan, gaur Villa Manuela den paretari begira ere, ordu mordoska gina naiz zigortuta gauza bat edo besteagatik.

Parrokiako koruko zuzendaria zen Don Fernando apaizak ere solfeoko klaseetatik eta tipleen korutik bidali egin ninduen, karrerarik ezin zuelako egin nirekin".

DONOSTIAN "ARTABURU"

14 urterekin hasi zen Imanol Donostiako Lanbide Heziketako Eskolan. Ikasketa horiei orduan "Maestría Industrial" esaten zitzaien. Orain Postetxea den horretan zegoen eskola hau.

Bost urteko iraupena zuten ikasketek. Bosgarren urtean estatus berezia izan zuen Imanolek, goizean ikasi eta arratsaldean lan egiten baitzuen, Derlan moto-lantokian gaueko 11ak arte.

Zarautz, Orio, Zumaia eta Aiatik 10 bat mutil gazte joaten ziren egunero Lanbide Heziketako eskola horretara. Beti euskaraz ari ziren, natural-natural, eta donostiarrek eta Irun aldekoek horregatik artaburu deitzen zieten, "los boronos". Zertan esanik ez da hango giroa guztiz erdalduna zela. Gurrutxaga bat ba omen zen, irakaslea, inoiz euskaraz hitz batzuk egin zizkiona, gogoratzen da Imanol.

Harrotasun-puntu eta guzti dio Imanolek artaburu izango zirela beraiek baina alor guztietan irabazten zietela moderno haiei: ikasketetan, atletismoan, futbolean, billarrean, ping-pong-ean, lehiaketetan, eta borrokan ere bai. Imanol orduan boxeoa aritzen zen.

KIROLETAN ERE "SALTSEROA"

"Txiki-txikitatik oso kirolzalea izan naiz.

Korrika eta futbola izan ziren nire lehenengo kirolak, baina Zarautzen garai hartan egiten ziren kirol gehienak probatu nituen. Herriko lehiaketa guztietan, lasterketetan hasieran, eta gerora federatua atletismo eta krossean.

Boxeoa, amaren baimenik gabe Cachi-Bachi elkarteko taldean. Futbola, lehenengo hondartzan eta gero C.D. Zarautz taldearekin erregional eta preferentean. Arraunean, traineriletan Zarauzko ontzian. Eta mutil kokorretan, udan golfean caddie nintzela.

Ordutik daukat golferako zaletasuna eta orduan ikasi nuena zeharo ez zait ahaztu oraindik.

Ikusten den bezala, kiroletan ere nahiko saltseroa izan naiz, eta ezertan ona izan ez banaiz ere tartean ibiltzen nintzen" (1990).

Horra Imanolek berak laburbilduta bere kirol kurrikuluma.

Kolore pixka bat emate aldera, badago zer erantsirik edo osaturik. Seinalagarri da egin dituen kirolen zerrenda luzea, garai haietan kokatu behar baita kirol aukera, baina bada ohartzekoa den puntu bat, ez duela egin pilotarik. Osaba Pedro pilotan ona zuen. Baina badirudi Murua-Arregitarren artean pilotak ez duela tiradarik izan.

Aipa ditzagun Imanolen kirol faboritoak banan-banan:

HONDARTZAKO FUTBOLA

Zarautzen tradizio handia du hondartzako futbolak. Urte haietan Donostiakoa baino ezagunagoa omen zen. Berak Donostian ere jokatu izan du, Kiriki eta biak zarautzarrak, Lanbide Heziketa egiten ari zenean. Zarauzko hondartzan, ("kosta" zarauztarrentzat) La Salleko ekipoa, Aillepuntas jokatu zuen, Antoniotarrekin beti borrokan. Baina La Salleko ikasketak burutu zituenean bietako onenak bildu eta "Naiko Lan" ekipoa osatu zuen. Hurrengo urteetan txapelketa mordera irabazi omen zuten.

Elkarlan honetan ikusten dute batzuek jada Imanolen izaera bateratzailea, helburu baten alde indarrak biltzekoa, gero bere bizitza publikoan haren ezaugarrietako bat izan dena.

FUTBOLA CLUB DEPORTIVON

Bi aldi izan ditu jokalaria bezala. Lehen aldiz hamazazpi urterekin fitxatu zuen C.D. Zarautzen, eta hogeirekin laga, Lanbide Eskolan irakasle hasi zenean, ez baitzuen entrenatzeko astirik.

Pare bat urte geroago berriz ekin zion futbolari bi edo hiru urtetan. Bigarren erregionalean jokatu zuen hasieran, baina berehala pasatu zen preferentera edo erregionaleko lehen mailara. Jose Anjel Iribar atezain mitikoak Imanol ezagutu Zarauzko ekipoan jokatzen zuenean ezagutu zuen, eta inpresio ona du:

“Nik izan nuen lehenengo inpresioa eta daukadan oroitzapen garbia da Zarauzko Club Deportivon jokatzen zueneko: jokalaria azkarra zen, ibilbide gutxikoa baina metro azkarrak egiten zituen eta karakter handiko jokalaria; sentitua eta ematen zuen inpresioa zen zeukan guztia ematen zuela”.

Gaztetan gehien gustatzen zitzaion kirola futbola zela aitortu du Imanolek. Gero, badakigu: golfa.

BOXEOA

Urte pare batean jardun zuen, 14-15 urterekin. Donostian eskolan hasi eta urtebetera-edo utzi egin zuen. Lauzpabost jendaurreko borroka egin zituen guztira: San Pelaion, Munoan, Orion, Zumaian. Horiek, nolabait esan, borroka “ofizialak” dira, Cachi-Bachi elkartearekin. Aparte uztekoak dira koadrilen arteko desafioak eta erronkak, Raspatarren aurka-eta.

Gertatu zen Zarautzen 1940-50 urte mugaren bueltan modan jarri zuela boxeoa Cachi-Bachi elkarteak. Estatu mailako sona lortu zuen elkarteak eta boxeolari mordoska sortu zen bolada hartan elkartearen babesean, Espainiako txapeldun bat ere atera zuen. Jendaurreko jaialdiak antolatu ohi zituen Cachi-Bachik eta hor parte hartzen zuten Imanolek-eta. Telenoeroak ziren.

ATLETISMOA

Herrietako festetan nonahi egiten ziren krossak urte haietan. Zalea zen parte hartzen Imanol, aita izan zen bezala. Konpetizioetan ere parte hartzen zuen, federatu bezala, Zarautzen, inguruko herrietan eta Donostian.

Punta-puntakoa ez zen igoal, baina aurrealdean ibili ohi zen. Antonio Goi-koetxea izaten zuen aurretik. Hirugarren batek lana txukun eginez gero, beraiantzat izaten omen zen ekipoetako saria. 1.500-5.000 metro tarteko distantzietan moldatzen zen ondo. 17-18 urterekin laga zuen atletismoa, futboleantzen behar zuelako.

ARRAUNA

Abuztuko Amabirjinetan Zarauzko Udalak antolatzen zituen trainerila estropadak ospetuak ziren. Kantauriko onenak etorri ohi ziren.

1952 urtea izango zen, Imanolek 17 urte zituela, Zarautzen hiru trainerila aurkeztu zirenekoa. Cachi-Bachik bat eta C.D. Zarautzek bi, A eta B.

Bi elkarteen arteko lehia izugarria zen urte horietan. Imanolek-eta biekin parte hartzen zuten: Klubarekin futbola eta Cachi-Bachirekin boxeoa eta atletismoa.

Urte horretan, C.D. Zarautzek gazteek osaturiko trainerila ateratzea erabaki zuen. Klubeko B taldea ziren, ez txarrak zirelako, gazteak zirelako baizik. Esatea komeni omen da. Alvaro Azpeitia eta Imanol ziren buru. Itsasoan ibiltzen ohituta zeuden, bazekiten zer zen arraunean egitea, txibitan ibilita. Alvaro, gainera, soldadutzan zegoela, Hondarribiako traineruarekin lehiatu zen. Alvaro izendatu zuten patroia Zarauzko tripulazioan.

Zazpi atera ziren eta hiru iritsi. Hiru txiki. Zer gertatu zen? Sekulako galerna atera omen zuen, Orioko taldea eta horiek ere elkarrengandik 5 minutura-eta sartu omen ziren. Denboraleak dena hondatu zuen. Baina B talde iritsi egin zen. Alvaro Azpeitia patroia zen eta ikusten zuen ura sartu eta sartu ari zela traineruan, eta pisuarekin hondoratu egingo zela; eta aginduak ematen hasi zen: hi salto uretara bati, hi salto uretara besteari, karga arintzearen bere burua uretara botatzeko aginduz. Bi arraunlari eta bera iritsi ziren helmugara, hiru bakarrik, hiru txiki, Imanol tartean. Ez omen zuen barnean utzi txikia zelako, baizik eta arraunean ondo moldatzen zelako, dio Alvarok.

Balentria handia izan omen zen Klubaren B taldekoen estropada.

Urte batzuetara, 1960an, beste saio bat egin zuten, koadrilakoek bere kasa antolatuta. Beste talderik ez zegoela Zarautzen eta atera egin behar

zutela. Herriaren izenean. Urte osoko saioa izan zen oraingoa, irailean hasi eta liga bukatu artekoa. Gogoz hartu zuten eta gogor entrenatu: goizetan bostetan jaiki eta Santa Barbarara, eta ilunabarrean itsasora eta, neguan, Orioko ibaira entrenatzera. Sarasuaren laguntza izan zuten. Patroia Alvaro berriro ere eta Imanol “komodin”. Irakasle lanetan oso lanpetua zebilen eta ez zuen beti astirik entrenatzeko, baina norbaitek huts egiten bazuen Alvarok norengana jo bazekien, eta Imanol beti prest.

Oso luze egin zitzairen, baina bukatu zuten tenporada, lan txukuna eginez. Herriaren izena maila onean utzi omen zuten. Eta ez bakarrik paper ona egin. Atera zuten diruarekin trainerila berria eta arraun tresnak erosi eta gerokoentzat laga zituzten, azpimarratzen du Alvarok.

Jesus Mari AKIZU

Diputazioko kidea

- Imanol gizon garbia izan da beti eta orduan ere garbia izan zen. Erabaki batek, nahiz eta zuzena izan, arriskua bazuen, ez zuen egiten nahiz eta legezkoa izan.
- Susmoa hartzen bazuen erabaki batek eskandalua ekar zezakeela, ez zuen hartzen. Imanolek erabakia legezkoa eta gainera diskusiorik edukiko ez zuena izatea behar zuen; posibilitate hauek denak ikusten zituen.
- Imanolek horrela jokatzeko zuten: “ez zaidak iruditzen hau zuzena denik, legezkoa izango duk baina honek eskandalua ekar zezakek”.
- Nik ezagutu dudan Imanol gizon justua da, langilea, jenio txarrekoa baina pospoloaren modukoa. Gutxitan ikusten den bezalako gizona, buru onekoa.
- Imanol zuzena da. Zuzena ez bakarrik ekintzan, gero haren ondorioei begiratuta ere bai. Imanolek begiratu egiten du bere jokabideek gero zer ekar dezaketen, eta hori ez dute pertsona askok egiten.

CADDIE-EN TXAPELKETA

Kirolen artean sartu behar al da caddie izatea? Ez, noski. Afizio baino gehiago "ofizioa" ote zen, dirua irabaztera joaten baitziren hara mutil koskorrak. Oporretako lana. Imanolen etxeko anaia guztiak pasatu ziren ofizio horretatik, dio berak: "etxerako oso lagungarri zen dirua irabazten nuen". Itzuli bat 3 pezeta ordaintzen zuten; eta bi buelta, 5 pezeta.

Hamar urtetik hamairu urte bitartean izan zen caddie eta, aurretik, zazpi urterekin hasita, tenisan pilota-biltzaile, Kepa anaiaren pausoak jarraituz.

Uda bukaera aldera caddien txapelketa antolatu ohi zen golfean. Hasi-berri edo bigarren mailako caddien txapelketa irabazi zuen aurrena eta lehen mailako caddien bi txapelketa ere bai azken urteetan.

IFNIKO GERRA: BERANDU IRITSITA LIBRATU

Imanol eta Pako Urkia 56ko kintoak dira. Loiolan egin zuten soldadutza. 1957an, baimenarekin zeudela, kuartelean aurkezteko abisua jaso zuten. Urgente. Abisuak ez zuen esaten zertarako. Baina zeharbidetik enteratu zen Imanol: Ifniko gerrarako deitzen zituztela! Berehala zabaldu zen berria Zarautzen: herriko bi mutil frontera zihoazela! J.A. Iribar gogoratzten da zer-nolako zirrara egin zuen horrek familietan, kontuan izan behar baita Francoren gerra eta Mundu Gerra ez zirela horren aspaldikoak.

Imanolek abisatu zion Pakori. Taktikaren bat asmatu beharko zutela pentsatu zuten. Eta halaxe erabaki ere: ahalik eta beranduen joan. Ordubietako trena pasatzen utzi, lauretako pasatzen utzi. Seiretako hartu zuten. "Estaziora agurtzera Imanolen koadrila osoa, nire lagun denak etorri ziren. Izeba-osabek dirua eman ziguten... Eta gu han egurrezko maleta haiekin gerrarako bidean. Izugarria zen", komentatzen du Pakok.

Donostiako geltokira iritsi zirenean han zegoen Frai Bitor, Imanolen ikastetxeko nagusia. Harengana joana zen Imanol eguerdian Ifnirako deitu zutela esateko, eta Frai Bitor Donostiara etorria zen libratzeko modurik egiten ote zuen gestioak egitera. Ahaleginak egin zituela, baina ez zegoela zer eginik esan zien Frai Bitorrek.

Behin Donostian erabaki zuten zuzenean Loiolara ez joatea, kontrakoa baizik. Amarako Bar Beniton petateak laga eta basoerdiak hartzen gelditu ziren. Erdi kargatuta bukatu omen zuten. Kamioiak tropekin Norteko estaziora bidean pasatzen ikusten zituzten, eta beraiek denbora galtzen Amaran. Soldaduekin trena atera zela jakin zutenean, orduan hartu zuten Loiolako autobusa.

Kuartela ilun-iluna zegoen eta animarik ez zen ageri. Konpainiara eraman eta lista pasatu zieten. Honela gogoratzen du Imanolek amaiera zoriontsua: "Izen-abizena hartu ziguten, eta hurrengo egunean aurkezteko esanda etxera bidali gintuzten. Berandu joan ginelako libratu ginen. Baimena kendu ziguten eta Donostian gutxi gelditu ginenez, zerbitzu asko egitea suertatu zitzaigun denboraldi hartan. Hala ere, Ifnin baino hobeto egon ginen. Joan zirenek oso gaizki pasatu zuten eta gure konpainiatik hiru hil ziren".

1954-1974

GAZTE-GAZTETAN IRAKASLE, ETA 27 URTEZ

Soldadu jantzita ezagutu du Jose Anjel Iribarrek Imanol eskola ematen. Donostian zegoen soldadu eta arratsaldeak libratzen zituen. Zerbitzuren bat zuenean, zarauztar bati, Domingori, ordezkapena egin ziezaion dirua ematen zion eta eskolara etortzen zen bera. Behin, lista pasatu zutelarik, agerian gelditu zen ez zegoela kuartelean. Hurrengo egunean, iristearekin batera ilea moztu zioten eta kalabozora. Baina horiek soldaduzkako istorioak dira. Kintoen istorioak.

Eskola ematen hasi soldadutzara joan aurretik hasi zen, Donostiako ikasketak bukatzearekin batera. 1954ko uda hartan Zarauzko Lanbide Eskolan matematikako eskolak eman zizkien irailean azterketa zutenei. Eta urte bereko ikasturtearekin batera hasi zen bera ere, 19 urterekin.

Aurretiaz fitxatua omen zuen Frai Bitorrek, Zarauzko Lanbide Eskolako sortzaile, bultzatzaile eta aurreneko zuzendariak. Honen eraginez seguruenik, beste inork ez bezala egin ahal izan zuen ikasketetako azken urtea: goizean ikasi eta arratsaldean lan.

Lanbide Eskolari buruzko liburuan orrialde pare bat idatzi du Imanol semeak Bitor Gorrotxategiri buruz. Frai Bitorri buruzko biografia llabur bezala balio du, egoki seinalatzen baititu pertsonaiaren ildo nagusiak: Bitor Gorrotxategi zegamarra soldadutza egin ostean, eta Errepublika garaian Jakako erreboltan parte hartu ondoren sartu zen fraide. Harreman mundu zabala zuen, Madrilen eroso mugitu ohi zen, harro-harro esan ohi zuen Francok diploma eman ziola. Egia da, egia denez, Zarauzko Lanbide

Eskola berari zor zaiola. "Mende erdi bat Lanbide Eskolaren zerbitzuan", dio Imanolek.

Andoni Egañaren "Pausoa noiz luzatu" nobelako pertsonaia zentrala da Bitor Gorrotxategi, beste izen batekin bada ere.

Eskola berea ez zenik ez omen zuen pentsatzen Imanolek. Oraingo Lanbide Eskola orduko "Escuela Profesional Obrera" zen, EPO. Eskola izan zen, bai, Imanolen droga: EPOz lepo, hitz jokoak balio balu. Eskolara guztiz emana bizi izan zen. Agustín Biain zuzendari izanak dio eskolako benetako zutabea zela Imanol.

Lanbide Heziketako lehenengo eraikuntza (EPO I) 1946ko apirilean inauguratu zen eta zortzi urte beranduago, 1954an, hasi zen Imanol irakaskuntzan, Jaime Legorburu irakasle kide zuela, bizpahiru fraide eta 30 bat ikasle zituztela. Eskolak garapen handia izan zuen eta 1958an EPO II deitu zen eraikuntza inauguratu zen. Hura martxan jarri zenean, nahiz eta pentsatu betirako nahikoa izango zela, hura ere txikiegi geratu zen berehala eta 1965ean EPO III inauguratu zen, makineria eder eta tresneria berriarekin. Urte hauetan denetan Imanol buru-belarri jardun zen, orduari begiratu gabe. Garapen hura dena Frai Bitorrekin lehenbizi (1944-61), Antonio Sorarrain eta Iruretagoienarekin bigarren fase batean, zazpi urtez, Benito Arregirekin bi urtez eta Agustín Biainekin denbora luzean (1970-87) gerora gauzatu zen.

Ofizialia bakarrik, mekanika hasieran, gero elektrizitatea ere bai, J. J. Markaide irakasle zela, preaprendizaje eta maestria, gaueko eskolak eta ikastaroak ere bai, urte batzuetan ez zuen denborarik izan beste ezertan jarduteko, eskolan sartzeko baitzituen egunak eta iluntzeak, eguneko ordu guztiak. Gainera, hasieran maestria egiten zuten ikasleentzako kanpotik lana bilatu behar zen eta horren ardua eta antolaketa ere Imanolena zen. Ikasleak gero eta gehiago, irakasleak ere bai, baina garai hura ezagutu zuenak badaki garapen haren zutabe garrantzitsuenetakoa Imanol zela.

Esan bezala, EPO III 1965ean inauguratu zen eta geroztik ere Zarauzko Lanbide Heziketa Eskola goraka joan da ikasle eta irakasle kopuru aldetik, baliabide aldetik, eta irakaskuntzaren kalitatearen aldetik ere bai. 1991n, Diputazioko ibilaldia amaitu eta gero Eskolara itzuli zenean, Imanolek izugarritzeko poza hartu zuen Lanbide Heziketako Eskolaren martxa ikusita eta enpresaburuen artean zeukan izen ona frogatu zuenean. Auke-

ra paregabea izan zuen horretarako lau urtez ibili baitzen enpresekin harremanetan eta eskolaren 50. urteurrena antolatzen.

Lanbide Heziketako ibilbidea kontatzerakoan ezin dira albo batera utzi Liebanako topaketak, Imanolen ustetan. 1977an Liebanako Santo Toribio Monasterioan Antoniotar Ikastetxeetako eta Lanbide Heziketako irakasleen arteko topaketak egin ziren. Han ezarri ziren —dio Imanolek— hurrengo urteetan Antonianako Ikastetxeak landu behar zituen helburuak eta eman behar zituen urratsak, idearioa, eraketa, gurasoekin elkarlanerako bideak eta elebitasunaren oinarriak.

Topaketa haiei Imanolek sekulako garrantzia ematen die. Lau egun bakarrik izan ziren, 1977ko irailaren 4tik 8ra, baina oso aberatsak eta opa-roak izan omen ziren, eztabaida biziz eta erabaki garrantzitsuz bete-beteak. Zenbait aldaketaren artean, ordukoa da elebitasunarena. Ikasturte hartantxe hasi ziren eskolak euskaraz ematen, euskara zekiten irakasleek bazekiten ikasleei. Imanolek matematika eta teknologia ematen zituen euskaraz. Ikasmaterialik gabe, eta ahal zuen moduan, bere Zarauzko euskararekin.

IRAKASLE ERAGINKORRA

Irakasle gogorraren fama zuen Imanolek. Gogorra eskolan, ez bestela. Andu Lertxundik Imanol irakaslearen orroak Santa Barbaratik entzun zituen, baina geroxeago sekulako errieta bota dion ikaslearekin Cipri tabernan ikusi zuen basoerdia hartzen.

Gogortasun hori garai hartako pedagogiari zegokiona ere bazen.

Manolo Aranguren Imanolekin batera irakasle izan da eskola berean luzaro. Baina irakasle izan zuen aurrena. Imanolen orroetara ohitu omen zen, baina sekula ez arbela ukabilez jotzen zuenekora.

Maisu onaren oroitzapenarekin gelditu da Iribar:

“Nik maisu ontzat daukat Imanol. Maisu batzuk baziren oso edukatuak, orrorik-eta botatzen ez zutenak baina ezer ematen ez zutenak pertsonalki. Imanolek, berriz, nik kirolean ikusi nion hori, seriotasun bat zuen, klaseak emateko orduan ere karakter bat eramaten zuen; erakutsi nahi bat. Nik gelan baino gehiago ikusten nuen orroen-eta kontu hori tailerrean; klaseetan kontrolatua goa zen, naturalagoa ere bai”.

Bazuen Imanolek zigor bat famatua: kubo. La Salletik inportatu omen zuen Imanolek han beraiei jartzen zieten zigorra.

Zer den kubo? Manolo Arangurennek badaki: 20 digituko zenbaki bat bidertu beste halako zenbaki batekin eta emaitza berdin. Azkenerako zenbaki mozkorra, egunkariko orrialde baten tamaina hartzen omen zuen.

Irakasle gogorra, zorrotza, erantzukizun handikoa, exigjentea?

Agustin Biainek esango du Imanol irakasle bezala gogorra baino gehiago exigjentea zela. Exigjentea eta efikaza: eskolako inor gutxi gelditzen zen atzera errebalidan. Horra frog, dio Biainek.

“Nik asko ikasi nuen”, aitortzen du hasteko Manolo Arangurennek. Eta beste askoren lekukotasuna ere badu: denak gogoratzen omen dira Imanolez, eta onerako gogoratu ere: “bere ikasle izandakoek esaten dute: hori letxea zuena, baina nik ere zerbait behar nuen, bestela auskalo zer irten-go nintzen, ez nuen bukatuko bukatu nuen bezala”.

Imanolek berak bere jardunbide pedagogikoa hirutan banatzen du: lehenengo aldiari exigjentezia omen zen. Diziiplina iruditzen zitzaion inportanteena. Ikasleak, lehen urteetan, ia bere adinekoak ere bazirela eta eskola barruan distantzia gordetzen ahalegindu zela, dio berak. Eta horretarako zigorrak baliagarriak zirela uste zuen. “Hamalau-hamazazpi urte zituzten mutikoen eta beraiekin pasatzen nituen igande arratsaldean lau ordu, astebarruan ikasi ez zutena igandean egin zezaten”. Bigarren aldiari, “matematikekin itsutu nintzen. Matematikak edozertarako oinarri zirela iruditzen zitzaidan. Oraindik gogoratzen didaten zigorra, kubo da. Bukaezina zen. Gero konturatu nintzen batzuek ezin zutela hori burutu”. Eta hirugarren fasea, beteranoarena da: “nik jokatu nuen bezala jokatzeko ikusten nituen irakasle gazteak eta bigunagoak izateko gomendatzen nien, nire akats berak egin ez zitzaizkien”.

Gai gehienak eman zituen 27 urtetan: matematika, fisika, teknologia, marrazkia, antolakuntza, tailerra. Erljioa, hizkuntza eta “Formación del Espiritu Nacional” famatua kenduta, asignatura guztiak.

PROPAGANDISTA BAILITZAN

Lanbide Eskolari dedikazio osoa emateaz gainera, lanbide heziketaz arduratuta bizi izan da Imanol. Lanbide heziketa, gauza jakina da, hezkuntza

sisteman adar marjinatu eta pobrea izan da urtetan. Ikasteko balio ez dutenen aparkalekua. Propagandista bailitzan, gurasoak eta enpresaburuak lanbide heziketaren garrantziaz sentsibilizatzen saiatu izan da. Aukera on bat dela alegia, eta ez porrot egindakoen kanposantua.

Gaur ez da berdin. Lanbide heziketak gaur daukan estatus eta onarpen soziokulturalarekin pozik agertu zen omenaldikoan.

Estrella Intxausti kazetariak aitortzen du Imanoli esker deskubritu zuela berak Lanbide Heziketa. Aurreratu egin zela Imanol. Kazetari jendea ere ez zegoela prestatuta Gipuzkoako etorkizun ekonomikoan Lanbide Heziketak zuen garrantziaz jabetzeko. Eta historiak arrazoi eman diola Imanoli.

SUKALDE BERRIKO SUKALDARIEN MAISU

Karlos Arguiñanori entzun egin behar zaio kontatzen nola gelditu zen zur eta lur Imanolen klasetako builak entzunda. 18 urterekin Beasaindik etorrita, “yo que venía de lo salvaje”, beneditarrekin 6 urtetan ikasia.

Imanolek, izan ere, eskola ematen zuen Euromarren kokatua zegoen Hostalaritza Eskolan. Hau ere lanbide eskola zen.

Eguerditan joaten zen Imanol eskola ematera, libre zegoen une bakarrean. Hiruzpalau urte iraun zuen eskola honek, harik eta Euomar altxatu zuen Barandiaranek porrot egin zuen arte.

Luis Irizar zen zuzendaria eta sukaldaritzako maisua. Hau joatean Oscar Elizalde sartu zen, orain Iberiako pilotua.

Promozio horretan izen ezagunak bildu ziren Zarautzen: Pedro Subijana, Ramon Roteta, Jose Ramon Elizondo eta Karlos Arguiñano, besteak beste. Matematika irakasten zien Imanolek. “Cálculo mental” eginarazten ziela kontatzen du Arguiñanok. Imanol azkarra izan, eta berehala ohartu omen zen, dio Karlosek, ikasle talde kaxkar xamarra zeukala aurrean. Zein joaten zen bada orduan ostalaritza egitera?: “garai hartan behintzat todos los rebotados de todas las escuelas, estudiante txarrak, oso txarrak eta sukaldari izan nahi zutenak zerbait esateagatik”. Pedro Subijana salbuespena omen zen: batxilergoa frantsesez eginda etorri zen Zarautza.

Eta segitzen du Arguiñanok Imanolen burutik zer pasatu zen kontatzen: “hauek kamareroak izango dituk eta hauek kalkuloak egin beharko ditiate: un cortado, cuatro cuba libres, tres tostadas, dos rosquillas, una de percebes y una de calamares. ¿Eso cuánto vale? Claro a los tontos les cuesta una hostia calcular todo eso. Eta gu tontoak bezala geundean. Eta orduan ahaztu zuan beste gauza guztiekin eta ordu osoa pasatzen genian jo eta ke horrekin, 15-25-32-40... eta arrazoa zian tipoak. Dena buruz zeren eta hauek ez zakitek ezer apuntatzen, ez zakitek ezer ateratzen, problema puta bat ez ditek ateratzen, bada hauei erakutsi beharko zieat...” Honaino Karlos Arguiñanoren bertsioa edo leienda.

Eta segidakoa Imanolen bertsioa da:

Ostalaritzako Eskola Lanbide Heziketako eskola zenez, matematikako programan, algebra, trigonometria, logaritmoak-eta sartzen ziren. Imanolek pentsatu zuen sukaldaritzarako alferrik zirela, eta programa aldatuz

berri bat moldatu zuen haientzat, baliagarriago izango zituzten gaiak irakasten saiatuz. Hala nola, “cálculo mental rápido”, kontabilitatea, “mezclas y aleaciones”, “regla de interés”, eta beste.

“Gero —kontatzen du Imanolek— ekitaldiren batean elkar ikusi genuenean esan nien: ‘Trakatsi nizuen hartatik batuketa eta biderkaketa bakarrik ikasi duzue zuek. Besterik ez zitzaizuen interesatzen’”.

ANTONIANA GAZTERIA ELKARTEAN

Antoniana ikastetxea frantziskotarrek Zarautzen duten eskola da. Eskola-tik aparteko ekintzetarako sortuko zen Gazteriaren elkarte, Antoniana izenekoa. Mota honetako elkarte edo bilguneak ohikoak ziren.

Parrokiek, bestalde, berea eduki ohi zuten, gazteria bildu eta kristautasunean hezteko.

Inor ez zen harrituko Imanol Antoniana Gazterian ikusita. Bera ez zen fraideetakoa, La Sallekoa baizik. Horra bestea: hori ere bazen zerbait urte haietan. Ikastetxearen arabera eratzen ziren lagunarteak eta hondartzako futbol ekipoak. Eta fobiak eta filiak. La Sallekoa izanik ere, orain fraideen Lanbide Eskolan zebilenez, normaltzat jo zitekeen Antonianako kide izatea.

Juntakoa 1958-1961 bitartean da, 1959 geroztik lehendakaria. Hemen hasten da, berak dioenez, Imanolen "saltsero karrera", Juan Jose Markaide aldamenean duela. Hau ere Lanbide Eskolako irakaslea zen. Bata lehendakari eta bestea lehendakariorde, bai hemen eta bai Guraso Elkartearen. Ikastolako Juntara ere elkarrekin egin zuten bidea.

Hortik aurrera bat bitan banatzen da, Euskal Herrian hainbat aldiz gertatu den bezala, batez ere politika tartean sartzen denean. Kasu honetan bezala, noski. Imanol PNVrekin lerratu zen eta Markaide ESBrekin eta geroztik HBrekin. Ez bata kabitzen zen ehuneko ehun batean eta ez bestea berean. Lehen harrituak beraiek izan ziren beren buruak bi frontetan ikusi zituztenean.

EKINTZA BATERATUAK

Baina ez gaude banaketaren fasean, baizik eta Antoniotarren elkartearen. Frankismoa puri-purian dago, lan politikoa urruti dago artean, Kontzilioa ere bai, berrikuntza ideologikoak ez dira zeruertzean sumatu ere egiten. Markaide ondo gogoratzen da zeintzuk ziren elkartearen orduko ekintza ohikoenak: zineforumak, hitzaldiak, gogojardunak edo ezkondu aurreko konferentziak. Gauza bera Antonianotarren elkarteak eta Parrokiako Gazteriak, luistarrak, ekitaldi berberak.

Gazteria bakarra zenez, zergatik eta zertarako bi erakunde?, galdezka hasi ziren. Parrokiaren eta fraideen arteko garai bateko haserre biziak

Francisco LOPEZ DE LANDATXE

Diputazioko langilea

- Hastear genbiltzan, dena egiteko zegoen. Orduan kasualitatez Imanol Muruarekin topo egin genuen. Imanol oso gizon ziurra da; zerbait argi eta garbi ikusten duenean gauzatu egingo du eta orduan ez du denbora galduko.
- Gurekiko oso harreman zuzena zuen, agian oraindik norberaren zereginak finkatu gabe zeudelako. Sarean eta hierarkia pixka bat galduta lan egitea Imanolekin ezagutu genuen. Agian orain lan egiteko modan jartzen ari den era, ezta?
- Ardurak banatzeko garaian oso zuhurra zen; bazekien. Norberaren balioak harrapatzeko oso abilezia handia zeukan.
- Imanolen lan egiteko era oso irekia zen. Ondorio zuzenak edo bere ideiak garbi zituenean, atera arte ez zen gelditzen.
- Politikari ona zen, baina besteekiko mesfidantza gutxiago zuela uste dut. Hori da orain pentsatzen dudana; zenbait momentutan oso egoera tristean edo larrian ikusi izan genuen: zerbait garbi ikusten zuenean bere jarrera mantentzen zuen eta zenbaitetan aldrebeskeriaren bat gertatzen zenean... (*Autobidea*) Nik bakarrik esango dizut inoiz ez niola horrelako begiradarik ikusi; amil-degi batetik erortzera zihoala zirudien eta tristura handia eman zidan. Inoiz ez dut politikari bat horrela ikusi.
- Kulturarekiko sentsibiltate izugarria zuen, eta ez sentsibiltatea bakarrik; garrantzia alor bati edo besteari eman diezaiokezu gehiago edo gutxiago baina nik uste dut segituan egin zuela halako taxonomia-edo... Gauzak kokatzeko eta epaitzeko ahalmen naturala zeukan.
- Gaitasuna bazuen jendearekin lan egiteko, proiektuak aurrera eramateko balioa... Irakurtzen bazekien eta hori batzuetan kulturaren ez da batere erraza.

- Asko entzuten zuen. Konfiantza bazuen gudan; guregandik ateratako guztiak errespetatzen zituen, galderak eginez noski. Aurreiritzirik gabekoa zen eta hori ona da: aurreiritzirik ez denean eraikitzeke ahalmena bada, eta hori berak bazuen.
- Ekipo lanerako ona, oso ona zen. Gauza zen matematiketan aritzeko. Orduan ez zen ekonomistarik eta kalkuluak berak egiten zizkigun. Zenbaitetan gure lanean sartzen zen, baina ona zelako eta denbora aurreratzeko. Norberaren ahalmenak mahai gainean jartzen ziren, eta berak teknikari gaitasuna ere bazuen. Orduan horretaz baliatzen ginen. Lan egiteko era iraultzailea zen.

baretuago zeuden orain. Parrokiako ekipoa guztiz aldatuta zegoen, eta frantziskotarren etxean ere aldatu ziren kontuak. Bi erakunde zeuden, hortaz, baina “Imanolek egin zizkian elkartu biak eta harrezkero lana elkarrekin eta batera egiten genian”, dio Markaidek.

Imanolek Antonio Sorarrain zuen nagusi eta honen babesa zuen. Beste aldean Fidel Eizagirre zen Parrokiako Gazteriaren lehendakari aukeratu berria, eta Imanolen ikaskidea La Sallen. Eta, honen atzetik, Ramon Aginaga apaiza batasun bideak bultzatzeko prest.

Programak eta ekintzak bateratu zituzten, eta ez da gutxi. Baina arrakasta handiena elkarrekin egin zuten gurutze-bideak izan zuen, Parrokiatik Vista Alegre aldera. Elkarrekin egiteak sekulako ilusioa sortu zuen. 500 mutil bildu ziren. Neskentzako beste bat antolatu beharra egon zen, fraideetatik abiatu eta kostan barrena. Zazpi-zortzi urtetan segitu zuen ospakizun honek. 1968 arte.

1968an jartzen du Ramon Aginagak marra bereizlea, gizarte giroaren aldaketa. Zer dela eta? Ordukoa da Parisko 68ko maiatza, Kontzilioa, Pardines guardia zibilaren eta Txabi Etxebarrietaren hilketak.

Garai hartako gazte askok gogoratzen du ostiral santuko gurutze-bidea, eta ekipo berriaren lorpenzat daukate.

"AMORIUAK BIHOTZA BETI ZUREGANA"

"Soldadutzara joan aurretik, 1956an, andregaiia egin eta elkarrekin irteten hasi ginen. Maritxuren atzetik denboraldi luze samar batean ibili ondoren, baietza lortu nuen eta geroztik elkarrekin izan gara", dio Imanolek.

Eta elkarrekin lau seme alaba izan dituzte: Ane, Ander, Imanol eta Itziar.

Zarauzko neskarik politena eraman huen!, diotsa koadrilako batek. Baietza nola lortu zuen?

Leienda izango da baina berdin dio. "Se non è vero, è ben trovato". "Askotan kontatzen dut koadrilan bromatan, dio Imanolek. Bilintxen bertso batzuekin deklaratu nintzela Getariako bidean paseatzen ari ginela, eta Maritxu hankaz gora erori zela. Hori esaten dut baina ez da egia, edo, behintzat, ez dut uste hala zenik".

Gezurra ala egia, bost axola. Kontua da orain ere buruz dakizkiela Bilintxen bertso horiek:

"Amoriuak bihotza beti zuregana darama,/ herri guztian zuk zeuk daukazu neska lirainaren fama./ Beste fortunik mundu honetan ez dut desio nik, dama,/ haur batek berak izan gaitzala ni aita eta zu ama".

DAMA BETI ONDOAN

Topikoa da baina egia ere bai: gizon handi baten ondoan emazte handi bat egon ohi dela. Gizarte tradizionalan bai bederen. Maritxu zalantzarik gabe horietakoa da.

Askok aipatzen dute Maritxuren egokitasuna, baretasuna, oreka, maitasuna, ezker eskua Imanol eramateko orduan. "Diskrezioaren izenordeetako bat", deitzen dio Nerea Azurmendik.

"Imanolen baltsamoa Maritxu da —dio Don Ramonek—. Maritxuk du halakoxe ekilibrio, oreka bat. Maritxu oso emakume ona da, argia, karakter aldetik Imanol eramaten jakin duena, enamoratu, biak elkar maiteak... Imanolek berak aitortzen du hori: Maritxu izan duk dena, dena. Imanol eta Maritxu biak dira oso elkar maiteak beti".

"Nik pentsatzen diat Imanol pertsona, gizon oso on bat dela, oso zuzena dela —azpimarratzen du Xabier Letek—. Bera eta Maritxu bikote eredugarria dituk tratuan elkarrekin eta... Imanol, nahiz eta zakarra izan

gizartean eta jendearekin batzuetan, zeinen goxoa eta xuabea den Maritxurekin! Eta Maritxuk zenbat lagundu dion Imanoli askotan aitortzen dik berak. Parrandero xamarra ere bazuan, eta hori Maritxuri ez zitzaioan asko gustatzen. Imanolek ere badik meritua, birtutea, zeren bera konturatzen baitzen nolakoa zen: zer temperamentu zuen, batzutan pasa egiten zela ere bai; baina Maritxuri amore emateko umiltasun edo argitasun hori bazian. Maritxu emakume zuzena duk eta askotan esaten dik Imanolek: ‘Maritxuk eskerrak esaten didan eta Maritxuk eskerrak eramaten nauen eta Maritxuk... bestela ni galduko nindukek’”.

“Bere itxura izan liteke zakarra batzuetan baina gizon ona da; nik asko estimatzen dut Imanol –dio Ramon Labaienek.

Gero Imanolek dauka Maritxu eta hori laguntza handia izan da bere-tzat. Suposatzen dut noizean behin astintzen duela, eta beno, horrek santifikatzen du Imanolen irudia. Maritxu pisuzko emakumea da, neska polita... Nik uste Imanolengan bai etikaz eta bai estetikaz pisu handia izan duela Maritxuk. Aizu, euskal tradizioan beti etxekoandrea holakoa izan da hemen”.

GURASO ELKARTEAN (1967-1972)

1961ean ezkondu zen. Antoniotarren Gazteriko Elkarteak laga egin behar izan zuen. Eskolan galtza bete lan bazuen eta beste lanik ez zuen hartu kanpoan. 1963an hain zuzen ere Guraso Elkartearen sartzeko gonbita egin zioten, baina ez zen sartu, lanpeturik baitzebilen eskolak eman eta eman eta, gainera, Eskolako kudeaketan.

Baina 1967an Guraso Elkartearen ikusten dugu. Lau urte egin zituen bertan, azken biak, 1969-71, lehendakari gisa. Ikastolako lehendakaritza hartzeko uzten du hemengoa.

“Guraso Elkartearen ere ordura arte ez zegoen mugimendua hasi ginen gu sortzen”, dio Markaidek, elkartearen eman zioten astindua gogoratzuz. Neurri batean ordura arte Antoniotarren Elkartearen egiten zuten tankera beretsuko ekintzak bultzatu zituzten, bai elkarte honek bai eta parrokiakoak indarra galdu baitzuten urte horietan.

Ohikoak ziren hitzaldi eta topaketez gainera, hainbat ekintza antolatu ziren gazteei laguntzeko, hala nola, Irlandako talde batzuekin harremanak, ingelesa ikasteko, gerora modan jarri den trukaketaren aurretik. Ingelesa ez eze, frantsesa, alemana eta euskara ere irakasten zituzten.

Pub eta barruko dantzak ere urte horietan hasi ziren modan jartzen, eta horien alternatiba gisa antolatu zituzten frontoian dantza “sanoagoak”, alkoholik gabeko edariak bultzatuz-eta. Pare bat urtetan-edo funtzionatu zuen ondo, baina ez gehiago. Paternalismotzat hartu zuten gazteek.

OPOSIZIO LANETAN-ETA

Guraso Elkarteak bere burua ezagutzera eman bazuen, ez zen izan ohiko lanagatik, baizik eta garai hartako arazoei aurre egiten hasi zirelako. Hala nola, hirigintzako gaiak (Zarauzko Plangintza Orokorra, Vista Alegreko Plangintza, Poligonoko urbanizazioa —Guraso Elkartearen hasi eta Udaltxean zegoela konpondu zena—, Autopista); arazo politikoak (atxiloketak-eta); lantegietako grebak (enpresaburuek eta langileek eskaturiko arbitrajea).

“Garai hartan Guraso Elkarteak Zarautzen ikaragarritzako sona eta errespetua irabazi zuen. Errespetua. Ez dakit Imanol buru zelako edo ordura

arte inork ukitu gabeko gaietan sartu zelako. Udaletxea bazegoen baina Udaletxe horrek oposiziorik ez zuen eta Guraso Elkarteak lanik handiena Udaletxearen oposizio bezala egin zuen konparaziorik gabe”, azpimarrazten du Inazio Lertxundik.

Benetako oposizio politikorik ez zegoelako, Guraso Elkarteak egin zuen *de facto*-ko oposizioa. Oposizio zorrotza, gainera, plan orokorraren aurka ikusi zen bezala.

Martinez Anido arkitektoaren “Plan General de Ordenación Urbana” delakoaren aurka jarri ziren. Plan honek sekulako astakeriak zekartzala eta. Hondartza kontrako etxe guztiak pikutara, ordukoak dira Zarauzko dorreak, Euromar eta beste.

Lehendik zeuden hirigintzaz kezkatuak Unzurrunzagatarrak, Xabin eta Xabier. Xabin Unzurrunzaga Imanolekin batera zegoen elkarteetan, eta nahi zutenean Xabierren laguntza zuten. Xabier, izan ere, arkitektoa da eta hirigintzan aditua.

Plan orokorra atzera botatzea lortu zuten. Eta Martinez Anidok, orduan, plan partzialak atera ohi zituen. Etengabeko borroka izan zuten. Kasu batzuetan, gainera, nahiz eta arrazoiz irabazi, ez zegoen atzera egiterik, egundoko indemnitzazioak ordaindu behar zirelako, gogoratzen du Xabin Unzurrunzagak.

Zarauzko jendea hirigintzaz asko jabetu zen borroka hau dela eta. Ikasi egin zuen, jantzi, aberastu. Aretoak jendez bete hitzaldiak antolatu ziren, ez bat eta ez bi. Oriol Bohigas arkitekto katalan famatua Zarautzen izan zen. Siadeco taldea kontsultatzaile gisa hartu zuen elkarteak, Udaletxeak estudioa egiteko Gaur kontratatu zuen bitartean.

“Hala ere astakeria galantak onartu zituen Udaletxeak garai hartan eta gu sartu ginenean beranduegi zen zenbait oker zuzentzeko —dio Imanolek—. Garai hartako eraikuntza gehienek legez egokitzen zitzaiena baino gehiago eraikitzen zuten eta auzoetan herri zerbitzuetarako ez zuten ezertxo ere uzten. Adibidez, Mendilauta osoan herrirako ezer ere ez zen gelditu, eta hor daude Munoa inguruko etxe handiak, Torre Luzea Parkeko etxe handia, Dorreak, Vista Alegre, etab. Begi bistan daude ikusi nahi duenarentzat”.

Autopistaren aurkako borroka ere ez zuen arrakasta handirik erdie-tsi. Ahalegin franko egin zuten baina deus gutxi lortu. Aldaketatxo bat

edo beste soilki. Helegitea ere aurkeztu zuten baina ez zieten kasurik egin.

Imanolek gidatu zuen oposizio kanpaina ez zen nolana hikoia izan: telegrama bidalketak Madrila, kartelak, buzoiketak, Udaletxean protestak, Europistasen ere bai, prentsa artikulua, Madrilen bertan Ferrovialen erai-kuntzan gestioak, etab.

“Lau pertsona joan ginen Madrila —kontatzen du Imanolek—: Don Evaristo sendagilea, Jon Arruti defuntua, neu eta gogorutzen ez naizen laugarren bat. Ferrovialeko nagusiak hartu gintuen, oso ongi hartu ere. Elkarre pribatuak ez omen zituzten hartzen, baina gurekin salbuespena egin zutela gertatu zenaz harrিতa zeudelako. Zarauzko herria ibilbidea-ekin ados zegoela uste zutela, Udaletxeak aspaldi adostasuna emana zuela eta oraingo protestarekin zeharo harriturik zeudela, eta beranduegi zela aldaketa garrantzitsurik egin ahal izateko. Hori izan zen erantzuna.

Udaletxean berriz hasieratik aurka egin zutela esan ziguten, baina ez zen egia.

Denborak arrazoia eman dio elkarteari, autopista hori Zarautzen hazkunderantz harresia zela esaten zuenean.

Vista Alegreko plangintzan ere nahi zutena egin zuten eta hasieran pentsatuta zeuden baino etxebizitza gehiago eta handiagoak egin zituzten, nahiz eta Guraso Elkarreak salatu eta helegiteak aurkeztu. Imanolen iritzian, hau ere beste istorio penagarri bat da Zarauzko hirigintzaren historian, baina luzeegia omen da hemen kontatu edo azaltzeko.

Garai hartako beste ekintza garrantzitsua atxilotuen aldekoa zen. Norbait atxilotzen zutenero Imanol joaten zen, aurrena alkatearengana, gero guardia zibilarengana eta epaitegietara atxilotuez interesatzera eta informazioa jaso eta gurasoei ematera.

Ohikoa ez zen beste ildo bat zen enpresetako liskarretan egin ohi zuten arbitrajea edo bitartekari lana. Garai hartan Zarautzen greba handiak izan ziren enpresatan, Muebles Arrutin, Alfa eta beste. Imanolek Guraso Elkarreko lehendakari moduan eta Inazio Ugaldek idazkari gisa, bitartekaritza lana egin zuten eta greba luze haiek konpondu. Enpresaburuek eta langileek deituta sartu ohi ziren saltsa haietan, eta konpondu egin ziren.

Prudentzio LARRAÑAGA

Alkateen Bergarako Taldekoa, Diputazioko kidea

- Niretzat Imanol lagunik maitagarrienetako bat da. Momentu txarrak eduki dituenean eta besteok eduki ditugunean ere harreman handikoa eta gauzak garbi esaten dituen izan da; bai gogoz kontrakoak eta baita beste aldekoak ere, ez du sekula beldurrik izan gauzak behar bezala esateko.
- Beti oso kezkatuta egoten zen gaiekin. Gauzak urrutira ikusi dituen gizona izan da Imanol; ikuspegi handikoa. Ez du inoiz kezkarik izan planteamenduak behar bezala egiteko eta sentitzen duena esateko, eta hori lagun artean oso inportantea da.
- Nik esaten dut bazter guztietan Imanol zera dela, “calidad de hombre”. Gizon berezia, irekia, zabal, zuzena, eta tinko jokatzen duena; ez du berriketarik ibili eta horrek pasatu dituenak seguruenik ez ditu esan ere egingo, bere emazteari ere ez seguruenik.
- Niretzat oso gizon argia izan da, eta da eta asko sufritu duena bere barruan, sufrimendua zabaldu gabe, batez ere Diputazioan zegoenean.
- Nik uste dut Gipuzkoako herriak ez duela sekula jakingo zenbat egin zuen Imanolek eta zenbat sufritu zuen hori zela eta ez zela.
- Imanol beti izan da “un interlocutor válido”; nondik gauzak konponduko, nondik ondo azalduko... nahiz eta bere egoeraren aurka izan.
- Niretzat duen meriturik handiena da zintzo jokatu duela, garbi. Nik ez dut sekula Imanol tranpa batean harrapatu! Hari ez zitzaion titulua edo kargua kolkora igo. Imanol erabat apala zen, berriketa gutxikoa, eta betiko adiskideekin, bizimodu berarekin,

etxe berdinean biziz... Horrek guztiak herriaren aurrean asko esan nahi du. Garbi jokatzeko duenak ez du kezkarik izan beharrik eta Imanolek ez du izan. Imanol beti egon da prest besteentzako lan egiteko.

- Diputazioan bi gizon izan dira garbiak, argi eta garbi nire ustez: Imanol Murua eta Xabier Aizarna. Gizon batek argi hitz egin behar du, baiezkoa edo ezezkoa ematen duenean zergatia argituz eta hori bai Imanolek eta bai Aizarnak horrela egin dute.
- Imanolek bisio oso ona izan zuen dirua non inbertitu jakiteko; dirua edukitzea gauza bat da eta bestea non inbertitu jakitea.

-Imanol noblea da, egia aurretik esango duen "astapotroa", ni bezalaxe. Jendeari lagundu egin behar zaio inori kalterik egin gabe.

Guraso Elkarteak gai hauetan sartzea kontu berria zen Zarautzen. Aurreko ekipoak dantzaldiak bakarrik antolatzen omen zituen. Aurreko ekipoarentzat dena zen bekatu nonbait: politika zen Udaletxea kritikatzeko; politika zen euskararen irakaskuntzaren alde hatz txikia mugitzea.

IKASTOLAKO IMANOLEN "AZKEN" BILERA

Imanolek Ikastolako presidente gisa egin zuen azken bileretako bat izango zen, azkena ez bazen. Hala kontaktzen du Basilio Bergarak. Legalizatu eta gero ikastola berria eraikitzea zen hurrengo erronka. Iñurritzako zelai ondoan zegoen lur saila erosteko proposamena aurkeztu behar zuen Imanolek, batzarrak erabaki zezan. Beraz, Imanol presidente gisa eta Basilio kontuak eramaten daude, biak mahaiburuan, eta hara Imanolek non esaten duen: "Lur saila erosteko 7.300.000 pezeta behar dira; baditugu lau milioi eta gainerakoa ordaintzeko prestamo bat eskatuko genuke, ahal den erosoan itzultzeko. Beraz, nik uste aurrera egitea erabaki beharko genukeela". "Zer esan duk?, galdetu nion aldamenetik. Orduantxe azaldu genituen kontuak eta lehen aldiz positiboarekin, baina 83.000 pezeta-edo eta gainontzean xentimorik ez. Nondik atera duk hori?, galdetu nion, eta Imanolen esaldi on bat: jendeari eskatu eta jendeak emango dik hori egiteko adina. Gertatu egin zen gainera".

Basilio bakarrik ez, batzarrean zegoen jendea ere harriturik gelditu zen. Haien aurpegiak ikusita hala jarraitu zuen Imanolek: "Konturatzen naiz harrituta gelditu zaretela nik esandakoarekin, alegia baditugula lau milioi. Agian hitzen aldaketa bat egon da, esan behar nuen lau milioi izango ditugula eta hau ziurtatu nezake, herrian bilduko baititugu".

Lurra erosteko behar zena baino diru gehiago eman zuen herriak, zortzi milioi inguru, Imanolen aurreikuspenak gaindituz. Diru sarrerak zenbatekoak ziren uneoro zekien jendeak, herrian zehar termometro gisakoak jarri baitziren kopuruak igo ahala markatzen zituztenak. Manolo Urbietaren ideia izan omen zen.

Ikastolaren fase hori, eraikina altxatzea, Basilio Bergararen egitekoa izan zen, bera izan baitzen hurrengo lehendakaria, Imanol Udaletxean sartu eta gero.

Urte batzuk lehenago, 1972an, Basilio eta Imanol, biak sartzen dira Ikastolako Zuzendaritzara. Imanolek konbentzitu omen zuen Basilio eta biak sartu ziren bero-bero eginda, legalizatzea lortu behar zutela eta. "Juntan ere hura zen ardatza, gu akolitoak bezala ginen", komentatzen du Basiliok.

Uff! batekin gogoratzen du garai hura Basiliok, nekea gainera bailetorkion:

“Ematen zizkigun lanak! Egunero etortzen zen Caja Laboralera bati eta besteari ea deitu al nion eta hau eta beste egin al nuen galdetzeko; exigentzia handiak. Astean bitan edo hirutan deitzen zion delegatuari ea gure paperak nola zihoazen. Hark esaten zion euren martxan ondo zihoazela eta Imanolek niri esaten zidan haiei segitu egin behar zitzaiela eta nik obligazioa neukan deitzeko, Jesus... Jatorra zen, andaluz bat eta berarekin pertsonalki ere egon ginen. Inoiz edo behin tokatzen zen okupatuta-edo delegatu hori baina normalean bera jartzen zen telefonoan eta berriro ere gauza bere esaten zidan: gauzak bide zuzenetik zihoazela baina beren denbora behar zutela eta lasai egoteko, gauza horiek ezin zirela edozein modutan egin eta”.

Delegatu hori bisitatzera ere joan omen ziren behin Donostiara. Imanol haserretu da halako batean eta mahaia ukabidez jo eta esaten dio: “Gu aspertu zain zaude zu, baina ez duzu lortuko, gure aurretik zeu aspertuko zara!”.

Eta urtetan lortu ezin zena, hilabete batzuetan erdietsi zen, baina Madrila joanda. Bidaia hauxe da Madrilgo Ministerioetara Imanolek egin duen lehena.

BAIMEN BILA MADRILA

Pako Urkia Imanolen kintoa da, Zarauzko Kirol Elkartean 31 urte igaro ditu, horietatik 24 lehendakari gisa, eta Urquia liburudendakoa. Dendari esker, “jende lodi” asko ezagutzen omen du Madrildik Zarautza oporretan etorria. Kirol Elkarterako horien laguntzaz asko baliatu omen zen. “Bai bada, jarraitzen du Pakok, aprobetxatu egin behar atek irekiko baziren! Orain horrelako gauzarik ez dago baina garai hartan horrek asko balio zuen, horrela ibili behar izaten genuen!”

Etxarritarren oso laguna zen. Etxarritar hauek anai-arreba asko ziren, eta eragin dextentekoak Madrilan: bat, Miguel, Donostiako Zinemaldiko Zuzendari izan zen, beste bat Vanguardia zuzendari, Radio Nacional de Españako Zuzendari ere bai beste bat. Hauen bitartekaritza interesatzen zitzaion Imanoli Guillermo Vázquezengana iristeko.

“Horien arreba bat Guillermo Vázquezekin ezkondata dago eta gizon hau garai hartan “Secretario general de las escuelas profesionales” zen. Gizon horren bitartez ekarri zituen Frai Bitorrek laguntza asko, eskola berria egiteko makineriak eta... Galdetu zidan ikastolen gaia gestionatzeko laguntza eskatzeko deituko al nion Migueli bere koinatuarekin kontaktuan jartzeko. Deitu nion nik Madrila Miguel Etxarriri ea Guillerмок “Ministerio de Educación y Ciencia”-ra lagundu ote gintzakeen galdetzeko, eta joateko esan zidan. Madrila joan ginen Basilio, Imanol eta hirurok. Ministerio hori une hartan obretan zegoen eta Guillermo Vázquez honek nola ate eta zirrikitu guztiak bazekizkien laguntza handia izan zen guretzat, eta batik bat Imanolentzat. Horrenbeste urtetan lortu ez zutena hila-bete batzuetan lortu zuen”.

Legezko onarpena lortu zenerako, 1972ko azaroan, jada bidaia luzea egin zen Zarauzko Ikastola. Imanol 1965ean sartu zen ikastolako guraso bezala baina ordurako bazebiltzan saltsa horretan beste batzuk, Xabin Unzurrunzaga bat, edo Xabier Agirre edo Ibon Aldabaldetrek. Xabin izan zen hasierako lehendakaria. Aitortzen du nahikoa anarkikoak izan zirela lehen urteak, bigarren urtean jada 300 ikasletik gora etorri zitzaizkiela. Ez antolaketa eta ez lokal ez zeukaten. Antoniana Txikin hasi zen ikastola baina berehala zabaldu behar izan zuen: Santa Klarara, Agustina Mitxele-nak lagatako garajeetara, Garrastazu, Alfa, Txurruka, eta azkenik Pilartxoenera. Pilartxoenea txaleta zen, etxe handia, Mustad enpresaburuarena. Mustad noruegarra zen izatez, eta Tolosan zuen lantegia. Mustad SAko gerentea Noruegako kontsula zen Donostian. Alaba euskaltzalea zuen honek, beronen bi seme-alabak ikastolan zituena hain zuzen. Alabak konbentzitu omen zuen aita, kontsula, zalantza handiak baitzituen, ikastola ETArekin lotzen zutelako batzuek. Laga egin zuen doan bai etxea eta bai jardina erabiltzen. Harik eta berria egin arte Ikastolako ikasle gehiena hantxe jardun zen. Ikastola berria 1975-76 ikasturtean ireki zen.



Hilario Murua aita gazte denboran korrikaria izan zen



Orion San Pedro jaietan, goizean Donostian korrika irabazi zituzten sariekin. Ezkerretik hasita: Patxi Aizpurua, Antonio Goikoetxea eta Imanol Murua (1947)



Zarauzko golf zelaian caddie lanetan jardun zen (1947)

Zarauzko golfean Kepa anaiarekin, tennisko pilotak jasotzen zituen garaian (1943)

Aritzbatalde futbol zelaian Ander Iruretagoiena
(Kiriki) lagunarekin Zarautz Kirol Elkartean (1953)



Haro-ko futbol zelaian Imanol eta Kepa anaiak
C.D. Zarautz taldeko jokalarari gisa (1954)

Haro-ko futbol zelaian jokatu zuen ekipoa. Ezkerretik hasita, goian: Ramiro Goñi entrenatzailea, J. M. Yurrita, A. Etxabe, Luis Lazkano, Paul Aranburu delegatua, J. M. Larrabeiti, Manuel Olazabal, Intxauzpe, A. Goikoetxea; behean: Kepa Murua, Imanol Murua, Luis Urteaga, Inazio Legorburu, Jose Goikoetxea, Baltasar masajista (1954)





Hilario Murua eta Joxepa Arregiren ezteiak



Hilario Murua eta Joxepa Arregiren ezkontza. Goian Hilario Murua, Joxepa Arregi eta Pedro Murua; behean: aitona Joxe eta amona Rosa (1924?)



Zarautz Txiki futbol taldea. Ezkerretik hasita, goian: Joxe Urdangarin, Josu Alberdi, Anjel Mari Kamino, Ibon Larrañaga, Iñaki Larrañaga, Patxi Larrañaga, Joxe Antonio Azpeitia; behean: Andoni Odriozola, Imanol Murua, Pako Urkia, German Arruabarrena, Joakin Erguin (1952)



Aillepunta La Salleko lehen futbol taldea hondartzako txapelketarako. Ezkerretik hasita, goian: Jesus Zubiaurre, Mariano Lonbide, Joakin Mena, Antonio Goikoetxea, Javier Berazadi, Joakin Erguin; behean: Joxe Urdangarin, Juan Jose Lonbide, Imanol Murua, Ander Iruretagoiena, Jon Azkue (1947)

Zarauzko hondartzan Hilario Muruari omenaldia egin zioten. Luis Lazkanoren agurra (1970)






Zarauzko kaleetan zehar
Errege bezperako kabalgatan,
Imanol Murua Baltasar
erregearen lanetan (1960)



Imanol Murua sukaldaritzan
(1984)



Imanol Murua Txema
Olazabal golfeko
jokalariarekin Hondarribiko
Udaletxeak herriko semea
omendu zuenean



Narros jauregi
aurrean koadrilako
norbairen
soldadutzarako azken
agurra. Ezkerretik
hasita, goian: A.
Iruretagoiena
(Kiriki), J. Osakain,
A. Odriozola, L.
Azpiazu, A.
Lertxundi, P.
Aizpuru, J. Azkue, P.
Berazierro, A. M.
Camino, L. Roteta, A.
Goikoetxea eta F.
Zubiaurre; makurtuta:
M. Osa, A. Azpeitia,
Imanol Murua, J.
Odriozola eta A.
Azkue; eta etzanda:
Inazio Salegi.



Alkatetza utzi eta Ahalduen Nagusi hautatzean Zarauzko herriak egin zion omenaldia Musika plazan (1985). Eskuinetik hasita, Daniel Larrañaga, Guraso Elkarteko Lehedakaria, Maritxu Uria, Imanol, Juanita, Prontxio Larrañagaren emaztea, Prontxio Larrañaga eta Xabin Unzurrunzaga



Seme-alabekin zilarrezko ezteietan (1986)



Kepa anaiaren ezkontzako egunean, Hilario eta Joxepa gurasoekin Imanol Murua eta Maritxu Uria (1960)



Imanol eta Kepa Murua anaiak Munoan (1987)

Hilario Murua aitari egin zioten omenaldian. Hilario eta Joxepa gurasoak familia osoarekin (1969)



Imanol Murua eta Maritxu Uria Loiolako Santutegian ezkondu ziren (1961)



Imanol Murua, Sebastian Uria koinatugaia eta Antonio Azkue (1961)



Zarautzen Jose Miguel Maiz korrikariari omenaldia egin zioten. Maizekin batera daude Imanol Murua, Andoni Odriozola, Inazio Salegi (1968)



Imanol Muruaren ezkongaietako azken agurrean anaia eta koinatuarekin. Ezkerretik hasita, goian: Jose Mari, Imanol, Jose Ramon Santamaria; behean: Iñaki eta Kepa (1961)

UDALETXERA JAUZIA: BARRUTIK LAN EGITERA

Kalean esan zion Xabin Unzurrunzagak Imanoli: udaletxera aurkezteko hautatu haugu! 1974 urtea zen.

Imanol ez zen asko harrituko tartean baitzegoen. Baina bera ez zen bilera horretan izan, nahita edo nahi gabe, ez da gogoratzen.

Bitariko bilera izan zen erabakia hartzeko bildu zena, eman behar zen urratsaren garrantziaren adierazle. Guraso Elkarte eta Zarauzko Ikastola bildu ziren. Lagunarte beretsua zebilen bietako gidaritzan, egia esan. Eta Imanol zen ardatza. Andu Lertxundik holatsu irudikatzen du garai haietako bileretako argazkia: "Argazki guztietan Imanol dirudi ardatza, haren-gana bildurik baitaude begirada gehienak hark zer esango, zer bide markatuko baleude bezala".

Proposatzaileek bi zeregin nagusi aurkeztu zituzten: hirigintza bideratu eta ikastola lagundu. Eta horretarako modu eraginkorrena erakunde barnetik aritzea zela. Hona hitz gutxitan tesia esanda.

BI HELBURU ETA EZTABAIDA BAT

Helburu edo zereginei buruz ez zen eztabaidarik sortuko. Baina, diotenez, bai metodologiaz. Ez zen ohikoa, izan ere, Franco diktadorea bizi zela, erakunde frankistan esku hartzen hastea. Abertzale jendea gerraoste osoan kolaborazioa ukatzearen aldekoa izan da. Zer da eta orain, azken orduan, frankismoarekin kolaboratzen hasi? Ez zen ebidentea. Aita ere mesfidati zuela gogoratzen da Imanol. EAJ ere ez zen joatearen aldekoa.

Barrutik ez bada ezin da deus egin, zioten behin eta berriz jauziaren aldekoek. Kanpotik aritzearen eskarmentua badugu. Neke handia eta bide antzua. Noiz hasi ziren gauzak aldatzen Zarautzen? Guraso Elkartean agintea hartu genuenean, ez aurretik nahiz eta kanpotik eragiten saiatu. Horra diskurtsoa.

1974an kokatuta, eta oposizio klasikoaren ikuspuntutik begiratuta, ez zen ulerterraza erabakia ontzat ematea. Baina ari zen Euskal Herrian zehar mugimendu gazte eta berri bat sortzen, alderdietatik kanpo. Herriarengandik hurbilen ziren erakunde horietan esku hartuz eragin nahi zuena. Herrian, izan ere, premien kontzientzia gero eta handiagoa zen, eta Euskal Herri berria gorpuzten ari zen, zorionez. Gero, hori bai, herri bakoitzak

bere testuinguru propioa du. Zarauzko testuinguru zehatz eta jakinean bi helburu jarri zituzten aurretik: hirigintza eta ikastola, batez ere ikastola. Perez Yarza gero zinegotzi sozialista izango zenak ez omen zuen ulertzen Imanol bat nola sartu zen udaletxe frankistan. Ikastola aurrera ateratzeko zela esan zionean, orduan ulertu omen zuen.

Baiezkoa erabaki zen, hortaz, eta hiru aurkeztu zituzten "hauteskundeetara": Imanol Murua, Xabin Unzurrunzaga eta Felix Izkeaga. 1974an bihurtu ziren hirurak zinegotzi "tercio familiar" delakotik Guraso Elkarteak proposatuta.

Hiru "tercio" edo taldez osatzen zen zinegotzien kopurua: "tercio sindical", "tercio institucional" eta "tercio familiar". Zarautzen hiru kide zeuden tertzio bakoitzetik. Alkatea gobernadoreak izendatzen zuen. Zinegotziak, aldiz, bestelako indarrek hautatzen zituzten: erakundeek, sindikatuak, eta tertzio familiarraren kasuan, herritarrek. Familietan eraginez ikusi zen udaletxean sartzeko zirrikitu bat irekita. Eta bai sartu ere!

Udaletxean bi helburu nagusirekin sartu baziren ere, denetik zerbait egin zuten 1974tik 1979ra. Esan nahi baita, batez ere hirigintza eta Ikastola berriaren alde tramiteak zein gestioak egin zituztela, baina beste hainbat arazori ere aurre egiten saiatu zirela, edo bestela esan, kultura nahiz zerbitzu sozialetako arazoak ez zituztela bazter utzi, ezta gutxiago ere.

Imanol Hirigintzako Batzordeko lehendakari izendatu zuten, eta berehala nabaritu zen aldaketa. Garai hartan Udaletxean ez zegoen zerbitzu teknikorik eta alkatearen baimenarekin Lanbide Heziketako Eskolara eramaten zituen proiektuak ikasleekin bolumenak kalkulatu eta gero Batzorde Informatiboan txostenak egiteko. Ordura arte kontratistek nahi zutena egiten zuten, baina hauek Udaletxean sartu zirenean nabarmen aldatu ziren gauzak.

Ikastolaren terrenoaren auzia ere berehala konpondu zen, Udalak laguntza eman zuen, eta ikastola berria 1975-76 ikasturtean inauguratu zen.

Patronato San Migueleko atzeratuak ere nabaritu zuten aldaketa, eta beste zenbait gizarte zerbitzuek ere bai.

Poligonoko urbanizazioa garai hartan bideratu zen eta Imanolek alkate zela inauguratu.

Atxilotuen arduran Imanolek pertsonalki jarraitu zuen, orain indar gehiagoz, eta beti joaten zen guardia zibiletara eta epaileengana, atxilotuen egoeraz interesatzera eta informatzera, gurasoei laguntasuna eskainiz.

ATXILOKETAK GORA ETA BEHERA

Xabin Unzurrunzagaren lekukotasuna, hasteko:

“Baina nire gogorapen sakonenak garai latz haietan, herriko mutilak preso hartzen zituzteneko uneetakoak dira; bere kezkek, zenbait egin beharretan, joan behar zen tokira azalduz, bai Gobernadorearengana edota Guardia Zibilen Jefaturara, mutilak ikusi arte ez zuen etsitzen, familiakoei lagundu eta abokatuekin harremanetan jarri; bera zen aurpegi ematen gehien arduratzen zena”.

Izan zuen bolada bat Imanolek etxetik kanpo lo egin zueneko, guardia zibilen mehatxuak zirela medio. Donostiako gobernadore zibil katalanak, Belloc jaunak, bere etxea eskaini zion. Urte gogorak ziren haiek.

Imanol fitxatuta zeukan guardia zibilak. Ez da harritzekoa ere. Guraso Elkarteko batzordeko zela (artean ez zen lehendakari), Franco bizi zela, 1967an zehazki, hasi zen Imanol Zarauzko atxilotuez arduratzen eta kuartel zein epaitegietara joaten. Gurasoek eskatuta hasi zen, eta, gerora, udaltxean zegoela, bere erantzukizun gisa hartu zuen, ematen duenez. Ez zen egongo zarauztar atxiloturik Imanolen arta jaso ez zuenik. Ez da harritzekoa, berriz esan, guardia zibilek begitan hartua izatea. Bera zela buru egozten zioten. Eta berak: gurasoek eskatuta zebilela. Guardia zibilek zabaldu ere egin zuten Imanol zela ETaren Zarauzko burua. Golfean lehergailua jarri zutenean, Imanolek argibideak eman behar izan zizkion golfeko lehendakariari, guardia zibilek bera seinalatzen baitzuten.

HIRUTAN ATXILOTUA

Aitzakia bat edo beste, hirutan eraman zuten Imanol Zarauzko kuartelera.

Behin maiatzaren lehena zen. Manifestazioa egin zen Musikako Plazan. Egun horretan Imanol Gasteiza joan zen, familiarekin. Handik etorrita koadrilarekin gelditu zen basoerdi batzuk hartzera. Guardia zibilak manifestazioa desegitera etorri zirenean, Joxemariko atean zen. Atxiloketak hasi ziren eta horien artean Imanol hartu eta hiru guardia zibilen artean eraman zuten kuartelera. Berak antolatu zuela, parte hartu zuela salatzen zioten. Goizaldera arte eduki zuten.

Beste behin Guraso Elkarteko lehendakari zela, elkarte honetakoek eta ikastolakoek bilera egin zuten. Txokoan berriketan gelditu ziren biz-

Ramon AGINAGA

Zarauzko erretorea

- Imanol definitzeko, autodidakta dela esango nuke nik. Imanol zer zen bada? Matematika irakaslea, Donostiako Institutuan irakasle ikasitakoa, maisu gaztea; Imanol, nirekiko, autodidakta da, bere burua esperientziaren poderioz egin du, bere pertsonaltatea eta izaera lortu ditu behetik gora koxkan-koxkan egin duelako: bilerak nola egin, harremanak nola eduki. Bestela, ikus bere ibilbidea: gazteen lehendakaria, gurasoen lehendakaria, ikastolako lehendakaria, gero zinegotzi, alkate, kulturako diputatu, Diputatu Nagusi. Bideak eraman du. Jakin du bizitzari helitzen, bizitza gertutik ezagutzen. Gero euskaltzale porrokatua da, eta beti izan da herri mailan zerbait denaren edo agertu denaren laguna. Zer esango nuke nik: kultura zale handia da, Oteitzarekin ere oso lagun egin zela esaten dute, nik hori gertutik ez dakit baina, hala esaten dute, Eskuderoren oso lagun, Basarriren oso lagun, era bateko edo besteko kultura mailatan eta goi puntan ibili direnen oso lagun eta gertu egoten jakin duena. Herri mailan beti herriko arazoetan dena ezagutu, inguratu, hitz egin izan du... Oso maitea da Imanol.
- Ez du anbiziorik, ez da joan horren bila, hori eraman egin du. Gero beste alderdi bat badago, jende askorentzat gustagarria dena: oso kristau agertzen da, oso praktikante, ia igandero Elizan dabil, beti jauna hartzen du, bera eta Maritxu elkarrekin.
- Oso ondo ikusia dago Imanol herrian. Alkatetza utzi du eta, beno, hala ere Imanolek ez darama herrian titulurik agerian. Herri mailan edozeinekin, arrantzan, herriko, oso behekoa da. Herri mailakoa da. Txikiteoan edozein egunetan eta edozeinekin. Ez da harrotu, izan dena izanda ere.

- Gizon osoa da Imanol, herrian oso ondo ikusia, maitea. Gero, herrian alkate izan denean oso gertukoa, saiatua eta mugitua eta praktika aldetik gizon oso egokia. Agintea herriarekin erabiltzen jakin du, herriaren alde, herriarekin batera, herrian biziz.

pahiru eta non sartzen den adiskide bat nahiko alai, umore onez, “Gora Euskadi Askatuta” oihukatuz. Eta haren atzetik Krispin serenoa. Honek eginahala guztian guardia zibilen kuartelera eraman nahi zuen. Imanol eta lagunak mutilaren alde agertu ziren: lekuko zirela eta hark ez zuela deus egin eta ez zuela horregatik guardia zibilarengana joan beharrik. Ez zen ausartu indarrean eramaten nonbait.

Hurrengo goizean, ordea, guardia zibilak mutilaren eta Imanolen bila doaz etxera, metraileta eta guzti, hiruzpalau guardia zibil, etxean umeak-eta beldurtuz. Egun guztia pasatu behar izan zuen kuartelean, ETako burua zela eta ez zela, betikoa. Imanolek badaki larunbata zela egun hura, golfean “Rolex” saria jokatu behar zuelako. Sari hori irabazteko faboritoetako zen, baina jokatzetik ez. Urte hartan Santos Azpeitiak irabazi zuen, eta horregatik esaten dio Imanolek, haren eskumuturrean rolex erlojua ikusten duenero: erloju horrek nirea behar zian.

Hirugarren atxiloketa ere egun seinalatuan gertatu zen. Vuelta de Españako etapa bat jokatu zen Zarautzen. Herriko gazte guztiak itzulia antolatzen ibiliak ziren. Antolatzaileekin-eta afaria izan zuten gero Galeperra elkartean, arkume jana, giro ederrean. Afal ostean kalera atera ziren eta plazako taberna batean zeuden kantari. “Ni mostradorean nengoen — gogoratzen da Imanol— eta guardia zibil begiurdin bat sartzen da, zera baino gaiztoagoa. Taberna guztia pasatu eta niregana: kuartelera joan behar nuela. Azkenean ez ninduen eraman, baina hurrengo goizean bila etorri zitzaidan”. Zer kantatzen ari ziren galdetzen zioten Imanoli. “Maritxu nora zoaz” ari zirela abesten, esan zien Imanolek, hala ez bazen ere. Letra itzultzeko. Han aritu zen Imanol itzuli eta itzuli, eta halako batean diotsa batek: “sí, pero con música subversiva”.

MARTXOAREN 13A

Bada gertakari bat adin batetik gorako guztiek gogoratzen dutena Zarautzen, 1977ko martxoaren 13a. Igandea zen. Goizean Arantzazun guardia zibilen aurka atentatua egin zuten. Iluntze aldera manifestazio edo eserialdi bat zegoen Zarautzen aurretik deituta. Jendea bildu ere egin zen, 150-200 bat lagun, baina Imanolek erregututa erretiratu egin ziren. Imanol une horretan jarduneko alkatea zen, estreinatuberria.

Ordubate beranduago, gaueko hamarrak eta laurdenetan doi, adin guztietako jendea lasai-lasai taberna, kafetegi eta kaleetan zegoenean, hara non datozen guardia zibilak ero moduan eta non hasten diren tiroka, ke bonbak botatzen, kolpeka jendea lokaletatik aterez. Izua zabaldu zen herri kaskoan. Izua bakarrik ez, zaurituak ere baziren, balaz, gomazko pilotaz eta kulataz. Ezin konta ahalekoak izan ziren kalte materialak kafetegi, denda eta eskapareetan.

Enteratu bezain agudo, han doa Imanol kuartelera. Inguruan bizi zen Martxiano Azanza laguna, eta leihotik esan omen zion: "ez hadi joan, erotuta zeudek eta". Imanol aurrera. Hurbildu orduko, gainera etorri eta mehatxuka hasi zitzaizkion. Beldurra izan omen zuen, oso erasokor baitzeuden. Komandante bati esker salbatu omen zen. Xabin Unzurrunzagak dio bera han agertu zenean baretu zela pitin bat barruko giro asaldatua, lekuko bat bertan ikustean-edo. Maritxu emazteak deituta joan zen Xabin, Imanoli lagun ziezaion.

Hurrengo egunean, batzorde berezi bat, zinegotziak eta zenbait herritar (frankistak ere bai) tarteko, Gobernadore Zibilarengana joan ziren protesta egitera, eta Imanolek deklarazio oso gogorak egin zituen guardia zibilaren aurka. Hurrengo hilabeteetan mehatxatuta egon zen, eta beste etxe batera joan zen bizitzera.

ESKER ONA

Atxilotu eta presoan aldeko jarrerak esker on ugari ekarri dio, baina ez beti. Izan zuen disgusturik ere: "karrera politikoa" egiten omen zebilen salatu izan zioten inoiz. Min handia eman zion interpretazio horrek. Esker-rak kasu bakarra-edo izan zen.

Esker ona da sentimentu nagusia, nola ez bada; nola gurasoen aldetik hala neska-mutilen aldetik. Erramun Leundak bere kasua kontatzen du:

“Ni lehen aldiz atxilotua 1961ean-edo egon ninduan. Ordukoa gauza berezi bat izan zuan. Gero joan ninduan soldadutzara eta oso gaizki hartu ninditean horregatik eta berarekin komentatu izan diat. 1967-70 urteetan dozena erdi bat aldiz atxilotua egon ninduan eta jipoiak hartu, eta beti aurpegia ematen zian. Oraindik gogoratzen nauk egundoko jipoiak hartuta atera eta bera han zegoan nire zain eta hainbeste egun pasa eta Imanol han ikustea zuan... Orduan Guraso Elkartean zegoan Imanol. Azkeneko aldiz 1981ean detenitu nindutela uste diat, orduan bera diputatu zegoela, eta Madrila eraman ninduten. Bera nire andrearekin joan zuan hara kotxean eta ni atera nintzenez andrea eta biok eraman gintiztean Hotel Alcalara. Gela bat alokatuta zeukaan, eta igo eta dutxatu eta kristoren bazkaria eman ziguan eta hori eskertzen duk...

Horrelako aktuazioak eduki dizkik ugari. Nahiz eta zenbait jendek kritikatu nik bazekiat bera saiatu dela lan guztia egiten edozein garaitan Zarautzen. Eta nahiz eta lanpetuta egon, beti horretarako prest. Zentzu horretan, Zarautzen horrelako gizon bat izatea gauza handia duk. Beste zenbait jende bazagok influentziak badituena baina bustitzen ez dena”.

Trago mingotsik ere izan zuen, bat edo beste.

“Eginkizun hauek —dio Imanolek— ez ziren beti-beti atseginak, baina hala ere nire obligazio bezala hartzen nituen eta gurasoek gehienez asko eskertzen zuten”.

GOLF: 20 URTE GEROAGO

1968an sartu ziren berriz golf zelaian, oraingoan bazkide txartel eta guzti. Santos Azpeitia, Kepa Murua eta Imanol, hirurak batera sartu ziren, hirurak caddie izanak. Beranduago sartu zen laugarren kidea, Migel Anjel Alustiza. Imanolek 1948an utzi zion caddie bezala golfeko makilak eramateari eta 20 urte beranduago hartu ditu berriz makilak, baina orain jokatzeko.

Evaristo Uranga sendagileari esker sartu ziren. Antza denez, komentziaz ala beharturik ez jakin, klubak erabaki zuen urte osoan eduki behar zela golf zelaia irekita. Ordura arte uda partean soilki ireki ohi zen, Madrilgo señoitoak zetozenean. Inguruko aberats berriengana jo zuten aurrena eta lortu zuten bazkide bat edo beste. Evaristo izan zen herriko jendearengana jo zuena, golfaren "harra" barruan zeukatenengana, caddie izandakoengana. Hamar mila pezeta ordaindu eta barrura.

Sartu baziren sartu ziren. Gero ezingo zituela inork handik atera! Natural-natural sartu ziren, gainera: euskaraz, ogitartekoarekin, zahato eta guzti. Arbolatik zintzilik uzten omen zuten zahatoa. Kepak dio beste batzuk mendira joaten ziren bezala zihoazela beraiek golf zelaira. A zer desakralizazioa!

Pentsa dezake norbaitek aristokraziak destainaz begiratuko zituela sartuberriak. Bada ez, kontrara baizik. Oso ondo eta erraz integratu ziren, are pozarren jaso omen zuten lagun zaharren etorrera. Donostiako aberats berri horietakoren bati ez omen zion graziarik egin, baina tira.

SARI UGARI

Igande goizez hutsik egin gabe han ziren zelaian laurak: Santos Azpeitia, Kepa Murua, Migel Anjel Alustiza eta Imanol. Makina bat txapelketa eta lehiaketatan parte hartu dute, noiz bakarka, noiz binaka. Eta irabazi ere bai ez gutxi. Zarauzkoan neguan saririk ez zegoenez, Ultzamako zelaira joaten ziren. Irekiberria zen Ultzaman golf zelaia, eta Iruñeko jendea joan ohi zen bertara. Baina hauek hasiberriak ziren. Hala esaten omen zuten laukotea han ikustean: "badatoz zarauztarrak sari bila". Zarautzen Santos eta Imanolek osatzen zuten bikoia, baina Ultzaman bi anaien artekoa zen bikotea. Gehinetan sariren bat ekartzen omen zuten Zarautza.

Sariren bat zegoenean Hondarribira ere joaten ziren. Madrileraino ere bai, pare bat urtez joan ziren klubena arteko txapelketa jokatzera, eta beren kategorian irabazi ere bai, bezperan parranda eginda ere.

Imanol eta Migel Anjel Alustiza dira Zarauzko txapelketa irabazi zuten lehen zarauztarrak historian, 1975ean. Aurkariak ez ziren nolanhikoak, udatiarrez gainera Jaizkibel, Bilbo eta Ultzamatik etortzen baitziren jokatzera. Imanolek irabazi duen txapelketa bakarra da, beste guztiak sariak dira. Txapelketak handicap gabe jokatzen dira, denak berdin; eta sariak handicaparen arabera.

Imanolen etxean ez da kopa edo saririk falta. 50etik gora dauzka apaletan. Sarietakoak dira, handicaparekin jokatzen direnak alegia. Gehien-gehienak 1970-73 tartean irabaziak dira, 50 bat. 1969an bat edo beste irabazi zuen, hasiberria baitzen. 1975-76 urteetan ere gutxi batzuk bakarrik, lauzpabost, ordurako Udaletxean sartuta zegoen eta. Harro erakusten du kopen tartean daukan bixera ere, Olazabalek emana, munduko hamabi jokalaria hoberenen sinadurekin. Olazabalek oparituriko makilak ere baditu, Diputazioko kazetariak erregalatu zioten poltsaren barruan.

Santos eta Migel Anjelen esanetan, Imanol oso jokalaria ona izan da. "4 handicap" izan du, ia-ia 3, zarauztarretan lehena. Jokalaria saiatua, indartsua ez baina trebea, "amor propio" handikoa, irabaztera ateratzen dena, suertekoa. Eskola zaharrekoa da Imanol eta berdin lehen orduko besteak, ikusiz ikasi dutenak.

Zarauzko golf zelaiko egoitza nagusian ohorezko horman dago Imanolen irudia, inguruan dituelarik konde, duke eta tituludun ugari. Golf zelaia-aren barruan eta kanpoan "merituak" egina behar da nonbait ilustreen galeria horretan agertzeko. Imanol da horietako bat. Hemen ere zuzendari batzordekoa izan zen dozenerdi bat urtez. Duela urte pare bat ere, Klube-ko lehendakaritzarako proposamena egin zioten.

Andoni Egañak idatzi du Imanol ez zela golfean hasi kargua hartu eta gero, luzitzearren alegia. Gertatu zena, diot nik, justu kontrakoa izan zen. Diputatu Nagusi aukeratu zutenean, *de facto* orduan laga zuen, Diputazioko lanetan murgilduta ez zuela golferako astirik eta.

Egañak 1989an Imanolen profil moduko bat margotu zuen, kirolzale-
tasuna barne:

“Kirolzalea ere bada; golfa praktikatzen du. Ez ordea Diputatu Nagusi bihurtu ondoren kirol ‘chic’ bat egitea komeni zitzaiolako, estilo horretara mugitzen den hainbat eta hainbat izango bada ere. Bestelakoa da Imanol. Gaztetan caddie hasi eta harra barrura sartuta golf makilak hartzen dituzten horietakoa”.

Ramon LABAIEN

Donostiako alkatea, Eusko Jaurlaritzako Sailburua

- Imanol niretzat pertsona estimagarria da, eta gainera esan nion berari orain dela gutxi. Ez dago jende estimagarri asko mundu honetan eta Imanol halakoa da benetan. Egin dituen guztiak berak egin ditu, eta gauza asko egin ditu. Ez dago ez alabatzerik ez kritikatzetik; estimagarria. Bihotzarekin hartzen duzun laguna, hala da Imanol.
- Pragmatikoa da, baina eskuzabala era berean eta baita imajinatiboa ere. Dena dauka. Imanolek sen ona dauka eta hori ondo eramaten du.
- Imanol zarauztarra da eta zarauztarrak xomorro arraro batzuk dira. Zarauztarrak ez dira ez barnealdekoak eta ez itsasokoak; zarauztarrak dira. Nik uste horregatik Imanolek, Diputatu Nagusi izan zenean, oso ondo ordezkatzeko zuela Gipuzkoa. Gipuzkoarren arketipoa zen. Konexio bat bezala zeukan bai kostaldeko jendearekin eta bai barneko, Goierriko-eta, jendearekin. Eta hori fenomeno arraroa da. Zeren eta diferentzia egon badago kostaldeko eta barneko jendearen artean.
- Herrikoa da errustikoa izan gabe; pertsona sofistikatua da. Bere itxura batzuetan zakarra izan liteke baina gizon ona da; nik asko estimatzen dut Imanol.

LAN EGIN ETA ERAGIN

Basilio Bergarak kontatzen du bera zinegotzi eta Imanol alkate, goizero-goizero izaten zuela lehen orduan Imanolen deia edo bisita, hau eta bestea gogoratuz edo eskatuz. Exijentzia handi(egi)ko lan bezala gogoratzen du Basiliok, arnasa sakon boteaz oraindik ere.

Arantxa Zabalegi Zarauzko Udalbatzako Giza Zerbitzuko arduraduna zen. Hau ere, gainera, Basilio eta Inazio Lertxundi bezala Klanekoa zen, Imanolekin batera. Klan: horrelaxe deitzen zien PNVko beste zinegotziek, 11 gutzira, laukote honi, beti elkarrekin ibili ohi zirelako udaletxe inguruan.

Arantxa lanari muzin egiten ez diona da, baina gogoratzen da Imanolek asko egin eta asko exijitzen zuela, batzuetan gehiegi eta dena. Jendeak bere lan profesionala ere ez balu bezala. Astero helburu batzuk jarri eta lortu egin behar!

Ama Birjinaren eguna izango zen, Arantxa ondo gogoratzen bada. Meza Nagusian dago udal korporazioa lehen ilaran. Apaiza sermoitan eta Arantxa adi-adi. Imanolek ukondoaz jo eta galdetzen dio: "egoitzarako Madrilen entregatu behar ditugun paperak prestatu al dituzu?". Ezin han ere bakean utzi!

Marisol Agirre Imanolen idazkaria zen Ahaldun Nagusia zenean. Langile porrokatua zela dio, eta lan eragiten zuena. Teknologia berriak ere horretarako erabili ohi zituen, kotxeko telefonoa. Hasieran, kotxea hartu eta etxe aldera abiatzen zenean, bakean gelditzen ziren idazkariak. Gero hori ere ez: bazekiten jada seguru noiz pasatzen zuten Antiguako tunela, deiren bat beti izaten zen eta.

BILERA ERAGINKORRAK

Uneoro hausnarrean, lan egin eta eragin, hori da bat. Eta bestea da bileretan eramaten zuten metodologia. Ramon Aginaga apaizak lanean ezagutu du nola gazte erakundetan hala ikastolako zuzendaritzan eta gustukoa du haren lan metodoa:

"Imanolen lan era zera zen: gauzak aztertu denon artean eta erabakiak hartuarazi egiten zituen berak. Bakoitzari bere lana eman eta handik

astebetera edo hamabost egunera, niri beti gustatu zitzaidan bezala, bilerara hasten zuen ea konpromisoak bete ote ziren edo ez galdezka. Lan era egokienetakoa da hori; azkeneko bilerarekin lotu (zu hortan geratu zinen, zu beste horretan. Egin al duzue? Nik hau esan nizuen egiteko...), "revisión de compromiso" erdaraz esaten genuena. Guk JOCeke bileretan asko ikasi genuen hori. Imanolek hau oso gogozkoa zuen, efektiboa izan da bilerari ematen ziolako beti aurreko bilerarekin lotura; eta han agindu zena, hitz eman zen hura bete zen edo ez, zein zailtasun izan ziren, eta horrek lan eginarazten zuen. Bera eginzalea izan da eta eginarazlea ere bai. Oso inportantea da hori Imanolen juntetan, batzordeetan... Beti hala izan da: han biltzen ziren guztiei konpromisoa harrarazi eta gero bete zuten edo ez zen kontrolatu. Hori oso efektiboa da".

TARTERIK GABEKOA

Imanol etxean geldi ikusten ez badu, Maritxu pozik dago. “Jubilatu da, baina gelditu ez, —dio Maritxu Uria emazteak—. Etxean gelditu izan balitz ere txarra izango zen. Alde batetik poztu egiten naiz okupatuta dabilelako, ailegatu ezinik dabilelako eta disfrutatzen ari delako... Orokorrean gustura nago dabilen bezala dabilelako, baina beti bezala freno jarrita nabil. Orain gorputzak ez dio ematen. Neurtu!, esaten diot: isiltzen da eta kasu egiten duela ematen du baina bai zera!”

Osasunak eta sasoiak nahi beste laguntzen ez badio ere, lehengoaren aldean estres gutxiko bizimodua da jubilatu osteko hau: txibitara joan eta golfean jokatu (edo jolastu?). Baina lehengo lepotik du burua orain ere. Beti okupatuta, hara eta hona.

Hori orain, jubilatu eta gero. Eta lehen?

“Gogoratzen naiz bilerak eta historia horiek denak hasi baino lehen lana, lana eta lana izaten zuela. Goizean lanera joan, eguerdian klase partikularrak eman, arratsaldean berriro lanera eta iluntzean berriz ere klase partikularrak ematen zituen.

Garai hartan ezkontzerako etxe hau erosi genuenean karga handia zen; poligonoan-eta bazeuden hau baino etxe merkeagoak baina honi heldu genion, gure etxetik ere laguntza izan genuen baina buelta eman behar zitzaion eta, orduan, hasiera hartan, dena lana egitea zen.

Ezkondu ginenean Antoniana Gazteria laga zuen baina gero Guraso Elkartea izan zen. Guraso Elkarteko aldi bilerak bat edo beste izaten zen eta gero atxilotuak-eta zirenean konpromiso gehiago egoten ziren, baina niretzat aurreneko urte haietan ez zen hainbestekoa egunean zehar etxetik faltatzea. Gehiago izan zen Udaletxean sartu zenean. Hori baino lehenago Guraso Elkarteko bilerak egindakoan-eta ere bai, baina Udaletxekoa egunero zen. Nire sentsazioa da Guraso Elkarteko asuntxoak ez ziola hainbeste denbora hartzen; niretzat normala zen bilerak eta zituzten tarteko egun horiek izatea. Okupatzen zutela? Bai, noski, baina hain kontinuo ez zait iruditzen.

Politikan buru-belarri sartu baino lehenago, urte batzutan eskolan klaseak eman eta Udaletxera joan, denak konbinatzen zituen. Alkate izan zenean edo diputatu izan zenean, denak konbinatzen zituen orduan ere:

klase batzuk ematen zituen, udaletxera ere joaten zen, Diputaziora ere bai... horiek denak konbinatzen zituen garai horretan”.

LAN ERRITMO BIZIA

Lan eritmoak menperatu ez badu lasaitasunak ekarriko dio estresa Imanoli.

Gazte-gaztetandik bizi izan du eritmo bizia. Esate baterako, Donostian “Artes y Oficios” ikasten zegoeneko azken urtean, bosgarrenean, arnasa hartzeko ere astirik gabe bizi zen: goizean 8etarako trenez Zarauztik Donostiara. Ordubietan Zarautza itzuli. Eta 3etatik 11k arte Derlan enpresara, lanera. Derlanen tornuan lan egiten zuen. Astean bi aldiz gainera, baimen berezi bati esker, Zarauzko Klub Deportivoan futboleko entrenamenduak zeuzkan.

Hemeretzi urterekin hasi zen EPOn (Escuela Profesional Obrera delakoan) eskola ematen. Eta eskola berea bezala hartzeaz gainera, eta sartu beharreko ordu guztiak sartuta ere, eskola partikularrak eman ohi zituen etxean. Soldata berri bat atera ohi zuen honela, eskolan irabazten zuena ez baitzen beste mundukoa. Lehen soldata, 1954koa, mila pezeta hilean izan zen.

“Gure soldata —dio Imanolek—, handia ez bazen ere mundu honetako zen. Fraideena zen beste mundukoa, beste munduan jasotzeko alegia, sosik ere ez baitzuten jasotzen bere lanagatik”. EPOn nagusi ziren frantziskotarrez ari da.

Eskolan kobratzen zuenari eskola partikularrak emanez kobratzen zuena erantsi behar, etxebizitza ordaintzeko. Eguerditan eman zizkien eskolak Euromarren sukaldaritza eskolakoei, etxean hasiberria zen ikastolako andereñoiei; iluntzetan gaztetxoei, eta udan udatiarren umeei txaletez txalet. Gela bat bereziki prestatua zuen etxean eskola emateko.

Aldi berean, Antoniana Elkarteko buruzagitzako kide izan zen, gero Guraso Elkartekoa eta geroago Ikastolakoa.

POLITIKAN BIZIAGO

Areago: lan eritmoa bizitu egiten du udaletxera alkate gisa sartzen denean. Ez da, izan ere, Udaletxera sartzea bakarrik. Aldi berean Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu ere bada. Eta eskolan segitzen du irakasle modura.

1979an hasten da bere denbora hiru tokitan banatu beharra: eskola, udaletxea eta Diputazioa. 1981ean eskolan eszedentzia hartzen du, zer erre-medio. Urte horietako ordutegiari begiratutxo bat ematea aski:

- 7,30etan, udaletxera, zerbait prestatzera edo sinatzera
- 8,30tan eskola ematera
- 10,30ean-edo, berriz udaletxera
- 11etan atzera eskolara
- 13etan-edo, bazkaldu eta Diputaziora
- arratsalde-iluntzean udaletxean, oso berandu arte. Udaletxean gau eta egun lanean ezagutu du Maritzuk, atsedetik gabe.

Eta Diputazioan? Diputatu buru zela, gau eta egun ez dakit, baina astegun eta asteburu bai. Imanolek bisitatu ez duen herri eta auzorik ez dago Gipuzkoan. Asteburuero bazegoen zerbait inauguratzeko: ermita berriztaturen bat, zaharren egoitzaren bat, frontoiren bat, monumenturen bat.

1974-1983

ALKATEEN TALDEAN ALKATE IZAN GABE ERE

Alkateen Mugimenduaren lehen bilera Durun egin zen hura omen da, eta Imanol zuzen gogoratzen baldin bada, 1975eko uztailaren 12an izan zen. Urria edo abendua izango zela esaten du Jose Luis Elkorok Bergarako alkate ohiak.

Txema Urrutiari utziko diogu zehaztapenen lana, tesi doktorala egiten ari baita Alkateen Bergarako Mugimenduari buruz.

Duru Arantzazu gaineko parajea da, Aloña maldan dago, eta bertako borda-txalet batean ospatu zen bilkura. Deba Garaiko jendea bildu zen han. “Bilera hartan —dio Elkorok—, gorputza hartu zuen talde honek eta gero gu izan ginen Bergaran lehenengo urratsa eman genuenak”. Horregatik deitzen zaio Bergarako Taldea, nolabaiteko aitzindaritzara Bergarako eraman zuelako.

Duruko bilera hartatik Arrasateko zinegotzia zen Gregorio Etxabe gogoratzen du Imanolek, eta hark konbentzitu omen zituen besteak hobeto zela beren asmoetarako udaletxeetatik lan egitea, eta ez kanpotik. Eztabaida beroa izan omen zen gai horren inguruan, baina gehiengoa sartzearen alde posizionatu zen. Arazoa ez zen zehazki udaletxean sartu ala ez, baizik eta alkatezarako kandidaturak aurkeztu ala ez. Ordura arte alkateak mugimendukoak ziren, Francok jarriak. Baina 1975eko lege bati esker aurrerantzean zinegotziek hautatuko zituzten alkateak, ez Gobernadoreak.

DEBA GARAIAN HASI ZEN

Jatorrian, mugimendu hau Deba Garaikoa da, kooperatibismoaren mapa barnekoa. Herriak oso atzeratuta zeuden, premia sozioekonomikoak sekulakoak ziren eta udaletxeak hilda. Konstatazio honen aurrean zerbait egin beharra ikusten zen. Durukoaren aurreko bilerak “herrietako indar bizien” (esan ohi zen bezala) artean egin ohi ziren. Arrasate, Bergara eta udaletxeetako jendea sartuta zegoela gogoratzen da Elkoro. Hortik dator Duruko bazkaria, gaia sakontzeko eta batez ere erabakitzeko aurrerantzean zer egin, udaletxeetan alkatetzez jabetu ala ez.

Lehen bileran hor dago Imanol Deba Garaikoa ez izanik. Zarauzko udaletxeetako mugidan Imanol eta Xabin Unzurrunzaga zebiltzan buru. Eta honen anaia bat, Xabier Unzurrunzaga, Arrasateko arkitektoa zen. Horra lotura. Honen bidez egingo zen hurbilketa.

Durun egon zirenetatik oso gutxi izango ziren, ordea, alkatetza eta gehiengo eskutan zutenak hurrengo hauteskundeetan. Imanol bera zinegotzi zen Zarautzen, baina gutxiengoan, Gervasio Juaristi baitzen alkate, alkate frankista. Elkoro gogoratzen denez, lehen unean bi bakarrik zeuden alkate abertzale, aldeko gehiengoari esker: Bergara eta Eskoriatza. Ez Arrasate, ez Oñati eta ez Aretxabaleta. Taldean sartu ziren berehala Deba Garaitik kanpoko bi: Azkoitia eta Legazpia.

Eta ibiltzen hasi zen mugimendua. Alkateen Taldea edo Mugimendua deitzen zaio baina herri batzuetako alkateez gainera beste herri batzuetako zinegotziak, beste batzuetako herri ordezkariak biltzen ziren.

Imanolek beti gogoratzen dio Elkorori taldetik kanpora laga zutela bera. Imanol egon ez zen bilera batean hartu omen zen erabakia, gainera. Eta halaxe da. Gertatzen zen mugimendua azkar zabaldu zela eta tartean oportunistak batzuk ere sartu zirela, deskuidatuz gero gobernadoreak bidalitakoren bat ere bai... eta murriztu egin zuten taldea: alkateak bakarrik bilduko ziren aurrerantzean. Imanol alkate ez zenez kanpo gelditu zela aurpegiatzen die orduko alkateei. Ez zen luze egon kanpoan, 1977aren hasieran bilakatu baitzen Zarauzko udaletxeetako “jarduneko alkate”, ikurri-na jarri eta gero Gervasio Juaristi orduko alkateak dimititzean. Sei bat hilabete egon omen zen kanpoan; pare bat hilabete, dio Elkorok. Nolanahi,

orduan ere ongi informatuta zeuden, Usurbilgo alkate zen Felix Aizpuruari esker.

1977an taldean integratzen da atzera, hortaz. Baina ez exekutiban lehen egunetik. Egia Eibarko alkateari bihotzekoak ematen dionean sartuko da Imanol haren lekuan.

Baldintza onetan zegoen eta Bergarak hartzen du protagonismoa. Jose Luis Elkorok gehiengoa zuen, eta atzetik Joan Mari Otegi dago. Hau omen zen testuak-eta prestatzen zituen.

UZTAILAK 21EKOA

Sonatua eta arrakastatsua izan zen 1976ko uztailaren hogeita batean Bergaran egin zuten bilkura eta kontzentrazioa. Sekulakoa. Berreskurapen forala eskatuz, ehun urte baitziren foruak ezabatu zituztenetik: "Egun horretan Bergaran pleno bat antolatu genuen meza nagusi eta guzti; guk legearen barruan egin genuen, zeren eta manifestazioak eta bilerak eta dena debekatuta baitzeuden. Pleno horretan akordio oso potentea hartu genuen eta nik uste dut hura izan zela etxafuegoa", dio Elkorok.

Marcelino Orejak iradokitako formulaz baliatu ziren Bergaran. Eta bertara bildu ziren 68 udaletxetako ordezkariak. Aurretiaz, Bergarako Udalak egina zuen udalbatza ez ohiko bat martxoaren 29an eta Erregeari zuzendu zioten gutun bat berreskurapen forala eta autonomia eskatuz. Errenkadan etorri ziren atzetik beste udaletxe batzuk, hala nola, Hondarribia, Oñati, Zarautz, Eskoriatza, Arrasate, Elgeta, Antzuola, Eibar. Maiatzaren bukaeran 24 udaletxe zeuden taldean, horien artean Bizkaiko bi.

Bergarako bileraren ondoren hurrengo Batzar famatua Etxarri Aranazkoa izan zen, 1977ko urtarrilaren 16koa. Udaletxe honek ere berreskurapen forala eskatu behar zuen, eta gainerako udaletxeei luzatu zien gonbita. Joaterik ez, ordea, guardia zibilak itxi baitzituen bideak. Hara iristerik izan ez zutenak Bergaran bildu ahal izan ziren.

Alkateen mugimendu honek ezaugarri gisa izandako errebindikapenak bide luzea egin dute Euskal Herriko alderdi eta mugimenduetan, hala nola, amnistia osoa, euskararen ofizialtasuna, etab.

... ETA ITZALI EGIN ZEN

Urte gutxiko bizitza izan zuen talde honek. Halabeharrez. Testuinguruari begiratu bat eman behar zaio zergatia ulertzeko. 1977an alderdiak legalizatzen dira, salbu EIA, LAIA eta HASI; hurrengo urtean, 1978an, HB sortzen da ESB, ANV, HASI, LAIA barnean hartuz. Eta 1979an udal hauteskundeak datoz.

Panorama honen aurrean, eguzkia agertzen denean ilargia nola, hala xe itzaltzen da alkateen taldea.

Legitimitatearen arazoa zegoen jokoan. Imanol Zarautzen dimititzea planteatzearen aldekoa zen eta auzoetako elkarteak eta indar biziak bildu ondoren ezezkoa erabaki zuten.

Eta 1979 aurretxoan edo urte berean, mugimendu hori ordezkatzeko zutenak, buruzagitzakoak, bitan banatzen dira, modu esanguratsuan: PNVra Zarauzko Imanol Murua, Legazpiko Prontxio Larrañaga, Arrasateko Jose Antonio Altuna "Txatillo", Azkoitiko Juan Ignacio Uria; HBra Bergarako Jose Luis Elkorro, Oiartzungo Iñaki Aristizabal, Hernaniko Ignacio Iruin, Usurbilgo Felix Aizpurua.

IKURRINA UDALETXEKO BALKOIAN

Ikurrina despenalizatzea Alkateen Taldeak lortu zuen. 1976ko irailaren 15ean bildu ziren Madrilen alkateak Martin Villa Barne Ministroarekin eta Segurtasuneko Zuzendari Nagusiarekin. Eta hurrengo urtarrilean beste bilera bat egin zuten gai beraren inguruan. Han adostu zuten arautegia eta biltzarkide ziren Martin Villa eta Gutierrez Mellado teniente jenerala. Biler hori eta gero, urtarrilaren 18an despenalizatu zen ikurrinaren erabile-ra. Beste modu batera esan, ez zen delitu ikurrina jartzea edo erabiltzea. Ez da ahaztu behar hainbat jende zigortu zela isunaz eta kartzelaz ikurrinagatik, beste batzuk hil egin zirela ikurrina dorre eta gailurretan jartzeagatik eta beste hainbat hil zela ikurrin hori kentzen saiatzeagatik.

Berria jakin orduko ikurrina udaletxean ikusi nahi zuten abertzaleek. Herri askotan bezala Zarautzen. San Sebastian bezpera zen, eta enteratu bezain laster alkatearen bila hasi ziren, baina alkatea ez zen inon ageri. Gervasio Juaristi zen alkate, erregimen zaharrekoa eta ikurrinaren aurkako. Halako batean alkateak Imanoli deitu zion, eta berak ez zuela osoko bilkura konbokatuko baina Imanoli baimena ematen ziola.

Presaka eta korrika deitu zuen Imanolek ez ohiko bilkura horretara. Bilkurara zenbat lagun etor zitezkeen kalkuluak atera eta quoruma osatzeko bat falta zitzaiera konturatu ziren. Zinegotzi baten izena etorri zitzairen burura, Zulaikarena, eta haren bila joan ziren. Baina hori zori txarra, sukarrarekin ohean zegoen. Ezin zen atzera egin, ordea: manta batean bildu eta bilkurara eramane zuten quoruma osatzearen. Horrela onartu zen Zarauzko Udaletxean ikurrina balkoian jartzea.

Imanolek jarri zuen ikurrina 1977ko urtarrilaren 19an Zarauzko Udaletxearen balkoian. Sekulako ilusioa egin omen zion Imanoli. Imanoli bakarrik ez. Abertzale guztiei, noski. Imanolek egun horretan bi sentimendu zeuzkan borrokan barruan, hodeia eta eguzkia bezala: ilusioa, egun handia baitzen ikurrina lau haizeetara agertzea eta bera izatea protagonista. Baina, bestetik, bere aitaren heriotza gertatu berriak sekulako pena ematen zion, aita egun horren zain egon baitzen urte luzez. Eta egun hori argitu baino hilabete eskas lehenago desagertu behar!, bada bai zorte txarra. Zentimetroz zentimetro gora altxatzen zuen bitartean aita zuen

gogoan: ikurrina udaletxean ikusi ezin izan zuen aita eta aitak Burgosko presondegitik jantzien artean gorderik atera zuen ikurrina.

Egun horretan Zarautz guztia ikurrinez bete zen, Xabin Unzurrunzagak Itxaropenan milaka atera baitzituen. Paperezko ikurrinak ugari, baina taxuzko bat bakarra ez balkoian jartzeko. Azken orduan konturatu ziren ez zeukatela ganorazko ikurrinik. Jo batera eta jo bestera, azkenean Jose Antonio Azpeitiak utzi zien Musika Eskolan zeukatena.

Norbaitek idatzi du ikurrinari esker eskuratu zuela Imanolek Zarauzko alkatetza. Ez da gezurra. Urtarrilaren 22an Gervasio Juaristi erregimen zaharreko alkateak dimisioa aurkeztu zuen, Martin Villak urtarrilaren 15ean agindu omen ziolako ikurrina ez zela jarriko eta hitza ez betetzeagatik.

Jose Maria SETIEN

Gipuzkoako Apezpikua

- Lo que sí puedo decir es que sin que sea ningún elogio forzado, siempre me hizo la impresión de ser un hombre entero, sincero, capaz de dialogar -no recuerdo haber tenido ninguna discrepancia con él-. Yo le vi con una gran humanidad, no era un hombre que hablaba desde la distancia incluso en temas de naturaleza institucional que al parecer tenían que ser más medidas. Sin embargo yo le veía con una capacidad de relación, de comunicación abiertas e incluso diría cordial, realmente una buena persona; gizon jator bat.
- Por mi parte existía un aprecio grande hacia su persona; no solamente por el cargo que representaba sino por el modo que le veía ejerciendo su cargo de diputado general. Y creo que él tenía un aprecio grande hacia mi persona y las cosas que yo decía.
- Había una sintonía muy grande en la manera de enfrentarnos no solamente con los asuntos concretos que hacían que estuviéramos juntos sino también en el hecho de que un obispo y un diputado general en aquellos asuntos pudieran estar juntos sin que eso pareciera una indebida relación de dos autoridades que tienen que ser independientes cada uno en su campo pero que podían expresar su sintonía y el acuerdo que entre ellos podía haber.
- Era un hombre que distinguiría por estas dos cualidades aparte de las relativas más directas al ejercicio de su cargo: de una fe o religiosidad sincera, de un amor también sin rupturas en lo que se refiere al pueblo vasco al que desde su cargo quería servir. Pienso que la escisión que se dio dentro del actualmente llamado nacionalismo vasco le hizo sufrir mucho (nunca hemos

hablado de esto detenidamente). Por expresiones yo podía confirmar que se daban estas dos formas de amor en él: amor al pueblo vasco y amor al pueblo cristiano.

- Descubrí a un hombre que sentía con la naturaleza, que era honesto con ella.
- Es una humanidad rica. Sin embargo no tenía por qué ser débil sino todo lo contrario: de la profundidad del afecto también salían decisiones firmes; las mantenía y ejecutaba lo que creía que tenía que hacer.

“LAUTAN” ALKATE

Bi alditan agintaldia osorik bete zuen, eta beste bitan zatika.

Gervasio Juaristi alkateak dimititzean hartzen du Imanolek lehen aldiz kargua, jarduneko alkate gisa. 1979an EAJren izenean aurkeztu eta gehiengo absolutua lortzen du. 1983ko hauteskundeetan berriz aurkezten da, eta berriz irabazle suertatzen. Aldi berean Diputazioko Kulturako diputatua denez, Antonio Alberdi alkateordeak hartzen du bere gain ardura nagusia. Imanolek ez du legealdia amaituko, gainera, EAJn gertatzen den etenaren ondorioz, Jose Antonio Ardanza aukeratzen baitute Lehendakari eta Imanolek hartzen baitu haren lekua Diputazioan, Ahaldu Nagusi. 1991 arte kargu horretan mantentzen da, 1987an berriz aukeratua izan ondoren. Diputazioa utzi eta segidan ez da udaletxean sartuko legealdi baten txandapasa eginda baino, 1995ean hain zuzen ere.

Esan bezala, 1983tik 1985era Imanolen ordezkoa da Antonio Alberdi Udaletxean, eta 1985etik aurrera bera da alkate. Hamasei urte jarraian eman ditu Udaletxean Antonio Alberdik, horietatik hamar alkate lanetan. 1979an sartu zen Imanolen ekipoa. Imanolen bigarren agintaldian hiri-gintzaz arduratu zen eta alkateordea zen. Alkateorde arrunta baino gehiago, egia esan: Imanol Kulturako diputatu ere bazenez, Antonio Alberdi liberatu egin zen eta Imanolekin batera alkate-lanak egin ohi zituen. EAJko krisiaren kariatz, Imanolek utzi egin behar izan zuen alkatetza Ahaldu Nagusi izateko eta orduan Zarauzko Udalbatzak Antonio Alberdi aukeratu zuen. “Baldintza batekin onartu nuen kargua — dio Antonio Alberdik—, talde independente gisa jokatzekotan, Udaletxean geunden bitartean inoren alde ez agertzekotan; gero, har zezala bakoitzak nahi zuen bidea”. Eta halaxe egin zuten. EAJren izenean aukeratu izanak ziren, noski, baina krisi garaian alderdi honek kanporatu egin zituen.

Antonio Alberdi Imanolen ikaslea da. Ikasle izan zen Lanbide Eskolan eta ikasle alkate lanbidean. Imanolekin ikasi omen zuen herriarentzat lan egitea zer den. “Lana, lana eta lana”, horretan biak berdinak direla, dio. Baina gero bakoitzak duela bere kudeaketa modua, bere temperamentua. Imanolek egin eta saltzen omen daki, “politikoagoa” omen da. Antoniori, aldiz, egitea gustatzen omen zaio, “gestión a tope”. Herriaren alde dena eman duten alkateen azken belaunaldikotzat dauka bere burua.

JARDUNEKO ALKATEA AITAREN EREDURA

1974an sartu zen Imanol Zarauzko Udaletxean zinegotzi gisa. Udaletxe frankista zen artean eta urte horietantxe "herriko indar biziak" jada hasiak ziren erakundeetan presio egiten eta zirrikituen bila. Herriko gurasoen esku zegoen elkarte baten eraginez lortu zuten Imanolek, Xabin Unzurrunzagak eta Felix Ezkiagak udaletxera sartzera, barrutik egiten den lana eraginkorragoa delakoan.

Francoren heriotzarekin abiada handia hartu zuten gertakariak. Horrela, 1977an ikurrina jartzea despenalizatu egin zen, eta Imanolek altxatu zuen Zarauzko Udaletxean, nahiz eta alkatea Gervasio Juaristi izan. Juaristi, alkate frankista, ez zen bileran egon; eta ez da hori baka-rrik, dimititu egin zuen, urtarrilaren 25ean, ikurrina ez zela bere agintal- dian jarriko agindu omen ziotelako.

Imanol izan zen harrez gero jarduneko alkate, 1979 arte. Alkate inde- pendente bezala jokatu zuen urte hauetan, nahiz eta bera pertsonalki PNVkoa izan 1976-77 ingurutik. Ez zen guztien gustukoa izan jokamolde hori, antza denez, 1979ko hauteskunde kanpainan, Jose Antonio Agirre, Landaburu eta bereziki aitaren ereduak errebindikatu behar izan baitzi- tuen bere alde:

"Eta amaitzeko aklarazio bat. Norbaitzuk ari dira esaten ez naizela alderdikoa. Hau esaten dutenek hala nahiko lukete noski. Baina alkate- tzarako gelditu baino lehenagotik EAJn izena emana nuen.

Alkate independente bezala jokatzeko saiatu naiz, ez bainintzen uda- letxera EAJren izenean joan. Alderdi guztiekin izan ditut harremanak eta bere iritziak errespetatzen saiatu naiz. Eta aukeratzen banauzue aurreran- tzean ere saiatuko naiz.

Jokabide hau EAJren betiko jokabidea izan da eta Jose Antonio Agi- rre eta Landaburuk beste batzuen artean garrantzi handia ematen zioten jokabide honi.

Eta niretzako izan den gizonik jatorrenak erakutsi zidan niri. Nire aitak. Nire aita Zarautz maitalea zen, abertzalea, gudari eta jeltxer- katua. Eta besteen iritziak errespetatzen zekiena. Hura bezalakoa izan nahi nuke nik".

1979: ALKATE GEHIENGO ABSOLUTUAREKIN

Legealdi honetan Imanol ez da jada independentea, EAJko alkatea baizik. Honela definitzen du berak 1981ean bere burua:

“Ez dut uste horri erantzuteko egokiena naizenik, baina Zarauzko alkate izaten saiatzen naizela esan behar dut. Gauza jakina da EAJkoa naizela, baina ni Zarauzko alkate bezala jokatzeko ari naiz. EAJren ikuspegi politikoetatik noski, baina Zarauzko alkate bezala”.

Gehiengo absolutuarekin hartu zuen kargua Imanolek, 11 zinegotzi jeltzale inguruan zituela. Eta hala ere, udaletxeko sailak alderdien artean banatu zituen. Rodilloari uko eginez? Markaidek gogoan du HBri Hirigintza eman ziola. Keinu bezala baloratzen du, baina ez sakonago, efektista efektiboa baino gehiago, eskutik baitzuen Imanolek gehiengo absolutua.

Botere banaketa horretan, eskuzabaltasuna eta agintearen demokrati-zazioa ikusi nahi dute batzuek. Eta besteek, itxurakeria, irudi apainketa, oposizioari ahoa ixtea.

Udalbatzan jendeari parte hartzen uztearen zalea zela Imanol gogoratzeko dute kideek. Zinegotzietan noski. Baina herriko jendeari ere bai, sei ordu aurretik eskatuz gero. Eta behar zenetan, legez ezin zenez herriari hitza zabaldu, jendeak hitz egin zezan plenoa eten egiten zuten, eta ondoren atzera berrabiatu. Herriaren parte hartzea ez zen jasotzen aktetan, errekurritu egiten baitzuen Gobernadoreak.

Galdera handi batzuei erantzun behar izan zitzaizkien agintaldi honetan. Zein da Zarautzen etorkizuna? Turismo herria? Industria herria? Lo egiteko herria?

Hirugarren aukerari uko egin ondoren, beste bi aukeren artean ez dago hautatu beharrik, biak landu behar baitira. Hori zen Udaletxearen borondatea, turismoa eta industria, biak indartzea; eta horixe erakutsi zuen enkargatu zen azterketak.

Imanol ibili da Euskal Herriko Unibertsitatearen fakultateren bat lortu nahian ere.

Azpiegiturak eta egiturak atontzen, finkatzen eta hobetzen gogotik lan egin zuen Imanolen ekipoak, zerbitzuetan bezala irakaskuntzan eta gizarte ekintzen sailean. Berak esaten zuen denen artean eginak zirela, eta egia zen, baina bera zen suspertzaile eta kudeatzailea.

Giro politiko nahasia zen nagusi urte horietan, korapilatsua gestore batentzat. Udaletzeko aktak lekuko aproposak dira Euskal Herriko arazoan paisaia margotzeko. Zarautzen bertan manifestazioak, tiroketak, hildakoa, presoak, guardia zibilen sarraskiak eta ETAren atentatuak ez dira falta izan. Udalbatzako mozio politikoetan herriko eta kanpoko arazoak tartekatzen ziren, Vista Alegreko tiroketa eta hilketa, Hiruerreketakoa, Lemoizko zentrala, presoena, amnistia, etab. Baina beharbada oihartzun handiena izan zuena Haizeakoa da, 1980ko azaroaren 3an gertatua. Haizea kafe-tegian sartu eta barruan zeuden guztiak indiskriminatuki tirokatu zituen ETAk: bost hil zituen, lau guardia zibil eta herriko mutil bat, Miguel Lasa; eta bost gehiago zauritu. Txikiren hilketaren ondoren Zarautzek bizi izan zuen egun beltzena bezala jo zuen hau prentsak.

Haizeako atentatuaren kariaz, Juan Jose Markaide HBko zinegotziak bere dimisioa aurkeztu zuen. Markaide, politikak banatu zituen arte, Imanolekin batera ibilia zen Donostian ikasketak egiten, Lanbide Eskolan irakasle, Antoniana Elkarteko Juntan, Guraso Elkarteko Batzordean eta Ikastolako Zuzendaritzan.

HIRUGARREN ALDIAN, EATIK

Jaistea zela irizten zion askok Ahaldu Nagusi izan ostean orain Zarauzko alkate izateari. Imanol ez ezagutzea da hori. Behin eta berriz esan du berak kargurik estimagarriena berarentzat Zarauzko alkate izatea dela. “Ez dut uste —zioen berak—, nor bere herriko alkate izatea jaistea denik. Beti esan ohi dut, diputatu nagusi nengoenean ere, kargurik gustagarriena Zarauzko alkate egin nituen urteak izan zirela”. Ez da, hortaz, ohore kontua. Gustu arazoa baizik.

Zarauzko alkatetza utzi berritan ere gauza bera ziurtatu zuen: “Beti esan izan dut, zeure herriko alkatetza baino kargu hoberik ez dagoela, eta egia da”.

IMANOLEN “TIROIA”

Imanolen “tiroiaz” lerro bat baino gehiago idatzi da. Aho batez aitortu izan zaiola esan daiteke. Berak ere ez du ukatzen, apalegia izatea ez dela-eta

ona. Hiritarregana iristeko daukan erraztasunean, eta giza arazoei hurbiltzeko daukan sentsibilitatean oinarritzen du arrakasta.

Imanolen tiroi hori alderdi batek baino gehiagok, behin baino gehiagotan, aprobetxatu nahi izan du. Bere alderdiak noski. Baina baita besteek ere. Zarauzko alkatetzarako lehen aldikotz aurkeztekoa zenean HBren eta EEren eskaintzak izan omen zituen. EAJk ere keinu bat baino gehiago egin izan dio haustura ondoren, alde egin ez zezan egin zituen ahaleginak, "presioak", sei lagun batera Diputazioko bulegora etorrita. Urte batzuk geroago esan izan da EAJk amestu izan zuela Araban Cuedak egin zuena, Gipuzkoan Imanolek egitea, "Gipuzkoako Cueda" bilakatzea alegia. Batzar Nagusietako lehendakariak bota zion behin Cueda izateko aukera galdu zuela. Erantzuna: "ez naiz sekula oportunistak izan. Kargu bat bakarrean ere oportunistak naizelako ez naiz egon".

Gustura onartu ala ez, Imanolen tiroia begi-bistakoa da. Jose Mari anaiak esaten zion Imanoli alderdiko etena eta gero: "Hi PNVn geldituz gero, denak PNVra Zarautzen".

1995ean ere, Diputaziotik bueltan, alkate gisa aurkeztu zenean ia gehiengo osoa atera zuen, oso boto gutxi faltatu zitzaion EAri bederatzigarren zinegotzia izan eta gehiengo absolutua edukitzeko. Gorakada handia egin zuen alderdiak Zarautzen.

INTSUMISIOA

Lehen aldiko agintaldiarekin alderatuz, azken hau bareagoa izan dela esan daiteke. Orduan baino gutxiago eragin dute udal aretoan kanpoko gertakariak, alegia. Bestalde, orain ez bezala orduan edozein errebindikazio edo proposamen udaletxeak bideratu behar zuten itxura batean. Bideak dibertsifikatu egin dira orain.

Dena den, bazegoen herriz herri zebilen gai bat: intsumisioa. Alderdiak hala erabakita, hainbat herritan intsumisioa babestea eta laguntzea erabaki zuten udaletxeek. Zarautz zen horietako bat. 1996ko maiatzean Zarauzko udal batzarrak Espainiako Armadari ez laguntzea erabaki zuen eta, hortaz, soldadutza egin behar zuten zarauztar gazteen zerrenda ez ematea. Hurrengo urtean, 1997ko abuztuan, Espainiako Armadak herriko gazteen zerrenda eskatu zuen, eta Udaletxeak ukatu, jakina zenez. Eta zer

da eta, Justiziak beste inori baino zigor handiago ematen dio 2002ko otsailean, Justiziar laguntza ukatzea egotziz: 2 urteko inhabilitazioa eta 2.160 eurotako isuna. Ordurako intsumisioa zigorgabetuta dago eta soldadutza kenduta. Justizia espainiarraren bideak Jainkoarenak baino ulergaitzagoak dira, itxura guztien arabera.

JOSE IGNACIO IRURETAGOIENA ETAK HIL ZUENEKOA

1998ko urtarrilaren bederatzian ohean zegoen Imanol, ziatikak oheari josita, gihar baño ere mugitu ezinda, oinazez. Jose Ignacio Iruretagoiena PPko Zarauzko zinegotzia ETak hil zuela esan zioten arte: bizarra egin gabe atera zen kalera, Jose Ignacio zegoen anbulantziara zuzen. Erizain batek buruarekin egin zion ez zegoela zer eginik. Eta hantxe bertan negar batean hasi zen. Ziatikaren oinazeak kolpean pasatu zitzaizkion, baina samin berriak kolpatu zuen, honek bihotzean.

Ezin zuen ulertu gertatua. Nola da posible Jose Ignacio jotzea, "gizon ona, langilea eta bakezalea?", galdetzen zion ozenki behin eta berriz bere buruari, eta ingurukoei. Prentsari deklaratu zion bezala: "Gauza hauek beti afektatzen naute, hemengoak ez direnean ere, eta zer esanik ez ingurukoak direnean eta bi urte eta erdi berarekin lan egin ondoren. Batez ere jakinda gizon langilea zela eta bakearen defendatzailea. Ez zebilen polemika antzuen bila, ez gurekin eta ezta ere HBko zinegotziekin. Leialtasun handiko gizona zen. Ez zen agresibo horietakoa. Presoak gerturatzearen arazoa tratatu zenean ere neurritz jokatu zuen, beti ere irteera baketsuen alde".

Legealdi osoa izorratzeko modukoa izan zela kolpe hura aitortu du Imanolek.

Abuztuaren 16an Zarauzko Seme Kutun izendatu zuen.

DIPUTATU NAGUSIA IZATEARI UKO

Ez da ezaguna historia hau. Xabier Aizarna bizi zela ez zitzaion Imanoli egokia iruditu gertatuaren berri ematea.

1979an Zarauzko alkatetza estreinatu berritan, EAJko Gipuzko Buru Batzarrekoak etorri zitzaizkion Diputazioa eskaintzera: Eli Galdos, Joseba Leizaola eta Patxi Albisu. Ezin du zehatz esan, baina Imanolen aurretik beste norbaiti ere proposatuko ziotela iruditzen zaio Patxi Albisuri. Jesus Mari Alkaini? Eli Galdosi?

Ezezko biribila jaso omen zuten Imanolen ahotik. Emaztea konbentzitzen ere saiatu ziren, baina alferrik. Imanol baino gogorrago zegoen Maritxu, ezezkoan.

AURKA ETA ALDE

Imanolen inguruan zebiltzan guztiek gogoratzen dute gertakari hura, ñabarduretan nahastu eta trabatzen badira ere. Xabin Unzurrunzaga kontra zegoen, hurrengo alkatea berak beharko zuelako. Basilio Bergara ere kontra: "Ba al dakizu zer den ordura arte ardatz guztia Imanol izan eta hura diputatu joatea, eta gero hemen zein gelditu?... Niri ikastolan gertatu zitzaidana, Imanol joan eta gero, ezta pentsatu ere berriz".

Alde, Imanol Diputaziora joatearen alde, bat bakarra zegoen, dirudie-nez. Inazio Lertxundi. Berak ez du horrela gogoratzen, dena den. Joatearen alde denak zeudelakoan dago Inazio, Imanol bera ere bai. Baina deskuidatuta dago seguruenik. Maritxu emaztea omen zen kontra zegoen bakarra. Maritxuk atzeratu zuela uste du Inaziok. Maritxu konbentzitzen ere saiatu zen. Inazio bera Imanol joatearen alde zegoela ez dago dudarik: Zarauzko alkatetza moldatuko zela, halako eskaintzari uko egitea erantzukizun handia zela, garrantzitsua zela Imanolentzat kargu hori, kargu horretarako balio zuela. "Joan adi aurrera lasai", esaten zion garbi.

HERRIARI IRUZURRA

Maritxu eta Imanol biak zeuden ezezkoan. Maritxu beharbada Imanol baino egoskorrago. Sekula ez duela horrela ikusi esaten du Basilio Bergarak. Arrazoi nagusiaz gainera, iruzurra alegia, pisuzko gehiago ere bazi-

Eugenio AZPIROZ

Batzar Nagusietako kidea

- Mi experiencia, mi contacto con Imanol Murua fue muy positivo. Yo creo que él siempre tuvo la claridad y el sentido democrático además de saber tratar a todo el mundo, de escuchar a todo el mundo y de consultar a todo el mundo. Al punto que cuando llegaban los debates presupuestarios a mí me llamaba a la Diputación y me explicaba las directrices políticas de lo que él estimaba que en ese ejercicio se debería abordar y las incorporaciones y novedades que pretendía introducir en el territorio histórico nuestro, y yo le hacía las preguntas que me parecían pertinentes.
- A mí no me ha resultado nunca ningún tipo de problemas sentarme a hablar de lo divino y de lo humano con Imanol Murua y además lo hemos hecho.
- En ese sentido él sabía pulsarnos a todos y sabía hacer al cabo del año por lo menos en una ocasión o algunas veces dos, una comida con todos los portavoces. Eso al final produce una cierta distensión y acercamiento de posiciones; no se habla con la rigidez que impone el que cada uno tenga que hablar en público, que está como un actor que se supone que tiene que desarrollar un determinado papel. Realmente éstas son las cosas que permiten avanzar y aproximar y yo creo que Imanol Murua esto lo hacía de una forma muy espontánea, muy natural, muy suya, muy campechana. Él es un hombre muy campechano en su forma de proceder y de expresarse y en ese sentido yo tengo un grato recuerdo de la persona de Imanol Murua de aquellos años. No dejó de estar exento de inteligencia política en su comportamiento. Creo que fue un comportamiento positivo para todos. Este tipo de relación humana favorece que haya espacios de encuentro y muchas veces limita las perspectivas de lo que es

una diferencia de ideas muy legítima por todos y que tampoco tiene por qué desaparecer. Siempre entiendes mejor la perspectiva del otro, lo cual no es malo. Yo creo que Imanol ha sabido propiciar eso. Ahora se está hablando mucho de talante; hay que hablar menos de talante y practicarlo más y hay quien lo practica y hay quien lo manifiesta; a mí me gustan más quienes lo practican; que es el caso.

- Yo creo que nuestra relación política, cuando Imanol ha sido diputado general o ha tenido responsabilidad plena de gobierno, ha sido de plena lealtad cada uno desde su posición: no ha habido maniobras por detrás. Ha habido una relación muy leal.

tuen Maritxuk: ustekabeen etortzea aurreabisurik gabe, dena kolpeka eta ez pausoka, familia gaztearen egoera.

Maritxuk bizi-bizi du gogoan:

“Alkatetzarako atera eta gero Diputatu Nagusitarako proposatu zute-nean (1979an) iruditu zitzaidan herriari fraudea. Sutan jarri nintzen. Alkate izatea onartu eta pasatzea gauza bat da, baina Diputazioko presidente! Alderdiarengatik eta denagatik jarri nintzen kontra; zer fundamentutako alderdia daukazue Diputatu Nagusia zein izango den arrastorik gabe baldin bazaudete? Alkatetzarako aukeratu zaitu herriak eta orain zer fraude da hori, alkatetza utzi eta Diputaziora joatea? Eta familia zer? Gu oraindik aita alkate izatera ohitu gabe eta orain diputatu... Etorri zitzaizkidan atera konbentzitzera, leku guztietatik etorri zitzaizkidan eta nik “ezta pentsatu ere”. Eli Galdos eta Joseba Leizaola ere etorri ziren etxera eta ez dut esango aidean joan zirenik baina “hortxe-hortxe”, oso haserre nengoen, baita Inaxio Lertxundirekin-eta ere.

Nik orduan pentsatzen nuen fundamenturik eza, herriari, etxekoei eta denei engainua zela eta ez nuen onartzen hori, eta alkatetza onartzea nahikoa pauso handia izan zela.

Ez neukan dudarik, pentsatzen nuen ez zela egokia eta ez nuela nahi Diputazioko buru izatea; ez zen momentua. Herriari fraudea egitea zela pentsatzen nuen eta familiarako ere ez nuen egokia ikusten. Esan nion hori ere: nahikoa zela alkate izatea onartzea (ikusteko geunden horrek zer suposatzen zuen) eta Diputatu Nagusi izateko ez geundela mentalizatuta eta prestatuta. Ez zen etxekoa bakarrik, gauza asko zeuden eta tartean hori zegoen: alkate aukeratu zuela herriak eta hori laga eta nora joan behar zuen, hori herria engainatzea zela”.

Urte horretan, 1979an, gaztea zen oso familia: lau seme-alabek 11 eta 16 urte bitartean zeuzkaten.

Herriari pufoa, engainua, iruzurra aipatzen ditu Imanolek ere, ezezkoaren arrazoietan:

“Nik ez nuen joan nahi eta esango dizut zergatik: iruditzen zitzaidalako Zarauzko herriari ‘pufo’ bat sartzea zela: ni alkatetzarako aukeratu eta nik alde egin eta Xabin jarri alkate? Nik horregatik ez nuen nahi. Ez da atrebitzen ez nintzelako: beldur pixka bat ematen zidan baina... Niretzat oztoporik handiena zen alkate izendatu eta hurrengo egunean alde egitea, esango baitzuten: orain arte non egon da bada hau hori ez esateko?”.

IMANOLEN "ILUMINAZIOA"

Basilio Bergara urte askotan izan zen Zarautzen Euskadiko Kutxako burua. Imanolek eta berak Ikastolako zuzendaritzan egin zuten topo. Hantxe hasi zuten urte luzetako bidea, Ikastolaz gainera Udaletxea ere zeharkatuko zuena.

Ikastolako lehendakaritza Imanolen ondoren hartu zuen Basiliok eta 1978an amaitu. Ia segidan Udaletxera joateko konbentzitu zuen Imanolek, eta hantxe dago Basilio 1979an zinegotzi. Imanolen Santxo leial, deitu zion Andu Lertxundik.

"Halako iluminazioaldi batean deitu zidan Imanolek, —dio Basiliok—, eta esan zidan: egon nauk pentsatzen eta egin ezak kontu Udaletxe askotan eta batez ere Madril-en eta kristoren zorrak dituztela eta gobernuak dirua emango dik eta guk ez zaukagu batere zorrik; zorrak egin behar ditiagu, planoak eta adjudikazioak egin eta amnistia etorriko duk gero.

Bisio bat izan omen zuela eta hori egin behar genuela; baita egin ere".

Eta Imanolek aurreikusi bezala gertatu zen, dio Basiliok: "Lege bat etorri zen zor hori zuenak presentatzeko eta hor sartu zen eta bi edo hiru urtean gobernuak ordaindu zituen eta obra horiek ordainduta geratu ziren. Hori bisio ikaragarria izan zen".

Logika ximplea erabili zuen Imanolek erabaki hori hartzeko. Logika, kalkulu politikoa eta ausardia: Udaletxe handi asko ikusi zituen zorpean, batez ere Bartzelona eta Madril. Aldi demokratiko berriari ezin zaio horrela hasiera eman, pentsatu zuen, erregimen zaharreko zorrekin. Zorrak kitzatzeko moduren bat asmatu beharko dute. Bai asmatu ere, 1979 aurretik hasita gainera.

Imanol Udaletxera sartu arte Zarauzkoan beti izaten omen zen dirua, ez omen zuten behin ere krediturik eskatu. Imanol sartu zenean Udaletxeak zorrik ez zuen bat bakarra ere, eta 75 milioi pezeta kutxan. Ez zuten luze iraungo.

200 MILIOIKO SUBENTZIOA, AZKEN BATEAN

"79ko ekainean hauteskundeak egin ziren eta nik aurretiko probisional horietan, asanbladan baimena eskatu nuen kiroldedirako 100 milioiko kre-

ditua ateratzeko; behar genuelako eta gainera nik aurreratu egin nuen horrelako zerbait gertatuko zela: hauteskondeekin zorrak kitatzeko erraztasunak emango zituztela. Gero 1979an gauza mordo bat egin genuen: polikiroldegia martxan zegoen, oraindik bukatu gabe, baina lanak aurreratu egin nituen zor gehiago egiteko eta momentu batean izugarrizko zorra eduki genuen: %40.

Nik esaten nuen halako amnistiaren bat emango zutela; 1979an segituan ez zuten eman baina 1981ean-edo eman zuten. Zorren erdia amnistiatu egin zuten eta beste erdia interes baxuko kreditu oso luze baten bidez eman ziguten eta handik urtebetera kendu egin ziguten gainera. Zorrak, pentsa ezazu, 200 milioi zirela, 200 milioiko subentzioa jaso izan bagenu bezala egin genuen, 'a fondo perdido'".

Ardanzak hurbildik jarraitzen zuen Zarauzko berri. Basilio Bergara lankidearekin egiten zuen topo, Caja Laboraleko abokatua baitzen Arrasateko alkate izan aurretik. "Zuek ez dakit nola baina moldatzen zarete". Alkate gisa Imanolekin ere egin ohi zuen topo. Pribilegiozko informazioarekin jokatu zuela esaten zion eta Imanolek ezetz: sen onarekin jokatu zuela, bestelako informazio-iturririk gabe, sen on soilarekin eta egia da.

Itxura guztien arabera, bistaz jokatu zuen, bai, baina ausart ere bai! Gaur ezin da horrela jokatu, baina ez zen samurra orduan ere.

"Orain ez nintzateke ausartuko hori egitera —dio Imanolek—. Momentu hartan guztiak ausartak ginen; beno, Zarauzko interbentoreak dimititu egin zuen! Herri guztian zabaldu zuten Zarauzko Udaletxea porrot eginda zegoela eta ez zuela gehiago bururik altxatuko".

MADRILEN ETXEAN BEZALA

Pako Urkiak dio berak zinegotzi gisa Udaletxean Imanol ezagutu duen denbora gutxian aurreko alkate guztiak batera baino gehiagotan joan dela Madrila. Eta jarraian zera eranstean du: “Baten batek herrirako lan egin badu, Imanol da hori, lehenengoetarikoa da bera. Ezin liteke esan lehena, niretzat bai baina”.

Autonomiarekin Madrilerako bidaiak asko gutxitu dira, bereziki Kontzertu Ekonomikoa eskuratu zenetik. Aurretik, dirua nahi zuenak Madrila joan behar zuen, gaur bai eta bihar ere bai. Ministerioetara. Eta haietara iristeko, ate irekitzaileak behar askotan. Zarautz leku pribilegiatua izan da, udatiar askok giltzaren bat bazutelako. Pako Urkiak esaten duen “jende lodia” beti egon da Zarautzen, eta on da horien laguntzaz baliatzea. “Jende lodia”, “jende handia”, bietara esaten da Zarautzen.

UDATIARREN LAGUNTZA?

Badago mito edo leienda bat, topiko bezala funtzionatzen duena, eta da Zarautzen uda pasatzen egon ohi zen aristokraziak baliatu izan zela Imanol, hauek izan zituela pasilolagun Madrilgo Ministerioetan. Are eta errazago golf zelaian elkarrekin topo eginak baitziren.

“Ez da exajeratu behar —dio Imanolek—, aristokraziak indar gutxi zuen Ministerioetan eta ni ez nintzen gehiegi baliatu haietat”.

Kasu bat edo beste bai. Luis Alvarez de Bohorgues, Gor-ko Dukearen semea, golfean ezagutu zuen Imanolek, elkarrekin golfean jokatu zuten, eta honi laguntza eskatu zion kiroldegirako, “Consejo Superior de Deportes”-eko zuzendari orokorra izan zen garaian. Zarautzartzat omen du honek bere burua. Gero Benito izeneko bat egon zen postu berean eta honen anaia ere laguna zuten golfean; eta noski, honengana ere jo zuen.

Gainerako guztiak ez ziren aristokratak, eta gutxiago politikariak, Ministerioetako jendea baizik, funtzionariak eta zuzendariak. Legazpiko alkatea zen Prontxio Larrañagarekin ikasi zuen norengana joan behar zuen artez eta zuzen: “al funcionario de la pasta”.

LAGUN BERRIAK MINISTERIOETAN

Gehien-gehien lagundu ziona Faustino García Lozano izan zen. “Ministerio de Obras Públicas”-era egin zuen lehen bidaiari ezagutu zuen. Eta zeharbidez, gainera. Prontxiorekin egin zuen lehen bidaia hori, artean alkate. Ministerioko zuzendariorde zen Isidro Olivaresengana joan ziren. Zarauzko alkate gisa aurkeztu zion Prontxiok Imanol. Zarauzkoa? Berak ezagutzen zuela Zarauzko forofoa zen bat, eta deituko ziola. Horrelaxe ezagutu zuen Faustino García Lozano, ingeniari agronomoa, Zarautzen urtero uda ematen zuena. Gizon xumea, apal-apala, oso maitea Ministerioan eta dena ezagutzen zuena. “Hura ikusita nola pentsatu ‘Obras Públicas’-eko Ministerioan zer influentzia zeukan”, komentatzen du Imanolek harriturik.

Ministerio berean beste bat ere ezagutu zuen, Urbano Arregi, hau zuzendariorde teknikoa.

Faustino zer esanik ez, baina Isidro eta Urbano ere lagunak egin zituen Imanolek. Harreman pertsonal horrek urtetan jarraitu zuen.

Imanolen gestioak aipatzean beste izen bat ere maiz agertzen da hasieran, Javier Isturitz. Hau zarauztarra da izan, notarioaren semea, eta Madrilen bizi zena. La Sallen Imanolekin ikasketak eginga, Allepunta futbol taldean elkarrekin jokatuak dira eta elkarren adiskide. Merkataritzako Ministerioan zegoen, eta hasieran ateak irekitzen lagundu zion.

“Hor atera behar den konklusioa da —dio Imanolek—, nik ez nuela izaten erreparorik edozeinengana joateko herriarentzat zerbait atera behar bazen”.

Prontxiok irakatsi zion lezioa berehala ikasi zuen:

“Hor garrantzitsua izaten da tartean dauden teknikari eta idazkariekin ondo eramatea, zeren azken finean hauek mugitzen baitituzte papearak eta hauek eramaten baitute proiektuen martxa. Ni beti Isidro eta Urbanorengana joaten nintzen, baina aurrena beti Faustinoarekin egonda”.

Aste osoa Madrilen gestiotan ez pasatzeko metodoa ere asmatu zuen:

“Agudo ikasi nuen Madrilgo Ministerioan ibiltzen... Adibidez ‘Obras Públicas’-era joan behar bagenuen, hartzen genuen goizeko 11etarako edo ordua eta gero gainontzeko bisita pila bat aurretik ordua hartu gabe egiten genituen: ‘he venido a hacer una gestión y de paso quisiera...’, 6 edo

8 gestio egiten nituen, baina haiei ordua eskatzen hasiz gero Madrilen 3-4 egun behar dira”.

JARRAIPEN ETENGABEA

Gestioetan arrakasta izateko beste hiru gakoak baliatu zen Imanol: bat, gaien jarraipen nekagabea egin; bi: lata eta pelmada eman; eta hirugarrena: kotxea hartu eta Madrila.

“Nik nire idazkariari esaten nion deitzeko asteartero Madrila; pista segitzeko. Esaten nion kontrolatzeko ea zein sailetan zegoen eta iruditzen bazitzaion lekuren batean denbora askoan zegoela abisatzeko niri. Eta beti izaten zen ataskoren bat eta segituan joaten nintzen Madrila ea zer gertatzen zen ikustera. Tramiteak luzeak izaten zirenez jendea egiten zen nazkatu; hainbeste bidaia eta... Baina dirua bazegoen eta segituz gero iritsi egiten zen baina jende askori nola oso luzea egiten zitzaion, bide erdian geratzen zen. Nik banekien ordea segituz gero iritsi egiten zela eta nik esaten nien 10 milioi kobratuz gero Madrilerako bidaiak nahiko errentagarri ateratzen zirela.

Anbulatorioa, kontsultorioa egiteko kristoren lata eman genien. Guk aurrekontuan ez zegoen erreforma bat egin genuen, sei milioi gehiago ziren eta aurrekontua onartuta zegoen eta azkenean “por latoso” lortu nuela esan zidaten. Ba al dakik zenbat buelta egiten nituen? Astean behin joaten nintzen Madrilerara alkate bezala nengoenean! Hor gauza asko lortu nituen denbora gutxian eta asko “a base de ir y dar la pelmada”. Gu enteratzen ginen batetik edo bestetik han dirua bazegoela, askotan idazkariak berek ere informatzen gintuzten.

Niri ez zitzaidan Madrila joatea batere kostatzen; neure kotxea hartu eta goizeko 4etan irten, Madrilen gestioak egin eta iluntzerako berriro ere buelta; orduan ez zitzaidan kostatzen, orain bai! Azkeneko aldiz Udaletxean egon naizenean hiruzpalau gestio pilatu arte itxaron egiten nuen, baina orduan...”

UDALETXEA POLTSIKOAN

Udaletxea poltsikoan? Bai, alegia, “kalera irten eta Imanolek ematen zuen bulegoa patrikan zeukala, zeren gelditzen zen edo edozeinek gelditzen zuen eta ez zion esaten hurrengo egunean Udaletxera joateko; edozeinekin hitz egiten gelditzen zen eta gero beti errekuperatu ezinik ibiltzen zen”. Emazteak jakingo du, bai, zerbait horretaz. Eskarmentu galanta izango du, ez da zertan auzitan jarri. Ez dugu burua asko nekatu behar Mari-txuri sinesteko, Imanol ezagututa.

1998an Imanolek berak esan zion kazetari bati: “Lo mío, de verdad, es la Alcaldía. Tengo la casa a un minuto del Ayuntamiento, los amigos... Todo está a mano”. Bai, dena eskura, dena bat, etxea, kalea, udaletxea. Jokabide hori zer da, jarrera ala izaera? Jarrera adina edo gehiago izaera da Imanolen kasuan. Oso herrikoa. Hurbila, saiatua, laguntzeko beti prest. Eta galoirik gabe dabilena.

Behatoki paregabea du Ramon Aginagak, Zarauzko parroko urte askotan izanda. Badaki Don Ramonek Imanol nolakoa den, eta herriak zer pentsatzen duen hari buruz: “Herrian oso maitea da Imanol. Ez du anbiziorik, ez da joan horren bila.

Oso ondo ikusia dago Imanol herrian. Alkatetza laga du, baina horrek hemen ez darama titulurik! Herri mailan edozeinekin ikusten duzu, oso behekoa da, herrikoa. Txikiteoan edozein egunetan eta edozeinekin. Ez da harrotu, dena izanda ere.

Bai, bai. Oso ondo ikusia, maitea. Gero herrian alkate izan denean oso gertukoa izan da. Jakin du honek agintea herriarekin erabiltzen, herriaren alde, herriarekin batera, herrian biziz”.

UDALETXETIK TABERNARA

Izaeraz gainera jarrera. Imanolek estrategikoki ere harreman hori bilatu egin du, etenak ekidin, loturak mantendu eta landu egin nahi izan ditu. Harremanaren gozoa erein du, uzta garaian maitasuna biltzeko.

Kasu paradigmaticoa udaletxeko bileren segida da. Zeinek ez dio entzun tabernako bilera horiek oso inportanteak zirela barruko tentsioak puskatzeko? Horrela, beste alderdikoekin-eta beste era batera hitz egiten

zirela gauzak. Inazio eta Basilio ez zeuden berandu ibiltzera ohituak, eta hauek konbentzitu zituenerako, egia behar zuen.

Imanolen abileziatzat dauka hori Don Ramon Aginagak:

“Imanolen beste alderdia da nahiz eta borrokak izan udaletxean, HBrekin eta momentu zailak, abilezia handia izan duela udaletxeko bilera bukatu ordurako: beno, goazen behera kafe bat hartzera! Eta borrokan haserre egon zen haiek berak batera edo bestera gonbidatu, kafe bat edo garagardo bat hartzera eta kaleko diskusioa segitu; udaletxeko hura bukatu eta ondoren zu hortik eta ni hemendik joan beharrean izan du abilezia hori, eta asko asmatu duela uste dut hortik. Badakizu zer den Imanolen haserrea, ezta? Imanolen haserreak izugarriak dira. Baina bihotza behin ere haserretzen ez zaiona da, Imanolek gorrotorik ez du. Imanol, esaten dizut, udaletxetik atera eta berehala bere iritziei eutsiz eta han tabernan ere buila eta zalaparta besteek bezalaxe atereaz ibiliko da, baina adiskide egiteko moduko gertuera du. Elkarrekin tabernan ere diskutitu bai, baina goian izan duen alkate izate hori han utzita. Imanolen haserreak niri iruditzen zait oso azalekoak direla; buila eta orroa”.

AITAREN ARGAZKIA MAHAI GAINEAN

Non da aita?, galdetzen zuten haurrek iluntzetan. "Aita bileran", erantzuten zien amak.

Lau seme-alaba ditu Imanolek, bi seme eta bi alaba: Ane, Ander, Imanol, eta Itziar.

Aitaren ausentzia amak bete behar, haurrak txikiak zirenean.

Maritxuk dio Imanol beti izan dela lana "a tope" egin duena eta bizi etxean baino kanpoan gehiago bizi izan dena. Egoera horretaz jabeturik, konpentsazio gisako irtenaldiak egin ohi zituzten:

"Imanol beti bizi izan 'a tope'; beti dena emanda. Entregatua. Konturatu gabe, kalkulaturako planteamendurik gabe. Kalkulatuta? Eskolan lan egin eta klase partikularrak eta gelditu gabe aritzen zen. Eta Udaletxean sartu zenean dena lana zen eta klase partikularrak-eta bukatu egin ziren, eta diru aldetik-eta askoz gutxiago.

Imanol beti izan da lana egin behar bada, lana; eta esaten badute: hau da egokiena, hura egingo du.

Orokorrean hori da: Imanol etxeko diru kontuekin kezka gabea, lana "a tope" eta kanpoan gehiago etxean baino.

Imanol gutxi egoten zen etxean eta konturatzen ginen horretaz, eta egun pasa umeekin kanpora joaten ginen umeek ordu guztiak aitarekin pasatzeko; gogoratzen naiz hotela hartuta nola Bartzelonara edo Costa Bravara-eta joan ginen inoiz edo behin. Guk garai hartan beren lagunek eta egiten ez zituzten gauza asko egiten genituen. Umeak hartuta Madri-la joan ginen Imanolek zerbait egin behar zuela eta, eta lehengusu baten etxera joan eta han ibili eta gero Segovian bazkaldu eta hurrena bi neskekin gauza bera eta... Costa Brava-ra joan ginenean ere gogoratzen naiz nola utzi zigun txalet bat lagun batek eta goizetik gauera umeak aitarekin disfrutatzen eta karentzia horiek betetzen ibiltzen ziren. Horrelako irteerak egiten genituen konturatzen ginelako behar haietaz".

Behin, aitaren urtebetetzea zen. Lehen aldiko alkatealdia izango zen, seme-alabak txikiak ziren eta. Halako ordutan afaltzeko ordua jarri eta amak prestatu du afari goxoa. Mahaian eserita zeudela, aitaren telefono deia: konpromiso bat sortu zaiola eta ezingo duela afaltzera etorri. Ez zen, baina, etxeko giroa horregatik hondatu: aitaren lekuan haren argazkia

jarri zuten, eta afaltzera! “Bai txintxo eta isilik dagoela gure aita, batere builarik egin gabe”, zioten denek, eta baita aitari gogoratu ere hurrengo egunetan.

Miguel BUEN

Errenteriako alkatea

- Conocí a Imanol como diputado de cultura. Es un hombre muy abierto, muy dialogante, que cuando se produce una situación de tensión dialéctica, de crispación, está dispuesto a gastar una broma, a resolver las cosas por la vía más humana de toda esta vorágine en que nos hemos metido todos los que actuamos en la política.
- Después yo como alcalde y él como Diputado General siempre encontré en Imanol la comprensión hacia los problemas que tenía el municipio de Rentería que eran de todo tipo. Con él aprendí lo que eran los coeficientes verticales y los coeficientes horizontales de aportación al cupo; me acuerdo lo del famoso logaritmo neperiano que siempre lo ponía como si lo dibujase en una pizarra.
- Ha sido muy radical en la defensa de la cultura del país, pero al mismo tiempo ha sido muy radical en el sentido de no permitir que se mezclara la defensa de la cultura del país con el terrorismo y eso es muy de agradecer. Insisto: creo que ha sido un caballero y que lo sigue siendo.
- Yo no le conozco ningún enemigo a Imanol; seguro que los tendrá porque en la vida es muy difícil no tener ninguno sobre todo actuando en política, pero lo que yo he conocido en torno a Imanol ha sido sobre todo respeto. Al ser adversarios políticos en muchas cosas no hemos coincidido, ni coincidimos y posiblemente no coincidamos. Pero en sus formas, en su hacer, desde luego siempre ha predominado el respeto al adversario y eso es de agradecer.

“ON KIXOTE”

Inazio Lertxundi alboan izan du Imanolek urte askoan, udaletxean batez ere, baina udaletxean bakarrik ez, Guraso Elkartean ere bai. Inaziok dio Imanol ez dela handia egin dituen gauzengatik, erakutsi duen jarreragatik baino, eman duenagatik gehiago lortu duenagatik baino:

“Imanolek gure aldean dedikazio handia eskaintzen zion udaletxeari. Eta hasiera batean jornalik ez zeukan udaletxean, baina fraidetan zegoenez fraideek jornaletan ematen zioten; baina gero dedikazio osoarekin aritzen zenean, jornalik gabe geratu zen. Eta seguritate sozialik gabe. Fraideek bota zioten eskua eta fraideen eskolan lana egingo balu bezala egon zen denbora dexentean. Ez dakit zenbat denboran baina hari jornaletan fraideek ordaintzen zioten. Eta nik hori fraideei eskertu nahi nieke zeren hori egin egin behar da!

Imanolek pausoa eman zuenean ez zuen pentsatu soldatan, ez seguritate sozialean, ez jubilazioan. Ez dakit nola ibiliko zen, jakin nahi nuke zer esan zion andreak. Gero seguritate sozialak-eta jarri ziren eta jornaletan eta igoz joan ziren, baina ez, hala ere, alkate batek irabazi behar zuena adina, 130.000 pezeta-edo ziren hilean. Haiek ez ziren kantitateak familia bat aurrera ateratzeko. Eta gainera etxe batean sartua zen eta hura ere ordaindu egin behar; eta gero lau seme alaba, eta andrea. Hau Kixote bat da, honek andrearengan eta umeengan-eta ez dakit zenbat pentsatzen zuen: hau egin egin behar da eta aurrera! Imanolek ez du pentsatu izan ondorio ekonomikoetan. Golfa ere gustatzen zitzaion, intentsitatez bizi zuen eta laga egin behar izan zuen hainbeste gustatzen zitzaiona.

Azken finean niri orain Imanolengandik geratzen zaidana da garai horretan hori egin duenean erakutsi duen gizatasuna. Gero atera zaizkio gauza batzuk ondo, baina nola esplikatuko nuke nik hori? Momentu honetan ez da inportanteena orain erresidentzia bat sortzea edo dena delakoa, baizik eta garai horretan dena kolokan jartzea ideal bat aurrera ateratzegatik. Hark boterea-eta zer zen ez zekien, hura Zarautz eder baten alde lan egitera joan zen begiratu gabe zer ondorio ekonomiko eta seguritate sozialarekin edo gabe.

Nire ustez Imanol honetan zergatik sartu zen? Bere aita Hilario ere hala zen. Herriko gazetan-eta sartzan zena eta ama batek semea maite

duenean galdetu al dakioke ama horri: zergatik egin duzu hori? Nik uste dut halakoxe maitasun bat edo herrimin bat-edo daukela, halakoxe gauzak egitera bultzarazten dituen, bestela ezin da esplikat. Gauza batzuk badira esplikaziorik ez dutenak. Azken finean Imanolengandik gauza hori geratzen da: lortu zituela gauza batzuk? Bai, baina bestela beste batek egingo zituen, edo beranduago egingo ziren... Lorpenen gainetik gelditzen da entrega hori, jarrera hori. Niretzat Imanol horregatik izan da gizon handia.

Azkenean, nik Imanoli buruz maitasunez hitz egiten dut, miresmena bai baina maitasuna gehiago da. Ez dakit nik, ez dut pentsatzen Imanol aginteaz baliatu denik edo horrelakorik. Zarautzen ez dira asko egongo nik Imanoli diodan bezalako miresmen eta maitasuna diotenik. Oso fina izan da eta gero argia ere bai, ausarta eta jokatzeko dakiena ere bai”.

DIRUA GALDUZ POLITIKARA

Imanol politikara igarotzean diruz galtzen atera zela? Bai. Dexente galdu ere. Eskolatik kobratzen zuena baino gehiago irabaziko zuen, deskuidatuz gero, eskola partikularrak emanek. Udaletxean, lehen aldian, ez zuen sol-datarik, lehen lau urtetan dietak besterik ez. Seguritate sozialik ere ez. Eskolak mantendu zuen. Gero, Imanolek aurreratutako guztia ordaindu zien fraideei. Denboraldi bat seguritate sozialik gabe egon zen, Diputazioan zegoela.

Maritxuk ezagutzen duen Imanol ez da diferentea. Maritxu ez du kezkatu gehiegi etxeko diru-sarrerak, ongi asmatu baitu eskuartekoa administratzen. Seguritate sozialaren gaiak bai kezkatu duela:

“Udaletxera pasatzean ekonomikoki galtzen atera ginen. Sarrerak jaitsi egin zirela egia da. Imanolek ez dio sekula horri garrantzirik eman; zer daukan edo ez daukan: konpromisoa hartzen duenean konpromisoa hartzen du eta ez ditu kalkulatzeko horren ondorio ekonomikoak. Udaletxean sartu zenean eta klaseak-eta laga zituenean hemen gutxiago sartzen zen, baina nik ez nuen sekula pretenditu hura utzi eta etxean gehiago sartzea. Baina garai batean kotizatu gabe ibili zenean bai kezkatzen nintzela. Aurreneko legislaturan-edo egon zirenean kotizatu gabe egon ziren; ni gogoratzen naiz urte batzuetan kotizatu gabe egon zela, eta gaixotzen

bazen-edo Diputazioko segurua geneukanez, hori kubritzen zigun. Imanolek lasai egoteko esaten zidan, ez al geunden ba ondo zainduta, baina nik sumatzen nuen han hutsune bat bazegoela.

Gerora, gorabehera guztiak berdindu ziren. Kulturako Diputatu izan zenetik aurrera. Seguritate Sozialarena, noski, baina baita ere etxeko diru sarrerena. Soldata, ia osorik, seme-alaben ikasketak ordaintzeko erabili genuen”.

Matematikatan aditua izanagatik ere, etxeko kontuen ardurarik ez omen du sekula izan Imanolek. Ez ardura eta ez berri. Milioi askoko kontuez arduratzen omen da bera, ez sos batzuen gorabeheran, esaten zion Maritxuri. Ikastolaren alde edo Egunkariaren alde hainbesteko bat jarri behar zela esanez etortzen zitzaion Maritxuri. Eta honek: ba al dakizu zenbat daukagun? Diru kontuen arrastorik ez zuen Imanolek. Emateko beti prest, dirua bezala bere denbora eta gogoia.

KOADRILA GAZTEAGOA ZENEAN

Lagunartea maite du Imanolek, koadrila ez du sekula bazter laga, orain baino garai zailagoetan ere ez. Hilero biltzen dira, daudenak daudela. “Bestela hiletetan bakarrik elkar ikusten diagu eta”. Koadrilako batzuk jada desagertuak dira.

Gaur Cachi-Bachin bildu gara, bazkaltzera. Ez denak, ahal zutenak bakarrik: Imanol, Antonio Goikoetxea, Andoni Odriozola, Jon Azkue, Anjel Mari Kamino. A zer zirtolari koadrila! Eguna zoragarri zegoen, eta zoragarriagoa parajea, begien aurrean ageri den Zarauzko kostea luzea. Eta Andonik prestaturiko bazkaria paisaiaren pareko.

Imanol ardatz hartuta garai zaharrak gogoratzen aritu dira, baina gai-jartzailerik gabe. Eta ni lekuko, entzuten.

Umetan Imanol bihurria eta mugitua omen zen oso. “Al rincón” esaten omen zion maisuak.

Azkarra ere bai. “Kasta da holakoa Muruatarrena”.

GOSE URTEAK

Mutiko garaietara pasatu dira gero, 10-12 urteetako kontuetara. Gose urteak omen ziren haiek. Batzuek korrikarako zuten abilezia bistan omen da nondik datorren: sagarrak lapurtzera joan eta, baserritarra atzetik, egiten zuten korrika saioetatik. Hura zen entrenamendua, hura!

Sagarrekin ezin gosea ase eta hutsik zeuden txaletak bisitatzen hasi ziren gero. Eta bai lapurretan harrapatu ere inoiz. Fabiolarena izango zen txatelean behin harrapatu zuten taldetxo bat, tartean koadrilako bat edo beste. Eskerrak epailea koadrilako baten aita zen.

Gosea erremediatzeko modu kristauagorik ere erabili zuten: Miserikordiako bankutan eserita, Imanol eta Anjel Marik eskola-lagunei eskolako lanak egiten omen zizkieten, ogitartekoaren truke. Batek matematika eta besteak gramatika. Eta, gainera, zailena: zertxobait aldatuz egin behar irakasleak ez zezan kopiaren usainik hartu.

Korrikan koadrilako hoberena Antonio zen, ona, baina Imanolek irabazi omen zion aurreneko karrera. Antoniok karrera guztiak irabazten omen zituen, herrian, Donostian, azkoitiar bat agertu zen arte.

BOXEOAN "TELONEROAK"

Boxeoaz hasi dira gero eta ezin bukatu. Sekulako afizioa sortu omen zen herrian eta sei bat urte iraun omen zuen bolada honek Zarautzen. Beraiek hiru bat urte ibili omen ziren, Antonio eta Imanol. Andoni ere bai zertxobait. Adin beretsuko hamabi bat mutil koskor omen ziren guztira. Telonero lana egiten zuten, eta jende guztia beraiekin barrez lehertu egiten omen zen. Borrokaldiko bost duro kobratzen zuten. Diruagatik jokatzeko zuela dio Antoniok eta Imanolek ezetz dio, baina dirua oso ongi etortzen zela.

Bolada horretan estatu mailan izena zuen bat baino gehiago sortu zen Cachi-Bachiren eraginez: Antton Manterola, Carlos Martinez, Kaio, Martinez Arostegi, Zubiaurre.

Boxeolari gaztetxoaren artean "la figura del equipo" omen zen Imanol. Bazegoen beste koadrila bat, "Los raspas", Raspatarrak. Gehienak Imanolen koadrilakoak baino zaharragoak. Kanpotarren semeak ziren haiek, emigrante jendea, "guk zer janik ez bagenuen, pentsa haiek". "Raspatarren" Juliok bota omen zuen erronka behin Imanolen koadrilako edozeinen aurka. Imanolek onartu. Juliok burua kentzen omen zion. (Norbaitek xuxurlatu du bazterretik: "Imanol gizon handia duk baina ez estaturan. Jainkoak gauzak ondo egin zizkian, gero, honi 180 cm. eman balio, beno... gaur Gobernuako presidente gutxienez". Imanol ez da enteratu edo ez enteratuarena egin du). Karliten egoitzan ("círculo carlista" famatuan) egin zen borroka. Egundoko kolpe zaparrada jasaten ari zen Imanol, eta halako batean, nola ez dakiela, behetik gora jo omen zuen eta Julio non datorren goitik behera, seko. K.O. ikusita, denak beldurtu omen ziren, Imanol gehiena. Hurrengo desafioa bota zuenean, Imanol kenduta behar zuen.

TXERRIMUTUR TXAPELAREN AURKA

Caddien istorioetan barrena murgildu dira gero. Bi kategoria bezala zeuden caddien artean, adinaren arabera; zelaiko sarreran egoten ziren txandaren zain, nork hartu ez zen berdin bai baitziren propina ematen zutenak, beste batzuk udaldi osorako finko kontratatuta zeuden. Imanolek caddie onenaren fama zuen, eta horregatik Bordatarrek begitan hartua zuten.

Borda familia golf zelaia mantentzen zuena zen, eta bertako semeek aukera zuten nahi zutenean entrenatzeko. Eta hala ere Imanol hobea.

Imanol tenisko pilota-biltzailea zela hautsak harrotu zituen borroka gertatu zen golfean. Izena eta dena jarri zioten gerora: Txerrimutur Txapelaren aurka. Imanolek pizten du sua. Golf aurrean zegoen txirrindu bat hartu eta itzuli bat egin omen zuen Imanolek, beste askotan egin ohi zuen bezala. Bueltatu zenean, bizikletaren nagusia zuen zain, eta desafioka hasi zitzaion Imanoli. Mutiko handia omen zen bestea, hiruzpalau urte zaharrago ere bai, eta Imanol zortzi urtekoa. ("Imanol orain ez da handia eta nolakoa ote zen orduan!", eransten du norbaitek). Manolo Colón de Carvajal zen, orain kartzelan dagoena. Imanolek atzera egin ez, eta hasi ziren kolpeka. Horretan, Imanolen anaia Kepa agertu zen, Imanol baino zazpi urte zaharrago, eta tartean sartuta kontuak eskatu zizkion. Eta hara non agertzen den Manoloren anaia zaharragoa, Diego (gero ETAK bahitu zuena), hau ere desafioka. Kepa eta Imanol enbor berekoak izaki, harekin hasi zen borrokan. Carvajali Txerrimutur deitzen zioten eta Kepari Txapela, hala ziren ezagunak. Klase borrokaren sinbolismotik ere badu borroka honek: señoritoak txiroen aurka.

KRISPIN SERENOA ATZETIK

Soldadutza aurreko garaira egin dute salto segidan. Parrandero samarra omen zen koadrila. Diru pixka bat poltsikoan ere bai eta. Batzuek lan egiten zuten. Beste batzuek futboletik-eta poltsikorako dirua ateratzen zuten. Diru freskoa poltsikoan zutela, beste batzuek baino afari gehixea-
go egiten omen zituzten. Eta hortik fama.

Umore oneko koadrila ere bazen nonbait, eta kantuan aritzea gustatzen zitzaiona. Baina herriko tabernatan gaueko 11etatik aurrera ez zegoen abes-
terik. Kalera irten behar. Eta kalera atereaz gero zeinekin egingo zen bada
topo garai hartan Zarautzen: Krispinekin!

Krispinen izena aipatu orduko denak batera hitz egiten hasi dira. Krispin serenoak estu zaintzen omen zuen koadrila, fitxatuta omen zeuzkan, eta batez ere Imanol. Eta Imanolek orduan berari gertatua kontatu du: nola behin emigrante talde bati ikastaldi bat eman eta bukaera ospatzeko afaldu eta tabernara atera ziren tertulian. Koadrila hazi xamarra zen, eta

Ana URTXUEGIA

Lasarteko alkatea

- Yo recuerdo dos cosas de Imanol Murua; era un hombre muy bonachón con una cara muy bonachona, pero duro de pelar. Yo recuerdo a ese Imanol apacible, agradable, amable.
- Con Imanol he tenido una relación personal en los temas políticos siempre muy afectiva. Era un hombre que si creía que tenía la razón iba hasta el final.
- Cuando era Diputado General era un hombre feliz, pero yo recuerdo que tras presentarse en las elecciones del 95 para ser alcalde de Zarautz, cuando los dos éramos junteros, yo le ví el hombre más feliz del mundo cuando ganó esas elecciones. Yo se lo comentaba y él me decía que lo más importante era ser alcalde de su pueblo. El decía que lo de ser diputado general es una etapa, pero lo de ser alcalde es lo más importante. Y además yo creo que Imanol ha sido un gran alcalde.
- Para mí Imanol era el alcalde de los guipuzcoanos. La figura de Diputado General se ha perdido un poco. Fue alcalde, diputado de cultura, Diputado General... y el dato más importante para mí es que vuelve a ser alcalde. Mucha gente no volvería después de haber sido Diputado General, pero él se presentó y además estuvo a punto de conseguir la mayoría absoluta. Posiblemente fuera por ese sentido municipalista que tiene y por sentirse alcalde de todos los guipuzcoanos. Y esa figura en un término tan pequeño como es Gipuzkoa con 600.000 habitantes, se ha perdido. Ahora el Diputado General es otra cosa; es complicadísimo.
- Creo que Imanol es un hombre muy agradable. En la política a veces nos encontramos, aunque seamos de diferentes ideologías, con la relación humana que es muy importante para la convivencia, e Imanol eso lo tiene de su parte.

bizpahirurekin omen zegoen bera solasean. Buila dexente omen zegoen tabernan. Sartzen da Krispin eta Imanolengana zuzenean, agirika. Denak harrituta. Beste taberna batera joan ziren ondoren, bolatokira, eta han okerrago: sartu eta salaketa jarri zion, desordenua egotziz. Extremeñoak omen ziren lagunak eta denak sutan, ez zegoela eskubiderik eta prest zedula bere alde lekuko gisa deklaratzera joateko. Bai epaiketa egin ere! Errugabe atera zen: lehen aldia da —esan omen zuen fiskalak—, salataria agintaria izanda, absolutzioa eskatzen dudana.

Istorio eta pasadizo gehiago, askoz gehiago, agertu dira. Ezin guztiak jaso. Kronista honek alde egin beharra izan du, grabagailu eta guzti, bazkalkideek gozo-gozo tertulian jarraitu duten arren. Egin ote dute bizitza osoko errepassoa?

1983-1995

KULTURAREN EGOERA “MISERABLEA”

1983 urte bueltako kultur egoera gogoratuz miserablea zela dio Xabier Letek. Eta badaki zertan ari den, urte horretantxe hartzen baitu kulturaren ardura, Imanol Kulturako Diputatuaren menpe zuzendari gisa.

“Gipuzkoaren kultura egoera miserablea zen, ez dut sormen arloaz eta idazle izateaz hitz egiten, baina zerbitzuak, azpiegiturak, baliabideak miserableak ziren eta Imanolek bazekien horiek egunean jarri behar zirela. Bazekien liburutegi nagusiaren instalazioa toki miserable batean zegoela, baita langileak desfasatuta zeudela... Dena berritu egin nahi zuen. Hau zaharra, artxibategia desastre bat eginda, ondare historiko artistikoa kaka eginda, jauregiak erortzen, kultur etxerik ez, fundamentuzko udal liburutegirik ez... eta Imanol horretaz oso ondo ohartu zen”.

A zer panorama! Zer egin egoera miserable horren gain kulturaren palazio ederra eraikitzeko?

Bi gauza, gutxienez: lantaldea osatu eta plangintza eratu. Aurrena bat eta honen bidez hurrena. Egiturak muntatu eta plantilla osatzeak zuen lehentasun kronologikoa, bistan denez.

EKIPOKO LANA

Lantaldea eratzeko momentuan bertute bat aitortzen dio Imanoli Xabier Letek: “berak zituen hutsuneak beste norbaitek bete behar zizkiola eta talde bat sortu behar zela ikusten zuen”. Horrelaxe jokatu omen zuen berarekin eta konfiantzazko karguekin.

Eta izendapen eta karguekin egin zuen gauza bera egin zuen gero departamentua egituratu zuenean teknikari eta funtzionario gazteekin. Oso jende gaztea hautatu zuen. Oso jende gaztearekin konfiatu zen. Askotan konfiantza hori intuitiboki eta razionalki jartzen zuen. Sekula ez karnetari begiratuta.

Nostalgia nabari zaio Frantxis Lopez de Landatxe Koldo Mitxelena Kulturuneko zuzendariari Imanolekin praktikatu zuten lan egiteko moduz mintzo denean: lan egiteko era modernoa, gaur modan jartzen ari dena, hots, sarean eta hierarkia pixka bat galduta aritzea. Oso hurbila zen Imanol, ekipoan integratzeko erraza, harreman zuzenekoak. Teknikariak letretakoak omen ziren denak eta aurrekontuak egiteko garaian, formulak, kalkulak eta igoerak-eta berak egiten omen zituen: “ni lotsatuta egoten nintzen; han geunden teknikari guztiak hari begira eta berak tapa-tapa segituan egiten zituen”.

“Imanolen lan egiteko era oso irekia zen. Ondorioak garbi ikusten zituenean edo bere ideiak garbi zituenean, atera arte ez zen geratzen eta gogoratzen naiz nola askotan diputatuen kontseiluaren ate ondoan egoten ginen ideia horien defentsan haren garrasi eta mahai gaineko kolpeak entzuteko”.

Imanolen beste dohain bat, Frantxisen arabera, zuhurtasuna da, lan-kideen balioak antzemateko oso abilezia handia omen zuen. Garaian egin zuen banaketak irauten du nolabait.

Kulturako diputatu gisa bi urte eskas egin zituen Imanolek, urte atseginak eta aberatsak, berak dioenez: “garai hura oso atsegina eta aberatsa izan zen niretzat. Gogoan dut ekipo gazte bat nola dinamizatu genuen eta ekipoa bera ere Xabier Lete eta bion antzera ilusio handiz ibili zela. Gipuzkoako kultur jendearekin, erakundeekin, artistekin-eta harreman oso sakona izan genuen. Nire bizitza politikoan izan dudak garairik politena eta maitatuenetakoa izan zen nire alkatetza lanetik aparte”.

KONFIANTZA BAI, UTZIKERIA EZ

Ekipoko jendeari ematen zion konfiantza kontrolatua ere bazen, dio Letek:

“Kultur arloan Imanolek ikusi zuen jende berria sartu behar zela eta jende gaztea. Konfiantza hori eduki zuen jendearengan eta kurioa da

zeren Imanolek ez baitzien inoiz esaten taldekoei: egin ezazue eta nik gero sinatuko dut! Ez, Imanoli gustatzen zitzaion eta gainera beharrezkotzat jotzen zuen departamentuaren ibilbidea kontrolatzea, jakitea zer egiten zen, zergatik argumentatzea, txorakeriarik ez egitea. Herritarren hitzak ere iritsi egiten zitzaizkion eta bere taldearen eta herritarren artean egon zitezkeen ezberdintasunak, eta nahi izaten zuen gauzak ondo neurtu; ez zen errazkeriatan ibiltzen. Horregatik esaten dut bileretan-eta esplikazio asko eman behar izaten zela, gainera bera hain eskrupuloso eta exijentea izanik jendearengan asko konfiatzen zen eta nik hori beti Imanolengan bertute bezala ikusi dut”.

Ematen zuen konfiantza eta eskatzen zuen kontrola uztartzeko formula Carlos Etxeparek eman zidan, bere lankidetzak lekuko: “Exijitzen zuen konfiantza bera ematen zuen”.

Imanolekin Kultura negoziatua izatetik Saila izatera igaro zen. Departamentuko zaharrek diote mila milioiko aurrekontuak sekulako jauzia eman zuela: hiru mila milioira! Geroztik ez omen da gehitu, gainera. Imanol bera ez omen da zehatz gogoratzen eta kontrastatu egin beharko lirartekeela kopuru horiek.

Alderaketak alderaketa, aurrekontuaren igoeraren handiak ez du diskusiorik: 1983tik 1984ra %74 egin zuen gora eta 1984tik 1985era %92, hau da, 1.247.924.000 pezetatik 4.176.382.000 pezetara bi urtetan.

FEDEA OBREKIN

Xabier Lete Imanolek kulturaren zuen fedeari mintzo da. Kulturaren sinetsi, zer da hori?:

“Imanolen ezaugarri garrantzitsu bat izan zen kultur arloan, berak askotan esan izan duen bezala, jakitun izateko pretentsiorik ez baino kulturarenganako eta kultur adierazpenenganako eta kultur bizitzarenganako izugarritzko fedea izan duen pertsona izan dela. Nik kulturako diputatu bezala ezagutu nuen eta izugarritzko sinesmena zuen kulturaren baitan. Kultura baloratu eta maitatu egiten zuen eta kulturaren beharraz oso ohartuta zegoen.

Nik esaten nion pertsona batek kargu batean zegoenean eduki behar zuen gauza zela egin behar duen harenenganako fedea. Imanolek sinbiosi berezi bat lortu zuen kulturaren eta bere nor izatekoaren artean.

Imanol sinetsita zegoen kulturaren beharraz eta gero ohartuta Gipuzkoaren egoera kultura arloan, bai baliabide, azpiegitura, instalazio eta zerbitzu aldetik, oso eskasa zela”.

EMAITZAK ERE BAI

Fedea bai, eta obrak? Imanolek eskolan ikasi zuen kristau dotrinak zioen fedeari ez duela balio baldin eta obrak lagundua ez bada. Emaizta horiek ez dira falta, zorionez. Letek zerrendatzen ditu, exhaustibo izan nahi gabe, baina gauza bat azpimarratuz: Imanolek martxan jarritakoak direla orain ere nagusi Gipuzkoako kulturaren paisaian:

“Lekuko bezala hor daude besteak beste emaitzak. Imanolen garaian martxan jarri ziren eta proiektu bezala eta jada martxan jarri ziren zerbitzu nagusiak dira orain Gipuzkoako kultur panoramian nagusi direnak; KM, Arteleku, herrietako azpiegiturak, kultur etxeak. Gainera ez dut esango ‘guk egin genuen’; guk lagundu egin genuen baina berak zeuzkan ideia horiek buruan eta berak egin zituen. Adibidez, musika hamabostaldia zirela, musika zikloak... ez zituen berak montatu. Nire ideiekin edo Etxenike, Frantxis, mundu hori guk gehiago kudeatzen genuen, guk gehiago eramaten genuen, baina egitasmo nagusiak (hor geratu direnak erreferente bezala) Imanolenak dira.

Imanolenak dira eta Imanolek gainera bera Diputatu Nagusi izan aurretik (83tik 85erako tarte horretan) oso sutsu, ausart eta modu borrokalari batean defendatu behar izan zituen. Ez zen batere erraza izan kontseilu bilereten egitasmo horiek aurrera ateratzea zeren beste departamentuetako arduradunek beste iritzi batzuk baitzituzten eta ez zeuden oso garbi momentu horretan Diputazioan kultur arloan inbertsio handi horiek.

Eta Imanolek defendatu behar izan zituen bronka bizi batean”.

Jose Luis ELKORO

Alkateen Bergarako Taldekoa, Batzar Nagusietako kidea

- Oso harreman ona izan genuen Alkateen Taldean: lagun jatorra, bultzatzailea zen, eta “eskuz esku” landu genuen gure proiektua. Eta potentea, Imanol potentea zen.
- Bide desberdinak hartu genituen. Ni konturatu nintzen Imanolek bide hori hartu zuenean, ordura arte erabakietan sintonia bat genuen denon artean eta gauza batzuetan nabaritzen zen beste ikuspegi bat... Ez genuen eztabaida gogor eta handirik eduki baina nik nabaritzen nuen desbideraketa bat nire ikuspegitik.
- Nik Imanolekin bizi izan dudana esperientzia da berarekin bizi izan dudana, gero hortik kanpo gu bata bestearen aurkari izan gara, toki desberdinetan egon gara eta borrokatu egin dugu eta hor bakoitzak berea egiten du. Ni Diputazioan zapalduta sentitu nintzen baina banekien non nengoen eta Imanolek beste gauza batzuk sentituko zituen.
- Imanol oso atsegina da. Gogorra da, pertsonalitatea dauka, burugogorra da, baina nik esango dizut Imanol lagun ona izateko moduko pertsona dela. Imanol bezalako pertsona batekin gauzak aurrera eraman litezke arazorik gabe. Eta berriro ere horrelako proiektu baten aurrean Imanolekin eta bera bezalakoekin topo egingo banu poztu egingo nintzateke, eta uste dut beste batzuk konpontzen diren baino hobeto konponduko ginatkeela.

ALKATEEN ALKATE

Prentsan izendapen hau behin baino gehiagotan eman izan diote Imanoli: Gipuzkoako alkateen alkate. Alkateengandik hurbil zegoen seinale, aurretik bederatzi bat urtetan alkate izan baitzen. Diputazioan egon arren lepoa lehengo burutik zuen, alkate sentitzen zen bera ere. Alkateen lekuan bere burua jartzea ez zitzaiola batere kostatzen esaten zuen.

GIPUZKOAR GUZTIEN ALKATE

Imanolen kasuan gertutasun hori ez da pose bat, ez da artifiziala, izaera eta jarrera baizik. Alkate baten jokabidea zen berea, Ahaldun Nagusi izan arren. Ana Urtxuegia Lasarteko alkate sozialistak dioen moduan, toki guztietan zegoen Imanol: trofeo bat zela, domina bat, zaharren egoitza edo frontoi edo ermita baten inauguraketa, ospakizun bat baldin bazen, edozein herri edo auzotan, han zen Imanol. Alkate bat bailitzan. Imanol munizipalista handi bat iruditzen zaio. Anak bere baitan pentsatzen omen zuen: hau gipuzkoarren alkatea da. Zoritxarrez, Imanolek ordezkaten zuen figura hori galdu egin omen da. Ahaldun Nagusia beste zerbait omen da orain, oso konplikatua. Imanolek —dio Ana Urtxuegiak, miresmenez— Zarauzko alkate-lanbidea Diputaziora aldatu zuen eta han alkate jarraitu zuen, gipuzkoar guztien alkate. Alkateok, segitzen du, “todoterrenoak” gara, larunbat, igande, oporrak, dena udaletxeko lanaren faboretan, dena. Eta bera holaxe zen Diputazioan ere. Gipuzkoar guztien alkate izan nahi zuen, eta hori oso polita da, guztien arazoetan buru-belarri inplikatzeara...

Altzo herrira Diputatu Nagusi bat sekula iritsi gabea izango zen, harik eta Imanol joan zen arte. Altzo Alegia gaineko herri txiki bat da. Talde gazte-gaztea zegoen udaletxearen kargu, Xabier Olano HBko alkate zelarik. Xabierrek dio Gipuzkoako 82 herriak bisitatu zituela Imanolek, banan-banan eta sistematikoki, udaletxeekin egoteko.

Udaletxearen koloreari begiratu gabe egin zuen hori.

Informatzaile batek galdetu zion (1987) EAko alkateek zuten tratamendu bera ote zuten beste alderdietakoek:

“Sí, tajantemente. Como diputado general, y creo que los demás diputados también, no miramos el ‘color’ de los alcaldes. Ni siquiera tengo que

hacer ningún esfuerzo para tratar de la misma forma a un alcalde de mi partido o de otro. Aunque esto lo tendrían que decir mejor ellos”.

UDALETXEEN ZERBITZUAN

Are gehiago: 1985eko maiatzaren 7an foru arau baten bidez Udalkidetza sortu zuen: Plan Foral de obras y servicios. Udaletxeei zuzenduriko laguntzak razionaldu eta bideratzeko sortu zuen. Agintea hartu eta lau hilabetera. Kulturarekin batera bere sorkuntzarik maiteenetakoa izan zela dio Ramón Cipriánek.

Aldi berean, gainera, departamentu berri bat sortuko du, espreski udaletxeekiko harremanak bideratzeko. Udaletxeak Diputazioko Jauregira etortzen ibili ordeztu diputatua bera hurbilduko zitzaien Udaletxera. Eta lan horretarako Jesus Mari Akizu aukeratu zuen, Soralezko alkate izana 1979ko legealdian.

Nabarmena izan da Imanolek udaletxeen alde mantendu duen jarrera. Hain zen nabarmena ezen Roman Sudupek, Azkoitiko alkate zelarik gainera, udaletxeei diru gehiegi ematen ziela kritikatzeko baitzion. Udaletxeei gutxiago eman eta Diputazioarentzat gorde —esaten zion behin eta berriz—, Diputazioak plangintza propioak egin ditzan. Lehengo lepotik du burua orain ere Romanek:

“Diputatu Nagusi bezala lortu zuen udalek izan zezatela nahikoa baliabide beren egunerokoari jarraitzeko, eta berari zor zaio bere garaian dibertsifikatuta zeuden hainbat diru laguntza denak bateratu eta Udalkidetza sortzea. Ni alkate nintzen eta esaten nion guri ez emateko hainbeste diru eta berak gastatzeko diru hori Diputazioak egin behar zituen egin beharrekoetan. Akats hori botako nioke: Gipuzkoaren etorkizunerako errepideei buruz, etab., hutsune pixka bat utzi ez ote zuen”.

Zergatik eta zertarako jokatu zuen honela, Imanolek berak azalduko du garbien:

“1985ean diputatu nagusi izendatu nindutenean egin nuen lehenengo lana udal harremanetarako departamentu berri bat sortzea izan zen. Neu alkatea izan nintzen eta ezagutzen nuen askotan udaletxeak nola ibiltzen ziren Foru Aldundian, Diputazioan edo Eusko Jaurlaritzan beti harremanetarako zailtasunekin, eta pentsatu nuen harreman horiek erraztu

egin behar nituela. Diputatu Jesus Mari Akizu jarri eta egitura berria mol-datuz udalekin harreman estuagoa izateko asmoz. Nire iritziz asmatu egin genuen. Bestalde, kontuan izanda udalek, udalerriek, udaletxeek zituzten diru arazoak eta diru banaketaren desajusteak, erdaraz FOFIM deitzen zena (Fondo de Financiación Municipal) nik Udalkutxa bataiatu nuen euskaraz. Izena aldatzea baino askoz ere garrantzitsuagoa izan zen eta udaletxeek ederki eskertu zuten: alde batetik banaketa sistema askoz ere orekatuagoa zen eta gure iritzian bidezkoagoa. Eta, gainera, diru kopurua asko gehitu genuen eta kolpetik udaletxeek askoz ere diru gehiago jasotzen zutela ikusi zuten. Eta honi beste gauza bat gehitu zitzaion: lehen bazegoen Plan Foral de Obras y Servicios eta nik Udalkidetza izendatu nuen. Hor ere izen aldaketa baina askoz ere garrantzitsuagoa zen oinarria edo helburua eman genion. Helburua zen udaletxeek diru aldetik eta proiektuak aukeratzeko autonomia izatea. Ordura arte Plan Foral de Obras y Servicios hori obra jakin batzuentzat zen, "proyectos finalistas" esaten zen erdaraz: kiroldegi bat, baserri bide bat edo kultur ekipamendu bat. Horretarako bakarrik izaten zen dirua eta nik ezarri nuen sisteman (Udalkidetza) diru multzo bat jartzen genuen guk eta udaletxe bakoitzak bazekien gutxi gorabehera zer diru multzo zeukan, eta diru horrekin berak nahi zituen obrak edo ekipamenduak egiteko aukera zuen".

Udaletxe bakoitzari ematen zitzaion autonomia azpimarratuz Lasarteko alkate sozialistak, Ana Urtxuegiak dio, Imanolek adin nagusikotzat hartu zituela Udalak. Eta bazela ordua.

UDALA, OINARRI

1985eko urtarrilaren 30ean, Imanolen kargu-hartzeko batzarraldia zela eta, Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrean adierazpena egin zuen eta bertan azaldu zuen lehendabizikoz Udalari buruzko bere ikuspegia eta asmoak:

"Lurraldeko hirugarren instituzioa Udala dugu. Hirugarrena edo lehendabizikoa, segun nondik begiratzen den. Alkateentzat zalantzarik gabe lehendabizikoa. Neu alkate izanik ez naiz hori eztabaidatzen hasiko. Baina esango dut oso garrantzitsua dela Udala eta, nire iritziz, beste bien oinarria.

Diputazio eta Udalen arteko harreman estuak behar dira, diru iturriak ondo aztertu eta ondo banatzeko. Bakoitzak bere autonomia ondo zain dezan. Dirurik gabe ez baitago autonomiarik. Ni hautatua izaten banaiz, bide horretatik joateko asmoa dut.

Asmo horiek aurrera behar bezala eramateko, Departamentu edo Sail berri bat sortzea erabakita daukat, Diputatu bat buru dela: Udal harremanetarako Saila”.

Udalei buruzko ikuspegi hori azpimarratzen du atzera urte bereko irailaren 30ean Batzar Nagusietako ezohiko bilera nagusian. Imanolen begietan udaletxeak, zerbitzuak eskaini ez eze, ekonomi eragile ere badira, izan behar dute:

“Idea bat gainditu behar da, hau da, Udaletxeak ez daudela zerbitzu batzuk eskaintzeko bakarrik, baizik eta ekonomiaren promoziorako ekintzetan ere zuzeneko partaidetza bat behar dutela, batik bat, behintzat krisi ekonomikoak dauden garaietan oraindik bezala, langabezia borrokatzeko ekintzetan, behar-beharrezkoa da udal bakoitza (turistikoa, industria edo baserri girokoa den kontuan hartuz) aberastasun eta produkzio iturrien sortzaile eta eragile izatea.

Izan ere, aberastasunik sortzen ez badugu, denbora gutxi barru zerbitzuetarako dirurik gabe geldituko gara. Beraz espiritu hau jaso nahi luke Udalkidetzak: zerbitzuen azpiegitura bat eskaintzeaz aparte, ekonomi eragileak promozionatzea”.

MADRILEN BIZI ZEN POETAREN ITZULERA

“Oso harreman zuzena eta konfiantza handikoa zuten Imanolek eta Gabriel Celayaren familiak. Gabriel gaixo zegoenean bisitak egiten zizkion eta hil zenean, nik ez dakit Diputazioko zenbat kotxe eraman zituen Madrila eta esan zion emazteari: ‘Anparitxu, goazen!’

Madriren, lagunak, poetak eta denak harrituta omen zeuden.

Errautsak botatzea Hernanin eta beste nonbaiten prestatu zuten (bi tokitan bota zituzten). Lau kotxetan lagunak, beste poeta batzuk, Anparitxu, Imanol bera, kortejo handia antolatu zuen Imanolek. Anparitxuk beti esaten du: ba al dakizu zer den horrela zaudela, tristura horrekin, eta bat-batean barrezka hastea? Burgos aldean gelditu eta bazkaldu egingo zutela denek, tentsioa jaisteko. Bai lortu ere!

Anparitxuk kontatzen du Euskal Herrian sartu zirenean, Araban, Ertzaintza nola zegoen zain eta kortejo moduko bat antolatu zela eta horrek izugarritzko babesa eta maitasuna adierazten zuela gauza eta erre-kurtso guztiak jarritz. Hori, bai Anparitxurentzat eta guretzat, oroimen ederra da. Oso ederra; inoiz ez dugu horrelakorik ikusi.

Lau kotxe eta hamabost lagun etorri ziren Madrildik, bere poeta lagunak, Hierro, Leopoldo de Luis eta horiek. Izugarri harritu ziren eman zitzaion tratamendua ikusita. Oso ederra izan zen omenaldi gisa eta adierazten zuenagatik: Madriren bizi den gure poeta badatorkigu”.

Honela gogoratzen du Frantxis Lopez de Landatxek Gabriel Celayaren gorpuaren Euskal Herriratzea.

Imanol bera ez da bidaiako ñabardura askotaz gogoratzen. Hiru harrera gogoratzen ditu, horiek bai: Euskal Herrian sartzean, Donostian eta Hernanin. Harrera mota hori egiteagatik norbaitek bota zion bronka ere gogoan du: Celaya ez zela abertzalea eta ea nola litekeen horrelako harrera egitea! Imanolen egungo komentarioa: “Nola liteke horrelako mentalitate itxia edukitzea!”.

Celayarekin harremana gaixotu aurretik zuen Imanolek, egin zitzaion omenaldiaren ondotik seguruenik. Pittin bat gizaixotua ezagutu du, egia da, baina “oso sinpatikoa, beti barrez, oso atsegina. Maitagarria”. Laguntzearren, bikotearen egoera ekonomikoa arintze aldera, 1985eko urriaren 16an akordioa sinatuta, liburutegia erosi zion Diputazioak 10 milioi peze-

Carlos ETXEPARE

Diputazioko kidea

- Yo destacaría el respeto absoluto de Imanol hacia las personas en el sentido de jamás puentear ninguna relación, el respeto absoluto por la legalidad y por mantener los temas dentro del orden establecido por las reglas de la organización, la no intromisión para nada en los aspectos propios de la gestión, sin perjuicio de que era un hombre cercano a las personas que se acercaban a su despacho, y su intento de satisfacer las peticiones y temas que estaban en su mano.
- Destacaría igualmente el respeto absoluto a todos los profesionales y al equipo de trabajo en los momentos de crisis. Además, su total disposición, dentro de la dificultad, para abordar los proyectos de Hacienda: dirigir, facilitar los cambios de la organización, ayudar a desarrollar la Hacienda Foral, para la cual los diez primeros años fueron decisivos.
- Yo no diría que no tuviera preparación. Fue profesor y se ha explicado muy bien siempre. Es un hombre con formación, con capacidad de absorción cuando se habla de números, de fórmulas y de entender esa realidad. Ha sido capaz en todo momento de transmitir la directriz política.
- Imanol ha sido un hombre capaz de defender todo aquello que él está convencido de que lo ha entendido perfectamente en las reglas que le corresponden, y en ese sentido yo le pude ayudar haciendo esa labor de traducción o interpretación, pero siempre bajo su liderazgo.
- Es un campechano, un hombre cercano, próximo, un hombre afaible. Es un hombre con un sentido de la política muy natural, muy desprendido, muy poco rentabilizador de los puestos, de las circunstancias. Muy poco partidario del sentido de la influencia por la influencia; convencido de la finalidad de los temas, de conse-

guir el fin de los temas con el máximo consenso, con convencimiento, con la negociación pero en relación a unos objetivos finales; no el medio como objetivo. Probablemente coincide con los políticos que saltaron con la democracia y yo creo que hay en todos ellos un punto o nexo común: el desprendimiento. Sin perseguir para nada el sentido del lucro o el hacer de esto una profesión. Desprendimiento absoluto. A todos nos consta que Imanol era un valor dentro del partido y ha sabido, estando en un puesto relevante o en otro puesto, pasar desapercibido, pero sin retirarse y siempre aportando.

- Es un alto exponente de esa época de la política que llevó a la democracia a los puestos de representación popular.

ta ordainduz. Hastapeneko harreman ofizial eta protokolario hau, zertan esanik ez da, harreman maitagarria bilakatu zen gerora.



La Salleko frontoian pilota partidan Imanol Murua eta Carlos Garaikoetxea (1982)

Imanol Murua alkateak Hondartzako txapelketako saria eman zion Imanol semeari (1983)



La Salleko Inazio Olabeaga anaiari Zarautzen egin zioten omenaldia. Olabeaga Imanol Muruaren txikitako irakaslea izan zen. Ezkerretik hasita: Inazio Lertxundi, Inazio Olabeaga, Imanol Murua, Xabin Unzurunzaga (1978)



Zarauzko EAJ-PNVko Batzar Nagusian Imanol Muruak eta Xabin Unzurrunzagak hauteskunde programa aurkeztu zuten (1979)

J. A. Ardanza
Diputatu
Nagusiak Imanol
Murua Kulturako
Diputatu
izendatu zuen
eta domina jarri
(1983)



Imanol Murua jarduneko alkate gisa bere bulegoan (1977)

Imanol Muruak San Pelaiko frontoia inauguratu zuen (1979)



Bergarako udaletxean ikurrina jarri zeneko hogeigarren urtemugan Alkate Taldeko alkate izanak. Aurretik atzera: Inazio Iruin Hernanikoa, Imanol Murua Zarauzkoa, Iñaki Aristizabal Oiartzungoa, Jose Luis Elkoro Bergarakoa, Inazio Uria Azkoitikoa, J.A. Altuna Arrasatekoa eta Prontxio Larrañaga Legazpikoa (1997)



Zarauzko Batzokiaren inauguraziokoan kalean zehar. Ezkerretik hasita: Anjel Larrañaga, Carlos Garaikoetxea, Imanol Murua, Konstan Illaramendi (Landabururen alarguna), Manuel Irujo eta Joseba Elozegi (1979)



Basarriren omenaldia
Zarautzen (1985)

Basarriren omenaldia
Diputazioan.
Ezkerretik hasita,
Xabier Aizarna,
Basarri, Imanol
Murua eta Manuel
Lekuona (1985)



Gipuzkoako Diputazioak
Manuel Lekuona Seme Kutun
izendatzen du eta Urrezko
Domina ematen dio.
Ezkerretik hasita: J.A.
Ardanza Ahaldu Nagusia,
Manuel Lekuona, Joxemiel
Barandiaran eta Imanol
Murua Kulturako diputatua
(1983)



Manuel Lekuonari urrezko domina eman eta Gipuzkoako seme kuttun izendatu zuen Diputazioak. Ezkerretik hasita: Manuel Lekuona, Antonio Labaien, Jesus Mari Leizaola lehendakari zaharra, Imanol Murua Kulturako diputatua, Imanol Olaizola eta zutik German Errekondo (1983)

Zarauzko Batzokiaren inaugurazioan Imanol Murua, Xabier Arzallus, Carlos Garaikoetxea eta Xabier Aizarna (1979)



Jose Anjel Iribarren omenaldia Zarautzen. Ezkerretik hasita: J.J. Markaide. Pako Urkia, J.A. Iribar eta Imanol Murua (1975)



Zarauzko Lizardi Institutuaren inaugurazioa. Ezkerretik hasita: P. M. Etxenike Hezkuntza Saileko Sailburua, Carlos Garaikoetxea EAEko Lehendakaria, Martin Etxeberria Institutuko Zuzendaria eta Imanol Murua Zarauzko alkatea (1981)

Zarauzko Kirol Elkartearen 40. urteurrenean Zarauzko hondartzan jokatu zen torneoaren finala. Imanol baloiarekin (1984)



Zarauzko Asti futbol zelaiko inauguraziokoan Iñaki Alkiza Realeko lehendakariak Realeko oroigarria eman zion Imanol Muruari (1984)

Imanol Murua eta
Maritxu Uria Zumarragan
Busca Isusiren
omenaldian (1983)



Zarauzko Udaletxeko areto
nagusian Imanol Murua alkateak
Zarauzko armariaren taila
ematen dio Carlos Garaikoetxea
Lehendakariari (1983)



1979-83 legealdian Zarauzko EAJko zinegotziak. Ezkerretik hasita, goian: B. Bergara, S. Arruti, I. Murua alkatea, G. Hernandez, A. Zabalegi, A. Sanchez, I. Lertxundi, M. Trejo, P. Albizu. Behean: X. Unzurrunzaga, A. Alberdi, J.I. Agirre (1979)



Bigarren legealdian (1983-87) EAJko zinegotziak Zarautzen. Goian, ezkerretik hasita: Manuel Alberdi, Santi Arruti, Arantxa Zabalegi, Pako Albizu, Ander Alberdi; eta behean: Inazio Lertxundi, Anjel Irastorza, Imanol Murua alkatea, Joxe Mendizabal eta Antonio Alberdi (1983)

ARTELEKU

1985eko otsailean sortu zuen Arteleku eta 1987an inauguratu.

Zuzen edo oker, Euskal Pompidou Zentro bailitzan agurtu zuen prentsak hasiera hartan.

Ustez ongi enteratuek ere uste dute Imanolek Ipar Amerikatik inportatu zuela Artelekuren ideia. Ez da horrela. Berak dioenez esku hutsik itzuli zen handik, bila ibili arren: “1984an, Diputatu Nagusiak eta biok AEBetara bidai ofizial bat egin genuen administrazioa zenbait gauza ikustera, eta ni batez ere saiatu nintzen kiroldegiak, liburutegiak eta kultur-guneak ikusten. Artelekun egin nahi genuenaren antzekorik ez genuen ikusi, eta dena asmatu egin behar izan genuen”.

Kulturako Diputatu zela artistekin harreman ugari zuela kontatzen du Imanolek, eta banan-banan egon zela guztiekin. Zera galdetzen omen zien beti, kulturako diputatu balira ea zer egingo luketen eta zer azpiegitura muntatuko luketen. “Bakoitzak bere ideiak ematen zizkidan (batzuk oso fantasiosoak), baina gehienek botatzen zuten faltan artistak elkartzeko leku bat. Artista gazteak ospetsuekin biltzeko eta bakoitzaren esperientziak ezagutarazteko, trukatzeko toki bat. Ideia mankomunatu zen”.

Horrela hasi zen Imanol leku baten bila, Donostia inguruan. Tabacalerako eraikinaz ere egin zituen gestioak. Eta halako batean Ogasunako diputatuak ekarri zuen berria Kontseilura: Electricidad Easoko pabilioia, Ogasunarekin zituen zorreatatik, Diputazioak hartzen zuela, eta norbaitek behar bazuen eskatzeko. “Orduantxe bertan eskatu nuen —dio Imanolek—, egokia ez baldin bazen itzuliko nuela pentsatuz. Asmatu nuen, batetik egokia zelako, eta bestetik hurrengo kontseiluan errepideetako diputatuak berarentzako eskatu zuelako. Baina ordurako kulturako departamentuaren izenean jarrita zegoen, ni lanean hasita, eta Arteleku izenarekin bataiatuta”.

Zaborrez beteta zegoen dena, baina egitura ona omen zuen eta pabilioi eder eta egokia omen zen. Barrutik ikus zezaten artistak bertara eramaten hasi zen Imanol. Handik desfilatu zuten Oteitza, Chillida, N. Basterretxea, R. Ugarte, Sistiaga, Rafa Ruiz Balerdi, Zumeta eta beste askok. Bakoitzak berea botatzen zuen, eta Imanolek entzun. Denei gustatu omen zitzairen, baina entusiasmo gehien agertu zuena Oteitza izan zen nonbait.

Zoratu egin omen zuen Oteitzak: behin Arte Ederretako Fakultatetik aparte behar zuela, hurrengoan lotuta hobe zela. Beste batzuek presa zuten, Ruiz Balerdi eta Zumetak adibidez.

Proiektua egiteko garaian ere nahikoa lan izan zuen, ez baitzekien zuzen nola egin barne banaketa. *De facto*, urte batzuk beranduago ere, 1987an inauguratu zenean, zati bat bakarrik zegoen habilitatuta, prestatuta.

“Beste arazo bat —dio Imanolek— Diputatuen Kontseiluan izaten nuen, beste diputatuek zer egin nahi genuen galdetzen zidatenean. Gutxi gorabehera, bagenekien, baina zehatz esplikatzen ez, eta haiek zehatz-mehatz jakin nahi zuten dirua sartzten hasi baino lehenago. Orduan ere Ardanzaren konfiantza izan nuen, eta berak piztu zuen argi berdea”.

Artelekuk ez zuen hasieratik definizio itxi eta mugatu bat. Sei bat zituen hasieran, posible bezala. Baina beti ere gunere ireki, zabal, diziplinartekoa izan behar zuen. Imanolek Batzar Nagusien aurrean aurkezten duenean, artisau eta artistentzako elkartruckerako gunere amankomunatu eta bizitzat ematen du. Zehazte aldera aholkulari talde bat eratu zuen, departamentukoekin batera lan egin zezan.

Imanolek dioenez, “gero zuzendariarekin asmatu genuen eta, gaur egun, Estatuan eta Europan kultur erreferentzia da”. Geroko bide hori, izan ere, ia hogeitertekoa da, Xanti Eraso hasierako zuzendariaren eskutik egin duen ibilbidea hain zuzen. Hasieratik hona aldaketa ugari eta handiak izan ditu Artelekuk, bai eraikin gisa eta bai proiektua gauzatzeko orduan. Eraikin osoa dago lanean orain, eta artearen munduak sekulako eboluzioa izan du, globalizazioa dela, alorren arteko gurutzaketa eta mes-tizajea dela medio.

Xanti Erasoren esanetan, lekua egina du Europan, erreferente da, askorentzat eredu, harremanak mundu osoarekin ditu, lankidetzara sare askotarikoa. Estatuko jende asko etortzen omen da ezagutzera, beren herrietan antzekoren bat egiteko, eta gero, azkenean, museoa eginez bukatzen omen dute —dio Xanti Erasok: gaur egun ez omen dago ausardia politikorik eite honetako apustuei heltzeko. Konparazio batez azaltzen du Artelekuren egitekoa Xanti Erasok: laborategi baten pareko da Arteleku, eta ez farmazia. Farmazian produktu elaboratu eta jakinak erosten

dituzu. Laborategian, aldiz, ikertu, esperimentatu, sortu, aldatu egiten duzu.

Imanolen obra peto-petoa da hau, Xantiren ustetan. Imanol bezalako jite politikoa duen batena, alegia, politika bitarteko bezala ulertuz inguru eta gizartea aldatzeko proposamenak planteatzen dituen, eta karre-
ra politikoa egitera mugatzen ez dena. Eskuzabaltasun politikoarekin zeri-
kusia omen du Artelekuk.

ETA ERRENTAGARRITASUNA?

Proiektu hau aurrera ateratzeko Imanolek izango zuen trabarik handiena hain zuzen bere nobedadea izango zen, eta enkajea. Kultura anglosaxo-
niarrean uler zitezkeen, Ingalaterran, Herbehereetan. Baina Donostian? Funtzionatuko zuen? Ibiliko zen jenderik? Inork eskatzen zuen? Jarri edo ez jarri zer pasatuko da bada?

Diputazioko kontseilua ohituta zegoen parametro ekonomizistatan proiektuak neurtzen. Imanolek beti aurpegiatzen zien kultura ezin zela neurtu emaitza materialengatik, errepideek ekar ditzaketan hobekuntzak neur daitezkeen bezala.

Ez dakigu Artelekuren defentsan erabili ote zuen bere argudio fabori-
toa, baina baietz pentsa liteke, askotan erabiltzen zuen eta. Mila milioi errepidetan sartuz ez zela inor enteratu ere egiten. Eta aldiz mila milioi kulturaren gastatuta gauza pila egiten zela, jende askok disfrutatuko zuela eta sekulako oihartzuna izango zuela.

Fededunaren konbikzio sutsuarekin aurpegiatzen zien kontseiluko kide batzuei ez zirela ohartzen kulturaren garrantziaz, baloratu egin behar zela, kultura eta jakintzarik gabe eta kulturak suposatzen duen aktibitate eta sormenik gabe gizarte bat ez dela ezertxo ere. Gizartea ezin zitekeela parametro materialekin bakarrik neurtu, baizik eta kulturaren parametro pro-
pioa egitea lortu behar zela.

KOLDO MITXELENA KULTURUNEA

Nahiz eta berak negoziatu, lortu, diseinua egin eta abian jarri, ez zion Imanolek erramua jarri Koldo Mitxelena Kulturuneari. 1992an inauguratu zen, hurrengo gobernualdian, Imanolek Diputazioa utzi eta gero.

Eraikin hori eskuratzeko negoziazioak Kulturako diputatu zela hasi zituen Imanolek eta Ahaldun Nagusi zelarik itxi, 1986ko maiatzaren 15ean Opusekin akordiora iritsiz.

Lehen saioa, hala ere, ez zuen berak egin, Xabier Aizarnak baizik. 1900 urteko etxe dotore hau ingeniari eskola zen, Opusekoa. Jatorrian Diputazioarena zen etxea, eta 50eko hamarkadan udaletxeak eta Diputazioak utzi egin zuten "Peñaflorida Institutua" egiteko. Eskola hau Amara-ra joan zenean, 60ko hamarkadan, Oposi eman zioten ingeniari eskola jar zezan, holakorik ez baitzegoen Donostian. Harrez gero denen ustetan Opusena zen etxea.

Diputazioak berreskuratzea planteatzen duenean, 1979ko legealdian, Aizarna Diputatu Nagusia Opusekin harremanetan jartzen da. Opusek, ordea, sekulako prezioa eskatzen du, 600 milioi pezeta edo hobe Diputazioak eraikitzea Ibaetan nahi zuten eskola, prezio horretan kalkulatu zegoena. Garestiegi zela eta, bertan behera utzi zituzten elkarrizketak.

Hurrengo legealdian, Ardanzarekin, Kulturako diputatua da Imanol eta txikiegi gelditu zaien liburutegiarentzat soluzioa behar zuen. Leku hori gustatu eta berrabiatu egiten ditu elkarrizketak. Eskolako zuzendariarekin izan zuen lehen harreman bat, tanteatzeko. Ikusi zion honek Ibaetara joateko interesa zuela. Negoziatzen jarraitzea pentsatu zuen orduan Imanolek.

Ramon Cipriáni eskatu zion azter zezala zein baldintzetan eman zitzaizen etxea. Agertu zen dokumentua, Gobernu Batzordearen erabakia alegia. Baina Diputazioaren Plenoaren erabakirik ez zen ageri. Erabakiak balio izateko Plenoaren akordioa behar zuen. Ez ote zegoen?

Hurrengo bilerak Opuseko buruarekin izan zituen Imanolek. Akordioaren kopia bat eskatzen zion Imanolek, eta aitzaki-maitzaki ez zuen lortzen. Berehala igarri zion ez zeukatela. Kartak mahai gainean jarri zituen orduan Imanolek: etxea Diputazioarena zela, hartutako erabakiak ez zuela balio eta zifra normal batean konpontzerik ez bazegoen epaitegietara joko

zuela Diputazioak, eta hori Opusen izen onari ez zitzaiola komeni. Zifra normal bat eskatzeko eta ahalegin guztiak egingo zituela berak.

Lehen kolpean 400 milioi pezetako indemnizazioa eskatu zuten. Ezetz. Azkenean 200 milioirekin itxi zuten akordioa eta Opusek berak erai-kiko zuela Ibaetakoa. Akordio hori 1986ko maiatzean sinatu zuten nego-ziazio luzeen ondoren.

Etxea berreskuratzearekin ez ziren Imanolentzat arazo guztiak konpondu. Liburutegia jarri nahi zuen Imanolek. Baina etxe hori beste batzuei ere gustatu egiten nonbait, eta tirabirak hasi ziren. Ogasunako diputatuak berarentzat nahi zuen. Eta Xabier Aizarnak, orduan Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakari, berarentzat. Batzar Nagusiak, izan ere, ez zuen lokal propiorik, geroago pasatu baitziren "Jornada"-ko eraikinerara. Kostatu omen zitzaion Imanoli Aizarna konbentzitzea; Batzar Nagusiak han jarrita azpierzabiltza gelditzen zela defendatzen zuen Imanolek eta alderantziz egoki-egokia zela liburutegirako. Aizarna konbentzitu ondoren, Batzar Nagusiak ere konbentzitu behar izan zituen.

Horrela lortu ziren Kulturarako 5.818 m², liburutegirako batzuk, beste batzuk erakusketa, hitzaldi areto eta zerbitzuetarako, eta hainbat metro Kulturako departamenturako.

Kulturunearen izena ere Imanoli bururatu zitzaion. Koldo Mitxelena hiltzean, hitzaldi sorta bat antolatu zuen Diputazioak haren omenez, eta hantxe bota zuen Imanolek egoki baino egokiagoa litzatekeela Kulturuneari Koldo Mitxelenaren izena ematea. Mitxelenaren alargunak beti eskertu dio hori, eta hauxe gertatu da Koldoren memoriari egin zaion omenaldirik ederrera.

BILERA SUTSUAK

Xabier Lete lekuko da nola ateratzen zen sutan bileretatik kulturako egitasmoak eztabaidatzen ziren bakoitzean. 1983-85 tarte hori oso denboraldi atormentatua izan omen zuen; kultur inbertsioetarako batzuen mesfidantza izugarria ikusten zuen, beste batzuen hoztasuna, eta gero gainera departamentu bakoitzak zeuzkan lehentasunak eta arrazoiak.

Aurkakotasuna, mesfidantza, hoztasuna eta interes gurutzatuak... Osagai horiek guztiak zeuzkan Koldo Mitxelena Kulturuneak, eta ez

gutxiago Artelekuk. Latz borrokatu zuen Imanolek liburutegia horra eramateko, adibidez. Ardanza Diputatu Nagusia Imanolen alde agertu zen.

Bilera horietako batean izango zen akaso. Maritere Zabaleta Leteri joan zitzaion serio esanez aitzakiaren batekin Imanol handik ateratzeko mesedez, apoplejia batek emango ziola eta. Maritere “governanta” zen, Diputazioko etxeoandrea bailitzan, eta kafea ematera-edo sartuko zen bilerara. Imanol gorri-gorri eginda eta builaka ikusi zuen.

Frantxisek dio proiektuen defentsarako oso joera pertsonala zuela Imanolek: “pelma hutsa bihur zitekeen eta ahotsaren entonazioarekin dexente jokatzan zuen. Imanol haserre edo haserrearen papera egiten ikusten baduzu, jasangaitza bihur daiteke”.

Julen GOIKOETXEA

Diputazioko kidea

- Imanol gizon puska bat da. Hitz bat esan behar bada: gizona, eta gero abertzalea, barru-barruraino abertzalea. Jatorra, gizalegezkoa... Ni politika mailan leku askotan aritu naiz lanean baina niretzat urterik hoberenetakoak diputaziokoak izan ziren, eta hori Autobidearen gaia tartean egonik! Imanol zen bezalakoa zen, nik uste dut ekipoa ondo eramaten zekien gizona zela eta harreman ona eduki genuela. Nik lau urte haietako oroitzapen oso ona daukat.

LANBIDE HEZIKETA

Arrazoiz esan eta errepikatzen du Imanolek bere bizitzako urterik onenak eman dituela Hezkuntza profesionalari lotuta: hasteko, bost urte ikasten, Donostian; hurrena, 27 urte jarraian Zarauzko Lanbide Eskolan; eta azkenik, lauzpabost gehiago, Ahaldun Nagusiaren kargua laga 1991an eta 1995ean Alkatetza hartu bitartean. Zenbat denetara? Askok. Bizitzaren erdia baino gehiago.

ARIZMENDIARRIETAREN BEGIA

Irakasle zela, ikastolako gestio bat egitera joan zen Madrila Basilio Bergararekin, eta honek ospitalera eraman zuen Imanol, Jose Maria Arizmendiarieta bisitatzerako. Basilio Zarauzko Caja Laboraleko zuzendari zen.

“Lanbide Heziketako irakasle nintzela Basilio esan zionean —kontatzen du Imanolek—, berehala hasi zitzaidan etorkizunari begira nola enfokatu behar ziren enpresa eta irakaskuntza. Teknologia berrietan sartu behar zela, Euskal Herrian sakoneko errekonbertsioa egin behar zela, etab.

Orduan erakutsi zigun kemenarekin harrirituta gelditu nintzen. Tuboz josita zegoen, aurpegia zuri-zuri, hezurra besterik ez zeukan baina burua argi. Hain argi ezen dena asmatu baitzuen! Handik urte batzuetara hasi ziren errekonbertsio-planak. Bete-bete asmatu zuen!”

Zeinek esango urte batzuk beranduago, urte dezente, Imanolek berak lan egin behar zuenik, erakundeetatik ere, Arizmendiarietak aurreikusitako aldaketak gauzatu.

PROGRAMAK ETA DIRUAK

1985ean Imanol Diputatu Nagusi izendatu zutenean, Euskal Finantzarako Kontseiluan (Eusko Jaurlaritza eta hiru Diputazioak biltzeko organoa), enpresa txiki eta ertainak berpizteko Plangintza berezi bat jarri zen indarrean: P.R.E. (Plan de Relanzamiento Especial). 30.000 milioi pezetako diru boltsa zen.

Egoera aprobetxatuz, Imanolek beste 6.000 milioi pezetako diru laguntza planteatu zuen Lanbide Heziketarako. Eusko Jaurlaritzak onartu zuen. Baina beste bi Diputatu Nagusiek atzera bota zuten Imanolen pro-

posamena, Heziketa ez zela Foru Aldundien eskumena argudiatuz. Industria ere ez zela, baina alferrik izan ziren Imanolen argudio eta saio guztiak, haiek ez baitzioten Lanbide Heziketari garrantzirik ematen.

Bi urte beranduago, 1987an EEkoekin eratu zuen EAk Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernuua. Jose Mari Agirre "Txato" zen Ekonomiako diputatua. Oso ondo elkar ulertu eta moldatu ziren biak, eta Lanbide Heziketako Ikastetxeak berpizteko Plangintza Berezia jarri zuten martxan. Orduan ere trabak eta eragozpenak izan zituzten, LTHk zioenaren aurka zihoala eta, baina tira.

Urte haietan slogan hirukoitz bat erabiltzen zutela Diputazioan gogoratzen da Jose Mari Agirre: Natura, Teknologia eta Prestakuntza. Hirurak Imanolen gustukoak.

Naturaren pean ulertzen zituzten batez ere ur hornidura eta saneamenduko planak.

Teknologiaren alorrean, Arizmendiarrietak esan ziona gogoratuz-edo, teknologia berrietan inbertsioa egiten zuten enpresei diru laguntza dexente eman zitzaizen Ekonomia Saitetik, Imanolen laguntza guztiz inportantearekin, Jose Mari Agirrek dioen eran.

Eta esloganaren hirugarren osagaia, prestakuntza:

"Lanbide Eskolako irakaslea izana zenez Imanolek eskarmentua bazuen nik ez bezala, baina laster konbentzitu nintzen gai hori ere guztiz inportantea zela, eta hor ere ahalegin handia egin genuen lauzpabost urteko plangintza baten inguruan Gipuzkoako lanbide eskola horiei (uste dut 18 zirela sarean) material berriak emateko. Gertatzen zen oso makineria zaharkitua zela-eta, ikasleak enpresetara-eta joaten zirenean ez zedela prestatuta makina haiek erabiltzeko. Orduan ahalegin handi bat egin zen ikasle horiek erabili ahal izateko makina berriak erosten. Alde batetik bertako mutilak lanean makina horietara egokitu zitezen eta beste alde batetik lanbide eskolak prestigiatzeko eta haien ekipamenduak hobetzeko. Nik uste dut hor ere oso ondo hartu genuela elkar eta nik oroitzapen bezala behintzat daukat bi arlo horietan, bai enpresak teknologia berriez eta bai eskolak makineria eta tresneria berriez hornitzerakoan ahalegin handia egin genuela.

Gaur egun gauza gutxi dela emango du agian, baina garai hartan gauzak non zeduten ikusita bultzada handia izan zela uste dut".

ALEMANIAKO EREDUA

Bultzada hau, zertan azpimarratu ez da, hemen aho batez onartua da eta, oso inportantea izan zen Lanbide Heziketa prestigiatzeko ere. Garai horretan mundu guztiak unibertsitatera joan nahi zuen. Urte batzuk aurretik abisatua zuten frantses ikertzaileek unibertsitatea langabetuen fabrika bihurtuko zela. Frantsesen aurretik esan zuen nire lagun oiartzuarrak, denak unibertsitatera joan eta tituluz beteta itzultzen zirela ikusita: hemen tontoak faltako dira, produzituko duen jendea, alegia.

Alemaniko egoera hartu zuten eredutzat Imanol eta Txatok:

“Lanbide Heziketa prestigiatzeko guk esaten genuen hiru elementu behar zirela. Alde batetik irakasleak eta lanbide zentroak egokitu; bestetik enpresak eta enpresaburuak baita ere hortan inplikatu zer behar zuten eta etorkizunean zer beharko zuten adierazteko; eta erakundeek lagundu. Hirukote horren baitan jartzen genuen eta hain zuzen ere nik uste ideia hori Alemaniatic datorrela. Alemanian enpresa eta zentroen arteko lotura oso estua da eta zentroak askotan enpresenak dira; ez enpresa batenak baina bai enpresen elkartekoak. Hemen garai batean historikoki Eibarren eta Beasainen CAFen-eta horrela izan omen ziren (Andoainen ere bai) baina gero dibortzio bat bezala egon zen, enpresak alde batetik eta zentroak bestetik. Eta nik uste etorri zela lotze eta elkar inplikatze hori. Hori zen guk erakundeetik bultzatu nahi genuena; berriro espiritu hori sortzea.

Alemaniko eredua, nahiz eta hemen ez den bere horretan aplikatu, nik uste dut biak inplikatzeko ideia hori handik zetorrela. Esan behar da, baita ere, horretan Adegik-eta nahiko ikuspegi aurrerakoia zeukatela”.

Programen eta diru laguntzen atzetik Imanolen buruan Lanbide Heziketak izaera estrategikoa zuen Europara begira. 1988ko martxoak 26an Madrilgo Euskal Etxean aldarrikatu zuen “Europara hurbiltzeko behar-beharrezkoa dela heziketa profesionala indartzea”. Heziketa profesionala dela gainditu gabe dugun gaia. Euskaditik eta euskal tradizioan oinarrituz sustatu behar dugula.

EAJ/EA: HAUSTURAREN PROLOGOA

EAJko haustura 1985-86 urteetan gauzatu zen, formalki ez dakit zein momentutan. Prozesu oso luze eta nekagarri baten ondotik, hori bai.

Haustura urakana bezalakoa izan zen: urakanak sekulako txikizioak egiten ditu parean duzunean, baina aurretik datozen haizete eta euriteek txikizio handiak eginak dituzte jada.

Imanolek oso gaizki bizi zituen haustura, honen prozesua eta etenaren ondorioak. Giroa baretzea, bakeak egitea, krisia bideratzea... posible zela uste zuen. Saiatu ere saiatu zen. Gogorra, jasanezina gertatzen zitzaion banaketa, sentimentalki eta politikoki. Integrala zen zartatua bere kasuan, goitik behera jotzen zuen: bere nortasuna, bere ibilbidea, bere etxeko tradizioa eta jendea, bere ingurunea, bere herria, Euskal Herria, dena arrakalatzten zitzaion bat-batean. Lurrikara bat.

Imanolen gurariak, ahaleginak eta penak gorabehera, hausturak bere bidea egin zuen, aurretik idatzia bailegoen.

EAJ/EA: "TU QUOQUE FILI MI?"

Ardanzak, Gipuzkoako Ahaldu Nagusi zela, kontseilua bildu zuen, krisiaz mintzatzeko. Diputatu bakoitzari banan-banan galdetu zion zer pentsatzen zuen. Halakoa argi eta garbi tesi ofizialisten alde azaldu zen, bestea erdizka; besteren bat "bai, bainaka". Imanolen txanda etorri zen eta honek garbi agertu zion bere posizioa. Kritikoekin lerratzen zela, alegia. Imanol, orduan, Ardanzaren hurrengoia zen Diputazioan, bere konfiantzazko gizona.

Eta honelaxe esan zion Ardanzak: nola egin dezakezu zuk hori, zeinek eta zuk nire konfiantzako gizona izanda? "Tu quoque fili mi?", ("zu ere bai, ene seme?"), esan omen zion Zesarrek Brutori puñala sastatu behar zionean. Berdin Ardanzak Imanoli.

Bileratik irten eta berehala, han doa Imanol Ardanzaren bulegora, eta esaten dio: "entzun dituzunak entzun ondoren badakizu zer pentsatzen dudan. Nire kargua zure esku uztera nator". Eta Ardanzak, hotz: "zure kargua beti dago nire esku".

Handik gutxira, Ardanza bera da Imanolen bulegora doana, damuturik-edo. Ez duela politikan bide luzerik egingo, ondratuegia dela, politikari atipikoa dela.

Eta hortik aurrera bakoitzak bere bidea jarraitu zuen. Hala ere, dirudienez, Imanolek ez zuen Ardanzaren konfiantza guztiz galdu, Imanoli eman baitzion botoa Ardanzak bere ordezkoi izateko Diputazioan.

Imanolek eta Ardanzak ez zuten krisia modu berean ikusten, ez orduan eta ez gero.

Beste behin, bata Lehendakari eta bestea Ahaldu Nagusi, Ajuria Enean bildu ziren, Bizkaiko eta Arabako Diputatu Nagusiekin batean, Makua eta Ollora. Krisiaz ari zirelarik, Imanolek eta Ollorak uste zuten inolaz ahal izanez gero haustura ekidin egin behar zela, ondorioak beldurgarriak izango zirela, abertzaletasuna goitik behera puskatuko zuela.

Ardanzak eta Makuak ez zuten diagnostiko bera egiten: gustatu ala ez, alderdi barruan zeuden zuldar horiek kendu egin behar ziren eta alderdia saneatu, eta gainera ez zen deus gertatuko: hiruzpalau aldeneko dira, gainerakoek protesta egingo dute baina alderdian geldituko dira. Imanolek hantxe bertan esan zien etena gauzatzen bazen, alderdia lagako zuen lehenengoia bera izango zela.

EAJ/EA: HAUSTURAREN AURKA

Urte hauetan Xabier Lete aldamenen zuen Diputazioan. Bere "baltsamoa" zen, "konfesoarea" eta "aholkularia". Letek esaten du Imanolek ez zuela sinesten edo ez zuela sinetsi nahi alderdia puskatuko zenik. Alderdia osorik mantentzea nahi zuen berak, baina korronte kritiko indartsu batekin.

Sinetsi ala ez, ez zen besoa beso gain etxean gelditu. Jo batera eta jo bestera ibili da Imanol, kritiko eta ofizialisten artean, konponbideren baten bila.

Haustura ekidin zitekeela sinetsita, Jenaro Kortajarena, Martin Elizasu eta hirurak, hirurak artean diputatu zirelarik, bisita bana egin zieten Garaikoetxea eta Ardanzari, eta alderdi barruan beste askori. "Gestio horiek guztiak egin genituen baina esku-hartzeak ez zuen ezertarako balio izan". Ardanzak "ilusio eta inozotzat" jo zituen eta geroztik gertatu zena ikusita arrazoi zuela uste du Imanolek, inozoak zirela.

Kritikoekin ere izan zen Imanol. Korronte horren buru zebiltzan guztiekin, eta behin eta berriz. Kritikoekin arrazoi politikoekin bat zetorren, hausturaren fundamentazioarekin, nahi bada, baina ez hausturaren prozedurarekin eta gutxiago haustura protagonizatu zuen zenbait jenderek. Ez zitzaizkion formak gustatzen. Agresibitate eta zakarkeria gehiegi.

Gaurko talaiatik nola ikusten duen ordukoa?

"Gero han zer gertatu zen ikusita eta pixka bat analizatuta ikusten da haustura ofiziala gertatu baino lehenago barnean ikaragarriko haustura zegoela. Egunero egunkarietan bat bestearen kontra eta... Haustura ofiziala egon ez bazen ere hura hautsita zegoen eta alderdi barruan ere gutxienez bi alderdi zeuden. Bata bestearen aurka, baina "odio mortal", zer esaten zituzten asanbladetan eta! Ni denetara joaten nintzen; ez nintzen joaten "con voz y voto", entzule bezala baizik, baina nik sufritu egiten nuen. Nola haustura luzatu egin zen, gero eta okerrago, eta hark lehertu egin behar zuen eta lehertu egin zen.

Gure papera garai hartan, Ardanzak esan zigun bezala, inozo batzue-na izan zen".

Hain traumatizatuta gelditu zen Imanol hausturarekin, ezen inongo alderditan ez sartzea pentsatu baitzuen. Eta horrelaxe mantendu zen zenbait aste, independente, neutral. Baina ez zen hori bidea herri honen zer-

Marisol AGIRRE

Diputazioko langilea

- Era amable, abierto, muy cercano; lo solucionaba todo. Si tuviera que elegir un rasgo de su personalidad sería éste: sentido común. Sentido común y sensatez. Lo que yo más destacaría sería su sensatez y su sentido común. Aquí tocaron épocas muy difíciles y planteaba las cosas de una forma que decías: claro, partiendo de esa base se puede llegar a acuerdos! Aunque a veces no se pudo.
- Escuchaba, yo lo veía con las visitas y escuchaba a todos los niveles, preguntaba todo lo que tuviese que preguntar porque no le importaba hacerlo; y después solucionaba los temas solamente con el sentido común, o por lo menos daba su visión del problema y de la solución. Con el sentido común que tenía llenaba todas las otras carencias que podía tener. Le daba lo mismo hablar con un embajador de donde fuese que con el alcalde de cualquier pueblecito.
- Tenía compromiso de servicio a los demás. Yo lo he visto en la Diputación, pero fíjate toda la dedicación que ha tenido en su trayectoria anterior! El compromiso de servicio a los demás yo creo que lo ha tenido desde que nació.
- Era muy moderno, porque con todo lo campechano que es mira Arteleku... No es fácil que una persona campechana y que le gustan las cosas muy sencillas se interese por el arte moderno. A mí se me hacía raro cómo entendía y cómo le gustaba. Amigo de bertsolaris y de artistas como Oteitza. Le encantaba. Fíjate Arteleku y el Koldo Mitxelena; éste último no lo inauguró él pero sí lo empezó.
- Luego, todos los temas de innovación en empresas: como había estado en formación profesional eso le iba mucho. Yo le veía muy moderno, con visión de futuro.

- También era entregado y muy trabajador. Imanol nos hacía trabajar a todos desde las ocho de la mañana que entrábamos hasta las dos, y estábamos todo el tiempo en movimiento, porque también él lo estaba. Cuando se iba a casa la otra secretaria y yo nos decíamos: ahora hasta que Imanol llegue a Zarautz ya tenemos un cuarto de hora de tranquilidad! Pero en cuanto le pusieron el teléfono en el coche ni eso: decíamos que nos volvería a llamar antes de que llegase al túnel del Antiguo, y efectivamente así ocurría.

bitzuan jarraitu nahi bazuen; eta, gainera, horrela ematen zuen joera ofizialistak egin zituen "astakeria" guztiak babesten zituela. Eta EAn sartu zen.

Imanol eguneroko gestioan ezagutu dutenek diote ez duela ezer egin EAJ eta EAren arteko haustura gehiago sakontzeko. Ez du sua gasolinaz itzali nahi izan. Elkarlanaren aldeko agertu da, agertu denez, baina bakoi-tza bere autonomia eta nortasun propioarekin.

EAJ/EA: DIPUTAZIOKO JAUREGIA EDO KAFKAREN GAZTELUA?

1987ko hauteskundeetatik aurrera hausturaren ondorioak kudeatu behar izan zituen, gutxiengoan kudeatu ere, Eusko Jaurlaritza eta gainerako Diputazioek marraren beste aldean zeudela. Latz borrokatu zen.

Baina ez ziren xamurragoak izan 1986-87 urteak, kontrara baizik. Gori-gori zegoen hausturaren prozesua, txinpartak alde guztietatik, trapu zahar guztiak egunkarietan, eskandalua eskandaluaren gain. Galga gabe goitik behera zetorren trentzar hori ezin zen gelditu.

Koka gaitezen 1986-87 urteen bueltan eta Diputazioan.

Barrutik puskatuta dago Diputazioko Gobernua, erdibituta. Jarrera ofizialista edo EAJn daudenak lau dira: Xabin Irulegi, Jenaro Kortajarena, Jose Luis Goikoetxea eta Martin Elizasu. Korronte kritikoan eta gero EAn, bost dira: Xabier Albiztur, Prontxio Larrañaga, Xabier Lete, Jesus Mari Akizu eta Imanol Murua bera. Hortaz, Diputatu Nagusia aparte, lau eta lau. Nola bilakatu Diputazioa oasi bailitzan kanpoan hainbeste trumoi eta tximista zenean?

1987ko urte hasieran hauteskundeetarako deialdia egin zuen Imanolek. Eta hortik aurrera jarduneko Gobernua zen Diputazioa. Nola kudea daiteke konposizio hori duen talde bat? EAJk eskatzen zion Imanoli bi alderdi balira bezala antolatzekeo gobernua. Arbitraia proposatu zuen Jenaro Kortajarenak. EAk eskatzen (exijitzen?) zion Imanoli EAJkoak bota eta Eako jendez gobernu berri bat era zezala.

Ez bat eta ez beste zuen gustuko Imanolek. Eta ez zuen egin. Bi kanporatu zituen Gobernutik, hala ere. Diziplina arrazoiengatik. Eskatua zion Imanolek bere ekipoari ez zitezela alderdien arteko ika-mikatan sar, neutraltasuna gorde zezatela.

Martxoaren 4an kanporatzen du Jose Luis Goikoetxea, Ogasun diputatua, Kontseiluaren botoa Batzar Nagusietan aldatu egin zuelako. Egun berekoa da Diputazioko Kontseiluak harturiko erabakia: diputatu guztiek Kontseiluaren ebazpenak defendatu beharko dituztela BBNNetan. Imanolek aurretiaz esanda, Goikoetxeak bazekien botoa aldatzen bazuen "ipso facto" kaleratuko zuela.

Hilabete geroago, apirilak 15, gauza bera egiten du Martin Elizasurekin, egunkarien lehen orrialdeetan agertu baitzen bere irudia Ferreriasko egoitza "okupatzen".

Kanporaketa hauen ondoren ez zen gobernu berririk eratu, baizik eta departamentuak birbanatu egin ziren barruko kideen artean.

Egoera kafkiar eta eskizofreniko honetatik sano irtetzeak ez du meritu makala.

NAZIO IKUSPEGIA, LTHREN GARAIAN

Ramon Labaienek maiz esaten du gure politikariei nazio ikuspegia falta zaiela.

Ez da Imanolen kasua.

EAJn gertatu zen hausturaren funtsean (Nafarroaren estatusa, LTH, Garaikoetxea botatzea) nazioa ulertu eta artikulatzeko filosofia dago. Erakunde komun indartsuaren eta foralismoaren arteko sokatira. Imanol Diputatu Nagusi egon zen bi aldietan (1985-87 eta 1987-91) bizirik iraun zuen gaiak, batzuetan eztabaida teoriko gisa, eta bestetan praktikako zailtasun eta tirabira moduan.

Egoera politiko bitxi samarra suertatu zitzaion pertsonalki, nahiko kontradiziozkoa, paradoxaz betea: erakunde nagusi indartsuen aldekoa izan eta lurralde bateko erakundeak defendatu behar; LTHren aurkaria izan eta Lurralde Historikoen Legeaz baliatu behar gobernatzeko; agintari izan Gipuzkoan eta aldi berean (1987 arte) oposizioan Gasteizen, parlamentari gisa.

Imanol hamabi urte egon da Diputazioan, baina ez da izan foralista. Bera karguan egon ala ez, ez du pentsaera aldatu. Krisi garaian, Ardanza Ahaldun Nagusi zela eta Imanol haren bigarrena, diputatuen iritzia jostzeko bildu zuen Kontseiluan garbi esan zuen bera Eusko Jaurlaritza indartsu baten aldekoa zela, eta ez Diputazioak indartzearen zalea. Gero bera egon da karguan, baina berdin pentsatuz jarraitu du.

Eta arrazoi politikoak eta praktikoak ditu horretarako.

“Yo no intervino en la negociación del Estatuto, pero sí en la campaña pro-Estatuto, en Gipuzkoa. Y no observé que nadie de nuestro Partido, en esta región, hablase de los derechos históricos referidos a cada territorio, sino al conjunto del pueblo vasco en general... Considero que tenemos que hacer valer estos derechos para conseguir la mayor capacidad de autogobierno de este país a través del desarrollo del Estatuto y luego, internamente, con una interpretación generosa y flexible de nuestras leyes, ejerceremos cada uno las competencias que nos corresponden, mirando al bien de los territorios y al de Euskadi”. Honela hitz egin zion *Euzkadi* aldizkariari 1985ean.

Imanolen pentsaera hemen egoki azaltzen dela iruditzen zait. Zehaztasun gehiago ere eman izan du han eta hemen. Bi fase hipotetiko bereizten ditu. Orain, aurreneko aldian, nazioa izan nahi duen lurralde baten-tzat erakunde orokor nagusi indartsuek dute lehentasuna, horiek finkat-zera jo behar da; eta gero, Euskadiren independentziaren fasean, fase hipotetikoan, orduan egin beharko litzateke konpetentzien barne-bana-keta.

Eusko Finantzen Kontseiluan (CVF) izan zuen esperientziak indartu besterik ez zion egin betiko konbikzioa. Letek kontatzen du nola itzultzen zen handik, sutan:

“Makuarekin egindako bileretatik, Eusko Finantzen Kontseiluko bile-retatik, Imanol sutan ateratzen zen; diputatu nagusiek egiten zituzten bilera guztietatik etortzen zen sutan. Esaten zuen: ‘hainbeste urte aritu al gaituk hemen autonomiaren bila gobernu bat edukitzeko? Parlamentu bat edukitzeko? Eta orain zer egin behar diagu? Balio guztiak kendu eta kon-petentzia, indar eta baliabide guztiak Diputazioaren eskuetan jarri?’”

Guevarismoaren oso kontrakoa zen Imanol, baina ez horrela Jose Mari Makua, Bizkaiko Ahaldu Nagusia. Honekin sekulako disputak izan ohi zituen, baina gero ez zen hobetu egoera.

BAT BOSTEN AURKA

1987tik aurrera bosten kontra zegoen bera Eusko Finantzen Kontseiluan, hain zuzen ere erakundeen arteko arazo guztiak jorratzen ziren organoan. EAK aginte bakarra zuen, Gipuzkoako Foru Aldundia, EErekin banatua. Gai-nerako erakundeetan EAJ eta Alderdi Sozialista zeuden, Eusko Jaurlaritzan (Jose Antonio Ardanza) elkarrekin eta bakarka Bizkaian (Alberto Pradera) eta Araban (Fernando Buesa).

Bilera horietaz ari dela Ramon Cipriánek zera esaten zuen, txinpartak atera ohi zirela. Eztabaidatu behar denean eztabaitzeko Imanolek ez zuen bildurrik. “Imanol lehoia” ezagutu zuela bilera horietan kontatzen du Car-los Etxeparek, izerditan blai ateratzen zela.

Baina Imanol ez da horretaz kexu, bakoitzak bere interesak defendat-zea bidezkoa iruditzen zaio. Ez da hori. Haserratzten zuena erakundeen arteko funtzionamendu eskasa zen, koordinaziorik eza. Non zegoen horren

erroa? Lurralde bakoitzeko erakunde partikularren eta erakunde komunen artean menpekotasun edo dependentzia organikorik ez egotean. Bakoitzak bere plangintzak egin zitzakeela, betebeharreko plangintza orokor gutxi zegoelako. Gipuzkoako Diputazioak bere sustapen-ahalmenari uko egitea proposatzeraino iritsi zen, erakunde bakoitza bere kompetentzietara muga zedin, distortsioak ekidin eta "lehiatila bikoitzak" desagertu zitezkeen.

Bitxia badirudi ere, horrelaxe da: bere Diputazioaren eskumenak zabaltzearen alde jokatu ordez, Eusko Jaurlaritza ardatz gisa indartu zedila eskatzen zuen, eskatzen zion Jaurlaritzari berari.

“EUSKADI TRAINERUA DA”

Jose Mari Makua Bizkaiko Ahalduen Nagusiak esan zuen Bizkaia zela Euskadiko lokomotorra, trenaren makina. Imanoli ez zion graziarik egin. Bizkaia trenaren motorra bada, zer gara gipuzkoarrok, arrastaka daramaten zama?, galdetzen zuen Imanolek.

Egokiagoa iruditzen zitzaion traineruaren irudia. Imanolek badaki trainerua zer den, arraunekin jarduna baita lehia bezala txibitan.

“Euskadi es una trainera en la que, por ahora, remamos vizcaínos, guipuzcoanos y alaveses, patroneados por el Gobierno y Parlamento vascos. Es fundamental que rememos juntos y al unísono, con un ritmo de palada sosegado, pero vigoroso y enérgico.

Si cada uno empezáramos a remar por nuestro lado, sin contar con los demás ni con el patrón, la trainera no avanzaría y, en cuanto surgiese una dificultad en el campo de regatas, correríamos el peligro de hundirnos.

Para que la trainera sea fuerte, el patrón debe tener gran autoridad sin que, por ello, los componentes de la tripulación tengan que debilitarse; al revés, un buen patrón fortalecerá a la tripulación y una buena tripulación facilitará la labor del patrón.

En esta trainera de Euskadi hay un poco más de la mitad de remeros vizcaínos, casi un tercio de guipuzcoanos y, el resto, alaveses. Pero todos aportamos nuestras energías y los guipuzcoanos queremos bogar, y bogar fuerte, por el País”.

Imanolek badaki zertaz ari den. Batetik, arraunean badakielako, esan dugunez. Baina bestetik, hori esatean bilera gatazkatsu haietan izan zituzten eztabaida guztiak izango zituen buruan, eta haien azpian ezkutatzen zen filosofia.

Makuaz ari da hemen, Makuarekin zituen diferentziaz, baina gainerakoan Makuarekin sintonia handia zuen, oso ondo moldatzen ziren elkarrekin, abertzaletasun sentzibilitate beretsua zuten biek, abertzaletasun euskaltzalea.

EUSKO JAURLARITZARI LEIALTASUNA

1980ko hamarkadan, Lurralde Historikoen Legea dela-eta sortu zen iritzi zaparradan, bazen bat Diputazioen desagerketa proposatzen zuena: Diputazioen ordezkariak Eusko Jaurlaritzaren lurralde ordezkariak, nahiko. Imanol erakunde nagusiaren defendatzaile sutsua izanda, eta Udaletxe indartsuen aldekoa izanda ere, ez da horraino iritsi. Diputazio malguak nahi ditu, Gobernuaren eta Udaletxeen artean erro izan daitezkeenak, "bisagra" funtzioa egingo luketenak.

Imanolen ulerkeran bi erakunderen artean dago Foru Aldundia. Eusko Jaurlaritza goian, eta Udaletxeak behean. Nola jokatu batekin eta nola bestearekin?

Eusko Jaurlaritzarekin, arazoak arazo, beti izan da diziplinatu eta leial. Lankideei ere leialtasun bera eskatzen zien, Xabier Lete eta Jose Mari Agirrek, biak diputatu, gogoratzen dutenez:

"Imanolek leialtasuna aldarrikatu eta eskatzen zigun beti guri gobernuarekiko, erakundeen arteko leialtasuna gorde behar zela nahiz eta desadostasun politikoak egon" (*Xabier Lete*).

"Nik badaukat Imanolen hasierako irudi bat: orduan nahiko berria zen PNV eta EAren arteko banaketa, baina gauza bat daukat nahiko grabatuta. Garai hartan PNV sozialistekin zegoen Gasteizen, Jaurlaritzan, eta Gipuzkoan berriz EA eta Euskadiko Ezkerra geunden. Hala eta guztiz ere, eta nahiz eta ados ez etorri Jaurlaritzak hartzen zituen erabaki batzuekin, Imanolek beti esaten zuen gauza bat: nire gustukoa izan edo ez izan, nire gobernu da. Nire edo gure hori oso ondo azpimarratzen zuen eta beti atentzioa eman zidan espresio horrek. Beste askori, seguru, hori esatea zailagoa egingo zitzaien garai hartan, banaketa izan eta gero. Imanolek irizpide hori beti mantendu zuen; xehetasun bat da baina niretzat inportantea.

Berak baloratzen zuen Jaurlaritzaren ardatz izateko papera nahiz eta bere gustukoena ez izan eta gustuko zuen jendez osatuta ez egon". (*Jose Mari Agirre*).

UDALETXEEKIKO DISKRIMINAZIORIK EZA

Alde batetik hori, leialtasun zintzoa; eta bestetik, udaletxeei begira diskriminazio negatiborik ez egitea. Horra Imanolen bi ezaugarri.

Hala ikusten du Xabier Letek, Imanolen esaldiak tartekatu eta komentatuz:

“Beti aldarrikatzen zuen gauza bat zen hori (Eusko Jaurlaritzarekiko leialtasuna) eta horrekin batera eskatzen zigun beste gauza bat, berak praktikatzen zuena, udalerrietako edo udaletako agintariekiko kontrako

Imanol LAZKANO

Bertsolaria

- Normalean guk ezagutu ditugun politikariak herritarrekiko-eta distantziarekin ezagutu ditugu, eta akaso halaxe beharko du: distantziarekin. Hala behar badu eta hori ona bada, Imanol politikari txarra da.
- Ez dakit Imanol alkate egon zenean sinetsi ere egin ote zuen, eta diputatu izan zenean berdin. Nahiz eta kargu garrantzitsuetan egon, Imanol beti herriko gizona izan da; herriko beste bat gehiago.
- Beti saldu izan diguten hori bada politikari ona izatea, Imanol politikari txarra da, baina ni honekin geratzen naiz. Nik nahi nuke politikari guztiak horrelakoak izatea. Politikari bezala Imanolen irudi oso ona daukat, zeren azken batean politikari batek herriaren ordezkari behar baitu. Uste dut askori ahaztu egiten zaiola herriak aukeratutako eta herria antolatzeko morroi batzuk direla; eta alderantziz pentsatzen dute: herriaren nagusi, herria eurena dela pentsatzen dute. Imanolek alderantziz: nik uste herriaren morroi sentitu dela eta ni politikari mota honekin geratzen naiz. Imanol gardena izan da, gardenegia politikari ona izateko.

diskriminaziorik ez izatea: 'PSOekoak, HBkoak dituk... ez dituk gure soka-koak baina ez dik ezer ikustekorik. Udalerrietako edo udaletako alkate eta zinegotziak errespetatu beharra zaudek zeren horiek herri bat erreprezentatzen ditek eta herri horren interesak zaudek jokoan. Gu ez gaituk nor herri hori kaltetzeko gobernariekin ados ez gaudelako edo alderdi politiko konkretu baten gestioa txarra dela iruditu zaigulako'. Hor beti Imanolen exijentzia zen neutralitatea eta leialtasuna, zuzen jokatzeari; horretan oso paternalista zen.

Berak esaten zigun: 'ba al dakizue Diputatu Nagusi bezala bisitatzera-eta joaten naizenean, zeintzuk diren ondoen onartzen nautenak, folklore gehienarekin, txistulariekin, bertsolariekin-eta? HBkoak; ni joaten nauk gure sokako herri batera eta alkatea bilera batean dela eta itxaron egin behar. Alderantziz, joaten nauk Lizartzara-edo eta kilometro erdi bat lehenago garai batean misiolariekin-eta bezala, txistulariekin eta dantzariekin zain egoten dituk alkatea eta korporazioa'.

Imanoli paternalismo hori gustatu egiten zitzaion eta estimatu egiten zuen. Gobernatuekiko harremana sentitzen zuen izan behar zuela errespetuzkoa eta era berean paternalista".

AUTOBIDEA: EITE POLITIKOA HARTZEN

Xabier Letek leihotik begiratu zuen eta esan zion Imanoli: "Eite politikoa hartzen ari duk hau, Imanol". Diputazio aurrean kontzentrazioa zegoen, Autobidearen aurkakoa, eta HBko eta Jarraiko jendea ezagutu zuen Xabierrek.

Xabierrek gertutik bizi izan zuen Autobidearen eboluzioaren lehen aldia, 1985etik 1987 bitartekoa. Gerokoa kanpotik ezagutu zuen, Diputazioa lagata.

Autobidearekiko aurkakotasuna, dio Xabierrek, Tolosaldeko eta Lekunberri aldeko mendizale eta ekologistaz osaturiko 20-30 laguneko talde batek osatzen omen zuen hasieran. Gero eboluzionatuz joan zen poliki-poliki. Jada ez ziren mendizaleak, ekologistak. Jende berria hasi zen mugitzen, ezker abertzalekoa, Jarraiko jendea. "Nik manifestazioak ikusten nituen, Autobidearen aurkako lehen manifestazioak, Gipuzkoa enparantzan egiten baitzituzten, Diputazioaren egoitzaren aurrean, bi astez behin lehenengo eta gero astero ilunabarrean. Jende ezaguna ikusten hasi ginen, Hernani eta Errenteriako Jarraiko jendea, jende gaztea. Esaten nion nik Imanoli: hau itxura politikoa hartzen ari duk, Imanol. Baina Imanolek ez zuen uste gauzak horraino iritsiko zirenik eta aurkakotasun hori hain biolentoa izango zenik ere ez".

Eta halako batean ETA sartu zen tartean. Gertakari honek, besterik gabe, panorama guztiz aldatu zuen. Ajuria Eneako Itunaren garaian baikaude. Aurkakotasuna ordezkatu eta bideratu nahian, aurretik sortua zegoen "Coordinadora Anti-Autovía" izeneko taldea, gero 1990eko maiaztzean "Lurralde" koordinakundea bilakatuko dena. Koordinakundeko kide ezagunena eta protagonista nagusia Jonan Fernandez izan da. Koordinakundea da aurkakotasun zibila eta politikoa landu eta lideratu duena.

ETA tartean sartzearekin Leitzarango Autobidea ez da errepide bat, baizik eta demokraziaren arragoa erakunde publikoen begietan, hor frogatu behar baita demokraziaren sendotasuna eta indar demokratikoen batasuna. Termino horietan planteatzen da arazoa. Erakunde guzti-guztiek eta aho batez gauza bera errepikatzen dute: xantaiaren aurrean ezin da amore eman, demokrazia dago jokoan, erakundeen duintasuna garbi mantendu behar da, milimetro baño ere ezin da mugitu.

Hitz egitera esertzea bera "delitu" da.

Eta gerra-frontean bezala, balak bailiran aidean dabilta alde batetik bestera, mehatxuak, leherketak, hildakoak, atxiloketak, manifestazioak, aldarrikapenak, deklarazioak. Legealdiaren bigarren zatian gaude, 80ko hamarkadaren bukaera eta 90ekoaren hasierako urteetan.

AUTOBIDEA: PROIEKTU IZARRA

“Guk, eta batez ere nik —dio Imanolek—, proiektu harekin munduko ilusiorik handiena jarri genuen, pentsatzen genuen izugarrizko garrantzia zuela errepide hori egiteak, ez zela batere erraza baina proiektu izarra bezala hartu eta beti horrekin bueltaka ibili gabe aurrera eraman behar genuela”.

Gertakariak begien aurrean jartzen ziotena Imanolek ezin zuen ulertu. Ez zuen ulertzen nola zitekeen 60ko hamarkadan abertzaleek errebin-dikatu zuten obra publikoa (Nafarroa eta Gipuzkoa lotu nahi zuena materialki), egiteko momentua etorri zenean txarra izatea. Hastapeneko bere buruhauste nagusia hori zen. Estrategikoa izan, behingoz hasi, eta txaloak jaso beharrean txistuak jasan. Nola zen hori posible? Mundua erori zitzaion.

1985ean hasi zen Diputazioa proiektu ezberdinak prestatzen, Leitza-ran erreka-ondotik zetorren MOPUren proiektua baztertu ondoren. Ara-xestik barrena etorri behar zuela zioten beste batzuek, EEk horien artean. Eta azkenean Leitzarangoa hautatu zen. Honek beste ikerketa izan duen Autobiderik ez dela egongo munduan dio Julen Goikoetxea errepide eta obra publikoetako foru diputatuak.

GESTIOAK UGARI, EMAITZAK URRI

1986ko uztailaren 23an Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko Mugiroko Akordioa sinatuz Autobidea eraikitze-ko erabakia hartzen da. Hurrengo urteko abenduan Euroestudiosi Autobidearen egitasmoa esleitzen zaio. A2 aukera da ontzat ematen dena eta honen tramitazioa hasten da. Bidezatien esleipena 1990ko urria arte ez da gertatzen. Utelani esleitzen zaio. Utelan hau Euskal Herriko zenbait enpresen arteko behin-behineko elkarte da. Utelanez, ordea, hilabetera gutxira (1991.01.04) uko egiten dio lanei ekiteari eta hilabete berean Utelane-ko kontratua eten egiten da.

Enpresaburuek beldurratik egin omen zuten atzera. Mehatxuak jaso omen zituzten, makinak erre. Panorama horren aurrean Diputazioak berak lanak zuzenean egiteko erabakia hartuko da.

Baina laguntzaileak behar zituen. Parisko enpresa multinazional handi batekin saiatu zen aurrena, Chantiers Modernes. Oso aurrera joanak ziren gestioak, baina azkenean honek ere ezezkoa. Madrilgo edo Gasteizko mezuren bat egon ote zen tartean. Madrila jo zuten gero Imanol eta Julenek, hango enpresa nagusiei proposamena egitera. Burua makur epe-lak entzun behar izan zituzten enpresaburuen ahotik: ez al zineten zuek euskal enpresekin bakarrik eraiki nahi zenutenak? Ezezkoa hauek ere: beldurra. Valentzian Ferrovialeko ordezkaria hil berria zuen ETAK.

Handik gutxira, bitartekari baten bidez, Ramos Hildagoren eskaintza etorri zitzairen. Aukera handirik ez eta, baietza eman zioten, konbentzitu-ta hau aurretik bidali eta gainerakoak (Madrilgo kontaktuak) etorriko zire-la ondotik. Ramos Hildagorekin kontratua 1991ko maiatzaren 22an sinatu zen. Eta doi bezperan *Diario Vasco*-n artikulua bat agertu zen, enpresaren garantia auzitan jarritz. Julenen ustez, enpresako langileek eragindako idazlana zen, beldurra baitzuten.

1991ko irailetik aurrera Leitzarango Autobideak beste bide bat hartu zuen, jakina denez: Eli Galdos, Ahaldun Nagusi berriak, eta Jonan Fernandez, Lurraldeko Koordinakundeko kideak, akordioa egin dute uda partean. Eta jada irailaren 10ean Ramos Hildagoren kontratua Utelanberri taldeari uzten zaio. Utelanberri hau aurreko Utelan da, izena aldatuta.

Legealdiaren bigarren aldia izan dela gatazkatsua, dio Julen Goikoe-txeak, erdia pasatu eta gero. ETAREN presentziak izua eragin zuela, enpre-saburuak beldurtuta, teknikariak beldurtuta. Diputazioan bertan Lan Publikoetako bulegoak ez zuten Autobidearekin ezer jakin nahi. Zuzendar-riak mehatxua jaso zuen etxean. Zeregin horretatik kentzeko eskatu zuten. Eta halaxe egin zen. Imanolek bigunegi jokatu zuela hor, dio nor-baitek. Ofizialki departamentua ez zen Autobidearen lanetan sartuko aurrerantzean. Bulego berezi bat sortu behar izan zen, kanpoko jendea fitxatu, abokatu bat, ingeniari bat, idazkari bat. Eta gestio guztiak isilean eta "klandestinoki" eraman ohi ziren. "Klandestinitatean" lan egitera behartu gintuzten!, dio Julenek haserre. Parisko gestioetara joan zirenean ere, kamuflatuta, emazte eta guzti oporretan bailihoaz. Dokumentazioa atera behar zenean, furgoneta kamuflatu batean.

BELDURREZ BIZI

Eta bizi? Beldurrez bizi ere. Ibilbideak-eta aldatuz. Etxeko posta Diputaziora ekarri eta eskaneatuz. Imanolen lagunek kontatzen dute, inoiz Zarautzen afaritxo bat egin ostean, etxeraino laguntzen ziotela.

Etxean mehatxuak jaso zituzten, ez ETak zuzenean eginda, baina beharrik ere ez. Maritxuk kontatzen du telefonoz jasotzen zituztela mehatxuak etxean. Dei mordoska. Baina Imanolek ez zekiela, ez ziotela sekula esan, denuntziatu ere ez zuela egin, azkenekoa jaso zuen arte.

Heriotza mehatxua eginez deitu zuen gizona batek, hil egingo zutela. Maritxu oraingoan beldurtu egin zen. Eta segidan non deitzen dion poliziak, ea mehatxurik jaso ohi zuen galdetuz. Baietz. Eta zergatik ez zuen denuntziarik jartzen? Kasu horretan jartzeko eskatu zioten, bai baitzekiten zein zen mehatxuaren egilea. Aurretik ere ibilia zen nonbait beste batzuekin, eta haiek salatuta telefonoa pintxatuta zuten. Hauxe izan zen azkena, orduantxe bertan telefono zenbakia aldatu eta listinetik kanpo jarri zuten eta.

Tokitan gelditu da proiektu izarra!

Beldurrak beldur, eskoltarik gabe ibili ohi zen Imanol. Ardanza eta Jauregi saiatu omen ziren, baina Imanolek ezetz, bizimodu normala egin nahi zuela eta. Ez zen beti kasua, baina. Estu hartu zuen behin Getariako kaleetan gazte talde batek, haietako batzuk bere ikasle izanak. Donostiako Alde Zaharrean, enkargu bat egitera bera bakarrik zihoan batean, gazte batzuek ezagutu egin zuten eta erasoka hasi zitzaizkion.

Etxetik aparte ere mehatxuak jaso zituen. Donostiako Kontxan hauteskunde kanpainan zebilela, bahiketa abisua zegoela eta, Ertzaintza etorri eta Imanolen borondatearen aurka Diputaziora eraman zuten.

Basozabal golf zelaiaren inauguraziokoan ere izan zen mehatxurik. Nola edo hala idazkariak abisatu zion Imanoli, berau han zenean, hantxe bertan hilko zutela-eta abisua jaso zutela Diputazioan. Ertzainei ez abisatzeko esan zion Imanolek eta bertan jarraitu zuen, seko urduri. Ez omen zen berehalakoan bukatu ekitaldi hura!

AUTOBIDEA: 180 GRADUKO BIRAKETA

Hilabete gutxitan guztiz aldatu zen panorama Gipuzkoan. 1991ko uztailearen 2an Ordizian izan ziren bozketan bakoitzak bere hautagaiari eman zion boza Ahdun Nagusi izateko, abertzaleen artean, EAJk Galdosi, EAK Imanol Muruari eta HBk Jose Luis Elkorori. Ajuria Eneako Itunaren garaian gaude, eta Eusko Jaurlaritzan koalizioan daude EAJ eta PSE. Ondorioa? Imanolek ez du zereginik, Elkorok ez du zereginik, nahiz eta biak izan Gipuzkoan bototan aurrenak. Ez dute zereginik elkartzen ez badira.

Roman SUDUPE

Azkoitiko alkatea

- Imanolekin hainbeste urtetan egon eta gero geratu zaidan inpresioa definitzeko “zezena” hitza erabiliko nuke; arazoei gogor heltzen diena, alegia zezenari adarretatik heltzen dion gizona.
- Imanolen gestioan nagusi izan diren bi alderdi aurkitu dizkiot nik Imanoli Diputatu Nagusi bezala. Bat, kultur mundua da: kultur diputatu izatetik zetorrenez eta gero Diputatu Nagusia egin zenez, hor lan handia egin zuen: Arteleku hor dago. Arteleku berari eta bere kideei zor zaie eta oro har kultur mailan lan handia egin zuen gizona da. Bestalde, baita ere, bere ardura nagusia Udaletxea zen. Diputatu Nagusi bezala lortu zuen udalek izan zezatela nahikoa baliabide beren egunerokoari jarraitzeko, eta berari zor zaio bere garaian dibertsifikatuta zeuden hainbat diru laguntza denak bateratu eta Udalkidetza sortzea.
- Nik Imanol pentsaeran lagun handi bat sentitu izan dut eta uste dut berak ere gauza bera sentitu duela. Inoiz ez dugu izan arazorik elkarrekin hitz egiteko eta ezta zerbait edateko ere.
- Nik koadro hori egingo nuke. Imanol kanpetxanoa da; oso berezitasun handiak ditu.

Eta gero udan gertatua, Eli Galdos eta Jonan Fernandezek arteko akordioa.

BOTOAK ETA BALDINTZAK

Autobideak eragin zuzena izan du Gipuzkoako Diputazioan. Agertu izan dena baino hagitx handiago agian. Aurredeinatuta zegoela diote batzuek. Imanol estuan lotu, mugitzen ez utziz isolatu, eta gero geroak. “Hor gu engainatuak izan ginen; nik uste Imanol ere engainatu egin zutela”, dio argi eta garbi Jesus Mari Akizuk, eta egun batzuk lehenago Ordizian egin zen inaugurazio batean Ardanzak eskatu zien tinkotasuna gero zer gertatuko zen jakinaren gainean egin zuela. Julen Goikoetxeak dio Eli Galdosek-eta aurretik hitz eginda zeukatela. Operazio globala izan zela.

Mezuak bazebiltzan hara eta hona, egia da. Imanolek jaso zituen Jonanen mezu batzuk kontratistak PNVrekin negoziatzen ari zirela-eta esanez. Hala ere, Imanolek ez zuen zirkinik egiten. Irakurri diot nonbaiten beldurragatik ez zela mugitu azken unean, ez zezaten pentsa boto bila zebilenik. Kontua da ez zegoela harremanik. Eta uztailaren 2a gainean zegoela. Eta HBk ez zuela botoa nori eman erabakia.

Ekainaren 28 edo 29a izango zen Jonan Fernandezek Akizuri deitu zionean. “Azkeneko heldubide bezala niregana jo zuten” —dio Akizuk—. Esan zidan niregana jotzen zuela ni Imanolen konfiantzazkoa nintzelako. Autobidearenak konponbide erraza zuela proiektua pittin bat mugitzen bagenuen, Imanoli esateko pixka bat alda zezala eta uztailaren 2an bera izango zela Diputatu Nagusi hautatua”.

Imanoli esan esango ziola, erantzun zion Akizuk baina zaila ikusten zuela. Esan zion, eta Imanolen erantzuna: “Prezio horretan ez dut nahi Diputatu Nagusitza”.

Uztailaren 2an Ordizian zer gertatu zen badakigu. Nola gertatu zen ez hainbeste. Egun bereko egunkarian honela “girotzen” zuen Mikel Atxagak zorioneko bilera, izenburu honekin: “Azoka nahasia gaur Ordizian”. Zer zegoen jokoan azaltzen zuen bertan:

“Atabaka zabaldu eta botoak kontatu arte ez dute jakingo nor den Diputatu Nagusi. Bihotza taupadaka, eztarria korapilaturik eta tripak

kakalarritan arre izango dituzte goiz guztian. Oñatiarrak badaki 21 boto seguru dituela. Zarauztarrak, nahiz eta EEren 4ak seguru-samar izan, seguru-segurua, bere 12ak bakarrik ditu. Oñatiarra hausteko, beraz, bergararren boto pozoinduak behar ditu. Patu eta zoritxar haundia du, noski, Imanol Murua: apustua galdu eta etxera erretiratu ala apustua irabazi eta politikoki hil, gorringo ederreko kuletoa amanita phalloides-ek kutsatua dagoenez. Honelakorik merezi ez badu, ez zerurako eta ez lurre-rako utzi du EAk Imanol Murua, HBren jostailu bihurturik”.

Ondo gogoratzen da Xabier Olano nola HBn iraun zuten azken unera arte botoa emateko, keinu baten zain:

“Ordiziako udaletxean zen pleno hori; gu feria egiten den plaza horretan geunden presoan aldarrikapena egiten zuen pankarta batekin eta beste guztiak sartu egin ziren. Jonan Fernandez, Lurraldeako ordezkari eta negoziatzailea ere igo zen gora; eta gu igo ginen bezain pronto lehenengo harremana berarekin izan zen eta berari galdetu genion: ‘oraindik gure botoa erabaki gabe dago. Imanoli botoa ematen badiogu hartzen al du Autobidearena konpontzeko konpromisoa?’.

Imanolek gurekin zuzenean ez zuen hitz egin nahi; Jonan zen zubia. Imanolen aldetik, konpromiso bat egon balitz eta keinu bat-edo, oso gauza simple bat, gure botoa Imanolek hartuko zuen eta bera izango zen Diputatu Nagusi. Baina bera tematu egin zen ezetz eta ezetz. Bestea, Galdos, atera zen Diputatu Nagusi PSOEren eta PNVren botoekin eta gero bi hilabete barru buelta eman zion”.

Horra hor historia, edo istorioa. Hobe: historiarako istorioa.

Imanolek ez zekien jakin egun horretan zer gerta zitekeen. Txarrenaren beldur zen. Eta berarentzat txarrena HBk berari boto ematea omen zen. Horrela bizi izan zuen egoera hura. Honen atzetik zer dagoen? Hala-korik gertatu izan balitz, txiki-txiki egingo zutela. Akizuk esaten du HBrekin negoziatu izan balu zintzilika jarri ez beste guztia egingo ziotela.

HERIOTZA POLITIKOA?

Imanol urruti(egi) iritsita zegoela ematen du, leialtasunari lehentasuna emanda. Ez zen milimetro bat mugitu, ez zioten uzten. Bake beharrez enpresaburuek proposatu zuten aldaketa jarraipen-mahaian aurkeztu zue-

nean, senperrenak eta bost entzun behar izan zituen, irmo mantendu behar zela eta. Blokea zuen atzean, "bloke demokratikoa", alderdien blokea eta Ajuria Eneako Ituna. Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramaileek osatzen zuten jarraipen-batzordeari hitza eman zion ez zuela zirkinik egingo guztien akordioz eta kontsentsuz ez bazen. Hor galdu zen.

Tranpa saduzearra bihurtu zitzaion taldeari emandako hitza. Baldin mugitu izan balitz, egurra: traizioa, desleialtasuna, eta bakardade politikoa, eliza demokratikotik eskumikatu egingo baitzuten. Eta gelditu mantenduz, zer? Bada, horixe: gertatu zitzaiona, agintetik kanpora, eta Ordi-ziako bileratik irtetea arrautza bonbardaketa. Mikel Atxagak idatzi bezala bi aukera dauzka aurrean: erretiratu ala politikoki hil.

FRUSTRAZIOA

Eta gero, mirari politikoa, beltza zena txuri bihurtu zen, esan du behin baino gehiagotan Imanolek. "Elkarrizketari" esker. Esanez bezala, Imanolek bere itxikeriaren erruz irteerabako kalera eramanez zuen, di-da batean konpontzeko zela, abilezia eta borondate on pixka batekin. "Beste alderdiek orain esaten dutena orduan esan balute, ni ez nintzen egoskortuko", ziotsan Pello Zubiriari hilabete batzuk geroago, 1992ko urtarrilean.

Eta entrebista berean: "Frustrazio sentazioa daukat. Joan den urteko abenduan, Autobideko lanak hartu zituzten enpresaburuak beldurtu zirenean, eta erretiratzeko prest zeudela ikusi nuenean, haiek aurkeztu zidaten alternatibaren berri alderdi politiko guztiei eman nien. Baina alderdiek gauzak beste modu batera ikusten zituzten nonbait eta ate guztiak itxi ziren han: instituzioek erabakitakoa aurrera eramanez behar zela, beste ezertaz ezin zela hitz egin ere, mehatxuei kasu egitea izango zelako. Gauza asko esan ziren. Nik Diputatu Nagusi nintzenez han erabakitakoekin leial jokatu nuen. Nire zeregina Batzar Nagusietan alderdi politikoek erabakitakoekin leial jokatzea baitzen. Nik leialtasunari beti lehentasuna eman diot, eta, jakina, nahigabea sortu zidan bilera haietako erabakia alde batetik puskatzen zela ikusteak.

Orain egiten ari diren pasteleoak egiteko orduan ere bazen garaia, nahikoa izango zen hitzerdi bat alde horretara esatea. Enpresaburuaren alternatiba gainerako alderdiei aurkeztean nire iritzia esan nien, baina

baita ere esan nuen bakeagatik aldaketaren bat onartu behar bazen orduan zela garaia. Erantzuna lehen kontatu dizut. Kalkulatuko duzu ni nire erosotasunagatik edo Autobidea segurtasun indarrrik gabe egiteagatik HBrekin edo beste norbaitekin adostasun batera iritsi izan banintz, zernolako istiluak sortuko ziren”.

Azpian eta ezkutuan bada ere, gelditzen den Imanolen irudiak min eman diola esango nuke. Ez baita osoki berea, distortsionatua baizik. Tinkotasuna bai, egoskorkeria ere bai, nahi bada; baina inolaz ez horraino eramana. Imanol malgua eta pragmatikoa da, zerbait baldin bada, hemen-dik ez bada handik irtenbide bila saiatuko dena, saiatu izan dena bere bizitza publikoan zehar, Antoniana Gazteriko lehendakaria zenez geroztik. Bizitzaren paradoxak.

ARTEAREN MUNDUAN

ARTISTEN LAGUN

Artisten oso lagun eta hurbileko izan da Imanol, Diputazioan egon den garaian batez ere. Zein pintore eta eskultoreekin izan duen harremana galdetzen zaionean, bor-borrearantz ateratzen zaizkio izenak, "gogoratzen ez ditudan beste asko" aparte: J. Oteitza, E. Chillida, N. Basterretxea, Remigio Mendiburu, Rafa Ruiz Balerdi, Zumeta, Mauricio Flores Kaperotxipi, Vicente Ameztoy, Sistiaga, C. Sanz, Arozena, Tapia, J.R. Anda, Laka, Agustín Ibarrola, Bizente Larrea, J. Ortiz de Guinea...

Artistek ere oso hurbileko sentitu dute. Jose Luis Zumetak dio Imanolek artelanetan sinetsi egiten zuela, gestore eta laguntzaile aparta zela. Bera dela artistei konfiantza egin dien politikari bakarra.

Oteitzarekin zuen adiskidetasuna eta harremana guztiz ezaguna da, baina beste askorekin ere oso gertukoa izan da. Vicente Ameztoy bat une zailetan lagundu zuen.

Remigio Mendiburu ere laguna zuen. Gaixotu eta gibekeko transplantea egitera Bartzelonara joan zenean Xabier Lete eta biak oso gertutik jarraitu omen zuten eta bisita dezente egin ere bai. Hiletetan ere Diputazioak esku-hartze zuzena izan zuen. Alarguna seme-alaba mordoska batekin gelditu zen eta Imanolek egin zien proposamen bat Remigioren obra Diputazioaren eskuetara pasatu eta tailerrean erakusketa bat egitekotan. Operazio hura ez zen aurrera atera, Imanolen ustetan alarguna gaizki aseoratu zutelako. "Nik uste dut operazio hura interesgarria zela, bai Gipuzkoarentzat Remiren obra guztia sakabanatu gabe ikusteko aukera izango litzatekeelako, museo bat egin zitekeelako haren obrarekin; eta interesgarria baita ere familiarentzat beren bizitzan arazo ekonomikorik gabe bizitzeko moduko eskaintza baitzen".

KULTUR FUNDAZIO BATEN ASMOA

Artisten, euskal artisten lanen sakabanaketak biziki kezkatzen zuen urte haietan Imanol. 1988ko Batzar Nagusien osoko bilkuran bota zuen ideia, onartzekotan entusiasmoz sustatuko zukeena: euskal artisten obra Euskal Herrian gelditzeko kultur fundazio bat eratu.

Zer ikusten zuen Imanolek? Hezurmamitzen ari den arriskua: euskal artista ezagunen hainbat eta hainbat obra garrantzitsu kanpoko jendeak erosten zuela eta hemen ezer gabe geldi gintezkeela. Hori ekiditeko planteatzen du fundazioa. Proiektu anbiziotsua zen: Eusko Jaurlaritza, hiru Diputazioak, Aurrezki Kutxak eta beste nahi zituen tarteko.

Helburuetan ere ez zen kamuts Imanolen proiektua:

“Con ello se conseguiría:

- a) Poder desarrollar parte —parte, por supuesto— de una política cultural con mayúsculas.
- b) Impulsar, animar y dinamizar el trabajo de nuestros artistas y de nuestros jóvenes.
- c) Mantener los fondos artísticos más importantes de los artistas vascos en Euskadi y adquirir fondos de artistas de fuera.
- d) Ordenar, regular y coordinar la política de grandes equipamientos culturales de Euskadi —la política museística, por ejemplo— en nuestra Comunidad Autónoma Vasca.
- e) Dar a conocer a los ciudadanos las obras más importantes de nuestros artistas, que hoy están almacenadas, y que solamente se exponen al público en contadas exposiciones.
- f) Involucrar a las instituciones de carácter privado o semi-privado en la política cultural”.

Gauza zedin asmo sendoa zuen Imanolek. Erkidego mailako Fundazioa eratzeko trabak gaindiezinak baziren, prest zegoen bera Kultur Fundazio Gipuzkoarra egiteko. Asmoak asmo, ez zuen aurrera egin proposamenak. Ez zen gauzatu, beste arrazoi batzuen artean, “autobide madarikatu horrek ez zidalako betarik eman”.

%2 KULTURALA

Arau foral baten bidez jarri zen martxan 1984an, artelanak suspertzeko eta aire librean erakusteko. Estatuko lege bat bazen, hor nonbait galdua, erakunde publikoek egiten zituzten obren %1 arterako destinatu behar zela agintzen zuena. Ez omen zuen inork aplikatzen.

Arau bera ez baina antzeko zerbait proposatzen du 1984ko arau foralak. Obra publiko bat egiten denero, kostuaren %2 inbertituko da artean:

Jose Maria AGIRRE

Diputazioko kidea

- Nik badaukat Imanolen hasierako irudi bat: 1987an nahiko berria zen PNV eta EAren arteko banaketa, baina gauza bat daukat nahiko grabatuta. Garai hartan PNV sozialistekin zegoen Gasteizen, Jaurlaritzan, eta Gipuzkoan berriz EA eta Euskadiko Ezkerra geunden. Hala eta guztiz ere, eta nahiz eta ados ez etorri Jaurlaritzak hartzen zituen erabaki batzuekin, Imanolek beti esaten zuen gauza bat: nire gustukoa izan edo ez izan, nire gobernua da. Nire edo gure hori oso ondo azpimarratzen zuen eta beti atentzioa eman zidan espresio horrek. Beste askori, seguru, hori esatea zailagoa egingo zitzaien garai hartan, banaketa izan eta gero. Imanolek irizpide hori beti mantendu zuen; xehetasun bat da baina niretzat inportantea.
- Berak baloratzen zuen Jaurlaritzaren ardatz izateko papera, nahiz eta Jaurlaritza hura bere gustukoena ez izan eta gustuko zuen jendez osatuta ez egon.
- Era generiko edo zabalago batean, euskararen inguruan beti izan zuen sentsibilitate nabarmena, bertsolaritzarekin adibidez. Euskararekiko-eta gauza bat da printzipiozko jarrera izatea eta beste bat sentiberazko jarrera; nik uste dut biak ematen zirela Imanolengan, jarrera politikoa nolabait esateko eta sentimenduzkoa, atxikimendu sentimentala.
- Hausturaren mina nabaritzen zitzaion, baina hor ere pertsona bakoitzak bere jarrerak izaten ditu eta bere sentimenduak agertzen ditu. Imanol dudarik gabe eta zintzotasun guztiz EAkoa izanik, nik uste behin baino gehiagotan entzun diodala esanez ez lukeela ezer egingo EAJ eta EAren artean haustura gehiago sakontzeko. Nik uste dut bera kolaborazio baten aldekoagoa zela bakoitzak bere nortasuna gordez. Berak esaten zuen: "Bakoitzak

bere nortasuna, bere izateko era, bere izate propioa... baina kolaborazioaren alde". Nik uste dut lehen esandako esaldiaz gain (gustukoa ala ez gustukoa baina nire gobernu da) beste hau ere beti azpimarratzen zuela bere posizionamendu guztietan.

- Pertsona eroso da. Herriko gizon sentibera, gure gizarteaz, Euskal Herriaren etorkizunaz, euskararen inguruaz eta kulturaz kezkatua bezala definituko nuke. Nik Diputazioan ezagutu dut Imanol, baina zinegotzi eta alkate ere izan da, eta bere ibilbidean nik uste batez ere alkate izan dela.

eskulturatan, margotan-edo. Adibidez, errepide bat egiten denean, kostu osoaren %2arekin eskulturak, irudiak edo bestelako artelanak jarri behar dira han bertan. Diputazioarena bazen lana, Diputazioak jartzen zuen kopuru osoa. Eta obra Udaletxearena zen kasuetan honek %1 jartzen bazuen beste hainbeste jarri behar zuen Diputazioak.

Arau hau orain ere indarrean egongo dela uste du Imanolek. Baina ez dela aplikatzen, inork xaxatzen ez duelako. Bera agintean egon zen bitartean, Xabier Leterekin eta Jose Luis Telleriarekin indarrean izan omen zen.

EUSKARAREN ALDE

Duda gutxi du Imanolen euskaltzaletasunak. Praktikoa da, egunerokoa, teorikoaz gainera. "Tranpa" egiteko ere prest dago: "Zeozertan aurkituko badute prest Ahaldun Nagusi hau 'tranpa' egiteko, hortara beharturik ikusiz gero, euskararen aldeko tranpa egiteko izango da". Euskararen alde ematen den dirua ez da alferrikakoa, baina ez da aski: "Niri ez dit euskararen alde dirua gastatzeak beldurrik eta penarik ematen. Baina diruarekin bakarrik ez dugu euskara salbatuko".

Euskaltzaletasun praktikoa horrek Ahaldun Nagusitzarako egin zuen adierazpenean, 1985eko urtarrilean, eman zuen lehen urratsa, gaztelaniaz baino luzeago egin zuen euskaraz:

"Euskaraz luzarago ari naiz nire jardunaldi honetan, bistan denez. Norbait harritu ere egingo zen noski. Baina ez dut inori min ematearren egin, euskarari dagokion maila aitortzearren baizik. Izan ere, administratitzan erdara izan da beti nagusi, euskara gutxietsiz eta baztertuz. Jokabide horrek, besterik gabe, euskara galbidera bultzatu du eta euskaldunek beren buruarekiko lotsa sentiaraztera. Erdaraz ondo hitz egiten saiatzea bidezkoa da. Nik neuk behintzat, ongi mintzatu nahi nuke gaztelaniaz. Baina euskaraz hobeto moldatzen naiz, zorionez, etxean, lagunartean eta herrian ahal dudalarik beti euskaraz mintzatzen naizelako. Gure gizarteko bi hizkuntzak merezi duten eran erabili nahi nituzke. Baina, nire ahoan eta bihotzean bietatik batek nagusi behar badu, nagusi euskara izan dadila nahi dut, neurea delako. Euskal Herriak bere-berea duelako eta bietatik baztertuena eta ahulena euskara delako".

DISKRIMINAZIO POSITIBOA

1986 urtean aztoratuta dabil Imanol hizkuntz normalizazioaren bidean hartzen ziren neurriei, euskara puntuatzeari alegia, sistematikoki Madril-ek jartzen zizkien helegiteak zirela eta. Helegiteak ez ziren berriak, noski. Errekurtsoek euskara diskriminatzailea zela salatzen zuten. Salakuntza horrek bere onetik ateratzen zuen Imanol. "Honela ez dago Diputazioa euskalduntzerik", zioen entrebista batean. Eta beste batean: "Euskara diskriminatzailea denik ezin dut onartu". "Nola onartuko dut, bada? —zioen—. Administratitzan, zenbait lanpostutarako euskara baloratzen

delako, edo unibertsitateko irakasle batzuentzat euskara noizik behin eskatu delako, nola onartuko dut euskara diskriminatzailea dela? Gaztelaniaz ikasi edo zerbitzatua izan nahi duenak aukera guztiak ditu gure artean. Baina zenbat herritarri erantzuten dio funtzionarioak euskaraz? Zerbatek du karrera bat euskaraz egiteko aukera?”.

Batzar Nagusietako hitzaldian, 1988an, kezkatuta agertzen da Imanol, azken datuen arabera euskara atzeraka doala eta. Legea betearazi egin behar dela, dio. Ez bakarrik hemengo erakundeek, Estatuako erakundeek ere bai Euskal Herrian. Estatuaren hainbat konkurtso errekurritu ere egin zituen Gipuzkoako Aldundiak.

Legea betetzea edo betearaztea ez da aski, ordea. Euskararen aldeko neurriak indartu egin behar dira, diskriminazio positiboa gauzatzuz.

1989KO ADIERAZPENA

Hurrengo urteko hitzaldi edo adierazpen nagusian, 1989koan, Imanol euskaltzalea sasi-diplomaziaren mozorrorik gabe mintzo da Batzar Nagusien aurrean, erraietatik, amorru puntuarekin, barrenak hustuz: euskara ez da diskriminatzailea, diskriminatua baizik.

“Dakizuenetz, Diputazio eta Udaletxeetako zenbait deialdi Estatuak inpugnatu egin ditu euskarari eman zaion garrantziagatik. Inpugnazio horien arrazoia zera omen da: euskara baloratuz gero euskara ez dakitenak diskriminatu egiten direla. Hau entzunez txundituta gelditzen naiz ni. Nik ez dut hizkuntzako gudarik sortu nahi eta suspertu ere ez. Baina Batzar Nagusi hauen aurrean bizpahiru burutapen egitea beharrezkoa iruditzen zait. Nik euskara amaren bularretik jaso nuen, nire gurasoek hitz egiten eta maitatzen erakutsi zidaten, eta etxean eta lagunaren artean bera da nagusi. Horregatik euskara jakitea ez da nire meritua, nire aita eta nire amarena baizik.

Badakit tamalez gure herrian suerte hori askok ez dutela izan, euskaldunberriek ahalegin handiak egin behar izaten dituztela hori ikasteko. Beraien aurrean txapela kendu eta zorionak.

Baina kontua zera da: ni bezala ama-hizkuntza euskara dugun guztiok gaztelania erraz asko ikasi dugula, edo hobeto esanda hemen bizitzeak hala eskatzen duelako ikasi izan behar dugula, hau da, Euskal Herrian

bizitzeko derrigorrezkoa da gaztelania jakitea baina ez euskara jakitea. Orduan gure herriko hizkuntza ofizialen artean diskriminatua zein dagoen galdetzen badizue erantzunean ez dut zalantzarik jarriko. Euskara da diskriminatua zalantzarik gabe, eta esango dizuet zergatik —arrazoi batzuk, mila arrazoi gehiago eman litezke eta—.

Adibidez adibide

Etiketetik hasita, hemen bertan hasita, euskara diskriminatzen da, momentu honetan euskara diskriminatzen ari gara. Une honetan bertan, Batzar Nagusi hauetan, ni orain euskaraz esaten ari naizen hau itzuli egiten da, itzultzen ari da itzultzailea, baina lehen gaztelaniaz esandakoa ez. Beraz, Batzar Nagusietan esaten den guztia ulertzeko behar-beharrezkoa da gaztelaniaz jakitea. Euskara jakitea ez, ordea. Horra hor diskriminazio bat.

Administrazioko leku gehienetan ere euskara da diskriminatua. Paper asko elebidun egiten badira ere euskaraz jakitea ez da nahikoa, gaztelania bakarrik ezagutzea berriz bai.

Etorri Diputaziora bertara, eta ea zenbat aldiz jo behar duzuen edo jo behar dugun edo jo behar dudun gaztelaniara euskalduna izanik, eta hori Komunitate osoko Diputaziorik euskaldunena izanda.

Unibertsitatean joaten den euskaldunak ere behar-beharrezkoa du gaztelania edozein karrera egin nahi badu. Euskararik ez dakienak ez du inoiz euskararik beharko edozein karrera egiteko, gaztelaniarekin nahikoa izango du. Nire semeek karrera euskaraz egin nahi izan dute, eta ez dute posibilitaterik izan Unibertsitatean.

Ertzaintzarekin topo egiten duenak ere askotan ez du nahiko izango euskara jakitea, gaztelania erabiltzen duenak erantzuna beti izango du bitartean. Eta berdin gertatzen da Correos-en, Telefonica-n eta beste zenbait erakundetan. Adibideak banan-banan esaten hasiko banintz, ez dut uste hitzaldi hau, nahiko luzea dihoan hitzaldi hau, gaur amaitu ahal izango nukeenik. Komunikabidetan, egunkari, irrati, telebista, enpresentan, dendetan, eta abar eta abar, denetan dago euskara tamalez diskriminatuta.

Euskaldunberriei zorionak eman dizkiet, baina inori burutu al zaio ama hizkuntza euskara dugun erdaldunberriei zorionik ematea? Ez, noski,

ez da beharrik eta, ez da beharrik. Bigarrenko hizkuntza hau ikasteko ahalgin berezirik ez baitugu egin, beharrak bultzatu gaitu gaztelania ikastera, beharrak. Eta inork ez dezala pentsa ni gaztelaniaren aurka nagoenik, nahiago nuke denak oso ondo jakingo bagenu, nahiago nuke neuk ere dakidana baino hobeto jakingo banu.

Euskara da diskriminatua

Adibide hauekin arrazoitu nahi dudana zera da —berriz ere esaten dut—: euskara dela diskriminatua, eta ez gaztelania, bai Administrazioan eta baita ere gure gizarte osoan. Gainera, legeak berak diskriminatzen du: bi hizkuntzak ofizialak izanik, gaztelania jakitea beharrezkoa da, eta euskara jakitea eta erabiltzea berriz eskubidea. Ingelesa jakiteko ere eskubidea badaukagu, noski. Diskriminazio handiagorik? Honen arabera gaztelania ez dakiten gure aiton-amonak legez kanpo bizi dira, ez baitakite erdaraz. Baina ez da hori bakarrik, Administrazioan lan egiten dutenek euskara ez badakite, non gelditzen dira herritar euskaldunen eskubideak, legeak ematen dituen eskubide horiek? Nola bete daiteke legeak edozein euskaldunari euskara erabiltzeko ematen dion eskubide hori, Administrazioan bere aurrean leihatilan dagoenak ulertzen ez badu? Ama hizkuntza euskara dugunoi edozein lanposturako eta ez Administrazioarako bakarrik gaztelania, baloratu ez, gaztelania inposatu egiten zaigu, gaztelaniaz jakin beharra daukagu, eta Administrazioako lanpostu batzuetarako euskara baloratzekoan gu diskriminatzaile ginetik.

Bestalde, legeak Komunitate Autonomoko Administrazio guztietarako dira, eta Estatuko Delegaziotan ez dituzte betetzen, ez beraiek jarritakoak, eta ezta ere Eusko Legebiltzarreko Euskararen Normalizaziorako Legea ere, ez dute betetzen.

Lanpostutarako deialdietan Euskal Herrian bi hizkuntza ofizialak kontutan izan behar direla esaten dute legeek, baina aipatutako Delegazioetan euskara aintzakotzat ez dute hartzen, ahuntzaren gauerdiko eztula baino gutxiago balio du hautentzat euskarak.

Eskaerak

Amaitzeko, eskaera batzuk egitera noakizue. Lehenengoa Estatuko Administrazioari: euskararen balorazioaren aurkako inpugnazioak atzera bota eta gehiago ez dezala horregatik inpugnatu lanpostutarako deialdirik. Euskal Herrian dituen Delegazio guztietan lanpostutarako deialdietan euskara ere aintzakotzat har dezatela.

Bigarrena Eusko Jaurlaritzari: Administrazio guztiak Euskararen Normalizaziorako Legeak agintzen duena betearazteko behar diren neurriak hartu ditzala.

Hirugarrena Alderdi guztiei: euskara guztiena denez, beraren eta ama-hizkuntza euskara dugunon eskubideak ere zaintzen saia daitezela.

Laugarren, Gipuzkoako PSOeri, hemen dagoen PSOeri: bere eragina izan dezakeen leku guztietan bere Alderdikideengan —Madril eta Nafarroako Gobernuan adibidez—, azaldu dezatela euskarari laguntzea Gobernuentzat, gobernarietzat, obligaziozko gauza bat dela. Eta euskaldunok ez dugula ulertuko —nik behintzat ez dudala ulertuko— Nafarroako Gobernuak atzo “Nafarroa Oinez” euskara eta ikastolen aldeko jaialdian hartu zuen joera eta izan zuen jokabidea.

Niretzako eta Diputazio honentzako: nik Diputatu Nagusi bezala Batzar Nagusi hauen aurrean hitz ematen dut ahal dudan neurri handienean ama hizkuntza euskara dutenen eskubideak ere besteenak bezala zainduko ditudala legeak ematen dituen baliabide guztiak erabiliz”.

XABIER ZUBIZARRETAREN ZORIONAK

Itxura guztien arabera Imanol nazka-nazka eginda dago Administrazio zentralaren jarrera itxiarekin, hemengo elebitasun legeari egiten dioten mespretxuarekin. Eta hori nahikoa ez balitz, gainera, hemengo erabakiei ere egiten dizkien etengabeko inpugnazio sistematikoekin. Beraiek bete ez, eta betetzen utzi ere ez! Aurreko urteetako historia guztia du gogoan testu honek. Baina bereziki urte berekoa, 1989koa: bihelegite jarri zituen Gipuzkoako Diputazioak ordenu ministerialen aurka esandako arrazoiengatik, uztailaren 4an eta abuztuaren 17an.

Xabier Zubizarreta Arrasateko alkateak hurrengo egun batean Imanolekin egon nahi zuela-eta entrebista eskatu zion. Alkate batek Ahaldun

Nagusiarekin egotea eskatzen zuenero, Imanolek onartu egin ohi zuen. Etorri zen, bada, Xabier Zubizarreta, zorionak ematera etorri ere, horretarakoxe espreski. Bazela garaia goi mailako kargudun batek jarrera hori har zezan, eta zorionak eman zizkion.

Xabier OLANO

Batzar Nagusietako kidea

- Imanol pertsona bezala oso gizon atsegina da, kanpetxanoa; herritarra da, bere dohain eta akats guztiekin, denok bezala.
- Gizon herritar, sano, kanpetxano, jatorraren inpresioa eman dit beti niri; akats bat aipatzekotan, egoskorra agian. Euskaldun guztiok gara egoskorak baina normalean ez gara konturatzen norberaren egoskorkeriez eta besteena ikusten dugu. Imanol oso-oso egoskorra dela uste dut eta gauza batean tematzen denean, buila egiten du: gauza bakoitza zazpi aldiz esan, eta zazpigarrenean seigarrenean baino indartsuago, baina berean. Horrela tematuta jartzen denean alferrik da.

INAZIO SANTUAREN JAIOTETXEA JESUSEN LAGUNDIARI

Ramon Cipriánek dio Imanolen izena historian txertatuko dela hain zuzen ere jesuitei San Inazioren jaiotetxea entregatzeagatik.

Imanol Diputatu Nagusi zela hasi zen "historia" hau. Eta ustekabean. Imanol Diputatu Nagusi bezala bisitan Loiolara joan zen batean komentatu omen zien jesuitei nola zeukaten horren gaizki santutegia eta ingurua. Nahiko hondatua zegoen, zati batzuk erortzen. Beraiek ezetz, Diputazioak zuela gaizki esan zioten, hura guztia Diputazioarena zela eta. Imanolek, eta Imanolek bezala Diputazio osoak, jesuitena zela uste zuen, noski: "Frankismo garaiko diputatuek-eta jakingo zuten hura Diputazioarena zela eta horregatik ez zuten ezer egingo baina guk gure garaian, bai Xabier Aizarna egon zenean eta bai Ardanza edo ni egon ginenean, uste genuen hura jesuitena zela. Diputazioarena zela esan zidatenean, batetik harrিতa gelditu nintzen eta bestetik segituan eman nizekion aginduak arkitekturako departamentuari hura berritzeko egin behar ziren aurreproiektu, plan eta azterketak egiteko. Azterketa sakonak egin behar izan ziren, aurrekontua ikaragarria zuen, diru asko kostatu zen, zeren eta kupula oso gaizki baitzegoen. Arkitekto espezialista bat ekarri genuen Italiatik eta ez dakit zenbat denbora igaro zuen hemen hura aztertzen. Azkenean berriro genuen, aurreko plaza eta dena, eta oso ondo gelditu zen".

Bistan da obra honegatik ez dela historian itsatsiko Imanolen izena. Santutegiak orain ere Diputazioarena izaten segitzen du. Jesuitei Diputazioak egindako zesioa San Inazioren etxearena da, Loiolako konplexuaren zati bat, Loiolako Iñigo jaio zen etxea. "Loiolako Etxe Santua" deitzen da. Imanolek ez zekien hori ere Diputazioarena zenik.

Etxe hori berreskuratzea XVI. mendetik honako errebindikazioa izan da jesuiten aldetik. Beren fundatzailearen etxearen jabe egin nahi zuten, baina behin eta berriz saiatu arren ezin izan zuten lortu, arrazoï bat edo beste tarteko. Bidezkoa zela eta, Jesusen Lagundiari ematea erabaki zuen Imanolek. Juridikoki ez zen batere erraza. Ramon Cipriánek dioenez, berak sekula egin duen lanik korapilotsu eta txukunena izan da. 1991ko apirilaren 4ko arau foralak onartu zuen zesioa eta ekainean sinatu zen eskritura publikoa. Modu sinbolikoan ospatu zen etxearen entrega. Data

ere esanguratsua zen: Loiolako Iñigoren jaiotzaren bosgarren mendeurrena. Ekitaldi horretan zen jesuiten burua, "Aita Santu beltza", eta hitzaldian esan zuen Imanolen izena urrezko hizkiz idatziko zela jesuiten historian.

BIHOTZA ZABALIK, BULEGOA ERE BAI

AGURREKOAK

Tankera honetako liburu batean pertsona baten ibilbidea margotu behar denean, agertzen diren trazo nagusiak ekintzak dira, pasadizoak, gertatuak, egoerak, pasarteak. Lorpenak, lorpen materialak. Itzalean bezala gelditzen dira gehienetan pertsona horren sentimenduak, motibazio sakinak, barne pozak, bihotz hondoko balorazioak. Azken batean, balantzea egiteko orduan zerekin gelditzen den bat.

Imanol ekintza gizona izan da, eta makina bat gauza egin du. Ez ditu horiek ukatzen, kontrara baizik, pozik eta harro dago. Baina oroz gainetik gehien estimatzen duena jendearen maitasuna dela esango nuke, kariñoa, estimua. Behin eta berriz errepikatu du gauza bera, kargua uzteko momentutan.

1991ko uztailean Diputazioa utzi zuenean, kazetari batek galdetu zion Diputazioan bizi izandako unerik gozoenak zeintzuk ziren. Eta bere erantzuna:

“Los buenos momentos han sido muchos (...). Pero indudablemente, me queda el recuerdo del cariño que estos días siento en los trabajadores y funcionarios de la Diputación, un cariño que a una persona sentimental como yo le supone mucho”.

Diputazioko ate nagusitik atera ote den galdetzen dio kazetariak, 1991ko uztailean. Denon gogoan zeuden autobidearen gatazka eta Ordizian ospaturiko Batzar Nagusietan gertatua. Imanolen erantzuna:

“Puedo darme por satisfecho, porque soy una persona querida en un mundo como la política, donde es muy fácil tener enemigos. Yo, sin embargo, creo tener más amigos que enemigos. Y eso, después de doce años en la Diputación, te da una gran satisfacción”.

Gauza beretsua esango du Zarauzko alkatetza utzi bezperan, 1999ko ekainean:

“Sentirte apreciado y querido por tus ciudadanos zarauztarras y por los guipuzcoanos, también por la gente que sabes que no es de tu partido, eso es lo mejor”.

Maitasun agerpen eta esker oneko adierazpen ugari jaso ditu Imanolek, egindako lanaren fruitu. Ereindakotik jaso duena ez da gutxi, nahiz eta hemen ezin diren omenaldi eta aintzatespen guztiak zerrendatu, hogeita hamarretik gora izan baitira.

1979an jaso zuen lehena, Lanbide Eskolan 25 urte bete eta gero; eta aurten bertan Gipuzkoako Lanbide Eskola guztiek egina. 1985ean, Zarauzko alkatezta utzi eta Diputatu Nagusi aukeratu zutenean, Zarauzko lagun, lankide, elkarte eta erakundeen aldetik omenaldi mordoska jaso zuen: koadrilarena, alderdiarena, udaletxeko korporazioarena, udaletxeko langileena, eta batez ere herriko elkarte eta taldeek egin ziotena, urrezko liburu eta guzti, hamasei elkartetako ia 500 sinadurez hornitua.

Diputazioa utzi zuenean ere makina bat lagun en esker ona jaso zuen: Diputazioko sindikatuena, bertako funtzionarioena, diputatuena, Diputazioan lan egiten zuten kazetariena, etab.

BIHOZBERA

Imanol bronka baten erdian gorri-gorri eginda ikusten zuen gutxik imajinatuko zukeen handik hamar minutura barkamen eske joateko gauza zela. Xabier Letek kontatzen du Diputaziora lanera deitu zuenean, lehenengo bilera pribatuan zera esan ziola: “ni berotu egiten nauk eta berotzen naitzen edozein bidaltzen diat popatik hartzera; hi ere igual bidaliko haut baina ez serio hartu, handik hamar minutura pasatzen zaidak eta damutu egiten nauk”.

Don Ramon Aginagak, herriko apaizak, dioenez, Imanolen bihotzak ez du gorrotoa ezagutzen.

Baina jenioa bai. Definizio edo irudi ezberdinak erabili dituzte nire solaskideek Imanolen jenioa ezaugarritzeko orduan. Jose Mari Agirrek dio momentuko jenioa dela, azkar piztu eta azkar itzaltzen dena. Txanpaina bezalakoa dela dio Maritere Zabaletak. “Bomba japonesa” baten gisakoa da Estrella Intxaustiren hitzetan. Pospoloaren parekoa Jesus Mari Akizurentzat, piztu eta itzali. Xabier Letek Eibarko bere lagun batek bere emazteari esaten ziona aplikatzen zion: “hi txapa mehea haiz: agudo berotu eta agudo hoztu”.

Imanol beroa da, egoeran eta inguruan osoki inplikatzan dena, poza eta negarra erraz kanporatzen duena, enpatia handikoa. Jose Ignacio Iru-retagoienarena gertatu zenean, negar batean agertu zen Imanolen irudia egunkari guztietan, "bere" lankidea baitzen. Laporte Ogasuneko "bere" diputatua minbiziz hil zorian-edo zegoelarik bisitatu zuenean, sekulako negar saioa egin omen zuen, haren eskua hartuta.

"PATERNALISMOA"

Diputazioan Imanol Diputatu Nagusiaren bulegora ate joka normahi joaten omen zen, proposatzera, eskatzera, laguntza bila. Alkateak, elkarteetako ordezkariak, kultur eragileak... eta Diputazioko langileak. Batek baino gehiagok dio langileekin "paternalista" zela. Komatxoan arteko paternalismoa zela, eransten dute segidan, hitz horren konnotazio peioratiboak kendu nahian edo. Ez omen da "bizia barkatzen" duenaren jarrera baizik eta "aita-lagun" batena. Diputazioko langileek hurbil eta gertuko ikusten omen zuten Imanol, eroso, harrera errazekoa.

Diputazioko langileekin eduki zuen harremana honela azaltzen du Imanolek berak, urte asko pasatu ondoren:

"Norbaitek aipatu izan dit paternalistegia nintzela, baina langileen arazoak hurbiletik ezagutzea gustatzen zitzaidan, eta zituzten arazoan inguruan diputatu edo zuzendariekin hitz egin behar izaten zuten arren, haiekin konpontzen ez baziren eta nirekin hitz egitea eskatzen bazuten nik hartu egiten nituen. Hori bai, aurretik diputatu edo zuzendariak jakinaren gainean jarrita; ez zitzaidan inor 'puenteatzea' gustatzen. Hartu eta entzun egiten nien eta batzuetan diputatu edo zuzendariarekin hitz egin ondoren Diputazioaren aldetik amore emateko-edo kontseiluren bat eman ere bai. Horregatik askotan esaten zidaten paternalistegia nintzela langileekin baina niri jokabide hori ez zait behin ere damutu. Gogoratzen naiz Diputazioan lanak amaitu nituenean, eta jakina zenean nik ez nuela jarraituko, nola etorri zitzaizkidan langileen ordezkariak edo sindikatuetako ordezkariak langileekin eduki nuen jokabideagatik eskerrak ematera. Niretzat satisfakzio bat izan zen".

Xabier Letek pertsonalki ezagutu du Imanolen "aitatasuna":

“Imanol Murua pertsonalki asko estimatzen diat, asko maite diat. Niretzat ia beti zentzu onean, eta zenbaitetan txarrean ere bai, izan zuan bene-benetan aita bat bezala. Ematen zitian kristoren bronkak batzuetan arrazoiarekin eta besteetan arrazoirik gabe, baina aita batek beti babestu egiten hau, gidatu egiten hau eta lagundu ere bai. Imanol niretzat oso pertsona ona, goxoa eta “entrañablea” izan duk”.

AITON-AMONAK BISITATZEN

Imanol pertsonalki joan ohi zen Gipuzkoako txokorik aldenduenetara ere ehun urte betetzen zituztenak bisitatzera, zegokion departamentuko diputatua joan ordez.

Karmelo Arrenek Gabineteburu gisa laguntzen zion bisitaldi hauetan. Lau urtetan hamabi bat bisita egin omen zituzten. Pasadizo bitxirik ez zen falta ikustaldi hauetan:

Behin, ehun urte bete zituen amona bat ikustera joan zen Hernaniko zaharren egoitzara. Kanpotarra zen. Imanol bertan dela mojak esaten dio amonari: “Oiga, que ha llegado el Diputado General”. Eta amonak: “¿Qué ha dicho, el General? Oiga, mi General, ¿cómo está la tropa?”. Eta amonaxo hura ez zen ironiaz ari.

Beste behin Ataunera joan ziren, mendian galdutako baserri batera. Arrasatetik etorritako amonaxo bat ikusi zuten han, portugaldarra, oheari lotua. Aste osoa pasatu omen zuen eroria Imanolek, han ikusitakoa ikusita. Egoera hura konpontzeko gestio mota guztiak egin omen zituen.

Donostian egin zuten beste bisita bat, Groseko San Frantzisko kalean. Amona hau euskalduna zen. “Diputatu Jenerala etorri dela” esaten dio alabak eta amona non hasten den abesten: “Giltzapean sartu naute”. Pasta-bandeja Imanoli luzatzen omen zion, eta hartzera zihoanean erretiratu. Horrela behin eta berriz. Karmelori ere eskaintzen zion, eta hartzen utzi ere bai. Eta berriz ekiten omen zion kantuari: “Giltzapean sartu naute”.

KAZETARIEN OPARIA

“Diputazioan amaitu nuenean, kazetari guztiek erregalia egin zidaten, sekulako ilusioa egin zidan oparia: golfeko poltsa bat eta golfeko tresnak”.

1985ean Zarauzko Udaletxea utzi zuenean Diputaziora Ahaldu Nagusi gisa etortzeko, Zarauzko kazetari eta argazkilariekin agurtzeko jatordu bat egin zuen.

Diputazioan beste hainbeste, elkarri eskerrak emanez egin zituzten diosalak. Estrella Intxausti *Diario Vasco*-ko kazetaria da, egunero-egunero urte askotan zehar diputazioa zapaldu duena. Honela azaltzen du berak nola sortu zen kazetarien opariarena:

“La relación fue tan estrecha que cuando Imanol Murua se jubiló los periodistas pensamos que algo le teníamos que hacer porque el hombre había tenido evidentemente unos momentos muy angustiosos.

No sé si se nos ocurrió a nosotros que teníamos que hacer un acto o él nos dijo que íbamos a tener una despedida. Lo que sí tuvimos muy claro desde el principio, y nadie se opuso, es que le teníamos que hacer un recuerdo, un regalo porque se lo había merecido. Esa frase “porque se lo había merecido” fue lo que nos unió a los periodistas a la hora de pensar en hacer un regalo al diputado general. No es que nos pareciera que era un acto como si nos hubiera estado comprando o que nos desprestigiara a nosotros como informadores. Al revés, pensábamos que era un acto de agradecimiento por las facilidades y por la forma de trabajar para con nosotros que Imanol Murua había tenido.

Como sabíamos que su gran hobby era el golf desde que era muy joven, pensamos que lo más apropiado era una bolsa de palos de golf. Según tengo entendido la tiene guardada como uno de sus principales trofeos con unos palos de golf que le había regalado Jose Maria Olazabal.

A los periodistas nos supuso mucho el que a él le hiciera tanta ilusión que le regalásemos eso”.

Ez ohikoa da kazetariak politikari bati oparia egitea. Diputazioan kasu bakarra. Aho batez erabakitako opari honen atzean zer dago? Zer eskertzen diote Imanoli?

Bizpahiru gauza batez ere: Imanolen hurbiltasuna, informazioa lortzeko erraztasunak eta gardentasuna.

Maritere ZABALETA

Diputazioko langilea

- No fue nada problemático. Fue un hombre muy sencillo de llevar aunque estuviese de un genio impresionante; entrabas y le llevabas una taza de té con tranquilizantes. En vez de meterle un sobre en la tetera le metía igual cuatro cuando veía que estaba tan excitado.
- Era un bonachón de hombre... de los hombres buenos, buenos, buenos. Imanol ha sido la bomba, y tan sano...
- No te puedes imaginar qué mal lo pasó Imanol durante la escisión del PNV. ¡No sé cuántos botijos de tila le metí! El pobre daba una pena tremenda y no sólo a mí, también a otros muchos. Otro día muy fuerte para nosotros, las secretarias y demás sufrimos un montón, fue el día que se tuvo que marchar de Diputado General porque aquello fue una cosa rara. Mucha gente lloró. Te puedo decir que Imanol salió destrozado. Estuvo mal; le dolían todos los huesos, le dolía todo, en una palabra, estuvo descacharrado físicamente. Moralmente más, pero físicamente también. Recorrió todos los médicos habidos y por haber.
- Recibía a todo el mundo, fuera del nivel o color que fuera, recibía y hablaba con todos.
- Otra cosa que me gustaba en él era, cuando estaba ya en la oposición en las Juntas Generales, la caña que metía. Daba gusto escucharle, además te hablaba en un lenguaje como para entenderle todos; sin tecnicismos, sin utilizar palabras muy rebuscadas. Lo que él decía era lo que nos parecía que nosotros hubiéramos dicho.

Autobidea dela eta, Urralburu Gipuzkoako Diputaziora etorri zenean, Imanol eta kazetarien arteko giroa ikusi zuen, eta komentatu omen zion

aparte: “¿Cómo permites que los periodistas te traten de tú?”. Hori zen errealitatea: hika tratatzen zuten, bere bulegoko atea jo zezaketen informazio eske, ekipo berean zeuden Gipuzkoaren alde. Imanol hasi zen kazetariak hartu eta Gipuzkoan zehar obrak zeuden lekura eramaten. Egiten ari zenaz Gipuzkoa informatzea nahi zuen Imanolek, zehatz eta mehatz, zuzen eta zuzenean. Ez zuen deus ezkutatzeko, mezu gorderik ere ez. Diputazioko kazetariak den bezalakoa ikusi dute Imanol bere agintaldian zehar: obragile, proiektu amesle, EAJko krisian eroria, autobidearekin kalbarioan.

Honela mintzo da Estrella Intxausti:

“Su forma de transmitir la información era bien por rueda de prensa en la Diputación, o bien transportándonos hasta las obras que quería llevar adelante y dándonos la información en el lugar. Lo mismo íbamos al parque natural de Pagoeta, como a la presa de Aixola o a ver las conducciones bajo tierra desde la presa hasta el pueblo.

Así el periodista conocía de primera mano lo que luego tenía que contar. Evidentemente la información que intentábamos realizar era mucho más real, mucho más objetiva y mucho más pegada al terreno que lo que te puedes imaginar, por mucho que tengas dotes de imaginación, con un papel y unas informaciones en una mesa de despacho.

Esa etapa fue de transmisión de conocimientos a través de las visitas.

Imanol Murua siempre comentaba que era necesaria esa transparencia informativa porque no había nada que ocultar. Solíamos decir una frase de Imanol: “Imanol no tiene trastienda”, porque es un político claro; porque es una persona clara.

Lo que quiso es que se transmitiera la información con la mayor de las transparencias y de ahí que tuviera esta forma de proceder con la prensa.

El hecho es que con los periodistas mantenía una relación muy cordial, una relación muy abierta, una relación de despacho permanentemente abierto tanto para hacer una entrevista como para hacer una consulta; si tenías alguna duda siempre se ponía al teléfono y siempre te daba todo tipo de explicaciones y si él no las podía dar te mandaba a quien te las pudiera dar porque evidentemente lo que él siempre defendía era que la información tenía que ser ajustada.

Transmitía ilusión y entusiasmo. Los periodistas trabajábamos a gusto porque parecía que estábamos cumpliendo un papel. Al informar a Gipuzkoa de lo que se estaba haciendo, aparte de informar, estábamos cumpliendo un papel.

La verdad es que era fácil trabajar con él; era un libro abierto, no tenía trastienda.

Yo siempre que hablo de él digo que era una gozada trabajar con él, precisamente por eso: porque sabías que lo que te decía era verdad y que si tenía que decirte algo que no era verdad o que no interesaba poner decía: esto no. Hay mucha gente que dice: esto no pongas, que es *off the record*, pero puede quedarte la duda. Con él no. Con Imanol es clarísimo que lo que te decía para publicar era para publicar y lo que no, no”.

KARLOS SANTAMARIARI OMENALDIA

1991n Ahaldun Nagusitza utzi beharra gertatu zitzaionean, agur gutun bat idatzi zion Imanolek Karlos Santamariari ere. Eta honek bueltan beste hau erantzun zion:

“Mila esker bihotz-bihotzez zure eskutitz ederragatik. Gauza bat esan nahi dizut horri buruz: zure presentzia guztiz beharrezkoa da memento honetan, Gipuzkoako eta Euskadiren politikan. Ez utzi, mesedez!! Jarrai lanean, gure Herriaren aldeko lanean, beti zurekin gaudelako. Agur handi bat”.

Aspaldiko ezaguna zuen Imanolek Karlos. Antoniana eta Guraso Elkarreetan zebilela ezagutu zuen. Behin baino gehiagotan eraman zuen Zarautza kulturari buruz edo kristautasunari buruz hitzaldiak ematera. Inoiz edo behin haren hitzaldia laburbilduz prentsan idatzi ere egin zuen Imanolek. Eman zuen hitzaldi bat oraindik gogoan du: Kultura “K” maiuskulaz. Egunkarietan argitaratzen zuen guztia irakurtzen zion Imanolek.

Udak igarotzera Zarautza joan ohi zen Karlos Santamaria eta kalean sari egon ohi ziren elkarrekin. “Atsegina eta jakintsua zen”, komentatzen du Imanolek.

Karlos Santamariaren ibilbidea, pertsona eta intelektual gisa, eredu-garritzat zeukan Imanolek eta saritu nahi izan zuen. 1991ko apirilaren 27an Gipuzkoako Seme Kutun izendatu zuen eta Diputazioko Urrezko Domina eman zion. Eta ez hori bakarrik. Karlos Santamariaren produkzio intelektuala bildu eta aztertzeko akordioa izenpetu zuen *Jakin* taldearekin. Imanolek enkargaturiko lan horri esker, belaunaldi berrien eskura dago orain Karlos Santamariak hainbat aldizkari eta liburutan idatzi duen guzti-guztia. Hauxe izango zen Ahaldun Nagusi gisa hartu zuen azken erabakietakoa.

EUSKALDUNON EGUNKARIA-REN ALDE

Zailtasuna omen da adiskideen arragoa, une gogorretan frogatzen omen da zein den egiazko laguna. *Euskaldunon Egunkaria* boikot instituzionala jasaten ari zen urte gogor haietan erakutsi zion Imanolek bere atxikimendua.

1992ko ekainean Usurbilen antolatu zuen *Egunkaria*-k elkartasun jaia, eta han zen Imanol, Gipuzkoako Batzar Nagusietan oposizioko buru zelarrik. Alderdi politikoetatik bera, Patxi Baztarrika eta Joseba Alvarez baka-rrik izan ziren. Urte gogorak ziren haiek *Egunkaria*-rentzat. Imanolek ez zuen mihinean bilorik izan boikota salatzeko. Pena sentitzen zuela azaldu zuen “zenbait pertsona euskaldun eta euskararen aldekoak hemen egon beharko luketenak ez direlako etortzen. Eta zer esanik ez, zenbait komu-nikabide ez azaltzea hona. Adibidez ETB ez etortzea benetan tamalgarria iruditzen zait”.

1992an *Egunkaria*-ren alde agertzea ez zen erraza. Imanolek egin zuen. Zailagoa zen, mila aldiz zailagoa, *Egunkaria*-ri dirua ematea. Gipuz-koako Batzar Nagusietan oposizioak ez zuen askotan bat egingo urte horietan, baina *Egunkaria*-ren kasuan bai: EA-EUE eta HBk gehiengo osatuz EAJ eta PSE-EEk osatzen zuten gobernua behartu zuten bizpahiru urtetan 50 milioi pezeta urteko *Egunkaria*-ri ematera. Hain zuzen ere harik eta 1994an *Egunkaria*-k eta Joseba Arregik zuzentzen zuen Kultura Sailak hitzarmena sinatu arte. Trantsizio hori hil ala bizikoa izan zen Egunkariaren iraupenarentzat.

Bada besterik. Publizitate instituzionalaren desblokeoa ere Gipuzkoa-ko Batzar Nagusietan lortu zen. Euskarazko egunkari bakarra izanik *Egun-karia*-k eskatzen zuen lurraldeburuko tratamendua ematea, bestela esan, Gipuzkoan erdaraz gehien saltzen denaren tratamendu bera izatea. HBk aurkeztu zuen hori Batzar Nagusietan. Baina ez zen hori onartu zena. Ima-nolen hitzetan “Eusko Alkartasunak, printzipio horrekin ados egon arren, nahiago izan du adostasuna bilatu eta printzipioarekin bakarrik gelditu beharrean, praktikotasunarekin aurrerapauso bat eman”.

1994ko martxoaren 18an Gipuzkoako Batzar Nagusietako Batzorde instituzionalak aurrena eta gero osoko bilkurak 28an, egunkarietan (*Egun-karia* barne) publizitatea banatzeko akordioa onartzen dute. Publizitatea-

ren %8a *Egunkaria*-ri dagokio, euskarazko bakarra delako. Batzar Nagusietako Batzorde Instituzionalak araua onartu eta berehalaxe, hurrengo egunean, *Diario Vasco* egunkariak bere kexa eta haserrea azaldu zuen. Batzar Nagusiek beste egunkari batzuen onerako eta beraren kalterako diskriminatu egiten dutela. Auzitan jartzen du gainera Batzar Nagusiek diru publikoaz egiten duten administrazioa. Honen aurrean Imanolek zera idazten du: “Beharbada, Eusko Jaurlaritzak, beste Diputazioek, ETBk eta abar, *Egunkaria*-ri egiten dioten boikota izango da administrazio egokia *El Diario Vasco*-rentzat. Hori ez zaie iruditzen inongo diskriminaziorik denik. Ez dute behintzat inoiz aipatu”.

Garai berean, 1994ko martxoan, PSE-EEK Mario Onaindiaren bidez *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko urrats bat egiten du. Mariok martxoaren 5ean idazten duen artikuluan lotsagarritzat jotzen du alderdiek Egunkariarekiko duten jarrera. Erantzun egiten dio Imanolek eta eskatu alderdiak oro ez parekatzeko, ez diru laguntza aldetik eta ez “legez eta etikaz zor zaion” publizitate instituzionalaren aldetik. Puntu batean bat dator Mario-rekin: “Inolako laguntzarik gabe, are publizitate instituzionalik gabe kalera ateratzen den Egunkariaren ale bakoitzak euskaldun guztiok lotsaz betetzen gaitu’, idatzi duzu artikuluan. Laguntza falta hori benetan lotsagarria da, eta lotsatuta gaude noski Gobernuan zaudeten alderdiak —EAJ eta PSE-EE- daramazuen politikagatik, baina hala ere *Egunkaria*-k atera dituen 1.000 aleek mila poz eman dizkigute euskaltzaleoi”.

Lizardiren jaiotzaren mendeurrenean, 1996an, egunkariak Lizardik zituen ideiak jaso eta *Euskaldunon Egunkaria*-ri egokitu zizkion Imanolek: “Elkar gaitezen denok, dirua jar dezakeenak jar beza, *Egunkaria* egiten dutenek egunkari bikaina egin bezate, eta beste guztiok ahal dugun neurrian lagun dezagun.

Lizardiren jaiotzaren mendeurrenean haxe litzateke Lizardiri egin geniezaiokeen omenaldirik onena”.

Ez dakit zein urtetan, *Egunkaria*-k esker oneko diploma gisako bat eskaini zion Imanoli bertso honekin: “Eskerrak eman nahi dizkizugu/ zuri Imanol Murua/ urez printzatu baituzu lehor/ dagoen hazi burua/ lurrak fruitua emango baitu/ hau da gauza segurua/ Egunkariak gozatu dezan/ gure euskal ingurua”.

1995-2004

“HERRI EDERTU” ENPRESA

Diputazioan amaitu ondoren, Imanolek enpresatxo bat eraiki zuen, *Herri Edertu* izenekoa. Baina ez zuen luze iraun, hiru bat urte gehienez. Imanolek erabakita itxi zen, gainera, atzera Zarauzko alkatezarako aurkeztu behar zuela eta. Zorioneko gardentasuna.

Pena da. Oso polita baitzen asmoa.

1992an sortu zuen Imanolek Karmelo Arren-ekin batera, biak Diputazioan egonak eta 1991an kanpo geldituak.

Ideiaren sorrera honela kontatzen du Imanolek:

“Nik 91an Diputazioa laga aurretik beti esaten nien (Nestor Basterretxea eta beti kexatzen aritzen ziren hauei, “arteak ez zutela saltzen”...) Gipuzkoan zeudela makina-erremintako enpresa nagusiak eta haiei ere ez zitzaizela inor bila etortzen, haiek saltzera irten egiten zirela eta beraiek ere ez baziren antolatzen jai zutela. Beraiek artistak zirela baina norbait bilatu behar zutela, pertsonaren bat, beraien ordezkari izan eta beraien produktuak saltzera irtengo zena. Esaten nien: politika uzten dudan egunean, antolatu gabe bazaudete, neronek antolatuko dizuet asunto hori”.

Iritsi zen egun hori, Diputazioa uztekoa, eta artistak ez zeuden ahaztuta: Nestor Basterretxea eta Jose Luis Zumeta joan zitzaizkion gogortzera eta animatzera. Pentsatzeko denboratxo bat hartu zuen Imanolek. Hurrengo pausoa izan zen Karmelo Arrenekin juntatu eta enpresa eraikitzea: *Herri Edertu*. Karmelo ere mundu horretan mugitzen zen.

Carlos GARAIKOETXEA

Lehendakaria

- Nik gaztetandik igarotzen nituen oporrak Zarautzen, non, trantsizio aurretik, Imanol oso alkate herrikoia zen. “Alkateen Mugimendua” delakoa gertatu zenean, buru ziren Elkoro, Altuna eta abarrekin saltsa hartan ibiltzen nintzen: batez ere, Bergaran 1976an foru-abolizioaren urteurrena prestatu zenean eta lehenengo ikurrinak ipini zirenean eta ondoren Etxarri-Aranatzen. Orduan jakin nuen Imanol ere alkate horien artean zebilela, berarekiko nuen begikotasuna handituz. Alkate benetan jatorra zen, atxilotuez arduratuta beti, bizkorra eta eraginkorra. Alkate eredu edo prototipoa... Erakundeetan parte hartu nuenean eta Zarautzen maiz izaten nintzela, berarekin nuen harremana eta laguntasuna gero eta handiagoa izan zen.
- Imanol dibertigarria eta “azeri” samarra da. Birritan utzi ditu bere lagunak txunditurik merkatuan erositako arrain goxoa berak harrapatutakoa zelako ustetan. Gure lagun den Basiliok kontu dezala bere urtebetetzean oparitu zizkion txipiroiak nolakoak ziren! Negoziatzale gisa, badaki baita ere galtzaile itxura hartzen irabazten doan arren.
- Guztiz gain, Imanol pertsona zintzoa eta zuzena da. Arazo zailetan, Diputatu Nagusi izan zenean (Autobidea eta abar) bere kontzientziaren arabera eta txosten teknikoak beti kontuan hartuz aritu zen. Bere kontzientzia saldu aurretik nahiago izan zuen merezi gabeko erasoak jasatea edota bere kargua galtzea.

Hamabiren bat artista hartu zituzten, pintore eta eskultore, horietatik sei ezagunak eta besteak gazteak, ezezagunak. Katalogoko izen batzuez orain ere gogoratzen da: Nestor Basterretxea, Jose Luis Zumeta, Koldobika Jauregi, Xabier Laka, Bizente Larrea, Remigio Mendiburu, Juan

Mieg Solozabal, Karmelo Ortiz de Elgea, Rikardo Ugarte, Jose R. Anda Goi-koetxea, Jesus Rodriguez Jauregi, Koldo Merino. Guztira, bederatzi eskultore eta lau margolari, gipuzkoarrak bost, bizkaitarrak lau, arabar pare bat eta nafar bat.

Gero pila bat etorri omen zitzaizkien beren obren eskaintza eginez, baina abanikoa handiegia zela eta, ez zuten beste inor hartzen.

Artista horien ordezkari lana egiten zuten Imanol eta Karmelok; haien katalogoak hartu eta kontratistengana edo udaletxeetara joaten ziren, eta ahal zenean urbanizazio batera-edo aurretik joan eta koadroak eta eskulturak non jar zitezkeen estudiatu.

“Ez naiz gogoratzen zenbat kolokatu genituen baina ez ziren asko ere izan, dedikazio eta denbora faltarengatik; pixka bat martxan hasi ginenean utzi egin genuen”.

Imanolek ez zituen ordu asko sartu enpresa berrian, Lanbide Eskolara bueltatu baitzen Diputazioa utzita. Karmelo ibiltzen zen batera eta bestera. Imanol bilera garrantzitsuenetara bakarrik joaten zen.

Imanolen buruan ez zegoen enpresagizon bihurtzeko asmorik. Osagarria zen hori. “Diru pixka bat ateratzen genuen —dio—, eta artistei lagundu”.

Herri Edertu-k ez zuen hazkunde izugarririk izan. Nola, izan ere, jaioberritan eta dedikazio faltaz? Bere burua ezagutzera ematen ari zenean, orduantxe ematen diote baja. “Indarra hartu baino lehenago moztu egin genuen”, komentatzen du Imanolek.

ENPRESA IXTEAREN ARRAZOIAK

Bajak bi arrazoi ditu: batetik, Imanol atzera bizitza publikora pasatzen dela, Zarauzko alkate. Eta horrelakoetan ez duela “nahasketarik” nahi izaten, ez dezan inork pentsa karguaz baliatzen denik. Eta, bestetik, Zarauzko paseo maritimoan inbolukratu zutela. Sekulako disgustua hartu zuen.

Oteitzak abisatu zion bazebiltzala zerbaitetan. Marinak-eta xaxatuta, diotenez, Alvaro Bermejok *Diario Vasco*-n sekulako kanpaina egin zuen. Marina kafetegia, obra berriak zirela-eta, bota egin behar zen, eta haserre zeuden nagusiak. Paseo maritimoan jarri behar ziren eskulturak Imanol Muruak adjudikatu omen zituen bere influentziez baliaturik.

Imanolek prentsaurrekoa eman behar izan zuen, gezurtatzeko. Oso bestelakoa da egia. Kostaren berrikuntza proiektu fasean zegoela lortu zuen Imanolek eskultura batzuk bertan jarri ahal izateko aukera, artea aire librean jartzeko %1 delakoaz baliatuz, Madrilgo Ministerioarekin eta hemen "Costas"-ekoekin lan eginda. Ministerioak onartu egin zuen proposamena, eta inork espero ez zuena: ordaindu ere berak egingo zuela, udaltxeari xentimo bat kostatu gabe.

Gero etorriko ziren adjudikazioak, lehiaketa publikoan, epaimahai eta guzti, ohikoa den bezala. Kasualitatea: Imanol alkate zela eratu zen epaimahaia eta Imanol bera bertako kide zen. Eta esan behar da *Herri Edertu*-ren katalogoko inori ez zitzaiola eman.

Nahasketa hauek, susmo gaizto horiek, salakuntza maltzurrok oso minberak dira edozeinentzat, eta zer esanik ez Imanolentzat. Burua egingo nuke orduantxe erabaki zuela bere baitan enpresa ixtea! Egoera irristakor horiek ez dakizki maneiatzten.

Pena ere hartuko zuen, seguru. Artistei laguntzeko tresna sortuberri baten desagerpenak ematen duen pena. Imanolek asko estimatu, eta lagundu ere, egiten zituen artistak. Beraientzat sortu zuen Arteleku Donostian. Saio bat baino gehiago ere egin zuen antzeko eraikin bat Zarautzen sortzeko.

GARDENTASUNA: LEGEZKOA ETA MORALA

Imanoli buruz “poco rentabilizador de los puestos” esaten du Carlos Etxeparek, Diputazioan Imanolekin Hazienda buru izan zenak. Ez dela aprobe-txategia izan, alegia.

Hortaz badaki zerbait Maritxu emazteak. Ezkontzerako erosi zuten etxe berean bizi dira. “Gure kasuan gaur egun modan dagoenaren justu kontrakoa gertatu da”, dio irribartsu. Normala zer zitekeen? Zarauzko hondartzako lehen lerroan bizitzea, itsasora begira, bista zoragarriekin.

“Etxe berri bat erosi? Ezta pentsatu ere. Zer esango dute? Denek pentsatuko dute nire karguaz baliatu naizela horretarako”. Eta gero: “ez al gaude bada ondo etxe honetan, herriaren erdi erdian?”.

Alferrik ariko zen Maritxu esanez etxeak ez zuela igogailurik, ez zuela trasterorik, ez zuela garajerik. Ez, ez eta ez. Baina azkenean lortu zuen zertxobait bederen, Imanolek berak erabili ohi zuen taktika bera baliatuz, lata eta pelmada: “Etxetik nahiko hurbil garaje bat jarri zuten salgai eta kosta zitzaidan konbentzitzen baina azkenean bere kontra bezala joanez enpeinatu nintzen eta erosi genuen”.

Imanolen familia osoa da garbitasun horren lekuko. Jose Mari anaiak komentatzen du ez duela fabore bakarra izan sekula. Eskatu ere ez. Eta baten bat bitartekaritza eskatuz zetorreanean, esaten omen zion berak: nahi baduzu nik esango diot, baina Imanol ezagututa alferrik izango da.

Kepa anaiak dio gardentasun hori gurasoen herentzia dela: “Garbitasuna, hori denok edukiko dugu, denok horrela kontsideratuta gaude-eta, ez dago guk esatea ondo baina. Hori gurasoengandik dator: badakizu, zer ikusi hura ikasi”.

Hala kontatzen da eta halaxe izango da, izango denez. 1974an udale-txera sartu zenean Hirigintzako batzordeburu izendatu zuten. Lehenago-tik hasita, Guraso Elkartean zegoela, Imanolen helburuetako bat espekulazio basatia geldiaraztea zen. Lur-eremu labankorra, labankorrik bada. Interes gurutzatuen gune basatia. Baina Imanol buru-belarri sartu zen. Obrak geldiarazteagatik mehatxuak jaso zituen. Baina baita eskupekoen eskaintzak ere, garai hartako bost milioi, ez-ikusiarrena egiteagatik. Popatik hartzera bidali omen zituen mezulariak Imanolek.

LEGEZKOA EZ DA NAHIKO

Legezkoa ez bada, kitto, ez dago zereginik Imanolekin. Marra hori ezin da beste aldera gurutzatu. Eta legezkoa bada? Orduan ere kontuz. Hori dio behintzat Jesus Mari Akizuk: legezkoa izateaz gainera morala behar du izan Imanolentzat, zuzena. Zuzena eta eskandalu gabea.

“Imanol gizon garbia beti izan da eta orduan ere garbia izan zen. Ekintza batek, nahiz eta zuzena izan, eskandaluaren arriskua bazuen ez zuen egiten. Susmoa hartzen bazuen erabaki bat hartu eta eskandalua ekarriko zuela ez zuen hartzen. Imanolek behar zuen erabakia legezkoa eta gainera diskusiorik edukiko ez zuena; posibilitate hauek denak begiratzen zituen”.

Froga gisa, hor dago zesantien kasua, esate batera, dio Akizuk, batzuek eta besteek nola jokatu zuten.

Zesantiak zer ziren? Kargua uztean zenbait hilabeteri zegokiokeen soldata-edo kobratu ohi zuten, lan profesionalera itzultzeko beharko zuten denbora kalkulatu. Kasu honetan: legealdi erdian, 1985ean, EAJren haustura gertatzeaz zegoelarik, Gipuzkoako Foru Aldundian kargu aldaketak izan ziren: Ardanza eta Eugenio Ibarzabal Eusko Jaurlaritzara joan ziren. Diputazioan ere zeseak egin ziren gero gobernu berria abiatzeko. Eta gobernu berrian lehengo berek jarraitu zuten. Batzuk hasi ziren “zese” horregatik zegokiena kobratu nahian, ez zutela-eta gobernualdia burutu.

Imanol sutan jarri zen. Ez zitzaion inolaz ere bidezkoa iruditzen postu beretan mantenduz edo kargua hobetuz, eskubide horiek exijitzea. Ramon Ciprián legegizonari galdetu zion ea ukatzerik bazeukan. Ezetz, eskubidea bazutela eta eskatzen bazuten eman beharra zeukala. Batzuk eskatu eta kobratu zuten, “asko gorritu gabe”, eransten du Akizuk. Imanolek ez zuen kobratu, noski, eta bere taldeko inork ere ez. Behin eta berriz errepikatzen zuen Imanolek: legezkoa izango da, baina ez zait iruditzen zuzena denik, morala denik.

Sekulako polemika eta eskandalua sortu zen prentsan.

Berriz holakorik ez zedin gerta, aldatu egin zen legea.

Eta honela bukatzen du Akizuk: “Imanol zuzena da. Zuzena ez bakarrik ekintzan, gero haren ondorioei begiratuta ere bai. Imanolek begiratu

egiten du bere aktuazioek gero zer ekar dezaketen eta hori ez dute pertsona askok egiten”.

Pedro Miguel ETXENIKE

Eusko Jaurlaritzako Sailburua

- Imanol es una buena persona que sabe hacer bien muchas cosas. Buen profesor, buen alcalde, buen diputado general y podría añadir otras que pertenecen a una esfera más privada.
- Dicen que buen golfista. No pude comprobarlo pues nunca se atrevió a demostrármelo con una apuesta.
- Cariñoso, de gran humanidad; dialogante y flexible. Sufrió mucho en algunos momentos y con algunos comportamientos. Me acuerdo de la autovía y de la escisión. Fue testigo de algunas cosas cuyo secreto compartimos.
- Hombre inteligente y bueno. Con visión amplia de la cultura sabe querer a la gente y a la naturaleza.
- Quiere mucho y se hace querer mucho. OROZ gainetik GIZONA.

OTEITZAREN LAGUNA

Oteitzarekin makina bat barre eta algara egin du Imanolek. Eta batez ere ikasi, asko ikasi: arteaz ez bazen, literaturaz zen, edota bizitzako zein naturako alderdirik bitxienez. Ba al dakizue zein arrain den bi begiak alde bakarrean dituen?, galdetu zigun bazkari batean Imanol eta bioi. Oilarra omen da.

Horrela zen Oteitza.

Imanol lagun handia zuen, konfiantzazkoa.

Zer ez ote zuen Imanolek lortu?, pentsa lezake norbaitek. Bada, deus ez. Bitxia bada ere halaxe baitzen Oteitzarekin: Oteitza bera maite eta estimatzen zutenak, horiek ez zituzten faboreak lortzen, baizik eta adu-latzaileek, zuri-zuri hurbiltzen zitzaizkionak. Salbuespenak salbuespen. Baina Imanol ez dago salbuespenen artean.

Harrigarri dirudike, orobat, Oteitzak bere ondarea Nafarroako agintarien eskuetan utzi ordez Gipuzkoan utz zezala Imanolek ez lortzea. Saiatu ote zen? Saiatu bai, baina deus gutxi lortu Oteitzaren haserrea aparte, entzerrona zela eta.

“Makina bat aldiz hitz egin nuen Oteitzarekin bere lanak Gipuzkoan kokatzeaz. Saiatu bai saiatu nintzen, bortxatu ez, alferrik ezeze kontra-koa zen eta. Eskaintza desberdinak egin ere bai: Irun (han bizi izan zelako), Arantzazu (aurrena Arantzazu), Deba (Debako eskolagatik), Zarautz (bertan bizi zelako aspaldi) eta Orio (haren jaioterria). Ez zen izan modurik.

Behin, Lete eta biok Jorge eta emaztea Laurgainera eraman genituen bazkaritara. Bi helburu genituen: Gipuzkoako urrezko domina emateko baimena (ordurako alderdi politiko guztiekin kontsentsuatu nuen) eta bere obraren kokalekua.

Bazkaritan gustura egon zen, ederki. Urrezko domina planteatu genio-
nean, ezezko biribila. Eta gero bestea. Gipuzkoarekin ez zuela ezer jakin nahi. Betiko astrakanadak. Egun hartan bizi-bizi haserretu zitzaigun, entzerrona zela eta. Igarri egin zigun zertarako eraman genuen. Itziar, andrea, gure alde zegoen. Zaila zen gizona.

Zaila zela ikusi nuen. Gipuzkoan ez zuen nahi. Berak ere ez zekien zer nahi zuen. Azkenean uste dut ez berak ez andreak nahi zuen gauza bat



Joxemiel Barandiarani
bisita egiten dio Sara
baserriarri (1989)

Joxemiel Barandiarani
bisita Sara baserriarri
(1989)



Joxemiel
Barandiarani bere
urtemugan
Ataungo Sara
etxean bisita egin
zion Imanol Murua
Diputatu Nagusiak,
Diputazioko
zenbait kideekin
batera: J.L.
Telleria, Jose Mari
Agirre eta Karmelo
Arren.



Imanol Murua Jorge Oteitzarekin
Bertsolarien enparantzán Oteitzaren
eskultura inaguratu zenean (1999)

Zarautzen Bertsolarien enparantzán Jorge
Oteitzak Zarauzko herriari oparitu zion
eskulturaren aurrean Jorge Oteiza eta Imanol
Murua Zarauzko alkatea (1999)



Itziarko
Santutegian
ospatu zituzten
Jorge Oteiza eta
Itziar Carreño
senar-emazteek
ezkontzako
urrezko ezteiak,
Imanol Murua
eta Maritxu Uría
senar-emazteen
konpainian
(1988)

Imanol Murua itxasoan
txibitan ari da (1988)



Zarauzko golf zelaian
(1990)



Donostiako Hotel Maria Cristinan Pepita Embil Plácido Domingoren amari eta Xey abestaldeari omenaldia egin zitzaien. Ezkerretik hasita: Imanol Murua Diputatu Nagusia, Plácido Domingo, honen arreba eta Pepita Embil ama



Camprodon "Comunidad de Trabajo de los Pirineos" egin zenean, J. A. Ardanza EAEko Lehendakaria, Gabriel Urralburu Nafar Gobernuako Presidentea eta Imanol Murua Gipuzkoako Diputatu Nagusia (1989)

Diputazioan
Julio Caro
Barojaren
hitzaldiaren
aurkezpenean
(1989)



Artelekun, Vicente
Ameztoiren erakusketan
Eduardo Chillidarekin.
Atzean Karmelo Arren
(1990)

Donostiako
Udaletxean
sartzerakoan
Gabriel
Celayaren
errautsekin
Anparitxu
alarguna.
Honekin batera
Maritxu Uria,
Imanol Murua,
J.L. Telleria





Artelekun,
Vicente
Ameztorein
erakusketan,
Vicente eta
emaztearekin
(1990)

Sevillan Rocio Juradorekin,
Kazetari grafikoen Elkartean
emana zion saria jaso eta
gero. Estatu mailako
"politikari irekienari" Saria
eman zioten Imanol Muruari
(1991)



Ordizian Imanol Murua
Diputatu Nagusiak Eli
Galdos aukeratu berriari
bostekoa ematen dio
bozketan ondoren (1991)



Diputazioan, kazetarien azken agurrean, hauek egindako opariarekin (1991)



Etxean Imanol eta
Ander semeekin
bazkalondoan
bertsotan (1986)



Imanol eta Maritxu Xanti eta Malen bilobekin, Zarauzko malekoian (2004ko urtarrilak 6)

egin zuela, andreak nahi ez zuena bai behintzat. Andreak hona ekarri nahi zuen Jorgeren obra. PNVkoa zen, Arzalluzen forofoa.

Itziarrek nahi zuenaren kontrakoa egin zuen. Eta nik uste berak nahi zuenaren aurkakoa ere bai. Nafarroan momentu sentimental berezian harrapatu zuten. Itziar han egon zen gaixo azken aldian. Maiz-maiz bisitatzen zuten Urralburuk eta Allik. Eta gero han dago bere emaztea lurperatuta”.

OPOSIZIOAN DESEROSO

Gipuzkoako Batzar Nagusietan EAko bozeramaile izan da Imanol, Ahaldun Nagusi izateari utzi eta inhabilitatu arte, *de facto* 1991tik 2003 arte inhabilitazioaren oharrik ez baitzuten jaso Batzar Nagusiek.

Imanol ez da oposizioa egiteko gizona ez tenperamentuz ez bokazioz. Bertsolari bat bertsotan dago gustura. Sufritu egiten du epaimahaian lagunen bertsoak epaitzen. Berdin Imanol oposizioan.

Jose Mari Agirrek ez du oposizioan ezagutu, kudeaketa lanetan baizik, baina ezagutzen du Imanol:

“Ez da oposiziorako gizona. Baloirik gabe ez daki jokatzeko; baloia behar du. Oposizioan pixka bat bestearen hutsegiteak bilatzera joan behar da eta nik uste Imanoli errazago egiten zaiola berak zer egingo lukeen asmatzea besteek egiten dutenaren hutsunea bilatzea baino; erosoago sentitzen da eginkizun horretan. Hori gehiagori ere gertatzen zaie baina Imanoli nabarmen”.

Beste ataundar batek, Patxi Baztarrikak, honek bai, honek oposiziolagun izan du Gipuzkoako Batzar Nagusietan, konplizitate handiko lana. Ikuspegi beretsua du honek ere.

“Imanol lider bat da eta bere lidergo hori gauzatzeko agintea behar du. Imanol, esate baterako, ez da oposizio bat agintzeko pertsona eta oposizioan ere lidergoa ematen da. Oposizioan, baina, lidergoak askoz ere konpartituagoak dira eta ez dago halako aginterik; Imanoli askoz ere zailagoa zaio oposizioan bere norabidea aurkitzea.

Oposizioan ere, Imanol askoz erosoago ibiltzen da entendimendu edo elkar ulertzeko dinamiketan, logikoa denez.

Derrigorrez gidaritza, kudeaketa, eskutan behar duen pertsona da. Tresnak, emaitzak... behar ditu; kotxea berak eraman behar du, aldamean joatea ez du gogoko.

Denbora berean, proiektio publikoa ere gustukoa duen gizona da; jende askoren arteko saltsa, lotura, harremana... beharrezko ditu Imanolek. Horietan dabil gustura, bere giroan Imanol. Imanolen giroa ez da pensalari baten bakardadea; hor sufritu egiten du. Bere giroa bertsolariarena da: publikoa, jendartea... saltsa hori behar du, maite du, hori da Imanolen giro naturala, bere humusa”.

Interpretazioak interpretazio, berak daki hobekien nola ikusten duen bere burua oposizio lanetan. Ez du gezurtatzen besteok kanpotik sumatzen genuena:

“Oposizioan nik sufritu egin nuen, beraiek baino gehiago nik kontra egiten. Nik zirrikituak harrapatzen ibiltzeko gutxi balio dut. Egin behar izaten da, baina ez gustatzen zaizulako. Ni egitekoaren alde naiz, kontra egitekoa baino”.

AZKEN INTSUMISOA

Ongi ezagutzen dutenek esaten dute intsumiso xamarra beti izan dela Imanol. Baina inork ez zuen espero intsumisio honengatik epaitu eta kondenatuko zutenik.

1996an hasten da historia. Maiatzaren 30eko Udalbatzan militarismoaren eta inposaketa mota guztien aurkako mozio bat onartu zen. Ondorioz, Espainiako Armadari ez laguntzea erabakitzen da, eta soldadutza egin behar duten gazteen zerrendarik ez pasatzea.

Hurrengo urtea etorri zen, eta abuztuan Armadak zerrenda eskatu egin zuen, nahiz eta eskutan eduki Bake Epaitegiak bidalita. Ez zuten zerrenda behar, Zarauzko Udaletxearen ezezkoa baizik, Justiziaren makineria martxan jarri ahal izateko. Aurrez diseinaturikoa ematen du.

1998an bermea eskatzen diote, eta 1,4 milioi pezetako bermea ordaindu behar izan zuen, alkate izaten segitu nahi bazuen.

Epaiaren ebazpenak, "jotama" eginda, Zarautzen esaten den bezala: 2 urteko kargugabetzea eta 2.160 euroko isuna.

Helegitea egin zuen, baina honen ezezkoa ere ez zen luzatu, urrian erabaki baitzuen epaileak helegitea ez onartzea. Sententzia bete egin behar zuen, hortaz.

Hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko, Begoña Lasagabasterrek zigorra bertan behera uztea eta indultua eskatu zituen. Baina gerora Imanolek uko egin zion indultuaren eskariari: "Ez dut hilabete batzuk barru Galindo eta antzeko benetako gaizkileekin zerrenda berean agertu nahi".

Bada alderdi harrigarrik historia honetan. Imanolen kasua ez da bakarra, egia da. Baina Imanolekin gertatu denak ezberdintasun batzuk baditu, hala nola:

- beste inori ez zaio fidantzarik eskatu
- epaia besteena baino handiagoa da
- beste guztiak (epaitu dituztenak) intsumisioa despenalizatu aurrekoak dira
- intsumisoak despenalizatuta badaude, nola liteke haiei lagundu dietenak zigortzea?
- epaile berak lehenago ere lege hori bera aplikatu du auzipetua absolutuz.

MINUSKULAZ IDATZIRIKO JUSTIZIA

Epaia “hemengo justiziaren beste injustizia” bat zela deklaratu zuen Imanolek: “Ez naiz sentitzen gaizkile, ezta benetako justiziak inhabilitatuta ere, eta gutxiago herritarren konfiantza galdutakoa. Minuskulaz idatzitako justiziak inhabilitatu nau, eta ez herritarrek”.

Honek guztiak ez duela batere zentzurik esaten du Imanolek, eta zentzugabekeriari esplikazioen bat bilatzekotan, berarekin, ezagunagoa denez, eskarmentua eman nahi izan dutela.

Bere ibilbidea aintzat hartu gabe emandako ebazpen bat dela iruditzen zaio Imanoli:

“Injustizia bat iruditu zitzaidan inhabilitazioa, epaileak nire ibilbidea ezagutu beharra zuen erabaki hori hartzerakoan. Nire ibilbidea ezagutuko balu, ohartuko litzateke beti defendatu izan ditudala giza eskubideak, demokrazia, askatasuna eta alderdi guztien arteko harremanak. Gainera guk hartutako erabaki hori herriak nahi zuen gauza zen”.

2003ko urtearen erdialdera hasten da Imanolen aldeko jarrera instituzionala. Udaletxean lehenengo eta ia bateratsu Gipuzkoako Diputazioan. EA eta EAJko Batzarkideen izenean Iñaki Galdosek eta Asier Aranbarrik Imanoli omenaldi bat egitea eskatzen dute, hain zuzen ere bere irudia errehabilitatzeko, zuzengabeki inhabilitatua izan baita.

Hernanin uztailaren 2an Batzar Nagusiek ospatu zuten urteroko Batzar ibiltarian, 2003an, ia aho batez onartzen da proposamena, PPren ezezko aurreikusiarekin noski. Handikiro egin zion omenaldia Foru Aldundiak, Joxe Joan Gonzalez Txabarri zarauztarraren eskutik.

ALDERDIA ETA ERAKUNDEAK, BI MUNDU

1976-77 urteez geroztik alderdiren batean kokatuta egon da Imanol: aurrena PNVn eta hurrena EAn. Baina adiera hertsian Imanol ez da alderdiko gizona. Esan nahi baita, zerbitzu publikoan egon dela beti; eta ez dela sekula alderdi barneko arazoetan katramilatu.

Leiala izanik ere, baita diziplinatua ere, espiritu independentearekin jokatu nahi izan du, alderdiko politika eta gobernatzea bi mundu diferente direla argudiatuz, helburutan bezala jokamoldetan.

Jada 1979ko hauteskunde kanpainan, Zarauzko alkate izateko, independenteegia zela salatzen ziotenei, Jose Antonio Agirre, Jabier Landaburu eta bere aitaren eredura ari zela erantzuten zien: "Jokabide hau EAJren betiko jokabidea izan da eta Jose Antonio Agirre eta Landaburuk beste batzuen artean garrantzi handia ematen zioten jokabide honi.

Eta niretzako izan den gizonik jatorrenak erakutsi zidan niri. Nire aitak. Nire aita Zarautz maitalea zen, abertzalea, gudari eta jeltxurkatua. Eta besteen iritziak errespetatzen zekiena. Hura bezalakoa izan nahi nuke nik".

Geroztik mila modutara adierazi du gauza bera, diferentzia hori.

Xabier Letek, Diputazioan bidaide eta konfidente ere izan zenak, egoki laburbiltzen du Imanolen jarrera:

Imanol bai kultur diputatu izan zenean eta bai diputatu izan zenean izan zen pertsona bat alderdiaren hitza eta iritzia entzuten zuena baina ez morroi bezala, ez amen-amen egiteko. Ez zen errefraktarioa alderdiak esaten zuenari baino nahiko independentea, nahiko askea bai; eta behar-bada Garaikoetxearen krisiak lagundu egingo zion ikuspegi hori hobeto perfilatzen.

Imanolek garbi zuen alderdia gauza bat zela eta eginkizun batzuetarako zela eta erakundeak beste lan batzuetarako zeudela. Imanolek esaten zuen eurek denentzat gobernatu behar zutela eta gizarteak eskatzen zituen gauza askoren inguruan alderdiak ez zekiela: 'Alderdiak nahi duena esango du baina guk hemendik gauzak beste modu batera ikusten ditiagu; eta guk gobernatu behar diagu, eta, hi, gizarteak eskatzen ditik gauza asko, igoal alderdiak nahi ez dituenak. Eta gero alderdiak zer daki zuek kontatzen dizkidazuen gauzez, honetaz eta hartaz, ondareaz, arteaz-eta,

alderdiak zer kristo zakik? Orduan alderdia ez duk hona etorriko agintzen zer egin behar den. Alderdiak bere ildo edo egitasmo nagusiak esan diezazkidala, baina gero nik erabaki behar ditiat'.

Eta kontatzen du Xabierrek ezin zituela jasan alderdiaren jarrera interbentzionistak, ez EAJren kasuan eta ez EAren kasuan. "Zuek nahi duzuen esan, baina erabaki nik erabakiko diat.

LEIALTASUNA ETA ASKATASUNA, BIAK

Jarrera aske hau berau izan zuen bere konfiantzazko pertsonak zein lankideak aukeratu behar zituenean. Adibidez, lehen aldiz Diputazioan egon zenean: bere ustezko pertsona egokiak hartu zituen lankidetzat, alderdiko zen ala ez inori galdetu gabe. Imanolentzat irizpidea ez omen zen "alderdikoa" izan ala ez, baizik eta "baliokoa", balekoa. Xabier Lete bera, Imanolek deitu zionean, ez zen inongo alderditakoa.

Imanolen hitzek ez dute gezurtatzen Xabierrek arestian esana. Hone-la deklaratzeko EAKo aldizkariari:

"A mí no se me olvida que soy hombre de partido, que fue un partido, el mío, el que me puso aquí, y que en líneas generales tenemos que seguir los programas del partido y su dirección, pero yo distingo dos niveles: pertenezco a un partido político determinado, pero cuando ejerzo de diputado general tengo que ser el diputado general de todos los guipuzcoanos, de los guipuzcoanos de todos los partidos. Quien me ha elegido, cuando me ha elegido, sabía que teníamos un programa, y mi compromiso es cumplirlo. Pero luego, la forma de administrar, la forma de solucionar algunos problemas —que hay que resolverlos sin olvidar el programa-, tenemos que estar al servicio de todos. Por todo lo anterior, me gusta diferenciar los problemas del partido, los trabajos del partido, que también es una forma de trabajar al servicio de la sociedad, puesto que ésta es la función de un partido político, de los de la Diputación.

Como alderdikide, siempre he sido disciplinado, pero he procurado también en la medida de lo posible mantener cierta autonomía, y por eso nunca he querido tener cargos ejecutivos en el partido, tanto cuando era alcalde como en estos últimos años en los que he sido diputado general" (1989).

Egia da, konstatazio bat da, Imanolek ez duela behin ere kargurik izan inongo alderditan. Bi eskaintza, gutxienez bi, izan ditu EAn, biak Gipuzkoarako: 1991an bata, Diputazioa utzi berri-berritan: J.J. Irizar atera zen; eta Zarauzko alkatetza laga zuenean bigarrena, 1999an: Iñaki Galdos atera zen. Bietan eman zuen ezezkoa, fisikoki ez zegoelako batere ongi ez batean eta ez bestean. Baina ez da horregatik bakarrik, posizioak ez nahasteagatik ere bai, bere ibilbidea hasieratik bukaerara instituzionala izan baita, eta ez alderdi barrukoa. Beste arrazoi bat ere badagoelakoan nago: ez dituela gogoko alderdi barruko saltsa horiek. Ez direla bere gustukoak, dio Maritxu emazteak.

IMANOL, "POLITIKARIA"?

Imanol diputatu izan zen garaiko prentsa arakatuz gero, Imanolen jardunbide politikoak kalifikatibo oso desberdinak hartzen ditu.

Baten edo bestearen lumatan denetik ageri da: politikari atipikoa – político por antonomasia, politikari peto-petoa (gauza bera al da?) – político "jatorra" (holaxe komatxoekin, eta erdal testuan) – politikari pragmatikoa – politikari herrikoa – politikari ondratuegia – animalia politikoa – antitesis del político brillante, del malabarista de las palabras o del hombre preocupado por la propia imagen – político vocacional.

Ez du ematen gehientzat politikari konbentzionala denik, hau da, politiko hutsa edo huts-hutsik politikaria.

Patxi Baztarrikak lider bezala ikusi du Imanol, baina ez lider karismatiko, baizik eta ekintza-lider esango nuke, agintea kudeatu nahi duena, pragmatikoa:

"Politikari dagokionez oso-oso pragmatikoa dela iruditzen zait eta denbora berean hiruzpalau printzipiori bizkarrik eman gabe funtzionatzen duena. Eta hori ondo uztartzen jakitean edo bi aspektu horien uztarduran esango nuke nik dagoela bere jardunbide politikoaren berezitasun nabarmen bat.

Bistakoa da oso gizon herrikoa dela; ez dela pentsamenduaren mundutik politikara etorritako gizon bat. Ez dut esango plazagizona, zeren hori betiko topikoa baita. Inongo dudarik gabe sentimenduen mundutik sortutako politikaria da eta nik uste kudeaketaren arloan izan dituen ardura eta erantzukizun garrantzitsu horiengatik eta bere izaeragatik iritsi dela jakitera pragmatikotasun hori eta hiruzpalau printzipio sendo uztartzen.

Abertzaletasunarekin zerikusia duten printzipioak dira, noski, baina demokraziarekin lotura zuzena dutenak. Hau da, Imanol abertzalea da baina demokrata erradikal bezala ikusten dut aldi berean. Eta ibilbide horretako beste printzipio nagusia euskaltzaletasuna da; nik uste Imanolengan punta-puntakoa".

... HAINBAT ABURU

Imanol Lazkanok asko estimatzen du Imanol politikariaren tankera: herriko gizona, herriaren ordezkari, herriaren morroi, gardenegia politikari ona izateko, dio berak:

“Normalean guk ezagutu ditugun politikariak herritarrekiko-eta distantziarekin ezagutu ditugu denak eta akaso halaxe beharko du: distantziarekin. Hala behar badu eta hori ona bada Imanol politikari txarra da.

Ez dakit Imanol alkate egon zenean sinetsi ere egin ote zuen eta diputatu izan zenean berdin; nahiz eta kargu garrantzitsuetan egon, Imanol beti herriko gizona izan da; herriko beste bat gehiago.

Beti saldu diguten hori bada politikari ona izatea, Imanol politikari txarra da baina ni honekin geratzen naiz. Nik nahi nuke politikari guztiak horrelakoak izatea. Imanolen irudia politikari bezala oso ona daukat, zeren azken batean politikari batek herriaren ordezkari behar baitu. Uste dut politikari askori ahaztu egiten zaiola herriak aukeratutako eta herria antolatzeke morroi batzuk direla; eta alderantziz pentsatzen dute: herriaren nagusi, herria euren dela pentsatzen dute. Imanolek alderantziz: nik uste herriaren morroi sentitu dela eta ni politikari mota honekin geratzen naiz. Imanol gardena izan da, gardenegia politikari ona izateko”.

Juan Jose Markaide urtetan Imanolen ondo ondoan egon da herriko saltsatan, eta 1979an alde banatan kokatu zituen politikak, EAJn eta HBn. Markaiderezentzat Imanol politikari peto-petoa da, politiko hitzaren zentzu konbentzionalean, konnotazio peioratibo eta guzti. Ikasketak balitu politikari inportantea izango omen zen.

“Imanolek bazakik noraino ailegatu, hori duk politikaria niretzat. Bazakik atzetik zer indar daukan, noraino ailegaten den bere boterea, eta botere hori nola maneiatu zakik politikariak. Imanol niretzat politikari-politikaria duk.

Imanolek jokatzen duenean bazakik noraino daukan jokatzea; hortik aurrera ez dik jokatzen sekula. Imanol ausarta duk, oso ausarta, baina beti ere atzetik daukan indarren babesarekin. Fijatu hadi: nahiz eta izaera oso bizia eta sutsua izan, arrastotik ez duk sekula pasatu, bazakik ondo kalkulaten noraino iritsi. Hori duk niretzat ‘politikari’ izatea”.

Bat edo beste bada politikaren sustraira doana (“polis”) eta politika herriari zerbitzatzea bezala ulertzen duena. Marisol Agirrek, Diputazioko bere idazkariak, Imanolen lana “zerbitzu konpromiso” gisa interpretatzen du, politikan sartu aurreko garaietatik datorrena. Bat dator hori Imanolek daukan ulerkerarekin.

Xanti Erasok, bere aldetik, belaunaldi jakin bateko politikariaren prototipotzat hartzen du Imanol, politika zerbitzu gisa bizi duena, politikaren bidez bizitza eta gizartea aldatu eta berritu nahi dituen, politika bitarteko eta tresna gisa erabiltzen duena eta ez helburu edota karreratzat.

ZERBITZU KONPROMISOA ETA SEN ONA

Berari ere galdetu izan diote inoiz edo behin ea bere burua politikaritzat daukan.

Imanolentzat, esango nuke, politika ez da etiketa bat, baizik eta bizi-modu bat, herriaren alde edo herriko saltsetan ibiltzea. Horregatik berak ez du bereizten Guraso Elkartean ibili zeneko garaia eta gero Administrazioan egon denekoa, baizik eta bata bestearen jarraipen bailitzan, besterik gabe.

Jose Ramon Belokik esaten dio Imanol ez dela “politikaria” entzun duela berak:

“Hombre no seré un buen político o no seré, si quieres, un político teorizante, pero político, en una u otra actividad, lo soy desde los 18 años”.

Lore Agirrezabali *Txaparro* aldizkarian ematen dion erantzunean ere ez dago marra bereizlerik herriko saltsetan zebilen aldiaren eta gerokoaren artean:

“Niretzat politika apasionantea da, ni konturatu gabe sartu nintzen honetan. Herriko saltsa gehienetan ibili naiz 14-15 urtetik sartuta, eta ohartu gabe politikari gisa aberastuz joan naiz, zeren, azken finean, dena politika baita”.

Baina zer da politikari izatea, edo galdera hobeto doiturik: zeintzuk dira politikari baten dohainak edo ezaugarriak? Ibilbide politikoa bukatzeaz zeukala, honela erantzun zuen berak:

Estrella INTXAUSTI

Kazetaria

- Imanol podría ser el ejemplo de un político que ante todo es persona. Una persona correcta, absolutamente sincera consigo mismo y por lo tanto sincera con los demás, y que siempre defendía ejecutar las cosas lo mejor posible.

Imanol es una buena persona. Imanol no tiene doble mensaje o doble contenido; para mí ésa es la principal virtud o versión que se puede dar de Imanol.

A Imanol nadie le puede echar nada en cara. Evidentemente habrá cometido errores, pero por mucho que se intente buscar un pasado oculto, nadie, sea de la sigla que sea, se lo podrá encontrar.

- Imanol es claro, contundente, se puede enfadar mucho en un momento, pero se le pasa en seguida. Es como un fuego de artificio: sale la bomba japonesa y se ha acabado. No es un hombre que guarde rencor ni que mantenga el enfado dos días. Dice lo que opina pero a los cinco segundos tienes su sonrisa y sus mismos ojos risueños.

No le gustaba nada enfadarse con la gente; si se tenía que enfadar con alguien el primer disgusto era él. En muchas ocasiones solía comentar: "por la paz un avemaría". A veces prefería perder de sus derechos que seguir en discusión con una persona. Pero si él tenía conocimiento de un tema y si sabía que tenía razón, era absolutamente "cabezota" y mantenía su razón hasta el final.

- Es muy amigo de sus amigos, no tiene esa situación de status por ser diputado general que marca una diferencia con respecto a los demás. Él está con todos porque es un trabajador al servicio de Gipuzkoa; no se le sube el orgullo por ser el jefe. El es un

trabajador más y los que están a su alrededor son su equipo y trabaja con su equipo, con su gente. A Imanol el autobombo no le ha ido nunca. Ha sido una persona sencilla que ha sabido tener los pies en la tierra.

Para Imanol el cargo de diputado general no era un cargo de despacho y de que la gente fuera a contarle las temas, no. Era un cargo de estar a pie de obra permanentemente; él estaba dando ejemplo con su actuación de cómo había que llevar los temas. Imanol es de botas; de ponerse las botas y acudir al terreno.

- Una de sus grandes virtudes es su sensatez a la hora de plantear los temas, el sentido común. El sentido común hacía que las cosas más difíciles de explicar, por ser temas serios, se entendieran como sencillas, ya que lo hacía todo tan evidente que tenía que ser así. Tenía ese sexto sentido, que dicen que es el menos común de los sentidos, pero lo tenía.

Sus planteamientos, su forma de expresión, tanto escrita como oral, no es rimbombante, de palabrejas alejadas del habla normal de la gente. Precisamente llegaba muy bien a la gente por eso; porque estaba dando un discurso desde la tribuna de las juntas generales como diputado general o estaba hablando en un pasillo de la Diputación y su forma de expresión era siempre la misma.

Era una persona a la que la rimbombancia le venía mal: fuera o dentro de su ejecución, de su actividad como político.

“Aparte de la preparación, que puede ser mejor o peor, la cualidad más importante es el sentido común, en el que se reflejan otras muchas cualidades como la mano izquierda o la sensibilidad ante los problemas de los demás. Es muy importante saber prestar atención a las dificultades de los demás por mucho que a tí te pueda parecer que carecen de importancia. La facilidad de palabra influye en la imagen, pero uno puede tener difi-

cultades de palabra y ser un gestor fenomenal. Lanzar un mensaje bueno con palabras bonitas ayuda, pero lo fundamental es el sentido común, eso lo comprende todo”.

ORDEZKO SARTU ETA POSTUAZ JABETU

Futbolean sarri gertatu ohi dena Imanolen bizitzan ere halaxe suertatu dela ematen du. Ohiko ekipoko kideren batek huts egiten duenean, lesioa tarteko kasurako, ordezekoak hartzen du postua. Lau aldiz gutxienez gertatu zaio hori Imanoli bere karrera politikoan.

-Lehen aldiz Alkateen Bergarako Taldean gertatu zitzaion. Taldeko kidea zen Imanol, baina ez exekutibakoa. Erabakigunean ez zuen parte hartzen, harik eta Eibarko Egia alkatea erretiratu zen arte, bihotzekoak emanda. Orduan sartu zen Imanol batzordean.

-Zarauzko udaletxe frankistan zinegotzi zen 1974an hasita, Guraso Elkarteak promozionatu ostean. Bigarren alkateordea zen, eta hirigintzako batzordeburua. Baina halako batean, 1977ko hasieran Gervasio Juaristi alkateak dimititu egiten du, ikurrina jaso zelako udaletxean, eta orduan hartzen du Imanolek Udaletzeko gidaritzza eta jarduneko alkate bilakatzen da.

-Hirugarren bat ere gertatu zitzaion, Diputazioan. Lehen aldikoz diputatu izan zenean, erregimen arrunteko Diputazioa baitzen, diputatu guztiek batzordetan lan egiten zuten, Udaletxean bezala. Kulturako batzordean zegoen Imanol. Baina bazegoen dozena-erdi bat lagunek osatzen zuten gobernu txiki bat ere, Gobernu Batzordea, alderdi guztietako ordezkariak osatzen zutena. 1982an Kintxo Elosegik dimisioa ematen du eta Imanol aukeratzen dute gobernuko partaide Xabier Aizarnari laguntzeko. EAJkoak lau ziren: Xabier Aizarna, Imanol Murua, Rikardo Etxepare, Pedro Mendieta. PSOEtik Jose Julian Elgorriaga, Gobernadore izan eta gero kartzelan egona. EEtik Iñaki Albiztur eta Jesus Mari Larrazabal LAIAtik.

-Laugarren kasua ezagunagoa da. 1985ean, Garaikoetxearen lekua Ardanzak hartzen du Ajuria Enean, eta Ardanzak hutsik lagatakoa Imanolek Foru Aldundian. Ordura arte Kulturako Diputatua zen eta Diputatu Nagusi ordea.

Ez al da ibilbide bitxia?

ANEKDOTATIK HARATAGO

Anekdotak ematen du baina uste dut anekdotatik haratago badutela esangurarik gertaera hauek. Jarrera bat, prestutasuna, ausardia, lan ahalmena,

kudeaketa dohainak, taldea dinamizatzeko balioa adierazten dute Imanolen aldetik. Eta inguruaren, lantaldearen, bidaideen aldetik ezagutza eta estimua. Kargu/karga horiek ez baitira oparitzen, ez zozketatzen. Beti behar den lekuan, behar den guztia eta gehiago egiteko prest dagoenaren irudia transmititzen du Imanolek.

Eta ez da hori guztia bakarrik. Ordezkapenik egin gabe ere izan du ardurarik. Baina beti behetik gora joanda, koxkan-koxkan. Kasu bat bakarrean izendatu omen dute hasieratik lehendakari, Zarauzko Ikastolan. Besteetan, lehenengo bokal edo batzordekide izan da, eta barruan dagoelarik hartu ditu erantzukizun berriak: hala Antoniana Elkartean, eta halaxe Guraso Elkartean.

Zer dagoen ibilbide honen atzean? Ez ote lider izaera?

Markaidek gertu-gertutik ezagutu du Imanol urte askotan. Kasurako, udaletxerako jauzia egin zutenean, 1974an, biak baitzeuden Guraso Elkarreko buruzagitzan, bata lehendakaria eta bestea bigarrena:

“Imanol jefea zuan, motel. Hori dena eramaten zuena zuan; dinamizatzailea; Imanol zuan horien denen buru, dinamika eramaten zuena, eta animatzailea eta dena. Eta norbaitek nonbaitera joan behar bazuen, joateko beti prest; eta baten batekin hitz egin behar bazen, bera prestatzen zuan”.

Ikuspegi beretsua ematen du Basilio Bergarak ere, beste zeregin batzuetan ezagutu ondoren. Elkarrekin ibili diren toki guztietan Imanol ardatza izan da. “Gu akolitoak bezala ginen —dio—. Hura ardatza. Imanol denerako hautatua zegoen; balio zuen mutila, langile porrokatua eta saiatzen zena; ausarta, oso ausarta”.

Ausardia, lan ahalmena, taldean moldatzeko balio izateak izan daitezke ibilbide horretako aldapa malkartsuak igotzeko baliatu dituen maki-la lagungarri batzuk. Jose Mari Agirrek Diputazioan ezagutu zuen, hura Ahaldun Nagusi eta Txato Ekonomiako Diputatu, eta Imanoli buruz dio asko balio zuela taldea mugitzeko, girotzeko, bultzatzeko, eta batez ere giro eroso xamarra sortzeko.

Laburbilduz eta irudi bidez esateko, bistan da mapa estudiatu gabe hasten zela Imanol bidea egiten. Bideko gorabeheren berri zehatzik ez zuen, desnibelak-eta, baina berdin zitzaion, zetorrena zetorrela aurrera egingo zuela sobera ere bazekien. Bideak berak eramane du Imanol. Ez du

bere bizimoldea aurretiaz diseinatu edo planifikatu. Norbere buruarekiko konfiantzaz eta ausardiaz motxila ongi hornitu, eta aurrera: ez dago bide luzea egiteko elikadura hoberik.

SEKULAKO TXISTUKADA BELODROMOAN

Sekulako txistukada jaso zuen Imanolek 1985-86an ospatu zen Euskal Herriko bertsolari txapelketako finalean saria ematera trapaldora igo zenean.

Lehen aldiz antolatu zen txapelketa Euskaltzaindiaren babesetik at. Bronka dezentea izan zen tartean, baina, hala ere, bertsozale multzo bat (eta bertsolari ia denak atzetik) ausartu egin zen saltoa ematera eta beraiek antolatu zuten txapelketa.

Diputazioari laguntza eskatu zioten, eta Imanolek eman. Eman egin zuen nahiz eta antolakuntzak Euskaltzaindia bezalako erakunde baten bedeinkaziorik ez izan, eta nahiz eta antolatzaileek ez osatu talde finko eta onartua.

BERTSOZALEEN MINA

Urte batzuk beranduago (1991) Rufino Iraola bertsozaleak idatzi zuen: "bertsolari txapelketan txistu jo arren (gidoiak hala eskatzen zuen sobera ere) txistu jole haien artean inor gutxi egongo zen bere buruarekin konforme. Seguru nago bihotzak besterik ziola bati baino gehiagori".

"Amorru galanta" sentitu zuela dio Imanolek, txistukada hura hartzean. Eta ez da gutxiagorako. Ez bakarrik Diputazioak dirua jarri zuelako, baizik eta baita ere bertsozale fina delako bera.

Oso minduta idatzi omen zion Imanol Lazkanori, behin-behineko elkarte antolatzailearen buru egiten zuenari. Sebastian Lizaso txapeldunak, Lazkanok eta Imanolek bazkari bat egin eta urak uherkara etorri omen ziren.

Baina ezin da ukatu ataka txarrean jarri zituela antolatzaileak eurak txistukada hark. Polemikarekin jaio eta erakundeen onarpen soziala ziurtatu gabe zeukan talde bat kili-kolo jar zezakeen. Eta ez da hori bakarrik. Antolatzaileek ezagutzen baitzuten ezagutu Imanol Muruaren bertsolarietako prestutasuna eta maitasuna. Min hartu zutela dio Imanol Lazkanok, eta halaxe esan zioten berari ere:

"Bertsolaritzak eman zion momentu garratz bat ere: 85ean hasi eta 86an bukatu zen Euskaltzaindiaren historia horiek pasatu eta guk antolatu genuen lehenengo txapelketa. Hori antolatzeko elkarte probisional bat

egin zen. Orduan Imanol diputatu zegoen eta normala zen bezala eskaria diputatu bezala egin zitzaion eta eman zigun, luzatu zigun eta gero belodromora saria ematera joan zen. Ez dakit ziur baina ez dakit ez ote zen Nafarroako autobidea bedeinkatu horren garaia; 86ko martxoaren bukaeran.

Igo zen Imanol saria ematera eta jesukristoren txistukada aditu zuen eta niretzat ere Imanol hain gertukoa izan eta hainbeste lagundu zuen eta pena eman zidan baina... Sebastianek irabazi zuen urte hartan.

Orduan eraikuntzako feria zegoen Munichen eta ni haruntz joan nintzen 4-5 egunetarako eta etxera itzuli nintzenean Imanolek idatzitako karta bat nuen; karta zorrotza, txinpartak eta dena atera zitzaizkiola ikusten zen bertan. Ni Alemaniara atera nintzenean jaso omen zuten karta hori nire etxean eta etorri nintzenean ireki nuen eta hitz egin beharra zegoela-eta deitu nion. Ordurako lasaituta zegoen eta nik esan nion antolakuntzan ibili ginenok ere pena handia hartu genuela eta lasai hitz egiteko eguna eta ordua jarri eta bazkaltzera joango ginela. Eta horrelaxe joan ginen Sebastian eta biok Diputaziora eta bazkaldu genuen eta han egin genituen bakeak; bakea bazegoen baina. Mina hartu zuen orduan Imanolek eta hartzekoa zen gainera”.

ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Txapelketa Nagusirako eman zuen diru laguntza ez zen bertsolaritza sustatzeko ematen zuen aurrena.

Kulturako arduradun zela ere emana zuen diru laguntzarik. Eskolarteko lehen txapelketarako hain zuzen ere. Epaimahaian egon zela gogoratzen da Imanol Lazkano, elkarrekin egon zirenez. 1980an izango zela dio Lazkanok. Eta gure Imanolek dio 1981 edo 1982an izango zela.

Nola gogoratzen duen hura galdetzean honela erantzuten dio berak Antxoka Agirrerri:

“Ez dakit ideia norena izan zen. Seguraski laguntza eske etorriko zen norbait. Ni kulturaren nengoen, euskara eta bertsolaritzaren alde egin nahi nuen, eta babes batzuk lortzen saiatu nintzen. Larrazabal zumaiarrak babestu ninduen, eta baita Javier Gomez Piñeirik ere, nahiz eta erdaldu-na izan eta bertsolaritzari buruz zipitzik ez jakin.

81ean edo 82an izan zen aurreneko hura. Orduan bertso-eskola gutxi zegoen, bizpahiru. Indartsuena Aretxabaletakoa zen, eta haiek ekarri zituzten neska-mutiko gehien. Gogoratzen naiz arratsaldean zutela saioa eta goizean Imanol Lazkano, Peña eta hirurok Zabalegira, Kutxaren granjara eraman genituela pixka bat animatzeko. Hiru anaia Sarasua ziren tartean... Jon goizetik lotsagabe-lotsagabe azaldu zen, enano hura, eta gero berak irabazi.

Txapelketa hark ilusio handia egin zigun guztioi. Gerora uste dut garbi gelditu dela oso ideia ona izan zela. Bertsolari berri gehienak bertso-eskoletatik sortuak dira, eta txapelketa hauetan egiten dute errodejua. Bigarrena ere Diputaziotik antolatu genuen, eta hirugarrena uste dut Ikastolen Elkarteak hartu zuela bere gain.

KARIÑOAREN FROGAK, IMANOL LAZKANOK KONTATUTA

Imanol Lazkanok “aho bizarririk gabe” hitz egiten du Imanol Muruaz, bertsolaritzari dion kariño berezia azpimarratuz:

“Horrez aparte, nik uste bertsolaritzari kariño berezi bat izan diola betidanik eta guk elkarte bezala ere eskertzen diogu, izan dugun politikaririk gertukoena izan dugu-eta bera. 24 urte pasatxo dira eskolarteko txapelketak antolatzen hasi ginela eta ni hor ibili naiz epaimahaian eta lehendabiziko urtean han zen Imanol bera ere.

Bertsolaritzari buruz egin zuen baina ondo atera ez zitzaion apustu bat, nahiz eta kristorenak jo zituen: Zavalaren biltegi hori dena eskuratzea zen. Gainera uste dut dezente sinestuta egon zela ia eskuratu zuela eta gela bereziren bat ere egitekotan zebilela uste dut Koldo Mitxelenara eramateko. Apustu potentea egiteko prest zegoela badakit, itsu-itsuan ibili zen baina azkenean ez dakit Jesuitek goitik-edo, ez dakit zer eta, ez zuen lortu eta uste dut pena sentitzen duela.

Bertsolaritza hain sentitzen du barrutik eta horren eraginez bazekien Zavalaren bildumak zer garrantzia zuen, eta zer destino izango duen arrasto garbirik eduki gabe egotetik ateratzea zen horren intentzioa. Hori lortu nahi zuen baina ez zuen lortu; astakeria bat ordaintzeko prest zegoela uste dut”.

Imanolen bertsozaletasun pertsonala gauza bat da, baina horrezaz gainera hor ditugu frogak, Imanol Lazkanoren arabera: eskolartekoari emandako laguntza, txapelketei emandakoa, Auspoa eskuratzeko egindako ahalegina, Zarauzko San Pelaion egindako Bertsolari plaza eta bertako "Bertsolaritzari omenaldia" izeneko Oteitzaren eskultura, Basarri emandako laguntza.

BASARRI SEME KUTUN

Basarri aipatu du Lazkanok. Basarri Zarauzko Seme Kutun ere egin zuen Imanolek. Ia-ia ezin izan zuen, gainera. Horretarako behar den legezko tramitazio guztia jada eginda, udalbatzan hartu beharreko akordioa bakarrik falta zen. Hasi da idazkaria proposamena irakurtzen eta non ohartzen den, irakurri ahala, Basarri ez dela Zarautzen jaio, Errezilen baizik. Herrikoa izatea baldintza da holakoetan. Ezin zen, hortaz, izendapena egin. Denak gelditu ziren isilik, jotama, zer egin ez zekitela. Eskerrak une larri hartan atera zitzaion Imanoli bertsolari sena edo bat-batekotasun hori: beno, Iñaki Eizmendi Errezilen jaioko zen, baina "Basarri" Zarautzen sortua da. Horrela uxatu ziren legezko eskrupulu guztiak, eta Basarri Zarauzko Seme Kutun izendatu ahal izan zuten.

Diru laguntza arloan bada bitxikeria bat: behin Imanolek bost milioiko partida bat proposatu zuen bertsolaritza laguntzeko. Eta hara non, Juntetan, APk (Alianza Popular, oraingo PP) bost milioi gehiago proposatzen duen, herri kulturaren adierazpen hau bultzatu egin behar dela eta. Bosten lekuan hamar gustura jarri zuen Imanolek.

Ahaldun Nagusi bezala ospatu zuen azken bileran, 1991ko ekainean-edo, OHOk ikasleen bertsozaletasuna pizteko hitzarmena onartu zen, eta baita sinatu ere Imanolek Antonio Campos Ikastolen Elkarteko lehendakariarekin. Hamar urte lehenago hasi zela Foru Aldundia, 1981ean, Imanolen bidez orduan ere, bertsozaletasuna ikastoletan laguntzen gogoratu ondoren honela dio Antonio Camposek: "Murua ha sido el alma mater del bertsolarismo escolar y su nombre tendrá que aparecer en letras de oro".

AUSPOA ESKURATU NAHIA

Auspoa Antonio Zavalak sortu eta kudeatzen duen herri literaturako bilduma da. Bilduma baino gehiago altxortegia.

Imanol Lazkanok dio Imanol Murua prest zegoela Auspoa eskuratzeagatik astakeria bat ordaintzeko.

“Astakeria ez dakit baina berak, Antonio Zavalak, eskatzen zuen dena bai —dio Imanolek—: urtean 5 edo 6 milioi: soldata eder bat. Hura dena artxibatu, ondo ordenatu, berak manipulatu... Diputazioak edukiko zuen harako akzesoa baina bera bizi zen bitartean bera izango zen antolatzailea eta kudeatzailea. Guk soldata eder bat agindu genion bere gastuetarako-eta. Hitzarmena dena prestatuta eman zitzaion, sinatuko zuela, eta ez dakit zein aitzakia atera zuen eta...

Oso zaila izan zen; mila bilera egin genituen eta ia-ia hitzarmena sinatzea bakarrik falta zen (kulturako diputatu nengoela eta gero ere bai; bilera asko 1985 bitartean eta ondoren ere bai). Hitzarmena Xabier Lete tartean zela prestatu genuen, bi edo hiru bilera egin genituen. Aurreneko bileran edo aurreneko bietan bera eta Joan Mari Lekuona izan ziren. Hitzarmena egin genuen, gutxi gorabehera eurek nahi zutena: esandakoa, urtean ez dakit zenbat diru, 5 edo 6 milioi, diru hori bera bizi zen bitartean, berak gestionatu eta hiltzen zenean Diputazioaren fondoetara pasatu. Batean aitzakia bat, bestean beste bat, batean Deustura eraman zituztela, bertsolari elkarteak ere atzetik zebilkiola baina berak nahiago zuela Diputaziori utzi eta hau eta bestea. Baina azkenean ezer ez”.

BERTSOZALEA

Ez da egongo afalosteko tertuliarik Imanolek bertsoa bota gabekorik. Galeperrako paretek Imanolen zenbat bertso eta kantu ez ote dute entzun! Baina ez da soziedadeko txapelduna, bera baino hobea bai baitu beste bat: Jose Ramon Urdangarin. Urola-Kostako alkateak biltzen zirenean ere bazuen beste bat hobea: Jose Mari Lizaso Orioko alkate zena. Diputazioan ere bera baino hobea batekin topo egin zuen, Txatorekin, Jose Mari Agirrekin; honek txukun ontzen ditu bertsoak. Baina Imanol ez da atzean gelditu ez batean eta ez bestean. Bera da nagusi saltsa eta giroa sortzen eta saioari hasiera ematen. Horretan ez du parekorik.

Guztiek gogoratzen dute Imanol bertsoa ahoan. Zein harrigarri gertatu zitzaion Xabier Olanori haur bertsolariekin bazkari bat egitera bildu zirenean, Zarautz gaineko Meaga goian, eta Imanol bertsotan ikusi. Gipuzkoako Ahaldu Nagusia ume koskorren parean bertsotan!

Bertsolari-sena edo bertsolari-harra, ez dakit zer duen Imanolek: aitari ikasita bertso mordoa daki buruz, bertsotan ez da sekula aspertzen, bertsolari zahar eta gazteen lana, dena gustatzen zaio. Aseezina da bere bertsozaletasuna.

ZORTZI URTEREKIN HASITA

Txiki-txikitatik hasi zen bertsoa miresten: zortzi urterekin gogoratzen du Zarauzko frontoian entzun zituela Uztapide, Basarri, Xalbador eta Mattin: "Kopak eta trofeoak frontoian sartzen laguntzen aritu nintzen aita esanda, eta ordainetan saioa estradotik ikusten utzi zidaten". Zergatik ez bada ki ere, sekulako tiradizoa egiten dio bertsolaritzak: "Neuk ere ez dakit esplikatzen. Komentatu izan didate koadrilan bertsoekin ez naizela sekula aspertzen, eta egia da. Ni izatez nahiko ipurterrea naiz, eta zineman adibidez aspertu egiten naiz, baina bertsoak entzuten zortzi ordu instante batean pasatzen zaizkit".

Bertsozale amorratua bai, baina bertsolaria?

Berari galdetu izan zaionean, ez du bere burua gehiegi abonatzen:

"Kantitatez bai, baina kalitatez ez. Senide artean eta lagunekin beti egin izan dut. Gero, eduki ditudan karguengatik askotan kointziditu izan dut jaialdietan-eta bertsolariekin, oso tratu handia izan dut gehienekin,

eta hauekin ere askotan eginda nago. Baina beti adarra jotzeko jira horretan. Badakite afizioa dudala, grazia egiten die naizen bezalako txarra izanda atrebitzea, eta beti tentatzen naute. Bilerarik serioenean ere 'Diputatu Nagusiak edo Alkate jaunak ere botako al du bertsoa' eta bertsotan bukatu izan dugu. Herrian antolatzen genituen bertso saioetan... Eta baita parrandetan ere. Jon Azpillaga kinto laguna dut eta maiz samar aritu naiz berarekin”.

AFALOSTEKO BERTSOLARIA

Bertsoa egoki biribiltzen duenik ez dute azpimarratzen. Bertsolari txarra baina ausarta eta animosoa dela esaten dute gehienek. Txispa ere baduela. Patxi Baztarrikak ere ezagutu du zenbait urtetan eta dio ez dela erraza Imanolekin tertulia luzeko afari bat egitea bertsoz bota gabe: “Txarra baina bota, bota beharra izaten du; behar bat da, hor badu zerbait barruan”.

Ez al da hau bertsolariaren definizioa, behar horri irteera bat eman beharra? Hori batetik. Eta bestetik, izan al daiteke bat bertsolari ona bertso txarrak botata? Imanol Muruaz ari dela, Imanol Lazkano ausartzen da bertsolari “ona” dela esatera ere:

“Afal ondorengo bertsolaria da; afal aurretik batere ez. Batik bat bertsoa gustatzen zaiolako eta bestetik su piztailea delako; guk alfer fama pixka bat badugu eta egiatik ere badu zerbait horrek, eta guri su eman eta bazkalondo edo afalondoetan gu zirikatzen gintuen baina ez dugu sekula pelma bezala hartu; alderantziz: eskertu egin diogu.

Ez da beste bat izan inguruan hain bertsozalea eta zaila izango da, gainera. Bertsotan kantatzen baduzu zeuk sinestuta bertsolari ona zarela eta gero gaizki ateratzen bazaizu orduan bai lotsa, baina Imanolek hasterako ere badaki zein den bere maila; natural egiten du bertsotan, ez luzitzeko baizik gustatzen zaiolako, mundu hori maite duelako eta jolas egiteko. Horrela da polita bertsoa”.

Imanolen bertsozaletasuna ez da bertsolari batekin asebetetzen. Zein den bertsolari faboritua galdetzen diotenean bost izen ematen ditu, azpimarratu ondoren askoz gehiago daudela eta guztiak gustatzen zaizkiola:

“Ha sido Basarri, Xalbador como bertsolari poeta. Uztapide como bertsolari irónico. Me gustan todos los bertsolaris buenos y hay muchos buenos. En este momento (1991) Euzkitze y Egaña son de lo mejorcito. El bertsolarismo me gusta mucho. Yo mismo canto ‘bertso zaharrak’ de bertsolaris conocidos y antiguos, aunque soy muy malo y me limito a memorizar”.

Ramón CIRPIAN

Diputazioko idazkaria eta lege gizona

- Imanol es un hombre íntegro, firme, hábil, y con una buena mano izquierda y, además, inteligente y lúcido. Porque en temas muy complejos como son, por ejemplo, los del cupo y las aportaciones, con metodologías y fórmulas complicadas, él las cogía bien. Sabía por dónde se andaba.
- Solía repetir con frecuencia: la peor gestión es la que no se hace. De Imanol yo he conocido sobre todo la gestión, el Imanol gestor, no solamente en el tema político sino en la gestión pura aunque haya que contemplarla en su vertiente política, evidentemente, como en el tema del cupo, etc.; pero también está la gestión de Arteleku, del Koldo Mitxelena o del Archivo de Tolosa.
- Muchas gestiones requerían habilidad y tacto político, es decir, tenía que combinar su adhesión política a su partido con su cargo de Diputado General, y ahí había que hacer equilibrios. Eso le va muy bien.

GIPUZKOAKO LANBIDE ESKOLEN OMENALDIA

Gipuzkoa osoko Lanbide Eskolek, publiko zein pribatuek, elkar hartuta omenaldi hunkigarria egin zioten Imanoli 2004ko maiatzaren 14an.

Eskolan bertan, teknologia berriei esker, bideokonferentziaz jaso zituen Goierriko eskolako, Donostiako Ostalaritza Eskolako eta Usurbilgo Lanbide Eskolako ordezkarien zorionak eta esker ona, Foru Aldundian egon zenean burutu zuen lanagatik batik bat.

Gero, hantxe bertan gela teknologiko modernoenari Imanolen izena jarri zitzaion.

Ondoren, hitzaldien txanda Antonianako aretoan. Mahaiburuan zeuden guztiek eskertu zioten Diputazioan zegoela egin zuen apustua, eta hutsik egin gabe azaldu zioten beren estimua. Bakoitzak bere esparrutik, eta han zeuden, Zarauzko Lanbide Eskolaren izenean Patxi Ostolaza, lanbide eskolen izenean J.A. Arkotxa, Eibarko Armeria eskolakoa; Adegiren partetik Martin Etxeberria, eta Diputazioaren izenean Joakin Villa diputatua; Hezkuntza Sailaren izenean ikasle izan zuen Iñaki Mujika etorri zen, Lanbide Heziketako Zuzendaria.

IMANOLEN APUSTUA

Azken honek, Joakin Villak, esker onarekin batera Imanolen ikuspegi eta apustuaren azterketa fina egin zuen zenbait puntu bereziki azpimarratuz: -Imanolek abilezia handia izan zuen, anglosaxoniarrak esan ohi duten "ability", hau da, gauza izan zen ikusi, erabaki eta ekiteko une delikatu eta zailean.

-Lanbide Heziketaren diagnostiko garbia egin zuen, nahiz eta laban-korra izan urte haietan: bateko, ez zuen prestigiorik; besteko, hezkuntza eta formazio sistema mutur batean zegoen eta sistema ekonomikoa eta enpresariala beste muturrean, elkarri bizkar emanda; eta hirugarren, etengabeko heziketarako eredurik ez zegoen.

-Imanolek ikusi zuen ikusi une egokia zela, europar batasun ekonomikoan sartu behar zenekoa, Lanbide Heziketaren alde apustu estrategikoa egiteko, hiru helbururen bila: heziketa profesionala prestigiatu; hezkuntza erreferente bihurtu; eta ingurune ekonomiko eta sozialari zerbitzu berriak emateko gai egin.

-Lortu egin zuen gainera. Nola? Foru Aldundiak konpromiso instituzional sendo bat hartuta, sektorea protagonista bihurtuta; eta erakunde arteko koordinazioa lortuta: Diputazioa, Eusko Jaurlaritza, Udaletxeak. Hitz batean, konpromisoa apustu parte hartzaile bihurtuz, auzolan.

-Proiektu hau indarrean jarri zenean indar eta konbokatoria handiz jarri zen, konbikzio osoz, eta lan handiz, noski.

-Imanoli esker Gipuzkoak badu gaur lanbide heziketa, erreferente bat dena (ez bakarrik) Gipuzkoan, etengabeko ikasketetarako eredu gisa balio duena, lanposturako bide zuzena dena eta lehiakortasun-abantaila dena enpresa mundurako.

Behin eta berriz azpimarratu eta goraiatzten dira Imanolek indarrean jarri zituen Lanbide Heziketarako Ikastetxeen aldeko inbertsioak eta hiru urteko programa berezia. Imanolek berak ere ekintza horri punta-puntako garrantzia ematen dio:

“Nik esango nuke orduan eman geniola lanbide heziketako ikastetxeei buelta; nik beti ezagutu ditut enpresek baztertzen zituzten makineria zaharrak-eta erabiliz. Programa hau martxan jarri genuenean, batetik, makineria berria erosteko laguntza handiak jarri genituen, eta, bestetik, teknologia berrietan irakasleak formatzeko programarako diru multzo bat ere bai, baita programa horiek erakusteko irakasleak kanpotik ekarri ere, eta enpresekin harremanak bultzatu genituen. Orduan plangintza orokor bat egin genuen ekonomia departamentutik. Ekonomiako diputatua Joxe Mari Agirre zen eta bera ez zetorren mundu horretatik, baina azkar hartu zuen nire ideia eta gero gainera programa jarri aurretik ikastetxeetako irakasleekin bilerak egin genituen eta haiek esaten zutena entzun eta denon artean egin genuen programa berezi bat. Diputazioak diru kopuru handi bat jarri zuen, martxan jarri genuen proiektua eta iraun zuen hiru urteetan sekulako arrakasta izan zuen.

Esan dut programa haiek zirela-eta ikastetxeei buelta eman geniela, gero programa horiek hasiera batean jarri ez zituzten Araba eta Bizkaia-arentzat ere eredu izan ziren eta haiek ere martxan jarri zuten. Uste dut programa hura zela-eta ikastetxeetako zuzendari eta irakasleek egin zuten lanagatik gaur egun Gipuzkoako lanbide heziketako ikastetxeek ez dutela Europako onenen inbidiarik”.

GARIAI GARAICO KUDEAKETA

Ur handitan sartzea litzateke Imanolen agintaldien balantzean murgiltzea. Zer da, gainera, “Imanolena”? Arazo metodologiko-politiko bat bada horretan: gauza bat da Imanolek berak zer asmatu edo bultzatu duen, eta beste bat bere agintaldian parean egokitu zaiona edo bere ekipoak lortu izan duena. Zer den zeinena, eta zein neurritan, erabakitzea ez dagokit niri. Esan nahi baita ekintzen “aitatasuna” ebazteko gunea ez dela hau. Erromatarren garaian “Cesar pontem fecit” (Zesarrek egin du zubia) jartzen omen zuten zubietan, eta irakatsi zigutenez esaldi horrek ez zuen esan nahi Zesarrek bere eskuz zubia egin zuenik baizik eta Zesarren agintaldikoa zela.

Ondorengo errebasoan aipatzen diren proiektu, ekintza eta lanak ez dira irakurri behar Imanolek berak pertsonalki eginak bailiran. Administrazioan egon den garaian proiektatu edo/eta gauzatu ziren, hori da seinalatu nahi dena. Berdin liburuan zehar aipatzen diren beste guztiak. “Imanolek egin du” esaten denean adiera ezberdinetan ulertu behar da, hala Imanolek eta bere ekipoak egin zituela, nola Imanolen garaian egin dela, besterik gabe. Imanoli aitortzen zaiona ez zaio beste inori kentzen.

Gauza jakina da hainbat proiektu Imanolen gogokoagoak zirela beste batzuk baino, besteetan baino indar gehiago jarri zuela batzuetan. Pertsona batek kargu batera iristen denean lauzpabost proiektu handi eta garrantzitsu, eta erdi mailakoak eta txikiak pila bat aukeratu behar dituela esaten zuela Imanolek —dio Xabier Letek—. Horiek dira, handitxoena, liburuan zehar aipatu ditugunak batez ere. Hala nola, Arteleku, Koldo Mitxelena Kulturunea, Udalkidetza, herrietako kultur nahiz kirol ekipamenduak, Lanbide Heziketa, Zarauzko hirigintza eta zerbitzuak. Eta, noski, zerrenda honi erantsi beharko litzaizkiokeen beste asko, hauen parekoak edo garrantzitsuagoak, esaterako, errepide edo saneamendu alorrekoak. Eta zertan esanik ez, maila apalagoko hamaika lan, ekintza eta proiektu erantsi beharko lirateke.

UDALETXEAN

1974tik ezagutzen du Imanolek Udaletxeko bizitza, hasieran zinegotzi gisa, gero 1977tik jarduneko alkate gisa, baina benetako agintaldia 1979ko apirilean hasten dela esan daiteke. Bigarren edo hirugarren agintaldi bat ere izan zuen, 1983an hasia baina burutugabea, 1985ean Ahaldun Nagusi bilakatu zenez. Handik hamar urtera ere itzuli egin zen berriz alkateztara. Bitarte horretan Antonio Alberdi izan zen alkate Zarautzen.

1979an agintea eskuratu zuen ekipoaren lehen inpresioa izan zen, dena zegoela egiteko. Eta egiteari ekin zioten. Lehenengo eta behin plangintza egiteari. Zarauzko beharrak aztertu zituzten sistematikoki, hirigintza eta zerbitzuen aldetik, epe motz, ertain eta luzera. Luzera edo hogeitaz urtera egindakoak ere motz gelditu omen dira Zarauzko hazkundeak aurreikuspenak oro gainditu dituelako. Gaurko Zarautz hastapeneko plangintza hartan oinarrituta omen dago.

Eta plangintzarekin batera, ekintzak, alorrez alor: ura eta saneamendua, hirigintza eta azpiegiturak, hornikuntzak, lurren erosketa.

Ur arazo latza zuen Zarautzek uda partean. Hasteko, epe motzerako irtenbide bat aurkitu zen eta gero Ibai Ederreko urtegia izan zen soluzioa Urola-Kostako udalekin batean.

Ur zikinen arazoa ere arazo larria zen Zarautzen, batez ere "Río Peste" ezaguna, ingurumen aldetik eta osasun aldetik, bietatik arazo. Epe luzerako plangintzari esker 1999an, hogeitaz urtetan lanean aritu ondoren, Imanolek inauguratu zuen depuradora, azken alkatealdian.

Hirigintzan lehen egitekoa? Aurreko urteetako "astakeriak" konponitzeko berrurbanizazio bati ekin zioten, parkeak txukuntzeari, gune berde publikoak sortzeari, etab. Itsasertzeko pasealekuaren proiektua ere lehen agintaldian onartu zen, baliabideak eta laguntzak lortzen zirenerako. Antonio Alberdik egin zuen gestio eta lanari esker lortu zen, eta Imanoli egokitu zitzaion inauguratzea, hogeitaz urte beranduago.

Azpiegiturretan, ur eta saneamenduaz gainera, kableatua herritzeko lanak egin ziren, baseri eta auzoetako bideak, lurpeko pasaguneak, zabortegea txukuntzea eta zaborrak erretzeko labea, batzuk aipatzearen.

Hornikuntzaren kapituluan luzea da zerrenda: kontsultategia, institutua, kiroldegia, haur liburutegia, haurtzaindegia, Gureak tailerra, Jubila-

tuen etxea, Zaharren egoitza, Astiko futbol eta rugby zelaiak, azoka eraberritzea, Kale Nagusiaren birmoldaketa, beste askoren artean.

Zarauzko Udalak lur jabetzarik ez zuela eta, Aritzatalde eta Asti inguruan lurra erosi zituen Udaletxeak; hasiera batean, 52 milioi pezeta inbertituz 60.000 metro bereganatu zituen Udalak.

Esan bezala, 1985ean Imanolek Udaletxea utzi zuen, Diputatu Nagusi aukeratu zutelako, eta Antonio Alberdi jarri zen alkate, aurretik ere zinegotzi eta alkateorde gisa eskarmentua bazuena. 1995 arte bera izan zen Zarauzko alkate. "Hamar urte oso oparoak izan ziren —dio Imanolek—, lan ikaragarria egin zuen Antonio Alberdik. Gure egitarau eta plangintza jarraitu zuen, bere estilo eta kemenarekin, eta ni 1995ean sartu nintzenean, guk hamasei urte lehenago jarritako helburu asko beteta zeuden, eta beste batzuk bideratuta".

1995ean Imanol Udaletxera itzultzen da. Eta 1999an, bere legealdia-
ren balantzea eskatu zaionean, zerranda luzea aurkezten du. Luzeegia da zehazten hastea. Guzti-guztiak aipatzea ere bai. Bat edo beste aipatuko dugu.

Etxebizitzak erritmo bizian eraiki dira: 1.353 egin eta 430 gehiago eginbidean jarri.

Saneamenduan bosgarren kolektorea eta depuradora jarri dira mar-
txan. Uholdeen defentsarako Igerain erreka desbideratu da.

Pasealeku maritimoa burutu da, enblematikoa Zarautzen.

Hirigintzan aparkaleku ugari eta lurpeko garajeak prestatu dira, bederatzi jolastoki haurrentzat, 10.000 m²ko berdegunea Santa Klaran, urbanizazio berrietan bidegorriak, lurpeko azpiegituretan batez ere gasbidea eta zuntz optikoa, autopistaren irteeran errotonda, etc.

Herriko ekipamenduetan ere hainbat lan egin da: Urteta auzoko frontoia eta ermita, Zinema frontoian Gaztelekua, Euskotreneko geltokia, Astiko eserlekuak, kanposantuko hezurtegia, etab.

Abendañoako industrialdean pabilioitan 45.000 m² eta urbanizazioa.

Informazio sakabanatu eta partzial hauek zerbait adieraztekotan herri eta udaletxe baten dinamika azaltzen dute. Eta, noski, jende askoren dedikazioa eta entrega, herriaren aldeko zerbitzu gogoia, herrimina.

FORU ALDUNDIAN

Alkate izateaz gainera diputatu ere bada Imanol 1979tik aurrera. 1983 bitartean batzordetan antolatuta funtzionatzen du Diputazioak. Urte horietan Lurralde antolaketa, Hirigintza eta Ingurugiro batzordeko lehendakaria da Imanol eta Azpiegitura, Errepide, Kultura eta Euskarako batzordeetako kide. 1981etik aurrera, baita ere Diputazioko buruzagitzako kide. 1983an gobernu txiki taxua hartzen du Diputazioak eta orduan Imanol Kulturako Diputatu da, Diputatu Nagusiaren bigarrena izateaz gainera. 1985ean, EAJko krisiaren ondorioz, bera hautatzen dute Diputatu Nagusi, eta 1987ko hauteskundeen ondoren kargu berean jarraitzen du, 1991 arte.

1979an Imanolek ezagutzen duen Diputazioak ez du zerikusi handirik gero kudeatuko duenarekin. Batxeak konpontzeko dirurik ere ez zutela dio. Eskerrak 1981eko Kontzertu Ekonomikoa sinatu zen. Ordura arte, dirurik ez eta azterketak egin, kredituak atera eta aurrekontu bereziekin funtzionatu zuten.

Dirutan ez zuena ilusiotan zuen sobera hasierako ekipoak. Lurralde antolaketa eta ingurugiro batzordetik ekintza ugari burutu zuten, hala nola, MOPUrekin (Espainiako Ministerio de Obras Públicas) horniketa eta Saneamenduko Biurteko Plana sinatu, baserrietan ingurumenari buruzko azterketak egin, baserritarrak lagundu fosa septikoak aldatzeko eta etxeak margotzeko, ibai bazterrak langabetuekin garbitu, zabortegeien plangintza egin (oraindik dirauena), Siadecoren laguntzaz zentsu berria egin, kartografiako lanak bultzatu.

Kultura Batzordetik esku-hartze zuzena izan zuen Imanolek kiroletako ekipamenduetan, Pagoetako Parkeko lehen urratsetan (eta areago gero egokitze lanetan).

Euskarako batzordeko kide ere bazen eta Imanolen eraginez ospatu zen eskolarteko gaztetxo bertsolarien lehen txapelketa (geroago, jada Kulturako diputatu zen ikastoletako bertso eskolak sustatu zituenean), kantaldi eta antzerkien eskoletako zirkuituak antolatu ziren, euskarazko argitaletxeei laguntzak luzatu zitzaizkien.

Errepideko batzordean, jada orduan, Leitzarango ibaiaren kontra-kontra zihoan autobidearen proiektua, MOPUk landua, eta Nafarroako Gobernuak onartua, atzera bota zuten.

Azpiegituretako departamentuan suhiltzaileen plangintza martxan jartzeko lehen urratsak eman zituzten.

1983an Jose Antonio Ardanza Ahaldun Nagusiak Kultura departamentuko diputatu aukeratu zuenean, ilusio eta gogobetez heldu zion lanari. Xabier Lete laguntzaile hautatu eta ekipo gazte bat eratu zuen, eta denen artean oinarrizko plan iraunkor bat finkatu zuten. Gipuzkoako kultur jendearekin, erakundeekin, artistekin sakonean egin zuten lan. "Benetan garai hura oso gogoan dut —dio Imanolek— eta nire bizitza politikoan izan dudak garairik, tarterik politena eta maitatuenetakoa izan zen nire alkatetza lanetik aparte".

Garai hartakoak dira hainbat eta hainbat kultur eta kirol azpiegitura Gipuzkoan zehar, eta gero Arteleku zein Koldo Mitxelena Kulturunea izango diren eraikinen aitzin pausoak. Bi urte eskas iraun zuen kargu hone-tan.

1983ko uholdeetan buru-belarri ibili zen Imanol lanean, bera izendatu baitzuen Ardanzak koordinatzaile. Hainbat egun Diputaziotik irten gabe egon zen, lo ere bertan egiten zuelarik.

1985 urteak aldi berezi bat markatzen du Imanolen bizitza politikoan, bistan denez: Ahaldun Nagusi hautatzen dute eta kargu berean mantentzen da 1991 arte, agintaldi bat eta erdi.

Kargua hartu bezain agudo jartzen du indarrean berak hainbeste maite zituen udaletxeekin harreman zuzenak: Udaletxeen harremanetarako departamentua, Gipuzkoako udaletxe guztietara bisita pertsonalak, urtean bi aldiz alkate guztiekin bilera informatiboak, Udalkutxa diruz indartu, Udalkidetzeta sortu. Udaletxeen aldeko politika hauxe da ez bakarrik kronologikoki lehena baizik eta agian politikoki ere bai. Berau da agintaldiaren ezaugarri behinena ez bada behinenetakoa.

Nahikoa ezagun eta sonatua da errepidetako politika ere, N-Iaren desdoblamentua bai, baina batez ere Leitzarango autobidea.

Gizarte zerbitzuen aurrekontua asko gehitu zen: Zaharren Egoitza mordo bat egin zen, eguneko zentroak orduantxe hasi ziren, lehendik zetozen programak mantentzeaz gainera.

Ekintzen zerrendan erantsi behar dira kiroldegiko instalazioak eta kultur ekipamenduak, ondare historiko artistiko eta monumentalari dagozkienak, udaletxeak eraikin gisa berriztatzeak, Loiolako santutegiko obrak eta Inazio Santuaren jaiotetxea Jesusen Lagundiari ematea.

Kulturaren alorrean nola utzi aipatu gabe, adibidez, luze jorratu ditugun batzuk (Arteleku abian jartzea, Koldo Mitxelena Kulturunea proiektatzea eta obrak hastea, Lanbide Heziketarako plangintza berezia edota %2 kulturala) edota aipatu ere egin ez ditugun beste batzuk, batez ere Tolosako artxiboaren berriztatze, egokitze eta modernotzea.

Agintaldiko ezaugarrien artean daude, halaber, Pagoetako Parkea, Natur Parkea egiteko asmoz Leitzararen erositako 2.390 Ha, urtegiak, Gipuzkoako Uren Partzuergoa, hainbat depuradora, enpresa berriak sortzeko laguntzak, Gipuzkoa 2000 Plan Estrategikoa, PIAS edo Plan Integral de Abastecimiento y Saneamiento (eragin handikoa), gaur arte indarrean egon den zaborren plangintza berezia, Miramar Jauregiaren Partzuergoa, pizgarri fiskalak (sekulako sona izan zutenak enpresaburu eta industria-rien artean, inbertsio handiak egiteko baliagarri izan baitziren).

Zertan esanik ez da programa eta ekintza hauek guztiak ez dituela Imanolek bakarrik sortu, bultzatu eta burutu. Ez dira eksklusiboki Imanolen gobernualdikoak ere osoki: badira aurretik zetozenak, badira gobernualdia gainditzen dutenak, baina denetan Imanolen aldiko Aldundiak gogotik eragin du, noiz Imanolek pertsonalki, noiz gaiari zegokion diputatuak.

Kapitulu beltzean sartzekoak lirateke: Leitzarango autobidea dela-eta sorturiko gatazka, Laporteren heriotza, uholdeak bi aldiz, lehorrea, eurijesak.

Leitzarango autobidearen kasuan, guztira 194 atentatu izan ziren, horietatik hamasei pertsonen aurka: hiru hil eta bederatzi zauritu zituzten.

1990ean Luis Laporte Ogasuneko diputatua hil zen, gaixotasunez. Azken unera arte aritu zen lanean, ahal zuen neurrian, buru-belarri. Berak bazekien gaixo larri zegoela, baina hala ere kontseiluetara etorri egiten zen, lanerako gauza ez izanda ere. "Gogorapen berezi bat eduki nahi dut nik gizon honekin" —dio Imanolek, hunkituta—.

1983ko uholde ikaragarri haien zauriak sendatu gabe oraindik, kredituak ordaindu gabe, 1988ko uztailean berriz gertatu ziren uholdeak. "Mal de ojo" bota ote zioten ere pentsatu zuen inoiz Imanolek, legealdi berean izan baitzuen, uholdeez gainera, nekazaritza larriki kolpatu zuen sekulako lehortea 1990ean, eta Goierri aldean azpian harrapatu zuen guztia txikitu zuen harri-jasa.

Urte horietako memorian eta memoriatan aipagarri dira euskal kultur gizonek Diputazioan jaso zituzten omenaldiak, Imanol Kulturako ardura-dun eta Diputazioburu zen urteetan. Basarri eta Uztapide bertsolariak omenduak izan ziren, Gabriel Celaya olerkaria ere bai. Manuel Lekuonak, Joxemiel Barandiaranek eta Karlos Santamariak omenaldiez gainera urrezko dominak ere jaso zituzten Gipuzkoako Seme Kutun izendapenarekin batera.



Elkarrizketa

Zuk zeuk, eta zure anaiek berdin, familia gogoratzean aita aupatzen duzue batez ere. Ematen du aitarekin identifikatzen zaretela.

Niretzat, aita eta ama, biak ziren miresgarriak eta pentsatzen dut nire senideentzat ere hala izango zirela.

Aita gizon aberatsa zen. Ez zuen dirurik, baina jendearen konfiantza zeukan, eta berak esaten zuen bezala: “Dirua baino garrantzitsuago da konfiantza”.

Aberatsa zen prestakuntza aldetik ere. Ikasketak La Sallen egin zituen duela 100 urte, 1904. urtean hasita, La Salletarrak lehenengo aldiz Zarautza etorri zirenean hain juxtu. Irakurri ere dezente egiten zuen, asko ikusia zen, eta Muebles Arrutiko ebanista eta montadorea zenez, Espainia guztian ibilia zen eta bazter guztiak ezagutzen zituen. Kultura handia zeukan eta kontalari oso ona zen, mimika eta guzti. Ahoa zabalik egoten ginen, haren istorioak entzuten. Behin ere kontatzen ez ziguna zen, gerran eta kartzelan pasatu zituenak; eta behin edo behin hasten bazen, amak isiltzeko eskatzen zion.

Gaztetan, oso kirolzalea eta gainera ona izan behar zuen, berak grazia handiarekin kontatzen zuenez eta bere adineko zenbaitek baieztatzen

zuenez (korrika, futbolean, arraunean, igerian, etab.). Baita ere “herriko saltseroetakoa” zen nonbait, erakunde eta eraketa guztietan hartzen baitzuen parte. Abertzale porrokatua, EAJko kide sutsua, Musika Bandako jolea, Parrokiako Abesbatzako abeslaria, Mollarri Zarauzko futbol taldeko jokalaria, eta baita ere Zarauzko traineruko arraunlaria. Ikus daitekeen bezala, polifazetiko zen.

Fededuna zen, eta kristautasuna antzerkirik gabe aplikatzen zuena. Igan-detan Meza Nagusia abestera joaten zen, eta gero, askotan, Getarian gaixo zegoen adiskide bat bisitatzen. Lagunekin basoerdi batzuk hartu, eta bazkalondoan bertso saioa. Arratsaldean, amak eta biak etxetik irteten ez zen izeko bat bisitatu, harekin kartetan jokatu eta etxera. Horixe zen gure aitaren bizimodua, bizimodu latza baina beti umore onean.

Abertzalea eta besteen ideiak errespetatzen zituen. Bakezalea, eta edozein lekutan, festa jartzen zekiena. Beti besteei laguntzeko prest. “Manitas” bat zen, eta gure etxean ez zen sartzen linternero, igeltsero, elektrizista, erlojero eta horrelakorik. Denak berak konpontzen zituen, etxekoak eta senitartekoenak ere bai. On Mateo Muxika gotzainaren etxeko txapuzak denak ere berak konpontzen zituen. Ez dakit nondik ateratzen zuen denbora, baina ateratzen zuen.

Gizon bezala izango zituen bere akatsak, baina guri ez zitzaigun iruditzen. Oso ezaguna eta estimatua zen herrian, eta ez zirudien etsairik zuenik. Guk eredutzat geneukan.

Baina ama ere ez duzue ahazteko: langilea, jatorra eta kategoriko emakumea omen zen.

Aita miresgarria zen, baina ama ez zen atzera gelditzen. Bere helburua, gizona, seme-alabak eta beren bikoteak ongi eta pozik ikustea zen, bere buruari begiratu gabe. Emakume txiki eta bizkorra, jenio bizia zuen, baina denei on egiteko borondatea. Aita zen bere idoloa, eta seme-alabengatik, beren bikoteengatik eta bilobengatik edozein sakrifizio egiteko prest egoten zen beti.

Eskolarik ez zuen, baina oso azkarra zen, bai hankaz eta bai buruz; beti presaka, korrika zebilela zirudien. Oso fededuna zen eta Arantzazuko Ama

Birjinarengan sekulako konfiantza zeukan. Eguna argitu baino lehenago jaikitzen zen, lehenengo Meza entzun, tratua saldu (arrantzari "tratu" esaten zion), enkarguak egin eta lanean oso berandu arte. Harrigarria zen, eta goizetik gauera egiten zuen lan pila neurtezina.

Muebles Arrutin tapizeritzan, interina, Hotel Zarauzko plantxa, baratzako lanak, On Mateo Muxikaenekoak, etxekoak noski..., ez zen gelditzen.

Dirurik ez genuen, baina hala ere, gu baino gutxiago zutenei lagundu egi-ten zien. Diruarekin, janariarekin edo arroparekin, baina ahal zuen neurrian lagundu.

Lehen esan dut oso bizkorra zela eta korrika zebilela zirudiela, baina aita hil eta hurrengo egunetik, nerbioa joan egin zitzaion eta beste edozein pertsona bezala ibiltzen zen. Bazirudien, aita falta zuenetik, bizitzeko gogoia joan zitzaiola. Handik hiru urtera hil zitzaigun.

Nire haurtzaroa kontatzeko garaian, ezin dezaket amona Rosa aipatu gabe utzi, hura izan baitzen nire mokerreko ebakuntzaren ondoren zaindu ninduen. Bere begietako ninduen, eta hil zen arte berekin egiten nuen lo. Emakume guapa eta elegante bezala gogoratzen dut, ile zuri eta begi urdinekin. Askok maite ninduen, eta nik ere bai bera.

Aitona Joxe oso txikia nintzela hil zen, eta berataz ez naiz ezertxo ere gogoratzen.

Mutiko azkar, bihurri eta kirolzale amorratua gogoratzen zaituzte lagunek, eskolan bezala kalean.

Badirudi hala nintzela. La Salleko anaiak, irakasleak, ikastaroa amaitzerako, azkenengo eserlekuan bakar-bakarrik jartzen ninduen, aldamenekoa mareatzen nuelako nonbait, eta eskolan ona izan arren, makina bat orduerdi igaro nituen Villa Manuelako horma zaharrari begira, zigor bezala (Villa Manuela zen garai hartan La Salletarren egoitza). Ikasketarako erraztasun handia eman zidan gure Jainkoak, eta nire adineko mutil koskorrak baino urtebete beranduago hasita ere (ebakuntzaren ondorioz), amaieran, bi urte egin nituen ni baino zaharragoekin, azkenengo gelan. Alegia, honetarako ebakuntzak ez zuen ondorio txarrik ekarri.

Hno. Inazio Olabeagak, nire gurasoekin hitz egin eta adierazi zien, nire gaitasuna kontuan edukita, merezi zuela ikasketak jarraitzera bidaltzea, eta sakrifizio handia eginez Donostiara bidali ninduten, Lanbide Heziketako Eskolara, beste bost urtetan estudiantzera. Nire beste anaiak ni bezain azkarrak edo azkarrago ziren baina ez zuten nire aukerarik eduki, eta 13 urterekin lanean hasi behar izan zuten.

Egia da kirolzale amorratua nintzela, eta garai hartako kirol gehienak probatutakoa naiz. Atletismoan, futboleak, krozean eta arraunean, federatua nintzen, eta Zarauzko Kirol Elkarteko taldekoa izan nintzen. Herriko festetan, txirindulari karreretan ere parte hartzen nuen, eta baita ere boxeoko borrokatan, nire adineko mutil koskorren aurka, federatuen borrokaren aurretik (hauxe zen gure amak debekatzen zidan kirol bakarra). Udan, berriz, beste kirol guztiak ahazten zitzaizkidan eta golfean jarduten nintzen buru-belarri, golfeko caddientzako lanak amaitu eta gero.

27 urtez Lanbide Eskolako irakasle izan zara.

27 urte jarraian, 1954an hasi eta 1981era arte. Antonianoko Lanbide Heziketako Eskolaren garapena zuzen-zuzenean bizi izan nuen. Nire urterik onenak hantxe eman nituen, sartzen nituen orduei begiratu gabe.

Asko saiatzen nintzen, eta ikasleei ere asko eskatzen nien (beharbada boladetan gehiegi). 1979an, Zarauzko alkate lehenengo aldiz aukeratu nindutenean hain juxtu, Eskola osoak omenaldi hunkigarria eskaini zidan, eskolan 25. urteurrena betetzen nuelako. Handik bi urtera, alkatetzako eta Diputazioko lanak zirela eta, pena handiz Lanbide Heziketa utzi beharra izan nuen. Gero, 1991n, Diputazioan amaitu ondoren, Eskolara itzuli eta, berriz alkate izendatu ninduten arte, beste lau urte egin nituen. Ikasketetan Donostian egin nituen bost urteak eransten baditugu, 36 urte dira Lanbide Heziketari eman dizkiodanak, nire bizitzaren erdia baino gehiago.

Lanbide Heziketaren defendatzaile eta sustatzailea izan zara, eskolan eta agintean.

Lanbide Heziketako urterik txarrenetan ere garrantzi handia ematen nion, eta edozein tokitan nahiz edozeinen aurrean, beti defendatzen nuen,

batez ere gurasoen aurrean. Garai hartan, Oinarrizko Heziketa gainditzen ez zutenak, Lanbide Heziketara bidaltzen zituzten (Legea horrela zegoen), eta ikasketa haiek ez zeukaten batere prestigiorik.

Mutil azkar askoak ere etortzen ziren eta lege hark ez zien batere onik egin. Baliabideak ere oso eskasak genituen, gela bakoitzean ikasle asko, makineria oso zaharra (askotan tailerretan baztertzen zituztenak), baina hala ere nahiko ongi prestatuak ateratzen ziren berez balio zutenak.

Gero, agintean jardun naizenean, saiatu naiz ahal nuen neurrian laguntzen eta bultzada ematen. Diputatu Nagusi nintzela, Lanbide Heziketako ikastetxeei laguntzeko programa bat jarri genuen abian, diru kopuru handi batekin, eta izugarritzko arrakasta izan zuen. Orduantxe eman genion buelta Gipuzkoako Lanbide Heziketako Eskolari, eta geroztik beste lurraldeetakoentzako ereduak dira. Nik esango nuke programa hari eta eskoletako zuzendaritzek eta irakasleek egindako lanari esker, Gipuzkoako Lanbide Heziketako Eskolak Europako onenen pare daudela.

Duela gutxi, omenaldi bat egin dizute Gipuzkoako Lanbide Eskolek, erakundeetatik eskola horien alde egin zenuen lana eskertzeko.

Bai. Benetan pozgarria eta hunkigarria izan zen niretzat. Horrenbeste urte pasatu eta gero, Espainiako “justiziak” inhabilitatu eta gero, garai batean zure lankideak izan direnak horrelako omenaldi bat egitea, saririk ederrena izan zen niretzat. Instituzioek “habilitatu” ninduten (Foru Aldundiak, Batzar Nagusiak eta Udaletxeak), eta orain Gipuzkoako ikastetxeek... esan daiteke nire bizitzan lanean jardun naizen orok omendu nauela.

Instituzio denak, Udaletxea, Diputazioa, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Lanbide Heziketako Eskola guztien ordezkariak etorri ziren Zarautza, eta Antoniano Ikastetxeko gela aurreratuenari nire izena jarri zioten, eta hori irakasle batentzat izugarria da. Beharbada gehiegizkoa izan zen, baina niretzat pozgarria eta oso hunkigarria. Ilusio handia egin zidan.

Gaztelaniaz ikasi zuen belaunaldiko kide zara, euskaldun analfabeto eskolan, eta Etor, Gero, Lur, Jakin eta Zeruko Argia-ko harpidedun. Euskaraz argitaratzen ziren liburu guztiak etxera, garai batean.

Halaxe zen. Guk eskolan gaztelania hutsean ikasi genuen, eta euskaldun analfabeto nintzen. Alfabetatzeko ikastaro bat egin, eta zerbait ikasi nuen, baina ezer gutxi. Horregatik pentsatu nuen irakurriz alfabetatu behar nuela. Gainera, euskarazko argitaletxeei eta idazleei laguntzeko obligazioa sentitzen nuen, eta harpidetuz bi helburuak betetzen nituen.

Klandestinitatean ez zara ibili.

Ez. Erakunde klandestinoetan ez naiz sekula ibili, eta nire ideiak eta karakterra ezagututa nahiko harrigarria da. Beharbada inork planteatu ez zidalako. Hala ere, nire bizitzan zenbait gauza klandestinitatean egin behar izan ditut.

Herriko saltsa guztietan egona zara. Herriko “saltsero karrera” Antonianan hasi zenuen eta gero Guraso Elkartean, Ikastolan, eta denetan buruzagi, presidente, gidari, hauspo emaile.

Lehen esan dudan bezala, lehenengo ikasketak La Sallen egin nituen, eta La Salleko ikasleak Parrokiako Gazteriko kideak egiten ginen. Ni Lanbide Heziketan Antonianon hasi bitartean Parrokialeko kidea nintzen, eta denboraldiren batean baita ere batzarkidea. Gero, Antonianoko irakasle hasi eta berehala, sartu ninduten edo sartu nintzen Antonianako Gaztediko Batzordean. Urte bat batzarkide bezala eta gero lehendakari ezkondu bitartean. Ezkondu eta berehala, Ikastola sortu genuen guraso taldean (alabak bi urte zituela hasi zen Ikastolan, taldea osatzeagatik), handik Guraso Elkarteko batzordekide lehenengo, eta gero lehendakari, eta azkenik Udaletxera sartu aurretik, Ikastolako lehendakari. Zerrenda honetan ez ditut sartu, Kirol Elkarteko, Galeperra Soziedadeko eta Golfeko batzordeko ekimenak, garrantzi handirik ez diedalako ematen, baina haietan ere jardun nintzen.

Sartzen nintzen toki guztietan asko saiatzen nintzen, ordu asko dedikatu, eta gauza berri asko egiten genituen. Batzordeak zuzendu, artikulak idatzi, harpidedunak erakarri, jaialdiak eratu, ikastaroak antolatu, kultur asteak, Parrokiako eta Antonianako ekitaldiak koordinatu eta elkarlana bideratu, langile eta enpresaburuaren artean tartekari egin, ikasleentzako atzerriko elkartrukeak antolatu, autopista atzerago botatzeko eta Talai-

mendi ez zatitzeko kanpainak antolatu (ez alferrik!), hirigintzako hitzaldiak antolatu eta Udaletxeak garai hartan aurrera atera nahi zuen Plan Orokorra hankaz gora bota (plangintza hura onartu izan bazen, gaur Zarautz etxe erraldoiez beteta egongo zen), zarautzar gazteen atxiloketez arduratu, eta alkate, guardia zibil eta epaileen aurrean gestioak egin, Ikastola legalizatu eta berria martxan jarri, etab. Nire Unibertsitatea ibilbide hau izan zen, eta horregatik Udaletxera sartu ginenean ongi prestatuta nengoen.

Guraso Elkartetik Udaletxera jauzia egin zenuen. Kanpotik ezin zena barrutik errazago egitekotan?

Herriko Guraso Elkartetik Ikastolara pasatu nintzen eta handik Udaletxera. Guraso Elkarteko eginkizunetako bat hirigintza nola edo hala kontrolatzea zen, eta egia esan ez zen batere erraza Udaletxearen kanpotik hori egitea. Bestalde, Ikastolako Batzordean Ikastola berria egin beharra geneukan, eta Udaletxean oztopoa besterik ez genuen aurkitzen. Horregatik, bi batzordeak elkartu eta erabaki zuten (ni ez nintzen izan bilera hartan) 1974ko zinegotzietarako hautagaiak aurkeztea. Xabin Unzurrunzaga, Felix Izkeaga eta neu izan ginen aukeratuak, eta gu Tercio Familiarretik aurkeztu ginenean, frankistek izendatuta zeukaten hirukotea erretiratu eta gu izan ginen aukeratuak. Horrelaxe sartu ginen Udaletxean lehenengo aldiz, eta zenbaitek kasu egiteari utzi ziguten, kolaborazionistatzat hartzen gintuztelako. Egia esan, asmatu genuela deritzot, eta beste zenbait gauzen artean gure bi helburuak bete genituen. Urbanismoa kontrolatzen hasi ginen, eta Ikastola berria egiteko oztopoak kendu eta, gainera, laguntza eman genion Udaletxetik ere. Beharbada lehenago sartu izan bagina hobe izango zen, eta gu sartu aurretik egin ziren astakeria urbanistiko batzuk ez zituzten egingo.

Gainera, garai hura zeharo nahasia eta politika aldetik oso interesgarria izan zen. Trantsizioa etorri zen, Franco diktadorea hil zen, manifestazioak, guardia zibilen sarraskiak, atentatuak, Bergarako alkateen taldea sortu genuen, ikurrina legalizatu eta jaso, atxilotu mordoa, etab. Oraingo garaia ez dira errazak baina haiek ez ziren errazagoak.

Gazte ezkondu zinen Maritxu Uriarekin, eta elkarrekin zaudete geroztik. Lau seme alaba izan dituzue.

Maritxuk 23 urte eta nik 26 genituela ezkondu ginen Loiolako Santutegian, aurretik elkarrekin bost urte egin genituen ezkongai bezala, eta gutxi gorabehera beste bi bere atzetik konkistatu nahian. Koadrilako adiskide batek “tonbolan tokatu” zitzaidala esaten zidan adarra jo nahian eta nik merezi nuena baino emazte hobea nuela adierazi nahian.

43 urte bete berriak ditugu elkarrekin, eta geure gorabehera guztiekin zoriontsuak izan gara, eta hala gara.

Lau seme alaba ditugu. Ane, Ander, Imanol eta Itziar. Laurek osasun ederra daukate, eta oso jatorrak iruditzen zaizkigu. Denek lana daukate eta inguruan bizi dira. Aspaldi independizatu ziren gurasoengandik, baina noiznahi etxean izaten ditugu bisitan, eta askotan elkartzen gara denok mahai inguruan. Beren artean oso ongi konpontzen dira, eta gurekin ere bai.

Bi biloba ere baditugu, Xanti eta Malen, eta zorutzen gaude. Seme-alabekin pasatu ez nituen solasaldiak pasatzen ditut beraiekin oso ederki, eta berak ere oso pozik egoten dira aiton-amonarekin. Ezin dezakegu gehiago eskatu.

Etxean baino kanpoan gehiago egona zara, herriaren alde. “Aita bileran” esaten zien amak haurrei.

Halaxe da. Sartzen nintzen lekuan buru-belarri sartzen nintzen eta horrek ordu asko eramaten zizkidan, etxerako kaltetan. Bileretan ordu asko pasatzen nituen, eta kudeaketan ere bai. Lagunartea eta parranda ere asko gustatzen zitzaizkidan, eta libre nituen ordu gutxietatik batzuk (batez ere larunbatetan) koadrilarekin igarotzen nituen, eta Maritxu bakarrik, umeekin.

1961ean ezkondu eta 1967an Guraso Elkarteko Batzordean sartu nintzen arte, Lanbide Heziketa izan zen nire jardunaren ardatza eta lekua. Urte haietan, eskolak hazkunde eta garapen handia izan zuen. Eskola emateaz gainera bestelako ardurak ere banituen eta horrek guztiak ordu asko era-

maten zizkidan (goizeko 8etatik, gaueko 10ak arte, otordurako denbora kenduta), eta etxerako denbora gutxi.

1967tik aurrera, berriz, eskolatik aparte Guraso Elkartea, Ikastola, Golfa, Udaletxea eta Diputazioa, eta tartetan koadrila, oso denbora gutxi gelditzen zitzaidan etxean Maritxu eta haurrekin jarduteko. Igande eta jaiak eta hori ere ez beti.

1968an golfeko bazkide egin ginen eta larunbat arratsaldea eta igande goiza golfean jokatzerako joaten ginen, eta etxerako igande arratsaldea bakarrik gelditzen zen. 1968tik 1974an udaletxera sartu nintzen arte, libre nituen ordu gutxiak golf zelaira joaten nintzen, eta hori ere familiari orduak kenduta egiten nuen.

Noizik behin hartzen genituen egun batzuk, kanpora joan eta familia osoak elkarrekin gozatzeko.

Haiek beste garai batzuk ziren, eta ziur asko garai hauetan horrela jokatzerik ez nuen izango eta nola edo hala familiari ordu gehiago eskaini beharko nioke.

Nik badaukat hartxo bat, familiari zerbait zor diodala. Seme-alabak txikiak zirenean ez nuen denbora gehiegi beraiekin pasatzen eta ardura guztia Maritxuk hartu zuen, ni hortik zehar nenbilen bitartean. Horregatik zorretan sentitzen naiz seme-alabekin eta batez ere nire emazte Maritxurekin.

Beti izan duzu alboan Maritxu emaztea, eta honen babesa, laguntza, aholkua.

Maritxuren beharra izan dut nire bizitzan zehar. Batetik seme-alabak hazteko eta nire hutsuneak betetzeko, eta bestetik, babesa, aholkua, laguntza eta animoa emateko, batez ere une zailetan eta estualdietan. Beti izan da oso orekatua. Une zailetan serenitate handikoa, eta nire euforia garaietan fretoa jartzen zekiena.

Oso tolerantea baina aldi berean zuzena.

Maritxuk zeraman etxeko ardura. Seme-alaben ardura eta heziketa, batez ere txikiak eta gaztetxoak zirenean, eta administrazioa. Nik irabazten nuena eraman eta Maritxuk administratu, boladatan nahiko estutasune-

kin, adibidez alkatetzako lehenengo bizpahiru urteetan, eta gerora berriz nahiko lasai. Estutasun garaietan ez zen kexatzen, baina lasaitasun unetan harrotu ere ez. Babesa beti, eta aholkua eskatzen nionean.

Niri ez zitzaidan gustatzen Udaletxe edo Diputazioko arazoak etxean konstatzea, baina kezkatuta nengoenean Maritxuk berehala antzematen zidan eta lasaitzen saiatu. Atxilotu nindutenetan, edo mehatxatuta egon nintzenetan, lehenengo guardia zibilengandik eta gero ETArengandik, bera zen besteei patxada edo serenitatea transmititzen zekiena, bere sentimenduak kanpora gehiegi atera gabe. Nire larrialditan lasaitasuna ematen zidan eta "euforiko" jartzen nintzenean freno jarri. Zerbait ongi ateratzen zitzaidanean ere nabaria izaten zen, eta nire poza kanpora ateratzen nuen batzuetan gehiegi ospatuz. Hori ez zitzaion batere gustatzen eta eskuko freno jartzen zidan, haserretu behar bazuen haserretuz. Bai, Mari txuren beharra izan dut nire bizitzan, eta ez dauka meritu makala, horrenbeste urtetan ni aguantatu eta lagunduz.

Bizitza publikoan urte asko egin dituzu. Ez omen zara politikaria, politikari atipikoa omen zara, animalia politiko peto-petoa omen zara, denetik diote.

Politikaria izan gabe ez da erraza izango 25 urte jarraian kargu politikotatik jardutea. Herriko erakundeetan jardun eta gero Alkate, Diputatu, Diputatu Nagusi, Legebiltzarkide eta Batzar Nagusietan bozeramaile izan eta gero politikaria naizela zalantzan jartzetik ez dut uste dagoenik.

Batzuentzat, politikari izatea "tropa" izatea da, alderdi barruan karguen atzetik ibiltzea, azpijokoa eta gerra zikina erabiliz beharbada, etab.

Politika horrela ulertzen dutenentzat ez naiz politikaria, noski, ez bainaiz horrelako jokoetan erori behin ere. Baina niretzat hori ez da politika, "politikaria" baizik.

Politika egiteko modu desberdinak daude eta ezagunenak bi dira: alderdiek eta alderdikideek egiten dutena, eta erakundeetatik herriko ordezkariak egiten dutena. Ni beti bigarren honetan aritu naiz eta saiatu naiz herriaren eta herritarren zerbitzuan jarduten, nolabait erakunderako herriaren "morroi" izaten. Niretzat hori baita politikari izatea: herriaren

onerako diren ekintzak pentsatu, antolatu eta kudeatu ahalik eta pertsona gutxien kaltetuz edo minduz (denen ona bilatu behar da baina gehienetan ezinezkoa da).

Alderdiek eta alderdikideek egiten duten politika ere herriaren eta herriarren zerbitzuan egin behar da, bakoitzak bere ideologia ezarriz eta herrian ezarri nahian. Beharbada hau zailagoa da. Batetik beste alderdiekin harremanak, bestetik alderdi barneko pentsaera desberdinak uztartu beharra, eta azkenik herritarrekin "konektatzea" ez da gauza erraza. Ni zuzenean ez naiz inoiz jardun baina oso hurbildik bizi izan dut eta arazo hauek ere nahiko ongi ezagutzen ditut.

Gaur egun, politikak eta politikariek ez daukate fama onik, baina nire iritzian politika apasionantea da, behar-beharrezkoa, eta beste ofizio guztietan bezala denetik ikusten da. Agintea bere zerbitzurako erabiltzen dutenak ere badira noski, baina bestelakoak gehiago zorionez. Alderdietan ere badira "alderdikeria" erabiltzen dutenak; hau da, alderdien interesa herritarrenen gainetik jartzen dutenak.

Esan dudana. Beste ofizioetan bezala badaude politikari txarrak, erdipurdikoak, eta onak. Nik ez dut neure burua kokatuko, hori besteek egin behar dute, baina politikaria izan naizela, eta naizela, ez dut uste dudarik dagoenik.

Alkateen Bergarako Taldekoa izan zara. Garai zaila bezain interesgarria.

Benetan garai zailak eta interesgarriak ziren, eta talde hark trantsizio garaian jokatu zuen papera oso garrantzitsua izan zela deritzot, baina harrigarria bada ere ez da ezaguna.

Garai hartako alkate abertzale independenteek osatu genuen taldea (1975-1979), eta protagonismo handia izan zuen, batez ere Gipuzkoan 1977an alderdi politikoak martxan jarri arte.

Jose Luis Elkoro Bergarako alkatea izan zen liderra; eta taldea abertzaleen eta demokraziaren suspertzaile izan zen. Errebindikazio mordo bat egin genuen, bilera ugari oraindik legalizatu gabe zeuden alderdien ordezkariekin, eta Madrilgo agintari eta ministroekin: Areilza, Marcelino Oreja, Mar-

tin Villa, Gutierrez Mellado eta abar. Amnistia orokorra, Foruen berreskuratzea, Autonomi Estatutua, ikurrinaren legalizazioa, Lemoiz gelditzea, udal hauteskundeak aurreratzea eta beste zenbait eskaera eta errebindikazio egiteko udalbatza bereziak antolatu eta egin ziren nahiz eta garai-ko gobernadoreak debekatu.

Esan bezala, garai oso zailak izan ziren; zailak eta aldi berean interesgariak. Taldea 1975ean sortu zen eta indarra 1976an hartu zuen. Batez ere 1976an bilera mordo baten ondoren bi ospakizun antolatu zituen, bat Bergaran eta bestea Etxarri-Aranatzen; Bergaran Foruak berreskuratzeko eskatuz uztailaren 21ean Foruen desagertpenaren 100. urteurrena betetzen zen egunean, eta Etxarri-Aranatzen handik denbora gutxira beste errebindikazio mordo bat, amnistia, Estatutua eta abar eskatuz. Bi ekitaldi haiek izan ziren oso garrantzitsu eta arrakastatsuak, baina udalbatzetan izugarritzko bilera pila eta osoko bilkura berezi mordoak egin ziren izugarritzko mugida sortuz batez ere. Oso une zailak ziren, salbuespen egoera ere jarri zuten, atentatu batzuk izan ziren; guardia zibilek sarraski eta hilketak egin zituzten; Zarautzen bertan ere bat baino gehiago izan genituen, atxilotu mordo bat. Garai hartan hil zuen ETAk Aingeru Berazadi, Araluze Gipuzkoako presidentea eta handik urtebetera-edo Bizkaikoa ere. Bahiketak ere izan ziren. Lemoizen aurkako mugimendua ere orduan sortu zen. Garai hartako kronologia egingo bagenu oso luzea aterako litzateke eta ez dut uste elkarrizketa honetako gaia denik.

1977ko ekainaren hamabostean, Kongresurako hauteskundeen ondorenean, Euskal Legebiltzarkideen Asanblea eratu zen, eta haien ordezkariekin ere bizpahiru aldiz Autonomi Estatutuari buruz hitz egiteko bildu zen taldea. Gero alderdi politikoak eta beren ordezkariak lanean hasi zirenean, taldeak pixkanaka protagonismo politikoa hauen eskuetan utzi eta 1979ko udal hauteskundeen aurretik desegin zen.

Guraso Elkartean, gero Gestoran, ez zinen talde politiko jakin batekoa. Herriaren alde ari zinen, alderdi edo talde jakin bati lotu gabe. Zerk bultzatu zintuen alderdi batera, eta zergatik PNVra?

Guraso Elkartean, Ikastolan eta Udaletxean, lehenengo urtetan, ez nintzen inongo alderditakoa. Independentea nintzen, eta aske jokatzen nuen

Batzordetan nire iritzia azalduz eta erabakitzen zena kudeatuz, askatasun osoz, eta nire abertzaletasuna ezkutatu gabe. Independentziarekin jokatu nuela honetxek frogatzen dezake: 1979ko Udal hauteskundeetarako, alkatetzako hautagaitzarako, hiru alderdik proposatu ninduten: HB, EE, eta EAJk.

EAJ aukeratu nuen, nire ideiarekin hobekien zetorrelako. Ama eta aita EAJkoak ziren, bere historia zerbait ezagutzen nuen, etxeko giroa joera horretakoa zen, eta neu beste alderdietatik baino hurbilago sentitzen nintzen. Oso garbi neukan neure aukeraketa eta dudarik ez nuen egin.

Hiru aldiz izan zara Zarauzko alkate izendatua. Lehen alkate-aldiko aktek bronka ugari jasotzen dituzte, giro politizatuaren ondorio. Aktetan agertzen ez dena da bronkako protagonista berak segidan basoerdi bat hartzera tabernara gonbidatu eta han segitzen zenutela solasean.

Guraso Elkarteko eta Ikastolako Batzordetan ikasi nuen batzordeetako haserreak edo tentsioak elkarrekin basoerdi batzuk hartuta berehala berehala zirela, eta Udaletxean ere politika bera jarraitzen saiatu nintzen. Posible izan zen bitartean gaiak hobeto joaten ziren. Gerora, gauzak okertu ziren eta tamalez giroak ez zuen laguntzen solasaldi horiek edukitzera. Bilerak amaitu eta bakoitza bere aldetik joaten ginen.

Zure ibilbidean, Guraso Elkarteko Lehendakari bezala eta Alkate gisa, atentzia ematen du zure prestutasunak zarauztar atxilotuen eta presoen laguntzan, bisitak eta gestioak eginez, bai poliziaren aurrean, bai epaileen aurrean aurpegia emanez.

Zarautzen, lehenengo atxilotetak, 1967 aldean izan ziren, ni Guraso Elkarteko batzarkide nintzela, eta lehendakaria kanpoan zenez, ni joan nintzen alkatearengana eta guardia zibilengana informazioa jaso eta atxilotuez interesatzera. Geroztik, Guraso Elkartean, Alkatetzan edo Diputazioan, atxilotuez informatzera eta interesatzera joaten nintzen. Alkatearengana, guardia zibilengana eta epailearengana. Atxilotuen gurasoak etortzen ziren zerbait egiteko eskatzera eta ni beti prestatzen nintzen. Zarauzko Guardia Zibilak ez zuen ulertzen edo ez zuten ulertu nahi nik organizazioarekin zerikusirik eduki gabe atxilotuez interesatzea, eta haiek eraba-

ki zuten neu nintzela Zarautzen ETaren ordezkari, eta gazte haien buru edo zuzendari. Aitzakia batekin edo bestearekin atxilotzen nindutenean, hori aitortzeko ahalegin guztiak egiten zituzten, eta herrian berari interesatzen zitzairen tokietan hori esaten zuten, eta zenbait pertsoneri sinestarazi. Don Evaristo Zarauzko sendagile ospetsuak asko ezagutzen ninduen, eta berak esan zidan guardia zibilak gezur hori zabaltzen ari zirela. ETak, Golfean lehergailua jarri zuenean, Golfeko batzordeko lehendakariari ere horixe bera esan zioten, eta han jardun behar izan nuen argibideak ematen. Hala ere, batzuentzat, zalantza han gelditu zen, Guardia Zibilak gezurrik esaten ez zuela pentsatzen baitzuten.

Bolada batean sarekada latzak egiten zituzten eta gazte mordoska atxilotzen zuten. Guardia zibilaren eskuetan egun batzuk oso larri igaro (gehienean torturatuak izaten ziren) eta epailearengana pasatzen zituztenean, asko libre gelditzen ziren inongo kargurik gabe.

Guraso Elkartean (1967-1972) nengoela, lehenengo alkatearengana joaten nintzen, eta hark ezer ezin zuela egin esaten zidanean (beti erantzun hori izaten zen), Guardia Zibilarengana (Zarautza, edo Donostiara) eta gero epailearengana (hasieran Donostiara, eta gerora Madrila). Alkate nintzela, zuzenean guardia zibilengana, noski, eta ezer egiterik ez zegoela ez zen egia. Alkatea interesatzen zenean, guardia zibilak kontu gehiagorekin ibiltzen ziren, eta epaileek gehienetan atxilotuen egoeraz zehatz-mehatz informatzen zidaten. Epaileak berak, hartu ezin nindutenean, bere idazkariak gehienetan atestatua irakurtzen uzten zidan, eta horrek asko balio zuen bai familiari informatzeko eta baita ere jarraipena egiteko.

Donostiako Epaitegian, abokatuak nola mugitzen ziren ikusiz, ikasi nuen nik ere mugitzen, eta epaile batekin baino gehiagorekin bermea negoziatzen jarduna naiz.

Gestio guztiak egin arren, batzuk (guk nahi baino gehiago) espetxera eramaten zituzten, eta orduan epailearen baimenarekin (orain zailagoa da) bisitatzen joaten nintzen. Carabanchel, Yeserias, Aranjuez, Valentzia, Burgos, Nanclares de la Oca, Martutene, Basauri, eta ahaztuta daukadan besteren bat ere bisitatu nituen.

Eginkizun hauek ez ziren beti atseginak, baina, hala ere, nire obligazio bezala hartzen nituen eta gurasoek gehienetan asko eskertzen zituzten.

Liburu honi “Imanol Murua, Gipuzkoako alkate” jarriko banio?

Niretzat ohore handia izango litzateke. Nik beti esan ohi dut nor bere herriko alkate izatea baino ohore handiagorik ez dagoela, eta gipuzkoarra izanik, eta Gipuzkoa herri eder bat bezala harturik, Gipuzkoako alkate bezala kontsideratzea, niretzat ohorea litzateke.

Diputatu Nagusi aukeratu arte, diputatu eta Zarauzko alkate izan nintzen, eta ezagutzen nituen alkateen zenbait arazo. Horregatik, Diputatu Nagusi hautatu ninduten bezain azkar, Udal harremanetarako Departamentua sortu eta Jesus Mari Akizu, Sorluzeko alkatea ohia, izendatu nuen diputatu, Diputazioa-Udala eta Udala-Diputazioa harremanak hurbildu eta alkateen lanak errazteko. Akizuk ere ongi ezagutzen zituen Udalen arazoak, eta lan oso egokia eginez helburua lortu genuela deritzot.

Horretarako, lehendabizi, Gipuzkoako 82 herriak bisitatu genituen, zituzten arazoak eta beharrak bertatik ezagutzeko. Aurrena herrietako zinegotzietekin bildu, eta gero bailarako alkate guztiekin. Oso interesgarriak izan ziren harreman haiek eta emaitza onak izan zituzten. Garai hartako komunikabideek ere garrantzi handia eman zieten, eta ni ederki jabetu nintzen egiazko Gipuzkoaz eta Gipuzkoaren edertasunaz. Esan daiteke bidaia haie-tan Gipuzkoarekin maiteminduta gelditu nintzela.

Departamentu berria sortu aurretik, alkateek beren gestioak egiteko Diputazioan alde batetik bestera ibili behar izaten genuen, eta geroztik diputatu berriak bideratzen zituen harreman guztiak denon lana erraztuz.

Departamentu berriarekin batera, beste aldaketa sakona eta oso garrantzitsua (beharbada garrantzitsuena) diru banaketarena izan zen. Alde bate-tik, zergen dirutik jasotzen zuten diru kopurua (FOFIM) igo eta banatze-ko sistema aldatu genuen, egokiagoa eta justuagoa ezarriz. Udalkutxa bataiatu genuen. Beste aldetik, Udalkidetzeta izendatu genuen hiru urtera-ko Plangintza Berezi bat jarri genuen indarrean. Diru erabileran Udalen autonomia asko indartu zuen, eta ongi hartua izan zen. Emaitza oso onak

eman zituen eta Udalek, plangintza honi esker, inbertsio handiak eta ego-kiak egin zituzten beren herrietan.

Ikusmolde honetatik, liburuak izenburu hori eramatea gustatuko litzaidake.

Zure esaldi bat entzun diot bati eta besteari: gestiorik txarrena egiten ez den hura da.

Ez dakit nik asmatua den edo beste bati entzundakoa, baina egia dela zalantzarik ez daukat. Behin baino gehiagotan gertatu zait badaezpada kudeatutako zerbaitek emaitza onak ematea. Gestiorik egiten ez baduzu, ezezkoa ziur daukazu.

Askotan gertatu zait jardun naizen tokietan, Guraso Elkarteetan, Ikastolan, Udaletxean edo Diputazioan, gai aldrebesetan edo delikatuetan sartzeko gogorik ez nuenean sartu beharra izatea eta gestio zailak egokitzea, baina sartuz gero oso gutxitan damutu naiz.

Atxilotuekin, maitemindutako bikoteen gurasoekin, senar-emazteekin, lantegietako grebetan, eta herrian gertatzen diren hainbat gai delikatu edo xelebretan bitartekaritza egin beharra egokitu zait, eta arazoak konpondu edo bideratu egin genituen gehienetan.

Madrilgo Ministerioetan ere, eskumenak han zeudenean, baldin denborarik banuen, badaezpada ere sartu-irten bat egiten nuen halako edo hola-ko Ministerioan, interesatzen zitzaigun obra edo zerbitzuren baterako ea diru laguntzarik ba ote zegoen jakiteko, eta behin baino gehiagotan aztarren onak atera nituen. Hori dela eta, esaldi hori askotan erabiltzen nuen.

Urte asko egon zara “agintean”, modu batera edo bestera: taldeburu, alkate, diputatu. Eta eroso ikusi zaitugu. Oposizioan ere egon zara, EAren bozeramaile BBNetan. Baina ez horren eroso.

Jardun naizen toki guztietan, gauzak eratu eta egitea izan da nire lana, eta badakit gauzak aurrera ateratzea ez dela erraza izaten. Agintean nengoenean, Udaletxean eta Diputazioan (oposizioaren lana beharrezkoa dela aitortu eta gero), ezagutu nuen baita ere oposizioaren lana eta estrategia. Eta oposizio hitzak adierazten duen bezala, agintean dagoena kontrola-

tzea eta ahal duen neurrian aurka egitea da bere lana. Horrek, gehiengotan, zaildu egiten du gobernatzen ari denaren lana. Horregatik, gauzak egiten, eta programak aurrera ateratzen, oso eroso sentitzen nintzen, nolabait esateko hura zen betetzen ninduen lana, baina oposizioan ez nintzen hain eroso sentitzen, oztopoak jartzen ari nintzela iruditzen zitzaidalako. Hala ere oposizioan jardun nintzenean, saiatu nintzen EAko bozeramaile lana behar bezala betetzen, eta bete nuela deritzot, askotan gogoz kontra egiten banuen ere.

Madrilgo Ministerioetako pasiloetan etxean bezala ibiltzen omen zinen, alkate izan aurretik hasita.

Etxean bezala ez, baina ibiliaren poderioz ikasi nuen mugitzen. Lehenengo, 1972an hasi ginen Madrila joan-etorriak egiten, Ikastola legalizatzeko aurrena, eta gero "de interés social" izendatzeko gestioak egitera.

Gero, alkate bezala, sarritan joan behar izaten nuen, denerako eskumenak bertan baitzeuden, eta gauzak lortzeko mugitu beharra zegoen. Ekintza desberdin asko jarri genituen abian, eta tramitazioari pista jarraitu behar zitzaion hurbiletik. Nire idazkariak astero deitzen zuten Ministerioetara eta zerbaitek martxa normala ez baldin bazeraman, kotxea edo hegazkina hartu eta Madrila joaten nintzen auzia desblokeatzera. Askotan, goizean joan eta arratsaldetako batzordeetarako berriz Udaletxean. Latoso xamarra nintzen, eta ziur nago gauza bat baino gehiago lortu genuela lata ematearen poderioz.

Ministerio batzuetan lagunak ere egin nituen; batez ere zerbitzuburu ziren funtzionarioak edo zuzendari orokorra eta baita hauen idazkariak ere, zeren eta askotan hauek konpondu behar izaten baitzituzten arazoak, txostenak egin, pausoak aurrera eraman, tramitazioa azkarrago pasatu eta abar. Hauen eskuetan egoten ziren espediente gehienak eta hauekin ondo egotea bezalakorik ez zegoen. Askok pentsatzen zuten ministro edo goi karguengana jo behar zela; eta batzuetan, noski, jo behar izaten da gaia oso garrantzitsua denean eta funtzionario hauek desblokeatu ezin dutenean edo goikoen baimena behar dutenean. Baina bestela tramitazio arruntetarako pertsona hauekin egin behar izaten da lana. Ni beti oso

ondo konpondu izan nintzen; behin ere opari berezirik-eta eraman gabe, eta haiek laguntzen zidatelako gauza asko lortu nituen.

Zure ibilbide politikoan larrosak izan dira, noski, baina arantzak ere bai. Bat EAJ/EA banaketa: zu ez zinen hausturaren aldekoa, nahiz eta kritiko beroa izan. Diferentziak korronte gisa antola zitezkeela pentsatzen zenuen. Saiatu omen zinen haustura saihesten.

Egia da. EAJren zatiketa askorentzat trauma bat izan zen eta niretzat ere bai. Garai haiek oso gaizki pasatu nituen. Haustura baino lehenago, denbora luzean jarduten ziren elkarren aurka, egunkarietan, irrastian, etab. Biltzarretan eztabaidatutako gaiak egunkarietan filtratzen ziren, beste taldekoak erasotzeko, egunero alde bateko edo besteko artikulua azaltzen ziren egunkarietan, biltzarretan elkarri kristorenak esaten zizkieten, eta niretzat jasanezinak ziren. Herriaren aurrean ikuskizun lotsagarria eman genuen, eta azkenik etorri behar zuena etorri zen. Ni beste batzuekin saiatu nintzen haustura saihesten, baina alferrik izan zen. Batzuek pentsatzen zuten gutxik alde egingo zutela Alderditik eta ez zela aldaketa handirik gertatuko, baina nik ez nuen horrela pentsatzen. Gero pentsatu izan dut beste erremediorik ez zegoela. Alderdi barruan bi alderdi zeuden, eta zenbait alderdikideren artean gorrotoa ere bai. Gauzak jarri ziren bezala bazirudien beste erremediorik ez zegoela, baina nik asko sufritu nuen.

Haustura gertatu zenean denboraldi bat pasatu zenuen kolokan, inon kokatu gabe.

Haustura gertatu zenean, duda askoren ondoren, lehenengo erabaki nuen EAJ utzi eta beste inon ez sartzea, eta halaxe adierazi nien hitz egitera etorri zitzaidan Alderdiko batzorde bati. Une hartan horrela pentsatzen nuen, eta horixe esan nien. Denbora gutxira, inoren presiorik gabe, EAn afiliatzea erabaki nuen, eta batzorde hari esandakoa ez nuen bete. Haiek pentsatuko zuten gezurra esan niela, baina ez zen horrela. Momentu hartan pentsatzen nuena esan nien, baina denbora gutxian aldatu egin nintzen.

Nonbait politikaren harra barruan neukan eta gainera iruditu zitzaidan une zail haietan uztea nola edo hala koldarra izatea zela. Pentsatu nuen nire bokazioari edo barruan neukan harrari jarraitu egin behar niola ondoen egongo nintzela iruditzen zitzaidan lekuan.

Une hartan niretzat askoz errazagoa zen Eusko Alderdi Jeltzalean geratzea, politikari gisa ere etorkizun hobea neukala pentsatzen nuen; baina, bestalde, nik krisi eta eztabaida hartan ikusi nituen postura eta jokabideak ikusi ondoren ez nengoen eroso Eusko Alderdi Jeltzalean.

Une zail haietan ere nire emazte Maritxuk asko lagundu zidan, asko lasaitu eta baita erabakia libre-libre hartzen utzi ere. Lehendik Eusko Alderdi Jeltzalearekin neuzkan loturak, loturak ziren, baina ikusten nuen une berri bat zetorrela eta pentsatu behar nuela non egongo nintzen erosoago kokatuta, nahiz eta boterea galdu; une hartan horrela pentsatzen baike-nuen! Ez dut uste momentu hartan inork pentsatzen zuenik EAra pasatu eta hurrengo Diputatu Nagusi izango nintzenik. Gogoratzen naiz nirekin zeuden diputatu guztiei banan-banan deitu eta erabakiaren berri eman nienean ordura arte oso kritikoa izan zen diputatu batek “a caballo perdedor” jokatzeko nuela esan zidala eta bera EAJn geratzen zela. Nik erantzun nion erabaki hura hartzeko momentuan ez nuela pentsatzen “ni en ganador ni en perdedor”, neure kontzientziarekin lasai geratzea bakarrik pentsatzen nuela eta nire kontzientzia lasaiago geratuko zela EAra pasatuta.

Garai zail haiek horrelakoxeak izan ziren.

EAJ alderdia uzteak pena eman zizun, baina damurik ez. EA sortu zelarik barruan oso eroso sentitu izan zara alderdi berriak erakutsi duen sentsibilitatearekin eta defendatu dituen helburuekin.

EAJ uzteak benetan pena eman zidan une haietan. Gogorra izan zen benetan, baina denbora gutxira beste erremediorik ez zela egon pentsatzen nuen, eta pixkanaka disgustua pasatu egin zitzaidan.

Dudarik gabe EAn oso eroso sentitu naiz, eta beti bat egin dut bere ideologiarekin, bere sentsibilitatearekin eta bere helburuekin, eta nire aginte garaian bere ildoak jarraitzen saiatu naiz beti.

Normala denez, ez naiz beti ados egon bere erabakiekin, baina nahiz eta nire gustukoa izan ez (eta hori oso gutxitan gertatu zait), beti errespetatu izan ditut alderdiak hartutako erabakiak eta behin ere ez naiz irten egunkarrietan nire ezadostasuna adieraztera; ez EAJn egon nintzenean eta ezta EAn ere. Horrelakoetan, erabakiak gustatu ez izan arren, onartu egiten nituen eta gehiengoak hartutako erabakiak beti errespetatu. Nik ustedut alderdikideek hori garbi eduki beharko luketela alderdi batean sartzeko garaian. Zaila izaten da alderdi baten postura edo puntu guztiekin ados egotea baina bakoitzak bere desadostasunak alderditik kanpora ateratzen baditu horrek oilategi bat emango luke alderdi politikoaren ordean, eta askotan hori gertatzen da tamalez alderdi gehienetan, guztietan ez esateagatik.

Banaketaren alderdi mingarrietakoa, seguruenik, anai-arreben arteko banaketa egin zitzaizun: bi anaia EAJra eta beste bi EAra zurekin. Senide arteko harremanetan eraginik izan al du?

Nik Alderdia utzi eta EAra pasatzeko erabakia hartu nuenean, senideekin elkartu eta adierazi nien nire postura, zergatiak azalduz, eta beraiena ez nuela baldintzatu nahi behin eta berriz esanez. Argi eta garbi hitz egin genuen eta bilera hartan nahiko garbi gelditu ziren gauzak.

EAJk gure etxean zeukan indarra jakin eta denak bertan gelditu izan balira ere konprenitu egingo nuen. Hauteskunde garaian zerbait sufritzen nuen, anaia bat nire aurkariaren alde eta nire aurka kanpaina egiten ikusten nuenean, baina konprenitzen nuen, bera beste alderdiko militantea baitzen.

Senide artean ez du eraginik izan orokorrean, baina Kepa eta nire artean bai. Hausturaren aurretik Kepa eta ni anaia izatetik aparte oso lagunak ginen. Ni baino zazpi urte zaharragoa da baina nola ni beti zaharragoekin ibili naizen, futbolearen ere berarekin jokatu nuen, golfean ere elkarrekin ordu asko pasatu genituen, parrandatxoetan ere bai, emazteekin afaritan ere bai. Ni Keparekin anaia nintzen eta gainera oso adiskide minak ginen, eta hausturaz geroztik anaiak izaten jarraitu genuen, noski, baina adiskidetasun hura, konfiantza hura eta politikari buruzko eztabaida haiek amaitu edo galdu egin ziren. Familian elkartzen garenean familiako giroa

ez du behin ere horrek oztopatu, baina Kepa eta Imanolen arteko adiskidetasun eta konfiantza hura ez da behin ere berdina izan hausturaren ondorenean.

Alderdiaren zatiketa gertatu arte Garaikoetxearen laguna zinen eta Ardanzaren bigarrena.

Garaikoetxea betidanik etortzen zen Zarautza uda pasatzera, eta Lehendakari aukeratu baino lehenagotik ezagutzen nuen. Gero, bera Lehendakari eta ni alkate bezala harreman estua eduki genuen, bai gauza ofizialetan eta baita ere solasaldietan. Igande goiz askotan, paletako partida jokatzeko genuen, berak eta nik, Jon bere txofer defuntuaren eta besteren baten aurka. Oso ongi jokatzeko zuten biek eta saiatzen zirena ikusita bizitza jokatzeko zutela zirudien. Pilota partidetak eta musika jaialdietara edo kontzertuetara ere elkarrekin joaten ginen askotan. Lagunak ginen, baina Lehendakari eta Alkatearen arteko distantzia gordetzen genuen, batez ere nire aldetik.

Ardanza Arrasateko alkate eta ni Zarauzko alkate eta diputatu nintzela ezagutu genuen elkar, eta gero, Diputatu Nagusi aukeratu zutenean, kulturako diputatu eta Diputatu Nagusiaren ordezkari izendatu ninduen. Niregan konfiantza handia jarri zuen, eta saiatzen nintzen erantzuten. Elkarrekin ekitaldi ofizial askotara joaten ginen, eta oso ongi konpontzen ginen. Alderdi barruan LTHren arazoa sortu zenean, ikuspegi desberdina genuen, eta bakoitzak berea defendatu zuen. Gero Lehendakari izendatu zutenean, bere ordezkari bezala gelditu nintzen Diputatu Nagusi aukeratu ninduten arte. Esan daiteke Diputatu Nagusi izan nintzela aurretik Ardanzak nigan jarri zuen konfiantzagatik, eta diferentziak diferentzia hori beti gogoan izan dut, eta eskertzen diot.

Diputatu Nagusi izan zara, baina foralista ez. LTHren kasuan aginte nagusi baten aldekoa izan zara. "Herrialdeen gainetik Euskadi dago", esan ohi zenuen. Foru Aldundia zuretzat "bisagra" zen, Eusko Jaurlaritzaren eta udaletxeen tartean.

Halaxe zen. Nire abertzaletasuna etxean amaren eta aitarengandik sortu zitzaidan, eta haiek Diputazioak aipatu ere ez zituzten egiten. Joxe Anto-

nio Agirreren Eusko Jaurlaritza ezagutu zuten, eta Jaurlaritza independente eta indartsu bat amesten zuten. Hori bizi izan nuen eta senak ere hori esaten zidan. Alegia, lehenengo Eusko Jaurlaritza indartsu bat antolatu, eta Herrialdeetan gero baliabideak banatu. Sen politikoak niri hori esaten zidan, eta sen praktikoak ere bai. Niretzat ez zeukan zentzurik, eta orain ere ez dauka, Jaurlaritzak eta Diputazioak zerbitzuak, departamentuak eta ekintzak nolabait errepikatzea, edo errepidetako obrak Legebiltzarrean planifikatu, eta gero, obrak egiteko garaian, Diputazio bakoitza bere aldetik ibiltzea, eta askotan, behar den koordinaziorik gabe, etab. Gauza horiengatik denengatik, ez naiz foralista, eta ez nintzen foralista Diputatu Nagusi nintzenean ere, Jaurlaritza indartsu baten aldekoa baizik.

Badakit nolabait Diputatu Nagusi batentzat hori kontraesana dela; baina, hala ere, nik uste dut hobe dela kontraesan bat edukitzea norberaren pentsaeraren aurka jokatzeko baino, eta batez ere sen onaren (erdaraz "sentido común" esaten denaren) aurka jokatzeko baino. Eta baldin sen onarekin batera sen praktikoa badago gainera, bi aldiz. Horregatik nik beti defendatu izan dut Eusko Jaurlaritza indartsu bat behar dela, udaletxeak ere indartsuak eta autonomia handiarekin, eta Foru Aldundiak bisagra edo bitarteko bat izan behar duela.

1985eko hauteskunde ostean, zu bakarrik zeunden EAko Diputatu Nagusi, Eusko Jaurlaritza eta gainerako Foru Aldundiak PNV edo PSE-ren eskuetan baitzeuden. Harremanak ez ziren gozo-gozoak izan Eusko Jaurlaritzarekin, kupoa dela, CVF dela. Konforme ez egonik ere erakunde nagusiekiko leialtasuna aldarrikatzen zenuen eta zure eki-poari gauza bera eskatu, istiluen zurrunbiloan ere.

1985ean, urtarrilaren 30ean, aukeratu ninduten Diputatu Nagusi, EAJko krisia pil-pilean zegoela. Aurretik, EAJren Batzarrean, ofizialistek eta kritikoei aukeratu ninduten hautagai bezala, eta gero Batzar Nagusiek Diputatu Nagusi. Egun handia izan zen hura niretzat, baina banekien arduraz latza hartzen nuela, Alderdi barruan gauzak nola zeuden ikusirik. Hasiera hura nik pentsatzen nuena baino zailagoa izan zen. Diputazioko Gobernuan, bi joerak zeuden, ofizialistak eta kritikoei, eta askotan tentsio une latzak izaten genituen. Ni saiatzen nintzen oreka mantentzen, eta egoera

kafkiano hartan nahikoa lortu nuela esango nuke. Diputazio hark erabaki zuen Leitzarango Autobideko proiektua abian jartzea, eta baita ere Arteleku egitea. 1986ko abuztuan gertatu zen haustura ofiziala, oker ez banago. 1987ko hauteskundeak arte ere ez ziren hilabete errazak izan. Diputazioako Gobernuan EAJko eta EAKo diputatuak geunden, eta ez zen erraza gobernatzen. Askotan, diputatuen joeragatik baino gehiago bi alderdiek egiten ziguten presioagatik. Kontuan eduki behar da une hartan bi alderdietako kideak oso haserre zeudela, eta zakurra eta katua bezala ibiltzen zirela. Nik ere izan nituen Alderdiko zenbait sektoretik egoera hartan nahiko arrazoizko ziren presioak (EAJko diputatuak kendu eta EAKoak sartzeko eskatzen zidaten). Azkenean, Gipuzkoako Batzorde Eragilearekin bilera luze eta eztabaidatu batean, bozketa berdinean gelditu eta gero, Markel Izagirre Batzordeko Lehendakariak erabakia neure eskuetan utzi zuen. Asko eskertu nion nigan jarri zuen konfiantza, eta Gobernu kontseiluan baldintza batzuk jarri eta kargu denak mantendu nituen hasiera batean. Gipuzkoaren interesak alderdiaren aurretik jarri nahi nituen. Niri, EAJkoak kentzea eta berriak sartzea, mendekua iruditzen zitzaidan, eta pentsatzen nuen gipuzkoarrei ere hala irudituko zitzaiela.

Garai honetan sinatu nuen Urralbururekin, Ventas de Mugiron, Nafarroako Autobide famatua egiteko hitzarmena, eta Euskal Finantzetako Kontseiluko eztabaidak hurrengo legealdian izan ziren batez ere.

EA jaioberria zen, eta EAEko beste erakundeak EAJ eta PSEren eskutan zeuden, eta hauek nahiago zuten nik, hau da EAK, porrot egitea. Euskal Finantzetako Kontseilua hiru Diputatu Nagusiak eta Jaurlaritzako beste hiru ordezkariak osatzen genuen orain bezala, eta beste bostak elkarrekin gobernatzen ari zirenez, erabakiak adosten zituzten eta ni bakarrik gelditzen nintzen. Erabakiak aho batez hartzen ez baziren, bozketa bat eta bost galtzen nuen, nahiz eta nire ustez arrazoi eduki. Hala ere, barruan borrokatzen nintzen gure planteamenduak aurrera atera nahian, eta konforme gelditzen ez banintzen, nire postura azaltzen nien kazetariei eta Batzar Nagusietan; baina erabakiak leialtasunez errespetatzen genituen, neuk eta neure ekipokoek. Askotan beste Diputazioek baino leialtasun gehiagorekin jokatzeko genuen.

Esan ohi da, eta nik ere hala pentsatzen dut, Diputatu Nagusiaren lana alkatearena baino ardua handiagokoa baina erosoago edo lasaiagoa dela, baina niri ez zitzaidan hala gertatu. Zein baino zein urte zailago eta nahastuagoak izan nituen. PNV-EAJren haustura, Autobidea, 1988ko uholdeak, 1990eko lehortea, Goierrin harria, etab. Nire Diputatu Nagusiko urteak ez ziren batere lasaiak izan.

Inongo alderditan ez duzu sekula kargurik izan, nahiz eta horretarako eskaintza eta deirik izan duzun.

Beti erakundeetan jardun naiz, eta iruditu zait erakundeetan jarduten direnek alderdian kargurik ez dutela behar. Eskaintza guztiei ezezkoa eman diet beti.

Alderdien karguetarako aukeraketaren garaian ere ez naiz behin ere izendapen horien atzetik ibili, eta alderdiek eskatu didaten kasu gehienetan ezezkoa eman izan diet: bai alderdiko Batzar Nagusietan edo Kongresuetan taldeak prestatu behar zirenean, eta Asanblea Nazionaletarako edo lurralde exekutibetarako zerrendak egiteko garaian ere beti ezezkoa eman dut. Alde batetik karguan, agintean, nengoelako, eta niretzat agintean egotea eta agintea kontrolatu behar duenaren toki berean egotea ez da egokia eta ez dira bateratu behar. Agintean dagoenak, kargu publikoan dagoenak, gauzak kudeatu behar ditu, eta alderdi barruko karguetan daudenek kudeaketa horiek ondo dauden kontrolatu, eta bietan egonda ez zait iruditzen lan hori ondo egin daitekeenik.

Horregatik eman diet postu horiei ezezkoa, eta beharbada baita alderdi barruko lanak gehiegi gustatzen ez zaizkidalako ere.

Diputazioan amaitu eta gero Gipuzkoako Batzorde Eragileko Lehendakari-tzara aurkeztea ere eskatu zidan talde batek, baina orduan atsedean pixka bat behar nuen, eta haiei ere ezetz esan nien.

Beste arantza bat. Autobidearena: 15 urte beranduago, pasatu den gutzia pasatu eta gero, berdin jokatu zenukeen?

Autobidearena arantza baino gehiago gurutze-bidea izan zen niretzat, arrazoi desberdinegatik asko sufritu bainuen. Sufritu nuen gizartean

sortu zen zatiketagatik; ETaren mehatxuek demokraziari eraso egitean nire inguruan, lankideen artean, kontratisten eta familien artean sortu zuen beldurragatik, elkarrizketa eta irtenbidea oztopatuz; sufritu nuen zenbaiten jokaera maltzurragatik; ordura arte neure izaeraren jarrera (tolerantzia, elkarrizketa, bitartekaritza) hartu behar izateagatik; eta azkenean arazoa konpontzeko ezintasunagatik. Eta sufritu nuen buruan nituen beste zenbait proiektu aurrera ateratzea oztopatu zidalako. Urte zailak izan ziren, osasuna galdu nuen. Ez zait gustatzen hartaz hitz egitea, baina oraingoan ihes egiterik ez daukadanez, saiatuko naiz azaletik bederen une garrantzitsuenak nire ikuspegitik ematen, inorekin eztabaida edo polemika sortzeko asmorik gabe.

Autobidearen historia hasi zela hamabost urte baino askoz gehiago da, eta dena kontatzekotan doktorego tesi bat edo liburu oso bat beharko litzateke, eta ez dut uste elkarrizketa honen helburua hori denik.

Pasatu den guztia pasatu zen, eta berriz egin beharko bagenu, ziur ez litzatekeela berdin pasatuko, eta nik ez nukeela berdin jokatu. Hori garbi daukat.

1985ean, Diputatu Nagusi aukeratu eta berehala, Gobernu Kontseiluan erabaki genuen Nafarroa eta Gipuzkoa lotuko zuen errepidearen proiektua enkargatzea, eta legealdi hartako proiektu "izar" bezala hartu eta horretarako behar ziren baliabideak jartzea. Hori erabaki genuenean, ez genuen asko pentsatzen zenbaterainoko "izarra" gertatuko zen proiektu madarikatu hura.

Lehenengo legealdian (1979-1983), Xabier Aizarna Diputatu Nagusi zelarrik, errepideetako eskumenak Madrilen zeudenean, bizpahiru bilera egin genituen MOPU eta Diputazioko teknikariak eta Nafarroa eta Gipuzkoako diputatuak tarteko. Aurreproiektu hura Leitzaran ibaitik bertatik zihoan inguru guztia txikituz. Nafarrak ados zeuden (HBko diputatuak barne), baina gipuzkoarrak ibilbide haren aurka jarri ginen hasieratik, eta lehenengo ahalegin hura arbuiatu eta Diputazioko teknikariei alternatibaren azterketa egitea enkargatu genien. Beraz, autobidearen historia 1979an hasi zen, duela 25 urte. Aurreneko protestak, akanpadak eta guzti orduan hasi ziren.

Gero, guk proiektua enkargatu genuenean, Leitzarani minik gutxiena egingo zion ibilbidea aurkitzeko, behar ziren azterketak egiteko agindua eman genien.

20 bat ibilbide desberdin aurkeztu zizkiguten hasiera batean, eta lehengo aukeraketa batean lau aukeratu genituen aurreproiektu bezala prestatzeko. (A1, A2, A3, A4).

1986an, Venta de Mugiroko jatetxean sinatu nuen Urralbururekin autobidea egiteko hitzarmena.

Geroztik gertatu ziren guztiak ikusi, eta pasatu eta gero, berriz egin behar bagenu, nola jokatu nukeen asmatzea ez da erraza, baina ibilbide luze eta tamalgarri hartan gauza dezente ikasi nituen, aldaketa batzuk egingo nituzke noski.

Adibidez, politika informatzailea hasieratik indartuko nuke, kabinete berezi bat neure ardurapean muntatuz, herria ongi informatzeko eta autobidearen aurkako koordinadorak (Coordinadora Antiautovía) hasieratik muntatu zuen strategiari aurre egiteko. Gezurra badirudi ere Diputazioan ez genuen horrelako ezer. Egunero zerbait ateratzen zuten egunkarietan, eta Diputazioaren erantzunak neuk moldatu behar izaten nituen.

Coordinadora Antiautovíak esaten zuen bezala, autobiderik ez zuten nahi, eta herritarrak aurka jartzea interesatzen zitzaien. Borondate oneko milaka lagun bereganatu zuten. Hasieran, "Autobiderik ez", geroago Araxeskoa, (hau da, lehengo bide zaharra konpontzea), eta, azkenik, konturatu zirenean alternatiba haiekin herritarrak ez zituztela konbentzitzen, "Coordinadora Antiautovía" izena aldatu, "Lurralde" jarri eta beste ibilbide bat proposatu zuten. Eta azken-azkenean, ibilbide ofizialari (A-2ri) aldaketa bat ezarri zieten. Kontua zen, gure iritzira, Diputazioa beren esanetara nola edo hala makurraraztea. Beraien estrategia desegiten ez genuen asmatu orduan, eta berriz egin beharko bagenu, hasieratik proiektuen azterketan eta ibilbidearen aukeraketan sarrarazteko modua egingo nuke edo saiaturiko nintzateke.

Bestalde, ez dut uste politikoki ere berdin jokatu nukeenik. ETAk mehatxua bota zuenean, Batzar Nagusietan HBrekin ezik beste alderdiekin batera jokatzeko konpromisoa hartu nuen, eta horrek gerorako eskuak

lotu zizkidan. Uste dut konpromiso hura hartzerakoan hanka sartu nuela, neure burua batere beharrik gabe beste alderdiekin gatibatu nuela eta orain dakidana jakinda ez nuke inolaz ere hori egingo. Nik neure burua lotu egin nuen eta gero ordaindu egin nuen hori. Beste alderdiak informatuta edukiko nituzke, baina eskuak libre nahiko nituzke erabakiak hartzeko.

Ez da ahaztu behar orduan Foru Aldundian geunden alderdiek (EA-EE) HBren botoekin gehiengoa genuela, eta aldaketaren bat edo beste erabakiren bat hartzeko ez genuela inoren beharrik. Alderdiek batzuetan nola jokatzaren duten jakinda, orain ez nuke inolaz ere berdin jokatu.

Batzar Nagusiei zor nien leialtasunagatik, ETari aurre egiteagatik edo demokrazia defendatzeagatik, beste alderdiekin hartu nuen konpromiso hura; ohartu gabe beto eskubidea eman nien, eta gero hori larrutik ordaindu nuen. Elkarrekin jokatzeko konpromisoa, aldaketarik ez onartzeko konpromisoa, denok hartu genuen; emandako hitza nik mantendu egin nuen, baina beste batzuek ez.

Eskuak libre edukiz gero ez dakit nola jokatu nukeen, zeren eta ETaren mehatxuak besteen jokabideak zeharo baldintzatzen baititu, baina zalantzarik ez dut orduan bezala ez nukeela jokatu.

Tinko eta irmo mantendu zinen. Egoskorkeria, malgutasunik eza, gerririk eza leporatzen dizute batzuek. Eta beste batzuek koherentzia, etika, leialtasuna, hitza betetzea txalotzen dizute.

Garai hartan gizartean sortu zen tirabiraren adierazgarri izan daitezke ikuspegi hauek, baina esango nuke hemen ere ezer ez dela zuri ala beltz. Esan dut lehentxeago beste alderdiekin hartu nuen konpromisoagatik eskuak lotuta aurkitu nintzela eta horregatik une erabakigarri batzuetan mugitu ezinik edo gerririk gabe gelditu nintzela, baina ez egoskorkeriagatik baizik eta emandako hitza betetzeagatik eta Batzar Nagusiekiko leialtasunagatik.

Nire izaera, eta ordura arteko nire bizitzako jokaera, elkarriketa eta tolerantziaren bitartez konponketa eta akordioak bilatzea izan zen, baina autobidearen aferan ez genuen jakin irtenbiderik aurkitzen, batetik ETA-

ren mehatxuei men ez egitearren eta bestetik hartua nuen konpromisoa-gatik. Baliteke zenbait pertsonentzat egoskorren itxura ematea. Bestalde, zurrumbilo hartan, eta hauteskunde ondorenean, Diputazio berria aukeratzeko unetan, koherentea izan nintzela deritzot.

Une batean tarteko soluziobideren bat eskaini omen zenuen, bake gosez, baina gainerako erakundeetakoek ez zizuten onartu, milimetro bat ere mugitu ezin zenez.

Prozesu hartan 1990eko abenduko bilera une garrantzitsu eta erabakigarria izan zen.

Konstruktoreek, erretiratu aurretik, beste aurreproiektu bat ekarri zidaten, ibilbide alternatiboa eta beraiek ziotenez "beste aldeak" onartuta zeukana, eta arazoa konponduko lukeena. Proiektu ofiziala bezain ona zela zioten eta onartzen ez bagenuen erretiratu egingo zirela. Ordurako mehatxuak banan-banan jasoak zituzten eta zeharo beldurtuta zeuden.

Aztertuko genuela eta Batzar Nagusien mahaira eramango nuela agindu nien.

Agindu bezala, aztertu genuen Diputazioan eta ez zitzaigun astakeria iruditu. Gure iritzian A-2 ofiziala bezain ona ez zen, baina proiektuan aldaketa txiki batzuk egin eta nahiko ongi gelditzeko modukoa. Azkenean egin zena baino hobea eta merkeagoa gure iritzian.

Beste alderdietako ordezkariekin bildu ginen Diputazioan; enpresaburuen planteamendua eta aurreproiektua gure teknikarien iritziarekin aurkeztu nien, kontratisten beldurraren berri eman ere bai, eta esan nien aldaketaren bat onartzekotan orain zela garaia.

Proiektua ireki ere ez zuten egin eta kristorenak bota zizkidaten planteamendu hura mahaira eramateagatik: ETaren aurrean galtzak jaisten hasia nintzela, kontratistak bezala ni ere zeharo beldurtuta nengoela, etab. Ezezko biribila eman zuten denek, gogorrenak EAJko eta PSEko ordezkariak zirelarik. Aldaketarik ez onartzeaz gainera, egoera zailagoak etortzen baziren ere (bahiketa, hilketa...), gertatuak gertatu, denok jarrera hura mantentzeko konpromisoa hartu genuen bilera hartan. Han erabaki ziren jarrera instituzionalak, manifestazioa, obrak hastea, etab.

Bigarren aldiz Diputatu Nagusi
aukeratu ondoren Gurutz Ansola
Batzar Nagusietako
lehendakariarekin. Atzean daude
Guillermo Etxenike eta Jon Esnal
batzarkideak (1987)



Oiartzungo bere
etxean bisitatu zuen
Manuel Lekuona
(1987)

Zarauzko
Udaletxean
Basarriri Seme
Kutun izendatu eta
urrezko domina
eman zitzaion
ekitaldi berean
Karlos Argiñanori
Turismoaren aldeko
Merezimenduaren
domina eman zion
Imanol Murua
alkateak (1995)





Loiolako prozesioa abuztuaren batean. Ezkerretik hasita: J.R. Estomba, Imanol Murua, J.A. Ardanza eta Xabier Aizarna (1985)



Arantzazuko Amaren egunean Jose Maria Setien Gipuzkoako Gotzaiarekin (1986)

Zarauzko Urtetako Elizaren eraberritzea ospatu zen egunean Imanol Muruak zuhaitza aldatu zuen eliz aurrean Jose Mari Setien Gotzaiak lagunduta (1996)





J. A.
Ardanzarekin,
Imanol Murua
Diputatu
Nagusi
aukeratu
ondoren
(1985)



Xabier Aizarna Batzar
Nagusetako Lehendakariak
Imanol Murua Diputatu
Nagusi hautatzean domina
jarri zion (1985)



Imanol Murua Maritxu emaztearekin Diputatu Nagusi aukeratu zuten egunean (1985)



Imanol Murua Xabier Leterekin zuhaitz egunean, Laurgainen (1985)

Urteko adierazpen hitzaldiaren ondoren Imanol Murua R. Labaien eta P. M. Etxenikerekin (1985)





Erroman,
Aita Santuarekin



Gipuzkoari emandako Elkartasun Saria zela eta, Zarzuelan Espainiako Erreginak egin zuen harrera ofiziala. Ezkerretik hasita: Espainiako erregina, ministro bat, Zarzuelako arduraduna, Imanol Murua Diputatu Nagusia, Xabier Aizarna Batzar Nagusietako Lehendakaria eta Prontxio Larrañaga Gipukoako Ongizateko diputatua (1986)



Ajuria Enean "Europa 93 Plangintza" hitzarmena sinatu zuten. Ezkerretik hasita: Alberto Pradera Bizkaiko Diputatu Nagusia, Jose Antonio Ardanza Lehendakaria, Fernando Buesa Arabako Diputatu Nagusia eta Imanol Murua Gipuzkoako Ahalhun Nagusia (1989)



Eusko Alkartasunako mitina. Ezkerretik hasita: Imanol Murua, Carlos Garaikoetxea eta Markel Izagire EAko lehendakaria Gipuzkoan(1986)



Donostian Kutxako Erakustokian. Ezkerretik hasita: Anparitxu eta Gabriel Celaya senar-emazteak, Xabier Lete, Jesus Mari Leizaola Lehendakari zaharra. Imanol Murua hitzegiten (1986)



Imanol Murua eta Maritxu Uria solasean ari dira Gabriel Celaya eta Anparitxurekin Diputazioak olerkariari eskaini zion omenaldian (1986)



“Kilometroak ‘87”
Zarautzen ospatu
zirenean Imanol
Muruarekin batera daude
Xabier Albistur, J. L.
Telleria eta Joxemiel
Barandiaran (1987)

1987an “Kilometroak” Zarautzen ospatu ziren. Ezkerretik hasita: Inaxio Oliveri EAKo Idazkari Nagusia, Carlos Garaikoetxea EAKo Lehendakaria, Imanol Murua Diputatu Nagusia eta Antonio Alberdi Zarauzko Alkatea (1987)



PSEko ordezkariak nahi zuten, baita ere, baldin eta kontratistak erretiratzeko baziren, zigor bezala Diputazioak haiei beste lanik ez emateko konpromisoa hartzea. Erabaki hori ez zela mahai hartakoa, hori Diputazioaren eskumena zela esan nien, eta nik horrelakorik ez nuela egingo. Eztabaida gogorra izan genuen.

Bilera haren ondoren, PSEko Ramón Jauregik, orduan Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordeak, artikulu bat idatzi zuen egunkarietan, Diputatu Nagusia ETaren aurrean makurtzen hasia ote zegoen esanez.

Batzar Nagusietako lotura hura izan ez banu ez dakit nola jokatu nuen, ez dakit, baina bilera hartan ikusi nuen garbi tranpa batean sartua nengoela, eta batzarkide haiek arazoa konpontzen ez zidatela lagunduko. Beharbada, bilera hartan ikusi eta entzun nituenak entzun eta gero, konpromiso hura hautsi eta eskuak libratu egin behar nituen, baina ez nintzen ausartu.

Dena den, erabaki hura hartu eta hilabete batzuetara, beste alderdiekin kontatu gabe, eta hitzik esan gabe noski, proiektua aldatu zuten. Gure iritziz proiektu txarrago eta garestiagoa, baina hori beste upeleko sagardoa da; bere garaian azaldu genuen eta orain bueltak ematea alferrik da.

Erakunde guztiok bat zetozen hartu (behar) zen jarrera tinkoaz, garaiko prentsa lekuko. Eta gero, aldaketa.

Batzar Nagusiek, Eusko Legebiltzarrak, Nafarroako Legebiltzarrak, Diputazioak, Eusko Jaurlaritzak, denek egin zituzten beren ekitaldiak jarrera tinkoaren alde, ETaren mehatxua arbuiauz, esanez errepide bat baino gehiago zegoela jokoan, demokrazia defendatu behar zela, etab.

Baita ere, Ardanza Lehendakaria buru zela, eta erakunde guztien ordezkariak han ginela, milaka herritarrek parte hartuz, manifestazio erraldoi bat egin zen Donostian, baina gerora horra aldaketa. Aldaketa aurretik ere sumatua nuen erakundeen eta gure arteko bileretan esaten zirenak eta ekintzak ez zetozeela bat. Kazetariak ere ederki konturatu ziren eta prentsaurrekoetan beti galdetzen zidaten ea ba ote nuen beste alderdien laguntza edo babesa, batez ere Eusko Jaurlaritza eta Lehendakariarena.

Bazekiten ezetz, baina nik esatea nahi, biharamuneko egunkarian letra larritan jartzeko; baina behin ere ez nien aitortu.

Gainera, azken denboraldian jakin nuen EAJ-PNVkoak azpijokoan zebiltzala, baina ez nuen uste hain nabarmen egingo zutenik pasteleoa. Aldaketa onartzekotan eduki zuten aukera paregabea, 1990eko abenduko bileran, kontratistak erretiratu aurretik, horrela denbora, enfrentamendu, buruhauste eta dirua aurreratuz, eta batik bat herritarrekin jator jokatuz. Baina nahiago izan zuten orduan tinkotasunaren itxura egin, gero konpontzaile gisa beraiek agertzeko.

Parisek meza bat merezi bazuen, Foru Aldundiko jarlekuak ez al zuen keinu bat merezi? Aldaketaxoren bat iradokiko zuen keinu bat aski omen zen HBren botoak jasotzeko.

Azken momentura arte izan nuen proposamena. Aldaketatxo baten aldeko keinuaren truke HBren botoak niretzako izango omen ziren eta horrela berriz ere Diputatu Nagusi aukeratua izango nintzen. Ez nuen proposamena onartu, ez nuen keinurik egin eta Eli Galdos izan zen Diputatu Nagusi EAJ eta PSEren botoekin.

Proposamena Jesus Mari Akizu Udal harremanetarako diputatuaren bitartez iritsi zitzaidan, eta zalantzarik ez nuen egin: proposamen hura onartzea herritarrek engainatzea baitzen, eta Diputatu Nagusiaren jarlekuak ez zuen merezi prezio hori ordaintzea. Erantzun hori eman nien, eta hartu nuen erabakiarekin nire barrena oso lasai gelditu zen.

Autobidearen aferaren amaierak zer dakarkizu burura: frustrazioa?, desleialtasuna?, traizioa?, pasteleoa?, prentsan agertu zen bezala.

Nik uste denetik egon zela, baina aipatu dituzun horien gainetik uste dut harridura eta tristura sentitu nuela. Tristura eta une batzuetan haserrea ere bai.

Ez nuen ulertzen ordura arte elkarrekin mantendu genuen jarrera nola alda zitekeen besteekin hitz egin gabe, eta gutxiago aipatu dudana bileran hartu genituen erabakiak hartu eta gero. Hori dela eta, nire harridura lehenengo eta gero tristura. Eta haserrea, berriz, bolada batean guk egin

genituen lanak gaitzesteko egiten zituzten adierazpenak irakurrita. Baina ez daukat gogorik garai hartako gertaerak hemen gogoratzeko eta are gutxiago inoren jokamolde edo postura pertsonalak gaitzesteko. Bakoitzak daki nola jokatu duen bere garaian eta honetan utziko dugu. Baina aipatu dituzun sentimendu horiek garai hartan izan banitu ere, gaur egun nahiago dut pentsatu 1985ean hasi genuen “proiektu izar” hura, gorabehera askoren ondoren bada ere, bere akats eta guzti, amaituta dagoela eta kito.

PNVren hausturakoan negar egin omen zenuen. Autobidekoan negar egin omen zenuen. Baina kamera aurrean negar Iruretagoiena zinegotziaren hilketakoan egin zenuen. Eta ez zarela lotsatzen esan zenuen. Hau ere arantza bat gehiago.

PNVren hausturakoan, eta autobidekoan, barrendik egin nuen negar, eta Iruretagoiena zinegotziaren hilketakoan mundu guztiaren aurrean azaldu nintzen negarrez eta ez naiz lotsatzen, baina nahiago nuen negar hura nire intimitatean gelditu izan balitz.

Gorpua Udaletxera korporazio guztiak sartu genuen eta denok egin genuen han gorputzaren aurrean negar. Gertatu zen ni kamarak harrapatu ninduela.

Une oso gogorrak izan ziren haiek; ez dut uste bizi guztian ahaztuko zaidanik haren gorpua kotxean zerraldo ikusi nuenean egin zidan inpresioa. Zurekin batera lanean buru-belarri aritu den pertsona bat atentatua hilda ikustea ikaragarria da. Ez zen arantza bat bakarrik; arantza bat baino zerbait gehiago zen, eta tentsio momentu larriak bizi genituen.

Penak baino gehiago izan dira pozak zure bizitza publikoan, segurutik. Oraingo talaiatik zeintzuk aipatuko zenituzke bereziki.

Ez da erraza une eta garai desberdinetan izan ditudan pozen balorazioa behar bezala egitea, baina nolabait kronologia errespetatuz, aipatuko ditut gogoan ditudan artean zein izan diren unerik pozgarrienak.

Lehenengo poz handia, eta aitaren heriotza gogoan nuela, 1977an San Sebastian bezperan ikurrina altxatu nuen momentua. Momentu hura ahaz-

tu ezinezkoa izan da nire bizitzan, nahiz eta halako sentimentu gazi-gozo bat izan, zeren ikurrina altxatzen ari nintzela ezin bainuen kendu nire burutik hogeit hamar egun lehenago (hilabete baino gutxiago behintzat) hil zen gure aitaren gogorapena. Gure aitak bere zahartzaroan ilusio bat zeukan: ikurrina berriz ere Zarauzko Udaletxean zintzilik ikustea. Eta 1976ko abenduaren 23an, gabon bezperan, elkarrekin geundela, nire besoetan hil zen eta handik hilabete batera baino gutxiago, 1977ko urtarrilaren 19an, neuk altxa nuen Zarauzko Udaletzeko balkoian ikurrina. Une hunkigarria, oso-oso pozgarria izan zen, eta aldi berean aitarekin gogoratuta barruan tristura ere banuen. Une gazi-gozoa baina benetan pozgarria eta hunkigarria.

1979an lehenengo alkatetzako hauteskundeetan gehiengo osoarekin atera ginenean.

1985ean Batzar Nagusiek Diputatu Nagusi aukeratu eta alkatetza lagatakoan Zarauzko herriak egin zidan omenaldia.

1985ean Diputatu Nagusi aukeratu nindutenean eta 1987an hauteskundeetan aukeratua izan nintzenean.

Ilusio handia egin zidan, eta ilusioarekin batera poza noski, Foru Aldundian amaitu nuenean 1991ko uztailean, Diputazioan lanean aritu ziren kazetari guztiek omenalditxo bat egin zidatenean bere afari eta guzti eta golfeko boltsa bat oparituz.

1995ean berriz herrira itzuli nintzenean eta Zarauzko alkatetzarako aukeratua izan nintzenean berriz ere ia-ia gehiengo osoarekin; zarauztarrek oraindik ere maite nindutela eta alkatetzarako nahi nindutela demostratzen baitzuen eta hori niretzat pozgarria izan zen.

Baita ere Lanbide Heziketako Gipuzkoako ikastetxe guztiek egin zidaten omenaldia neure bizitzaren erdia pasatu dudan lekuan.

Poz handiak izan ditut nire bizitza publikoan, baina esango nuke ikuspegi honetatik begiratuta orain sentitzen dudan poz handia hori dela: alde batetik, zeure kontzientziaz egin duzun lanaren lasaitasuna, eta, bestetik, nabaritzea eta sentitzea herritarrek ematen dizuten esker on hori. Kanean sentitzen den jendearen hurbiltasuna, sinpatia eta zenbait kasutan maitasuna ere benetan pozgarria da.

Inhabilitazioa. Nola lotzen duzu erabaki hori militarismoaren aurrean duzun jarrerarekin? Batek baino gehiagok esan du ez zenuela bukaera politiko hori merezi.

Inhabilitazioa itxura gabeko zigorra iruditu zitzaidan, eta iruditzen zait. Ez diot zentzuzko arrazoirik bilatzen, batik bat epaitu nindutenean soldaduska kenduta zegoelako, eta gainera gurea bezalako akordioa udaletxe askotan hartuagatik, horrelako zigorra niri bakarrik eman zidatelako. Hasiera batean haserretu egin nintzen baina orain ez diot garrantzirik ematen. Baita ere balio izan dit herritar askoren solidaritatea jasotzeko. Batzuek pentsatuko dute bukaera politiko hori ez nuela merezi, baina beste batzuek esaten didate ohore bat dela niretzat. Nik nahiago nuen politika uztea edo ez neuk erabakitzea, baina zigor honekin behartu egin naute. Oraindik ere inhabilitatuta nago, baina ez nago damututa hartu nuen erabakiaz. Berriz ere berdin jokatu nuke.

Zure kanta maiteenetako bat, Xenpelarren “ez naiz ni gerraren zale” dela diote.

Askotan abesten genuen aita eta anaiekin, eta denoi asko gustatzen zitzaigun, bai letragatik eta baita ere doinuagatik. Bere kontraesan guztiekin (“ez naiz ni gerraren zale/ baizik bakearen alde”), hasieran, eta gero bertso berean amaieran (“bala bat sartu buruan/ aspertuko da orduan”), esanahi politiko handia dute gaurko egoera politikoa ere. Eta azkenengo bertsoa euskaldun gehienok sinatuko genukeela deritzot: “umildatea elkarri/ errespetua ekarri/ lege berri bat jarri/ bizi gaitezen garbi/ ori desio nuke nik/ isuri gabe odolik”). Doinua, berriz, ahots desberdinetan abesteko oso ongi prestatzen da. Honegatik guztiagatik, asko maite ditudan bertsoak dira, eta askotan abesten ditut.

Atzetik aurrera begiratuta, zure curriculuma ez dirudi aurretiaz diseinaturiko ibilbidea. Bideak berak eraman zaituela esan al daiteke?

Bai. Herriko “saltsero” hasi eta politikari amaitu. Zarauzko Antonianako Gazterian hasi nintzenean, ez nuen asko pentsatzen ibilbide hau egingo nuenik, baina bideak berak eraman nauela esango nuke.

Irakaskuntzan zalantza handiekin sartu nintzen oso gaztea nintzelako, baina asmatu nuela garbi-garbi dago. Asko gustatzen zitzaidan, asko saiatu nintzen eta esango nuke hura bokazionala bihurtu zela. Garai batean gogorregia izan ote nintzenaren harra ere badut.

Han nintzela hasi nintzen Antonianako gaztedian “saltsero karrera” egiten; eta nolabait han bertan demostratu izango nuen kudeaketarako ere balio nuela, zeren lehenengo batzordean bokal batzarkide bezala sartu eta handik urtebete edo urte pare batera lehendakari aukeratu ninduten.

1967an Guraso Elkartean sartu ginenean indar handia eman genion eta han ere berdina gertatu zitzaidan: lehenengo batzarkide eta gero lehendakari. Handik, berriz, Ikastolara, gero Ikastolatik Udaletxera, Diputaziora... eta beno, ibilbide hori ez zegoen inolaz ere diseinatuta eta bideak berak eraman nuela lasai asko esan daiteke.

Xabier Letek dio zuk kulturaren sinetsi egiten zenuela, eta sutuki defendatu bestelako eta besteen interes guztien gaintik lehentasuna emanaz.

Xabierrek zerbait exajeratuko du, baina kulturako diputatu bezala, kultura defendatzen nuen buru eta belarri, eta Diputatu Nagusi nintzenean, beste diputatuek esaten zidaten kulturako departamentuari tratu berezia ematen niola (“la niña bonita” nuela). Egia da kulturako diputatu bezala egin nituen bi urtetan departamentuari bultzada handia eman geniola, bai diru aldetik eta baita ere kudeaketa aldetik. Aurrekontuak asko igo genituen, beste diputatuekin borroka latza egin ondoren. Ardanza Diputatu Nagusiak nire arrazoiak ulertu eta onartu zituen, eta noski Diputatu Nagusiaren hitzak beste denenak baino gehiago balio zuen.

Bi urte bakarrik (1983-1985) izan nintzen kulturako diputatu, baina opa-roak eta aberatsak izan ziren niretzat eta departamentuarentzat. Programa garrantzitsuak jarri genituen martxan, eta kultur munduarekin harremanak estuak eta oso onak izan ziren. Bi urte haietan eman genituen Artelekuren lehenengo urratsak, gero Koldo Mitxelena izango zenaren erai-kuntza berreskuratzeko lehenengo gestioak, Pagoetako Parkeko Agorregi, Iturrarain, Sagastizabal eta Amezketa-Lardiren birmoldaketa, gero Parkeko

programa kulturalak martxan jarri eta dinamizatzeko, Udaletxeetako kultur eraikuntzak edo ekipamenduak, liburutegiak eraiki eta hornitzeko programak, bekak ugaritu, kiroleko eraikuntzak, artistei laguntzak, etab. Egia esan departamentu dena dantzan jarri genuen denbora gutxian.

Ekipo oso gaztea osatu genuen. Xabier Leteren zuzendaritzapean ilusio handiarekin lan asko egin zuen ekipoa izan zen hura.

Gero Diputatu Nagusi nintzela ez nuen izan denborarik kultura departamentuaz eta beste zenbait departamentuz nik nahi nuen bezala arduratzeko edo neure ekimenak abian jartzeko, autobidearen arazoak kentzen zizkidalako ordu guztiak. Proiektu hark eman zizkidan buruhauteek beste zenbait ekintza egitea ere eragotzi zidaten; alde horretatik ere penagarria izan zen.

Dohain asko aitortzen dizkizue ezagutzen zaituztenek: kanpetxanotasuna, jatortasuna, hurbiltasuna, prestutasuna, azkartasuna, pila bat. Baina guztien gainera dago zure lan ahalmen agortezina.

Dohain horiek ditudala nire adiskideek esango zizuten, baina beste batzuei galdetuko bazenie akats mordo bat agertuko litzateke: egoskorra, tematia, builosoia, parranderoa, neurekoia, etab. Dohainak eta akatsak ditut guztiok bezala, baina egia da, Jainkoari esker, sasoi neukanean lanerako gaitasuna eta gogoia ez zitzaizkidalda falta.

Zure ezaugarrien artean badago azpimarratzen den bat, garbitasuna: karguaz ez zara baliatu interes pertsonaletarako.

Baina horrek ez luke izan behar harrigarria. Harrigarria izan beharko luke bestelakoa. Alegia, herriaren konfiantzaz baliaturik, zeure probetxurako edo zeure familiaren edo lagunaren probetxurako jardutea. Nik, behin ere ez. Neuretzat zein familiako norbaitentzat ez naiz saiatu abantailarik ateratzeko. Ezta ere errekomentazio bila edo eskera etorri izan direnei. Denei garbi esan ohi nien ez nindutela errekomentatuko.

Bidea erakutsi, ahal banuen lagundu ere bai, baina azpikeriarik gabe.

Diru eskaintzak ere izan ditut, enkanteren batean norbaiten alde egiteagatik, edo zerbaiten aurrean begiak ixteagatik (gehienean disimuluan,

baina behin batere disimulurik gabe eskaini zidaten gozokia, lagun baten bitartez), baina Jainkoari eskerrak ez naiz sekula tentazioan erori. Alde horretatik ere oso lasai nago. Nire aitak esaten zuen bezala “dirua baino garrantzitsuago da konfiantza”. Nik dirurik ez dut, baina bai herritarren konfiantza.

Zure euskaltzaletasuna aho batez aitortua da. Zer zor diogu euskaltzaletasunari zure erabaki politikoetan?

Ez nuke jakingo ezer destakatzen, baina nik esango nuke eguneroko lanean euskarari eman izan diodan garrantzia (euskararen erabilpena, bulegoetan, harremanetan, prentsaurrekoetan, enkantetako oinarrietan...) izan daitekeela azpimarragarriena. Baita ere, urteroko Diputatu Nagusiaren Politika Orokorreko hitzalditan egiten nuen euskararen defentsa, edo Gobernu Zentraleko delegatuak jartzen zizkiguten helegiteen aurkako erreakzioak. Gero noski, diru laguntzak bertsolaritzari, euskal kulturari, etab.

Gauza bitxi bezala, askotan, bulegora etortzen zirenek euskara ez baldin bazekiten, edo erraztasunik ez bazuten, barkamena eskatzen zidaten. Bazekiten, nonbait, Diputatu Nagusiak euskarari garrantzi handia ematen ziola.

Diputazio barruan, langile artean ere bere eragina eduki zuela iruditzen zait. Normalean gaztelaniaz aritzen zirenek ere nirekin euskaraz hitz egiten zuten, baldin bazekiten.

Setienek kristau zintzotzat zaitu. Fededun izateak izan al du eragirik zure ibilbidean?

Setienentzat ni kristau zintzoa izatea pozgarria da niretzat, baina ez dakit borondate onegiak emandako kalifikatiboa ez ote den. Kristaua naiz, beti adierazi dut eta nire bizitzaren oinarrietako bat kristautasuna izan da.

Gure heziketan, nire heziketan garai hartan, ez ziren sartzen asignatura bezala etika, morala... Guk etika eta morala kristautasunaren bidetik ikasi genituen, aitaren eta amaren kristautasunak eta zintzotasunak erakutsita. Guretzat kristautasuna eta zintzotasuna lotuta ziren eta niretzat bizi

guztian horrela egon dira. Kristautasunetik garbitasunarekin jokatu behar du, besteei lagundu egin behar zaie, herriaren alde lana egin behar da... Nik esango nuke nire jokabide politikoan eta pertsonalean kristautasunak zerikusi handia eduki duela. Baita ere boladatan estutasunak nituenean, fededun izateak estutasun horiek gainditzeko balio izan dit.

Haserreak bai, baina gorrotorik ez omen du ezagutzen zure bihotzak.

Jenio bizikoa naiz eta nahi baino gehiagotan haserretzen naiz, baina berehala pasatzen zait. Baita ere, norbaitekin motiborik gabe haserretu, eta konturatutakoan barkamena eskatu. Gorrotorik ez diot inori, eta neurea defendatzen baldin badakit ere besteen konprenitzen eta errespetatzen badakit.

Norbaitekin haserretzen nintzenean edo bronka botatzen nionean ez nintzen lasai geratzen berriz adiskidetu arte edo barkamena eskatu arte edo gauzak berriz ere bere onera etorri arte. Horregatik askotan jendea harritu egiten zen bronka handi baten ondorenean deitu eta barkamena eskatzen nionean edo nolabaiteko adiskidetasuna lortu nahian bileratxo bat egiten genuenean. Uste dut hori ere nire bizitzan nire ezaugarrietako bat izan dela, baina egia esan boladetan jenio oso txarra izaten nuen eta askotan nire aldamenekoez ordaindu behar izaten zuten nire haserrea.

Gauza asko egin eta lortu duzu, baina bat ez: bakea.

Tamalez ez dut ezagutu benetako bakerik eta ez dakit mundu honetan ezagutuko dudana.

Iruditzen zait denok nahi dugula bakea, baina norberak nahi duena egin da, eta hori ezinezkoa da.

Ikusi besterik ez dago munduan zehar gertatzen ari dena, bakea oso urrun dagoela konturatzeko.

“Zenbat eta aurrerapen gehiago, orduan eta bakea urrutiago”, esaten du amona Benitak, Maritxuren amak, 95 urterekin, eta arrazoi faltarik ez du.

Hori munduan zehar, eta gure artean zer? Euskal Herrian zer? Gai honekin ere liburu bat edo gehiago idatz liteke, baina ahalik eta laburren nire iritzia azaltzen saiatuko naiz.

Bakea ezin du lortu pertsona batek bakarrik; bakea lortzea gizaki guztien eginkizuna da eta baita ere parte handi batean alderdi politikoena. Bakea lortzeko kolektibo osoak egin behar du lana, baina kolektibo oso horrek lana egiteko norberaren jokabideak eta posturak oso garrantzitsuak dira. Bakea lortzeko norberak, neuk kasu honetan, nire buruarekin bakean egon behar dut, nire emaztearekin, nire seme-alabekin, inguruan, lagunartean bakean egon behar dut eta beti bake bideak jartzen saiatu. Bakoitzak hori egingo bagenu bakea lortzea erraztu egingo genuke.

Alderdi politikoek beren ideologiak dituzte, ideologia desberdinak, baina denek diote bakea lortu nahi dutela. Helburu horretan denak daude ados, baina estrategian elkarrengandik oso urrun.

Batzuek arazo politikorik ez dute ikusi nahi, ETAren terrorismoa bakarrik, eta pentsatzen dute ETA desagertuz gero arazoa konponduko dela eta bakea lortu.

Besteek berriz garbi daukate gatazkaren oinarrian arazo politikoa dagoela, eta bakea lortu nahi bada arazo hori konpondu behar dela. Hauen artean batzuek pentsatzen dute arazoa konpontzeko ETAk desagertu egin behar duela, eta besteek berriz ETA desagertu aurretik gatazka konpontzeko bideak ireki behar direla.

Batzuek pentsatzen dute, eta horrelaxe adierazten, Espainia eta Euskal Herriaren arteko elkarbizitzarako formula edo sistema aldatu beharrik ez dagoela, eta iritzia eman beharko balitz, Estatu osoak eman beharko lukeela.

Besteek diote Euskal Herriaren etorkizuna euskaldunok erabaki behar dugula.

Hau da gutxi gorabehera alderdi politikoen artean dagoen “panorama” eta konponezina.

Gainera, hor daukagu ETA, euskal herritarren gehiengo baten borondatearen aurka. “Euskaldunen eskubideak bermatzeko” mehatxua, txantaia eta atentatuak erabiltzen dituen “erakunde armatua” batzuentzat eta “erakunde terrorista” beste batzuentzat, baina bakea nahi duela esaten duena hau ere.

Gaur egun jarrera hauek uztartu ezinezkoak direla garbi dago, eta bakea lortzeko nola edo hala uztartu egin beharko direla ere bai, baina epe motzean ezinezkoa ikusten dut nik inolako uztarketarik.

Horretarako norbere zenbait ikuspuntu eta desio alde batera utzi beharko lituzkete denek, eta ez dut borondate hori ikusten.

Ni independentista naiz, baina Eusko Jaurlaritzak atera duen Ibarretxeren Plana bezala ezagutzen dena ongi iruditzen zait. Baina dirudienez ez dauka etorkizun handirik bi muturretan daudenek ikusi ere ez dutelako nahi.

Dena den, bide guztiak urratu beharko dira elkarrizketaren, tolerantziaren eta demokraziaren bitartez bakea lortzeko, eta Xenpelarrek dioen bezala "ixuri gabe odolik".

Abertzaletasuna zuretzat ez omen da ideologia bat, sentimendua baizik.

Nik abertzaletasuna sentitu egiten dut, niretzat, beraz, sentimendua da. Ideologia ideietan oinarritzen da eta ideiak ez dira sentimenduak, beraz, ideologia ez da sentimendua. Orduan, abertzaletasuna, ez da ideologia. Nik horrela ikusten dut.

Esanenezake abertzaletasuna nik etxean jaso nuen sentimendu bat dela. Ni abertzalea sentitu egiten naiz eta horregatik esaten dut ez dela ideologia bat, sentimendu bat baizik. Eta sentimendu hori adierazteko euskara erabiltzen dut. Abertzaletasuna eta euskara niretzat lotuta doaz. Ez dut ulertzen euskara maite ez duen abertzaletasunik.

Ezagutzen ditut euskara ez dakiten abertzaleak, baina benetakoak direnak ikasten saiatu egiten dira eta saiatuz gero gehienek ikasi egiten dute. Zorionak horiei. Ezagutzen ditut, baita ere, lauzpabost hizkuntza dakizkiten "abertzaleak" eta euskara ikasteko denborarik hartu ez dutenak. Nire iritzian, abertzale ahulak edo komenentziazkoak dira gehienetan. Abertzale sentimendu handirik gabeak. Eta, azkenik, badira abertzale ez direnak baina euskara maite dutenak euskaldunak direlako. Euskal sentimendua dute, baina abertzaletasuna ez. Baina galderari lotuta berriz diot: abertzaletasuna ez da ideologia, sentimendua baizik.

Administrazioa enpresa bailitzan kudeatu nahi izan duzu. Burokrazia eta teknokrazia nola bizi izan dituzu?

Administrazioa, ahal dela, enpresa bezala kudeatu behar da, baina beti ezin da. Batzuetan neurri politikoak hartu behar izaten dira, eta orduan poliki ibili behar da, sen ona erabiliz.

Burokrazia eta teknokrazia ez zaizkit batere gustatzen, baina beste erre-mediorik ez zegoela jakinda, batzuetan agoantatu behar izan ditut. Hala ere, ahal nuen gutxiena erabiltzen nituen; funtzionarioek eta nire ekipo-ko teknikari eta langileek ederki ikasi zuten hori, eta berak ere saiatzen ziren ahal zuten gutxiena erabiltzen.

Alderdiak alderdi, erakunde publikoen autonomiaren zalea zara, erakundeak guztientzat gobernatu behar baita.

Gu hauteskundeetara aurkezten garenean alderdi politiko baten ordezkari bezala aurkezten gara, alderdi politiko baten izenean eta bere programa aurrera ateratzeko asmoz. Behin herriak aukeratzen nauenean, ni agintean jartzen banaiz herri guztiarentzat gobernatu behar dut eta alderdikeriak bazter batera utzi behar dira. Alderdiaren ildoak jarraituz, alderdiaren programa garatzen saiatuz baina baita ere “alderdikeria” erori gabe herri guztiarentzat gobernatuz; Zarauzko alkatea bazara Zarautz guztiarentzat gobernatuz eta Gipuzkoako Ahaldu Nagusia bazara Gipuzkoa osoarentzat gobernatuz, inor diskriminatu gabe. Ni saiatu naiz, ez dakit lortu dudana, zeren ez baita erraza beti objektiboa eta inpartziala izaten.

Alderdiekin ere nahiko zorte izan dut, eta noizean behin eztabaidaren bat edo beste izan arren, arazo berezirik ez dut izan behar nuen autonomia-rekin jokatzeko.

Jokamoldea garbi geneukan: alderdiak egitaraua eta norabideak eman eta alkateak edo Diputatu Nagusiak denontzat gobernatu.

Zer izan da zuretzat “agintearen erotika”?

Ez dakit zer izan litekeen “agintearen erotika”, baina nire kasuan izan daiteke gauzak egiteko edo egiten laguntzeko ahalmena izatea, hau da, horretarako boterea.

Boterea daukazunean gauzak egiteko edo antolatzeko ahalmena duzu eta hori batzuei atsegina egiten zaigu. Ni agintean oso eroso sentitzen nintzen, eta, gainera, gero eta botere gehiago orduan eta erosoago.

Botereak, gainera, jende ospetsu asko ezagutzeko egokiera ematen dizu eta hori ere oso atsegina zitzaidan.

Baita ere, agintean goian zaudenean jendearen harrera hobea izaten da eta hori ere atsegina izan ohi da. Gauza hauengatik eta tankerako beste batzuegatik, nik esango nuke "agintearen erotika" boterea dela.

Jubilatuta zaude, baina ez etxean geldi. Zertan zabilta? Politikatik aparte?

Jubilatuta nago, eta politikarako inhabilitatuta, baina ez daukat asperetzeko astirik. Itsasoa, golfa, familia (bilobak izar direla), zerbait idatzi, irakurri, noizean behin ETBra, edo Euskadi Irratira, emaztearekin paseatu... badaukat zer egina. Hezurrek ematen didate lan pixka bat baina burua lehengo lepotik dut, eta ahal dudala hezurren herdoil soinuari kasurik ez diot egiten, eta nahiko ongi nabil horrela.


Bukatu aurretik besterik adierazi nahi?

Bai horixe. Pare bat gauza esanez bukatu nahiko nuke. Elkarrizketan zehar ez didazu galderarik egin nire hanka-sartze, hutsegite edo akatsez. Egon seguru nire ibilbide luze honetan horietarik ere bat baino gehiago egingo nuela. Bat baino gehiago geldituko zen frustratuta bere arazoa konpondu ez diodalako, edo nire erabakiren batek kaltetu egingo zuen, edo min emango nion. Baina jakin beza holakoak ez direla berariaz edo nahita izan, baizik eta nire muga, ezintasun edo ezjakintasunagatik. Elkarrizketa hau baliatu nahi nuke hain zuzen kaltetu guztien ulermena eta barkamena eskatzeko.

Balitzko kaltetuei barkamena eta ulermena eskatzen diet, eta lankide izan ditudanei bihotz beretik eskerrak ematen. Hainbat ekimen nire lorpenzat agertzen badira ere, nik badakit, ondotxo jakin ere, hori ez dela guztiz egia. Ekintza, lan eta lorpen horiek ez dira nireak bakarrik, baizik eta lantaldearenak, guztionak, nahiz Zarauzko elkarteetan, nahiz Udaletxean

zein Diputazioan eginak izan. Traineruan bezala, partaide guztiek ez badute elkar hartuta lan egiten alferrik dabil patroia. Nik zorte handia izan dut bizitzan, lagunekin bezala lankideekin. Laguntza paregabea izan dut beti. Izenak aipatu beharko banitu dozenaka asko lirateke zerrendatu beharrekoak, pertsona zein elkarte. Banan-banan ez ditut aipatuko, baina jakin bezate guztiak gogoratzen ditudala eta banan-banan eskertzen die-dala egin duten lan eskerga. Milesker guztioi.

Izen eta guzti bat bakarra aipatuko dut orain eta hemen: Eusko Alkartasuna. EAko lagunei eskertu nahi dizkiet eman dizkidaten aukerak, nigan jarri duten konfiantza, eta liburu hau argitara ematea.



**Imanol
Murua
prentsan**

El Diario Vasco (1985.02.23)

BASARRI

Egintzak or daude

Idazlan labur batean ez daukat ezer asko esaterik. Ez behintzat Imanol'ek merezi dun guztia ta urre ematekorik ere. Sinistu ordea lerro bakan auek borondaterik onenez idatziak dirala.

Lan aundi, arrigarriak egin ditu Imanol'ek erriko agintari nagusi izan dan denboran. Kontzejal lagunak ere gogotsu lagundu diotela aitortu bearra dago.

Ixpillu ta eredutzat artzeko moduko ALKATEA izan da Imanol. Berak aurrera eraman eta burutu ditun egintzak auxe adierazten dute. Or daude ikusi nai ditunaren begi aurrean.

Iñola uka ezin ditezkenak dira. Biotz kaxkarra nai litzake ortarako.

Banaka-banaka danen kontu ematen asiko ba'nintz, ezertarako toki gabe geldituko nintzake. Ez nuke nai olakoriki.

Zarautz'ek bear zun GIZONA izan da erria gobernatu dun urteetan. Aukera-aukerakoa; bear genduna. "Iges ezazu goralpenengandik —dio Fenelon'ek- baiña alegiñak egitzazu merezi al izateko".

Nik ba-dakit Imanol ez dabillega goralpen eta laudorioen atzetik. Irabazi ditula ere ba-dakit ordea. Ba-daki erriak ere.

Gizon baten egintzak juzkatzerakoan, nik ez diot begiratzen politikari. Eusko Abertzale Jeltzalea da Imanol Murua. Sozialista, komunista, Ucedekoa edo "Alianza Popular'ekoa" izan balitz ere, lore berdiñak eskeiñiko nizkion erriaren onerako ainbat saiatutakoari.

Erriko gorabeeretan ez da politika aitatu bear.

Alkate ona, alkate erdipurdikoa, edo alkate txarra izan dan ikusi bear da.

Oztopo ta eragozpenak izutzen ez duten gizona da Imanol. Aunditu ta azi egiten dala esango nuke zailtasunak agertzen diranean. Itxita dauden langak ez dute bildurtzen. Iriki bitartean ez du atsedetik artuko, ain langille purrukatua dalarik.

Nekeak, burukomiñak, logaltzeak, ta nai dezun guztia. Hamaika olako izan du Imanol'ek, baiña beti AURRERA TXALUPARI, erriaren serbitzuan.

Gure Aldundi edo Diputazioko agintari nagusia da gaur egun. Ziur nago an ere bere arrastoa ta bere ezaugarria utziko dula.

Len Zarautz'en serbitzurako zegona, Gipuzkoa'ren serbitzurako dago gaur.

Arra baiño gehiago ez da geldituko; lanak ez du ikaratuko.

Ziurtasun osoa det nerekin, ondo ere ondo beteko dula bere tokia. Gipuzkoa ez dago esku txarretan. Egin dezakenik egin gabe ez da geldituko gure gizona.

Eta... egintzak dira emen balio dutenak”.

Deia (1986)

ATXAGA, M.

Imanol Murua

Imanol Murua, Gipuzkoako Aldun Nagusigaiaren inguruan zenbait gogoe-ta sortu zaizkit, bapatean. Besteak beste alderdikide guztien oniritziz izan da kargu horretarako aukeratua. Bere alderditik behar duen babes osoa lortu du, zorionez. Zergatik?

Aldun Nagusi berria, herrikoia eta ezaguna dugu. Ez du ezezaguna izateak eta besteetatik urruti egoteak eman ohi duen mixteriorik. Ez da herritik urrundutako gizon ospetsu bat. Herritarra eta herrikoia da. Bere-gana hurbiltzeko ez da distiraren eta liluraren harmailarik igo behar. Edonoren ondoan dago. Lagunartean. Bere bihotzaren taupada gozoak eta haserreak edonork suma ditzake.

Bestalde, eraginkorra eta erabakimen haundikoa da. Entzuten, eztabaidatzen eta erabakitzen daki. Ez da zalantzartean itotzen. Arre ala iso, zirt ala zart egingo du. Izan ere lanean, ekintzan jantzia da Imanol Murua.

Berezko sena, zentzua eta argitasuna lanean landu eta zorroztu ditu. Arazoak ez dira solasgai, eztabaidagai eta teorigai hutsak, eginkizun baizik. Imanol ez da hitza eta pitza, eztabaida antzuetan lasatzen, arazoak konpondu egin behar bait dira, era batera ala bestera. Erabakitzeko balorea du Muruak.

Herrikoitasunak, erabakimenak, langiletasunak eta zentzuak ematen dion nortasunaz zabaldu du bere inguruan itzala. Bere lan luze eta egoikiak egin du errespetagarri. Zarauzko Guraso Elkartea, Ikastola, Udaletxea eta Diputazioan nabarmena izan da bere eskuia, bere itzala.

Baina besteren iritziak entzuten dakiena argitzen da lanaren bidez. Irekia ez denak ez du ezer ikasten. Eta Imanolek ingurukoetatik ikasten jakin du. Balio hoiek denak aitortu dizkiote bere alderdikideek. Lege kon-tuetan, ekonomian eta jakintza-mailan jakintsuagorik eta ospetsuagorik bada, noski, alderdian. Baina alderdikideen begiak Imanolen beste dohain hoiek liluratu dituzte. Eta ez nolana ere. Bere kargu astunerako behar beharrezkoa zaion alderdi osoaren babes eta laguntza guztia jaso du.

Eta hori alderdiak bizi duen haserraldi bihurrienean. Jokabide txaloga-ria izan da EAJak, kasu honetan. (...)

Deia (1987.07.26)

MENDIETA, Iñaki

[GRAFOLOGIA]

El señor Murua es un exhuberante expansivo. Su extraversión se encuentra matizada por un sentido selectivo de sus amistades. Degustador sibarita de la esplendidez de la buena mesa. En ella combina con tacto exquisito tanto la interlocución política o amistad entrañable como el erotismo gastronómico. Su dinamismo y laboriosidad se encuentran ampliamente sustentados por esa especie de coraje y entusiasmo que imprime a sus acciones tanto personales como profesionales.

En su firma y rúbrica se perciben las continuas huídas a su mundo interior en el que analiza, programa, estructura y descansa para emprender el vuelo con aires renovados e iniciativas creadoras. En circunstancias

significativas su terquedad y obstinación le pueden granjear alguna que otra enemistad, pero esto no sucederá nunca sin previa dialéctica conversacional. Es apasionado en sus proposiciones y las defiende como si de algo personal se tratara. Su capacidad de entrega es envidiable y sus razonamientos se encuentran a mitad de camino, entre la ampulosidad dialéctica y el esquema eminentemente lógico. Sus impulsos son tan fuertes como el disimulo pudoroso de sus deseos.

El Diario Vasco (1989.10.11)

EGAÑA, Andoni

Imanol Murua

Jean Haritschelhar, Txomin Garmendia, eta honelako batzuekin batera gure herriko burusoil ilustreetariko bat dugu Imanol Murua. Aintzina zuten ustea zen, pentsatuaren pentsatuz joaten zela ilea erortzen, eta gaurregun horrelako uste arina atzendu xamarra badaukagu ere, izan daiteke zuzena. Belarri inguruetan bakarrik geratu zaio ile pittin bat Imanoli Lazkao Txiki esango lukeen bezala, “ilea burua baino beherago dauka gizon horrek”.

Kontuak kontu, tipo majoa iruditu zait beti Gipuzkoako Aldun Nagusia. Karguak ez dio aldaketa haundirik eragin eta hori seinale ona izaten da. Parrandazale xamarra omen zen, eta orain ere hala da; garai bateko kanpetxanotasun hura ere ez dio ito postuaren erantzukizunak; kastakoa omen zen, kastakoa da orain ere.

Gainera, bere zaletasun eta joerak dagoen tokira iritsi baino lehenagokoak ditu. Kantazalea da, bertsozale amorratua eta ez du inongo lotsarik (gaztetan gastatuko zituen denak nonbait) herriko jaietan neurriko bankete batean edo mitin politikoetan bere probatxoa egiteko. Kirolzalea ere bada; golfa praktikatzen du. Ez ordea Diputatu Nagusi bihurtu ondoren kirol “chic” bat egitea komeni zitzaiolako, estilo horretara mugizten den hainbat eta hainbat izango bada ere. Bestelakoa da Imanol. Gaztetan *caddie* hasi eta harra barrura sartuta golf-makilak hartzen dituzten horietakoa.

Junta Generaletan eman zuen hitzaldia bi orrialde luzetan isladatu zuen atzo egunkariak. Behingoagatik politikoak bat etorri dira diskurtsoa txalotzerakoan. Ez dituzte behintzat elkarrengatik kristorenak bota. Miraria irudituko zaio askori, beste askori politikoen arteko pasteleo funtsik gabea, baina jarrera itxorapentsua denik ez daiteke uka. Ez du meritu makala, kideko eta oposizioko konforma arazte horrek.

Norbait pasa zaio burutik honezkero zurikerian ari naizela. Litekeena. Baina ez dut uste. Boterean dagoena zuritzen hasten den idazle, kazetari edo artistak ez du etorkizunik. Etorkizunean, orain boterean dagoen hura ez bait da ia seguru boterean egongo.

Egin (1990.02.19)

UNZURRUNZAGA, Xabin

Kirolari, txipiroi arrantzale eta bertso zaharren kantalaria

Garai haietan (1966 inguruan) Ikastolak bi urte zituen eta nolabait aurre-ra eraman behar, zenbait zarauztar begi-belarriz lan hortan saiatzen ginan. Horien artean Imanol Murua ere.

Nere lehenengo harremanak ordukoak dira. Kirolari, txipiroi arrantzale eta euskal abesti eta bertso zaharren kantalaria bezala lehendik ere eza-guna nuan kale giroan.

Ikastolako batzordean lehenengo, Guraso Elkartekoan geroago, zenbait komisiotan jardunak gera elkar lanean. Batzar-lanak bukatuta txikito batzuk hartuaz gure kezkak, asmoak eta eztabaidak, batetik, eta baita ere kantak eta bertsoak bestetik.

Imanoli entzunaz ikasi genituen zenbait bertso eta kanta... Xenpelarren "Ez naiz ni gerraren zale" zuen eta, usten det, gaur ere duen maiteenetako kanta, dela.

Ikastola berria eraikitzekotan; herritik igaro behar zuen Autopista bere tokira eraman nahiean; herriko "Plan Generalaren" aurka eginiko borroketan; e.a.

1.974ko, Hauteskundeetarako hautatuak izan ginen Guraso Elkarteko Saisetik eta orduan hasi zen Udaletxeko zereginetan. Beti nabarmendu da langile porrokatu eta ekintza zale gisa.

Baina nere gogorapen sakonenak garai latz haietan, herriko mutilak preso hartzen zituzteneko umeetakoak dira; bere kezkek, zenbait egin beharretan, joan behar zen tokira azalduz, bai Gobernadorearengana edota Guardi Civil'en Jefaturara, mutilak ikusi arte etzuen etsitzen, familikoei lagundu eta abokatuekin harremanetan jarri; bera zen aurpegi ematne gehien arduratzen zena.

Une pozgarri bat, Udaletxean gure Ikurriña azaldu gendunekoa.

El Diario Vasco (1990.09.16)

INCHAUSTI, Estrella

Imanol Murua, a un año de las urnas

Imanol Murua comienza el último año de esta legislatura como diputado general. Un curso escolar, de nueve meses, porque las Elecciones Municipales ya están previstas para el 26 de mayo, en el que van a pesar los resultados de las Elecciones Autonómicas del próximo octubre. Lleva más de once años en la Diputación, cinco y medio como diputado general y valora que las satisfacciones han sido muchas más que los disgustos, aunque reconoce que esta última legislatura está siendo muy dura y difícil. No por causas internas del funcionamiento de la Diputación, puesto que se siente orgulloso de la buena marcha que lleva, sino porque ha tenido que hacer frente a unas inundaciones, la sequía, los incendios, el pedrisco, las discrepancias serias en el Consejo Vasco de Finanzas Públicas y ahora, la radicalización del tema de la autovía con Navarra. Pero, a pesar de todo ello, afirma sentirse satisfecho porque "estoy cumpliendo con mi obligación de político, de servir al pueblo, siguiendo las pautas de las instituciones democráticas y actuando, en todo momento, con la mayor honradez y lealtad".

Murua, que afirma, que no estudió para ser político, ni nunca pensó en dedicarse a la política, considera que ha llegado a ella al ser una per-

sona comprometida, desde muy joven, con su pueblo. Primero, fueron los organismos culturales y deportivos de Zarautz, después la Alcaldía y de ahí a la Diputación. "Si eso es vocación política, tengo que decir que sí la tengo". Pero tanto tiempo en ejercicio le hace pensar antes de responder si su nombre va a volver a encabezar la lista de EA como candidato a diputado general. Afirma que nunca ha sabido decir que no al partido y asiente en que tiene facilidad para conectar con la gente, y aunque la decisión final está en la Ejecutiva, "un relevo no vendría mal".

El Correo Español (1991.01.13)

Imanol Murua

Imanol Murua es el hombre de la autovía, esa carretera amenazada, encañonada o asesinada por los ingenieros de caminos de ETA. El diputado general de Guipúzcoa ha confesado que las primeras amenazas terroristas le produjeron desolación, algo parecido a lo que se debe sentir cuando la tierra se abre a los pies de uno. Tras la multitudinaria rueda de prensa del pasado lunes, la voz del diputado general transmite firmeza y serenidad. Murua ha embestido a los *visitadores* de HB con dureza y ha dicho "lo vamos a hacer" con ese fiero tono de alcalde de pueblo que impone respeto y acalla dudas.

Corto en talla física y verbo castellano, Imanol Murua es un *cashero* de Zarauz; también es lo que se dice un auténtico nacionalista "de nacimiento y de víscera". Nació, creció y se hizo hombre público dentro del PNV, al que, sin embargo, abandonó para seguir a Carlos Garaikoetxea en la fundación de Eusko Alkartasuna. Sucesor de Ardanza como diputado general de Guipúzcoa desde enero de 1985, se dice hoy en San Sebastián que a Xabier Arzalluz le encantaría hacer de él "el *Cuerda guipuzcoano*". Pero eso será cosa de especulación futura; ahora mismo, su mayor ocupación consiste en lograr que las hormigoneras no cedan ante las pistolas.

El Mundo (1991.05.14)

GURRUCHAGA, Carmen

Imanol Murua. Un diputado general atípico

Diputado general de Guipúzcoa por EA desde 1985, año en que se produjo la escisión del PNV, Imanol Murua tiene una personalidad atípica para su cargo que, sin embargo, conecta muy bien con la idiosincrasia de los guipuzcoanos que le consideran un “jatorra”.

El euskera como vocación

Durante los ocho años que estuvo como alcalde de Zarauz, su localidad natal, solía ir a la fiesta del libro vasco, en Durango, donde participaba e intervenía como un ciudadano más.

El esfuerzo que le cuesta hablar castellano se hace patente cada vez que se le escucha, ya que intercala modismos en euskera y “respira” si alguna persona pasa a hablar su lengua natal, idioma en el que se siente mucho más cómodo y seguro. Para usar el castellano debe traducir del euskera.

Tanto desde su puesto de profesor y presidente de la Ikastola de Zarauz como desde la concejalía, antes de ser diputado general, siempre se preocupó por la lengua vasca, interés que aparentemente transmitió a su hijo del mismo nombre.

Imanol Murua “junior” comenzó a trabajar como periodista en la revista euskaldun “Argia” y actualmente presta sus servicios en el diario “Euskaldunon Egunkaria”. Las malas lenguas llegaron a afirmar, que desde la Diputación llegaría alguna ayuda para ese periódico. Algo que, sin embargo, no sucedió.

Su aspecto físico —bajito y rechoncho—, su gusto por las “farras” que terminan con café, copa y puro y con Murua echando bertsos, hacen que transmita la imagen de un tipo jatorra y del pueblo. “Lan, lan eta lana”. Esta frase que utiliza como muletilla viene a demostrar que sus posibles carencias las suple con horas de trabajo.

Tiene más aspecto de segalari que de golfista y, sin embargo, ésta es una de sus mayores aficiones junto a la caza y la pesca. Le gusta salir en txalupa, a las aguas de Zarauz, a por chipirones.

Pese a ese aspecto de casero que aparenta, tiene una sensibilidad especial para el mundo del arte. El fue quien acordó que se comprara la biblioteca de Celaya como una manera de ayudar al poeta y organizó unas jornadas en las que la Diputación editó el libro “Trilogía Vasca”.

Autovía

Este maestro industrial de profesión, nacido en Zarauz hace 56 años, que lleva siete años como diputado general, ha conseguido ser conocido más allá de los límites de Euskadi, “gracias” al conflicto de la autovía Irurtzun-Andoain.

La polémica entablada, primero con Herri Batasuna y después con ETA respecto a la idoneidad o no del trazado defendido por la Diputación, ha hecho que este hombre haya ganado muchos enteros ante los ciudadanos que están a favor del trazado oficial.

En ningún momento ha bajado la guardia, ni siquiera cuando los empresarios que ya habían aceptado realizar el proyecto, decidieron por presiones, abandonar la obra.

El Correo Español (1991.05.15)

ZUBIRIA, I.

Murua, el ‘alcalde’ de Guipúzcoa

Su aspecto de hombre sencillo y humano prevalece sobre su condición de político. La impresión de que Imanol Murua es un hombre sin trampa ni cartón, que lo que dice sólo tiene una lectura, es la clave de su elevado grado de aceptación social, muy por encima de la sigla que representa. Por eso su partido le ha encomendado la difícil tarea de resistir y tratar de frenar la fulgurante ascensión que el PNV, su auténtico adversario, ha emprendido en territorio guipuzcoano por ocupar la presidencia del Gobierno foral. A pesar de su rústica oratoria de hombre euskaldun que se traduce cuando habla castellano, y de ese peculiar aire rural que le caracteriza —o quizás precisamente por eso— Imanol Murua ha conseguido

aproximar la desconocida institución que él preside al hombre de la calle. Más que el diputado General, podría ser el ‘alcalde’ de Guipúzcoa.

Llegó por una carambola a ocupar el cargo de diputado general que más tarde revalidó con los votos. En realidad, Murua tuvo una singular posición en los momentos difíciles de la crisis del PNV, lo que le permitió cubrir el puesto que ahora trata de mantener. Como alcalde de Zarauz era, en 1985, un hombre de Garaikoetxea, mientras que como diputado foral era el hombre de confianza en las tareas de gobierno del entonces diputado general de Guipúzcoa, José Antonio Ardanza. Precisamente a él le sucedió al frente de la institución guipuzcoana, pero encuadrado en el partido que fundó Carlos Garaikoetxea.

En las municipales de hace cuatro años revalidó ampliamente su cargo y pudo incluso demostrar que posee su *tirón* personal en las urnas. Obtuvo entre el electorado guipuzcoano casi cinco mil votos más que su líder, Carlos Garaikoetxea, que resultó elegido parlamentario europeo. Dicen que su fama de “*hombre bueno*”, que posee cualidades que cada vez parecen más vedadas a los políticos —como la sinceridad y la naturalidad— es lo que ha convertido a Murua en uno de los personajes más aceptados del panorama político vasco.

A pesar de su significativa posición en la crisis que dividió al Partido Nacionalista Vasco, Murua ha evitado echar más leña al fuego durante estos años en que los dos grupos han mantenido una batalla soterrada y sorda. Por eso, desde las filas *peneuvistas* nunca han ocultado el reconocimiento hacia su figura, a la que hubieran preferido no tener como adversario electoral. De hecho, los *peneuvistas* han soñado en más de una ocasión con el retorno de Imanol a sus filas, reproduciendo la misma operación que se llevó a cabo en Alava con José Angel Cuerda.

Antítesis del político brillante

“*Trabajador incansable, discreto, perseverante*”, son algunos de los calificativos que sus próximos utilizan para describirle. En cualquier caso, es la antítesis del político brillante, del malabarista de las palabras o del hombre preocupado por la propia imagen. A Murua le gusta imprimir un fuerte ritmo de trabajo allá donde se encuentre, y desde que fuera alcalde de Zarauz, su pueblo natal, conoce la Administración y está acostumbrado a

lidiarla como si de una empresa se tratara. Busca, también, rentabilizar el tiempo frente al burocratismo oficial, otra de sus cualidades poco observables a primera vista, pero que quizás ha contribuido a su permanencia en un cargo ambicionado incluso por sus propios compañeros.

Pero no lo ha tenido fácil. Junto a la responsabilidad de gobernar un territorio como el guipuzcoano, Imanol Murua ha debido hacer frente al problema de la autovía del Leizarán, el auténtico desafío de ETA a las instituciones democráticas. La amenaza lanzada por la organización armada a mediados de la legislatura que termina, ha marcado decisivamente este período de gobierno guipuzcoano. Murua nunca ha negado que el problema de la autovía ha constituido el mayor reto de su Gobierno, a la vez que no oculta su satisfacción por la manera en la que ha logrado afrontarlo.

Se diría que se ha sorprendido a sí mismo. Como también se han sorprendido todos los partidos democráticos que lograron hacer un frente común cuando ETA interrumpió el comienzo de las obras al reconocer los empresarios que les agarrataba el sentimiento de "*pánico generalizado*". Ante la adversidad, Murua se creció de tal modo que su firmeza para defender el papel decisivo que corresponde a las instituciones ha repercutido en una reafirmación de su figura, después de meses de zozobra vividos en el seno de la institución, sometida a la violencia del desafío *etarra*.

Los que creen saber que la continuidad de Imanol Murua al frente de la Diputación estaba muy cuestionada, se apresuran a añadir que su reacción al problema viario Irurzun-Andoain le ha reafirmado. En efecto, el diputado general ha liderado la respuesta institucional a las amenazas y chantajes de la extrema izquierda abertzale contra los empresarios y trabajadores. Su firmeza, la rotundidad de sus denuncias de las coacciones, ejercidas incluso por dirigentes de Herri Batasuna, han sentado un precedente muy importante. Al fin y al cabo, Imanol Murua milita en uno de los partidos menos beligerantes frente a este mundo radical abertzale.

Del mismo modo que la firma del pacto de Ajuria-Enea relanzó el liderazgo del lehendakari, la autovía del Leizarán y la consistente respuesta del diputado general de Guipúzcoa han convertido a Murua en el hombre fuerte de la institución foral. A partir del conflicto su discreción proverbial pasó a un segundo plano y pudo descubrir las mieles del triunfo y la notoriedad que otorgan las primeras páginas de los periódicos y la presen-

cia ante las cámaras de televisión. Esta es la *ola* que su partido busca ahora para tratar de frenar el ímpetu que impulsa al PNV tras los resultados obtenidos en las recientes elecciones autonómicas.

La sorpresa del golf

Aunque ha declarado sentirse cansado y dispuesto a dar paso a las *"nuevas generaciones"*, a los 56 años Murua parece encontrarse en su puesto como pez en el agua. Político forjado en la mejor tradición del nacionalismo vasco, profesor de la Escuela de Maestría de su pueblo natal, Imanol Murua formó parte de las Juventudes Antonianas y fue también presidente de la Ikastola Salvatore Mitxelena durante el franquismo. Esta experiencia le llevó, a mediados de los años 60, a formar parte de la corporación municipal en representación del tercio familiar, antes de ser elegido alcalde sin que nadie discutiera su liderazgo cuando se produjeron los primeros comicios municipales, en 1979. A la tradición turística de Zarauz debe el diputado general una de las aficiones que más le *"engancha"*: jugar al golf. Cultiva lo más que puede este deporte en el que se inició siendo muy joven y se sirve de él como resorte para sorprender a los visitantes o invitados, si es que el tiempo lo permite.

Como alcalde de Zarauz, uno de los cargos le llenan de orgullo y que mantuvo durante casi una década, formó parte del grupo de alcaldes que durante los primeros años de la transición política convenció al presidente Adolfo Suárez para que despenalizara el uso de la *ikurriña*. Aquella experiencia en la que Murua tuvo un notable protagonismo, le permitió conocer a Jose Luis Elgoro, verdadero líder a aquel movimiento de cargos electos que se difuminó con la aparición de los partidos en el panorama político. Años más tarde, Murua y Elgoro, dirigente de HB, se han enfrentado públicamente por la autovía del Leizarán. También competirán electoralmente, ya que el actual alcalde de Bergara es, como Imanol Murua, candidato a diputado general de Guipúzcoa, lo que les convierte en auténticos contrincantes.

El Diario Vasco (1991.05.22)

SURIO, Alberto

Genuino sabor

Si algo ofrece Imanol Murua es escapar de la imagen del político convencional al uso. Voluntarioso, el éxito de su popularidad estriba, fundamentalmente, en su sencillez y en su trato directo. Sus allegados lo han definido como un 'gizon' del país, el perfil de una persona clara, sin trastienda maquiavélica, talante campechano y, en definitiva, prototipo de 'jatorra', características que explican en buena medida su elevado índice de notoriedad. Afín a la sociología nacionalista tradicional, su problema es que todavía no se le identifica del todo a las siglas de su partido.

Murua ha puesto la guinda de su mandato con la apuesta firme en defensa de la autovía. Un contencioso que ha relanzado su protagonismo político y el de la Diputación guipuzcoana, pero que también le ha granjeado algunas enemistades en algunos sectores que siempre habían respetado su estilo popular y la aureola fraguada en sus tiempos como alcalde de Zarautz, cuando viajaba a Madrid a interesarse por el estado de los detenidos. Enemigo del boato, ha tenido la extraordinaria habilidad de recorrerse Guipúzcoa de punta a punta para estar presente en cuantos actos ha sido invitado. Es un ajetreo heredado de sus tiempos como alcalde zarauztarra, época que le marcó profundamente. Murua fue una de las personas a la que más costó dar el paso de escindirse del PNV. Fue una decisión traumática, ya que, según afirma, siempre estuvo en contra de la ruptura y quiso mantener unido al PNV. No lo consiguió. A sus 56 años, este ex profesor de la Escuela de Maestría de Zarautz, amante del golf y de las matemáticas, se la juega, políticamente el próximo domingo.

El Diario Vasco (1991.07.07)

IRAOLA GARMENDIA, Rufino

Duintasuna

Imanol Muruari dedikatu nahi nioke gaurko artikulua. Bere biografiaren atzenaldiari lotuko banatzaio ere, aurretikoaz zerbait esatea bidezkoa izango dela deritzot; izan ere, Imanol Murua ez baita atzo goizekoa, frankismo garaian ere aurpegia emana baizik. Gogoratu Bergaran sortutako “Alkateen Mugimendua” delako hura. Nik errespetu handia diet beti lanean, ikusi eta azken momentuan gurdira igo zirengandik irainak jasotzen dituztenei. Inor baino gehiago delakoan, behar zenean ezkutuan egondako jende asko dabil bazterretan. Imanol Murua ez da horietakoa. Horregatik, aginte denak ez dira neurri berean legitimoak: Zarauzko giza-seme sendo honena bai.

Jator eta herrikoi famakoa izan da beti Imanol. Nahiz eta kargu handiak izan, ez dio utzi koadrilarekin irteteari edo txikiteo eta tabernako txolartei. Deskuidatuz, gero, bertsoan hasteko ere badira txarragoak. Bertsolari Txapelketaren finalean txistu jo arren, (gidoiak hala eskatzen zuen sobra ere) txistu jole haien artean inor gutxi egongo zen bere buruarekin konforme. Seguru nago bihotzak besterik ziola bati baino gehiagori.

Kargua ere ongi bete duela esan behar. Zenbait lekutan ainako ustel usainik ez da egon Gipuzkoako Diputazioan. Apenas kontuak gaizki aurkitzeko beldurrik duen Eli Galdosek.

Baina Imanol Muruak, behar denean tinko jokutzen ere badakiela jakin erazi digu. Proba gogorak pasa behar izan ditu. Autobiarena, besteak beste. Nolako sentsibiltatea erakutsi duen proiektua egiterakoan eta nolako seriotasun eta irmotasuna defendatu behar izan duenean. Eraso eta mehatxuen aurrean ez du amorerik eman. Txapela erantztekoa!

Kargua paktua dela medio galdu du. Ni ez noa, ordea, paktu hori gaitzestera. Paktua, hau hai beste bat, gustatu ala ez gustatu beharrezkoa zen. Guztiarekin ere, beste puntu inportante bat Imanolen alde; bazuen Diputatu Nagusi izaten jarraitzeko modua. Aukera ezin hobea zeukan. Ez du nahi izan, ordea. Bere printzipioak eta etika jari ditu politika eta, batez ere, karguaren gainetik. Ezetz esaten jakin egin du. Bere printzipioekiko

fideltasuna garbi erakutsi du. Ez du gobernatu nahi izan edozein prezio-tan. Zorionak!

Hala ere despedida itsusia izan du Imanol Muruak. Hurrengo egunean Ordiziako azokan saldu edo erosi beharreko arrautzen mantxak eraman zituen trajean. Horixe baino begirune gehixeago merezi duen gizontzat daukat Imanol. Negargarria, benetan! Negargarria den bezala "PNV español" kaleetan jartzea.

Imanol, aldiz, elegante portatu da. Besarkada batez agurtu zuen Eli Galdos. Sorte ona opa nahi izan dio. Ez dago gehiago eskatzerik. Galtzen badakiela erakutsi du.

Horrelako gizonari sinpatia handia diot nik.

El Diario Vasco (1991.07.13)

GARMENDIA, Txomin

Agur Imanol

Gure Aldundi ederrean Lendakariaren aldaketa ezagutu bezin laister, bururaten zitzaidan Imanol Murua adiskide aundiari buruz zerbait idaztea. Izan ere, artu-eman pranko izan degu alkarrekin joan dira amabi urtetan eta etzan izango arritzeko. Beti, nagikeri edo zer batek atzeratzen nindun ordea eta beste gai bati elduko nion. Uztaillaren 7'an, "Gure Artean" orrialde ontan Errufino Iraola adiskideak idazita zekarrena ikusiz eten zait zer ori, eta badijoa nere lantxo apala.

Imanol, gizon aundi bat izan degula aitortu bearra dago, zeinekin egokitzen zitzaion ibiltzea eta itzegitea neurri artantxe jarriko zan bera ere. Jarri bakarrik ez, baita luzitu ere; bertsolaririk eskaxenarekin kantatzea etzan lotsatuko, gradurik aundieneko gizon-emakumeekin ere alen gradura igoko zan eta aurrera itz gutxitan esateko: Aldundiko aulkia ondo betetzen zun gizona.

Emen aitatzea bearrezko ez dan eraso askori ere arpegi eman bear izan die zarauztarrak; Ernio mendia bezin tinko eta sendo iraunez, eta bere eginkizuna zintzo beteaz. Zarautz'ek asko zor dio Imanol'i, urte batzutan ango Alkate izan zalako, eta Gipuzkoarrok asko zor diogu Imanol'i, Aldun-

diko Lendakari izan degulako. Au ukatzen duna, zuria beltza dala esaten ari da.

Norbaitek galde lezake: "Ain ona izan da nolaz bota dute ba aulkitik?". Begira, demokraziaren legeak eta arriskuak orrelakoak dira; Jesus bera ere, demokrazi baten bidez izan zan gurutziltzatua eta illa. Azkenik Imanol'ek galtzen ere badakila erakutsi digu, eta or gelditu da istoriako bere agurra eta bere ondorengoari eskeñi zion suerte ona.

Agur Imanol. Zorionak eta besarkada bero bat. Eta, Eli txantxikutar adiskideari, zorionak eta suerte on baita ere.

El Diario Vasco (1991.07.14)

SURIO, Alberto

Un reposo forzado

Paradojas de la vida. Nunca había sido alcanzado por la 'artillería' de objetos de los simpatizantes radicales salvo, precisamente, el día en que dejó el cargo de diputado general. El caso es que cien mil pesetas le costó la 'broma' de los huevos lanzados por algunos manifestantes a los junteros que abandonaban la casa consistorial de Ordizia el día del pleno de investidura. Una lluvia de huevos se estrelló contra Murua, su esposa y su secretario, dejando inservibles sus trajes y un amargo sabor de impotencia. Olvidado el incidente, Murua disfruta ahora del verano zarauztarra, mientras saborea un 'Cohiba' que le regaló el embajador de Cuba en una visita oficial, "los mejores puros del mundo", dice, mientras se le apaga el habano constantemente. Desgraciadamente, ha dejado el cargo con una dolencia en la pierna derecha, "nada grave, pero muy dolorosa", que no es un desgaste de cadera, como temía, sino, probablemente, una tendinitis. Pero Imanol no pierde el optimismo y promete jugar al golf cuando se recupere y dedicar el primer trofeo que gane a los periodistas que le regalaron la bolsa para guardar los palos de golf y el carrito. De hecho, excepcionalmente para escenificar gráficamente su afición, suspendió por unos minutos su obligado reposo y consiguió meter en el punto adecuado las tres bolas que lanzó, "y eso que tengo la pierna así", puntualizaba satisfecho.

'Alcalde' de Guipúzcoa

Su historia política comienza una incierta etapa. Muy atrás quedan sus tiempos de alcalde de Zarautz, su participación en el movimiento de los alcaldes de Bergara, cuando propuso dimitir del ayuntamiento tras los fusilamientos de septiembre de 1975 o cuando se enfrentó en febrero de 1978, sólo, ante los efectivos de la Guardia Civil que habían tomado el pueblo. En aquella época, Murua no hacía muchas migas con la Guardia Civil. El gobernador de la época, Belloch, le ofreció residir en un piso del Gobierno Civil para protegerle de las amenazas que recibía de algunos guardias civiles de la localidad. Surrealismo en estado puro que revela una trastienda de sabrosas vivencias políticas. Pocos saben que Murua llama 'tupamaros' a los 'borrokas', que aprendió a 'negociar' las fianzas de las libertades condicionales de los hermanos Múgica y que izó oficialmente la primera ikurriña en enero de 1977 en el ayuntamiento de Zarautz, para lo que previamente gestionó el traslado de un concejal que esta enfermo para que hubiera 'quorum' en un pleno que se había convocado para adoptar la decisión. Murua, el diputado general que cantaba bertsos y que pasará a la historia como un político atípico y 'alcalde' de Guipúzcoa, respira ahora el aire de un retiro que no quería. Por primera vez, viajará de vacaciones a Palma de Mallorca. Mientras tanto, recibe felicitaciones, "por la categoría humana que has demostrado", le dicen. ¿Lo de la pierna?, "jugando al fútbol en la playa", responde con humor a quienes le preguntan por su cojera. Quisiera participar en un campeonato de golf el día de San Ignacio. Es la Copa de la Diputación. Toda una rentrée con sabor a 'open' y una nostalgia inevitable por lo que pudo haber sido y no fue.

Egunkaria (1992. 01.12)

AZURMENDI, Nerea

Hitz gutxitan

Hitz gutxitan despatxatzen ditu Imanol Muruak "azterketarako" jarri dizkieten hamar ezagunak. Eta hitz gutxitan bilduko lituzke, seguruenik,

hogei urte luzetan politikagintzari lotua mantendu duten ideiak eta helburuak, bai eta epe luze horretan bizi izan dituenak ere.

Gipuzkoako Aldun Nagusi ohia ez da berak “pasteleoa” deitzen duen horretarako jaio. Ez du gaur egun moda-modan dauden zirkunlokioetarako balio. Akaso askok uste baino konspirazio gehiagotan hartu du parte, baina nik, egia esan, ez diot konspiratzaile traza hartzen, ez bait du burmuina karanbolak aztertzeko erabiltzen, bolak zuzen bidaltzeko baizik, golfean egin ohi den bezala. Gehienik ere, efekto piska batekin... Eta hala dabilen politikoa, gaurko politikagintza labirintikoan galdu egin daiteke. Eta, akaso, ez da berez txarra izango labirinto horietan beti biderik erosoena eta motzena aurkitzen e jakitea. Imanol Muruari gehiegizko inflexibilitatea leporatu zaio autobidearen auzian, eta ukaezina da ez duela karanbolistaren abildaderik eduki. Zuria eta beltza bereizten zaila den honetan, kolore bakar baten aldeko apostua egitea arriskutsua da. Baina zuria oraindik ere zuria dela eta beltza beltz pentsatzen dutenen artean, Imanol Muruaren koherentzia (ala inflexibilitatea) sinesgarritasunaren garantia da, egin dituen azken apostuetan, karanbolak direla medio, ezer gutxi irabazi badu ere. Ez da zaila, non ikutu asmatu ezkerro, ondoez eta pozak bertsotan kurioso moldatzen dituen Imanol Murua malkoetaraino unkitzea. Ez eta, trumoietan, seko haserretzea ere. Hitz gutxitan adieraziko ditu biak, buelta gehiegirik gabe, azpian sarea jarri barik. Normala da, beraz, Imanol Muruaren politika ulertzeko era ez “modan” egotea...

El Mundo (1993.05.28)

GURRUCHAGA, Carmen

Un euskaldun “jatorra”

Ex alcalde de Zarautz, ex parlamentario vasco, ex diputado general de Gipuzkoa y actual portavoz de EA en las Juntas Generales de esa provincia, este zarauztarra de 57 años destaca por la humanidad que transmite, aunque según dicen los que trabajan con él “también destila mal café”. Profesor de la Escuela Profesional de Zarautz desde 1954 a 1961, tras las últimas elecciones forales estaba dispuesto a volver a la docencia. La lista

encabezada por Murua había resultado la más votada de entre los autodenominados partidos democráticos.

Sin embargo, PNV y PSOE —tercera y cuarta fuerza—, con la abstención de HB, pudieron conformar el gobierno de la institución foral. Algunos miembros de la coalición abertzale suelen decir que si Murua hubiera aceptado cambiar el trazado de la autovía Navarra-Gipuzkoa, le habrían votado a él el día de la investidura. Sin embargo él prefirió “no dar un giro de 180 grados en ese asunto”.

Algunos percibieron como “tozudez” su postura inamovible en la defensa del trazado primitivo de la autovía, otros la consideraron “coherente y honesta por no ceder al chantaje de ETA”.

El resto de la historia ya es conocida. Herri Batasuna se abstuvo, en el mes de julio, en la elección de diputado general, resultando elegido el “peneuvista” Eli Galdos. Un mes más tarde, éste anunciaba el cambio de trazado de la autovía.

Imanol Murua fue diputado de Cultura, allá por el año 1984, en una Diputación presidida por José Antonio Ardanza. Después llegaría la escisión y Murua pasó a ser diputado general, mientras Ardanza ocupaba el puesto de presidente del Gobierno vasco.

La palabra “jatorra”, que define perfectamente a Murua, en castellano quiere decir muchas cosas: majo, simpático, campechano... Hay multitud de anécdotas que avalan ese calificativo. Amante del buen comer y del buen yantar, al final de las comidas suele fumarse un puro y a nada que alguien le anime canta “bertsos” y además, lo hace bien.

Tiene ciertas dificultades para hablar el castellano con fluidez, y con ese sentido del humor socarrón, capaz de reirse de sí mismo, en cualquier mitin suelta que él es “castellanoberri”, en contraposición a euskaldunberri. También suele decir, con un acento euskaldun que mata: “voy a hablar en castellano, porque también sé el castellano”.

En la presente campaña, ha sido él, con esa manera peculiar que tiene de decir las cosas, quien ha insistido en reivindicar la diferencia: “ni mejores ni peores, pero no somos todos iguales, porque a ver, si a mí me van a comparar con esos que andan todo el día robando”, dijo en el acto de presentación de campaña.

Al impugnar el PNV el orden en el que EA-EUE había puesto los nombres de los senadores en estas elecciones, Murua, tras desearles suerte en la campaña, sugirió a sus ex compañeros de partido “que se preocupen de cosas más importantes, que del orden alfabético ya se preocupará la Junta Electoral”.

Aficionado al golf, cuando dejó el puesto de diputado general un numeroso grupo de periodistas le hicieron una despedida y le regalaron unos palos para practicar ese deporte. Durante algún tiempo, sin embargo, no ha podido usarlos porque ha tenido problemas con la rodilla y ha estado en tratamiento con un quiropráctico.

Como diputado general asistió a la feria “Arco”, en Madrid. Una escultora, estaba enseñándole un trabajo y con esa sinceridad que le caracteriza dijo: “Bonito ya será pero a mí, qué quieres que te diga, pero no me gusta”. En una comida, un periodista le recordó la anécdota y no paraba de reírse.

En el trabajo, es enormemente exigente y suele echar grandes broncas si alguien mete la pata, aunque, según dicen, si es él quien se ha equivocado, pide disculpas.

La gente que le rodea dice que a pesar de esa imágen de “euskaldun jatorra” es un hombre “rápido, listo y muy capaz”. Además es lo que se ha venido en llamar una persona muy de orden y le molesta y disgusta todo lo que suponga disturbio, revuelto... Pese a que dicen que no es rencoroso, tiene una espinita clavada en el corazón y es lo que él considera “puñalada traperá”, principalmente del PNV, y el PSOE: “Me presionaron en muchas ocasiones para que ni siquiera hablara con HB o Lurraldeá respecto a la autovía y ellos, a la primera de cambio, ceden y me hacen quedar como un cabezón”.

Egunkaria (1996.08.25)

LERTXUNDI, Anjel

Imanol Murua. Argazkiak neure albumetik

EGUNKARIAkoei Imanol Muruari buruzko perfila agindu nienetik, zer esan baino, nola adierazi izan dut arazorik larriena. Aukera askoren arteko

zurrunbiloan ibili eta gero, erretratu fisikoa baziertu (ez dut begiak ari-maren ispilu direnik sinesten; begi ederreko barren huts asko ezagutzen baitut inguruan), eta nire oroitzapenen argazki albumari pasadatxo emanik, albumeko argazki adierazgarriena hautatzea erabaki dut.

Hobbien argazkiak begiratu ditut lehendabizi. Gaztetako argazki batean, Imanol ehiztari jantzian eta oilagorren bila Pagoeta mendiaren inguruetan. Handik urte batzuetara, eszenategi bera ikus dezakegu beste argazki batean, baina ehiztari jantzia kendurik, trajeatuta ikusten dugu Murua, Pagoeta Parke Natural deklaratu zen egunean (eta, besteak beste, han ezingo zela ez oilagorrik, ez galaperrik hil). Mahonezko galtzak eta modatik pasatutako alkandora laukidun bat soinean dituela dago beste argazki batean. Eskuak zabal ditu, norbaitek gurutziltzatu balu bezala; txalupa batean eserita dago, ordea, itsaso bare-bare baten erdian: txibitan ari dela esango nuke Zarauzko Golf-ean sartzen ageri da beste argazki batean. Hango estatutuak *herritartu* edo diren garaiko argazkia da, eta Imanolek golf-eko poltsa astuna darama bizkarrean. Nik dakidanez, ez du sekula *cadi*-rik erabili. Garestiak direlako den edo hala-holako klase kontzientziak eragozten dion *cadi* bat kontratatzea, horixe ez dakit. Argazki horren bigarren planoan aristokrata eta sasiaristokrata talde bat Muruari bizkarra emanda. Garai berri baten atarian gaude, eta Muruaren argazkiak ondo ilustratzen du aldaketa hori: estaduko elitearen udaleku izatetik euskal elitearen udaleku izatera pasatu da Zarautz.

Herriko hainbat inizatibaren argazkiei eman diet gero errepassoa. Ikastolako batzordeko bileran dago batean; hainbat lankideren erdian (eskuinean du Basilio Bergara, Santxo leial baten moduan), ikastola berria jasotzeko diru bilketaren estrategiak diseinatzen ari da *kilometroak* ez zeuden garaian. Hor dago frankismoaren amaierako udal-jestoran ere; euskal jaietan: transizioko talde politikoen arteko lehendabiziko bileretan... Argazki guztietan Muruak dirudi ardatza harengana bildurik baitaude begirada gehienak, hark zer esango, zer bide markatuko baleude bezala. Argazkiek garaiko hotsak jasoko balituzte. Murua entzungo genuke hizketan: modu *gihartsuan* kolaboratzaileen esanetan, *autoritarioan* Muruaren arerioen ustez. Batzuek eta besteek *panzer* irudia ere erabili izan dute Murua definitzeko orduan: irudi horrekin Muruaren lanerako ahalmena

azpimarratu nahi dute aldekoek; arerioek, berriz, haren aginte orojalea kritikatzan dute.

Albumaren beste argazki batean bere ohiko lanean ari da: frantziskotarren Eskola Profesionalean matematikako irakasle. Haren gelatik pasatutako ikasle guztiek aitortuko dizute irakasle ona zela, baina baita gogorra zela ere, eta Santa Barbaratik entzuteko moduko orruak ateratzen zituela arazoren bat zegoenean, edo ikasleek ariketaren bat ulertzen ez ziotenean. Irakasle gogor hori Ciprineko tabernan dago orain, eta baso erdi bat hartzen ari da lehen sekulako errieta bota dion ikaslearekin.

Lagunartean egindako argazki multzoa begiratu dut gero: Pikero zenarekin nork nori ziri: oraintsu hil den Salegirekin eskola profisionalean; bere koadrilakoekin *Galeperra* soziedadean afaltzen, musean, kantuan eta bertso txar bat edo beste inprobisatzen; Basilio Bergararekin herriko hainbat saltsatan; Xabier Leterekin Diputazioan, eta bere hautamen askoren klabea ulertuko genuke argazki horretan: Imanolek nahiago ditu herrikoitasunaren seneko pertsonak lankide, kaletik urrun bizi diren teknokratak baino.

Beste argazki batean, auto bat gidatzen ari da Iruñerantz. Diputazioan izan zituen hainbat lankidez beterik dago autoa, baina inork ez du ezer esaten, Muruaren begietako tristurak elkartasunezko isiltasunera behartuko balitu bezala. Muruaren begirada galduak hausnarketa eta saminen errosarioa idarokitzen ditu. Sufritzen ari da, eta historiak merezi ez bezalako labankada traidorea eman ziola pentsatzen du Muruak bere autoa San Lorentzoko tuneletik irten denean.

Arantzak bazterturik, ikus dezagun San Pelaiotako pregoiaren argazkia. Murua Udaletxeko balkoian dago, Txirritaren posturan. Ez dakigu zertan ari den, sekulakoa baita Udaletxearen aurrean bildutako jendearen zarata. Baina handik gutxira, txanpain-botilen giro apartua jasotzen duen *flash* batean, herriko sasi-bertsolari bat eta alkatea ikusten ditugu. Sasi-bertsolaria ari zaio Muruari kantari:

*Gure herriko alkatea,
alkate herrikoia,
bertsotan botatzen du
festetako pregoia*

Baina pregoi eguneko bi argazki horiek baino oraindik ere berriagoa da argazki guztien artean hautatu dudana. Hil honek hamaseikoa da Udalletxeko Areto Nagusian, ekintza dotore bat. Herriko dominak eman behar zaizkie Franzisko Eskudero, Imanol Urbietta eta Jose Antonio Azpeitiari. Alde batetik, bi musikari: eliteko musikaria bata; herribeharren zurrunbiloan murgil eginik, eliteko musikari izateko aukera baztertu eta herri-musika hautatu zuena bestea. Eskudero eta Urbietarekin batera, Jose Antonio Azpeitia, plaza-gizon peto-petoa.

Eliteko kultura, kultura herrikoia eta plaza-gizona: hiru omendu horiekin ekintza bakar bat bururatu izanak laburbiltzen du Imanol Murua-ren filosofia herrikoia, alkatearen arerioek *populista* deitzen dutena.

Ekintza solemne horretan ez zuen bertsorik bota. Ez daukat, ordea, omen-bazkariko argazkiak eskatu beharrik, bertsotan eta kantuan egin zuela jakiteko.

El País (1999.06.05)

GASTAMINZA, G.

La retirada de un político vocacional

“Yo no soy rencoroso; soy un sentimental y perdono enseguida porque me atrapan las personas y las situaciones”, confiesa Imanol Murua (EA), alcalde de Zarautz, al final de su última legislatura como mandatario, tras 20 años de poder, al frente de su pueblo, como diputado foral o como diputado general de Guipúzcoa. Su retirada a los 64 años, aunque seguirá en las Juntas Generales, tiene el aire de producirse, un poco, a su pesar. Está muy meditada y, entre sus razones, ha pesado el evitar seguir siendo el hombre imprescindible y resolutivo. “No quiero ser un tapón”, dice este político que se inició como tal a finales del franquismo entrando en la corporación municipal de Zarautz por el tercio familiar con el único objetivo de crear la *ikastola* que se inauguró en 1976. Y desde entonces hasta hoy.

En este tiempo, además de concejal y diputado foral de Cultura, Murua ha cumplido dos legislaturas como regidor de Zarautz —entre 1979 y 1983, cuando aún militaba en el PNV antes de la escisión, y desde 1995 hasta

ahora—, y otras dos como diputado general de Guipúzcoa. Accedió a la presidencia de la poderosa Diputación guipuzcoana en 1985, en sustitución de José Antonio Ardanza cuando el PNV designó a éste *lehendakari* en medio de la bronca de la ruptura peneuvista en la que Murua se decantó por los escindidos de Eusko Alkartasuna, como hombre fiel que es a Carlos Garaikoetxea, navarro empadronado en Zarautz. Ha estado en el centro de todas las movidas internas y externas del convulso País Vasco.

No es rencoroso, pero de su larga carrera política le quedan asuntos que son casi tabú, de esos cuya simple mención le produce un escalofrío. Como cuando, hace ahora ocho años, el PNV se alió con el PSE para arrebatarle el sillón de diputado general y mandarle a la oposición, pese a haber sido el candidato más votado por los guipuzcoanos. Sólo un mes más tarde, estos dos partidos firmaban un acuerdo con HB sobre el nuevo trazado de la autovía del Leizarán a cuya modificación Murua se había resistido con firmeza, pese a las amenazas personales de que fue objeto, por no ceder al chantaje de ETA. Este episodio le dejó una cicatriz interior que le asoma cuando se le pregunta por ello y, después de apartar la mirada y tragar saliva, responde que en esta vida hay que aprender a pasar página.

Aunque es un político profesional, su estilo directo y campechano y su talante sincero y transparente proyectan un halo de buena persona que hoy escasea. También se percibe en su forma de ejercer el oficio de alcalde, con un toque paternalista, personal e irrepetible, de los que ya no se dan. Con un bagaje de maestro de escuela, Imanol Murua fraguó su vocación política en base a un empuje y una iniciativa innatas al líder para quien las dificultades nunca son barreras. Había hecho músculo en el franquismo, en la malla social que se tejió en los pueblos con la complicidad de la lucha por la lengua vasca y la recuperación de los fueros. Y despuntó como primer edil al frente de una gestora antes de las municipales de 1979, formando parte del grupo de alcaldes que consiguió la despenalización de la *ikurriña* en enero de 1977.

Con ese aire de hombre de pueblo, Murua, que vive en el mismo piso desde que se casó, ha utilizado la sinceridad como arma con la que compensar sus déficits. Siendo diputado foral de Cultura no le importó confesar que no tenía ni idea de arte y, tras escuchar a los artistas, les dejó como legado Arteleku, uno de los centros de vanguardia considerado el *centro*

Pompidou guipuzcoano. Como diputado general mantuvo el tipo, pese a su oratoria tan deficiente, y cogió por los cuernos el desafío de la autovía. Cuando regresó a Zarautz en 1996 como candidato a alcalde fue premiado con el 42% de los votos y su grupo EA, pasó de cinco a ocho concejales. Ahora se retira sin defraudar a sus vecinos. Su última actuación va a ser colocar una escultura de su amigo Jorge Oteiza junto a la *ikastola* que contribuyó a crear, cerrando así el ciclo de su vida política municipal.

INFORMATZAILEAK

Imanol Muruari buruzko informazioa jasotzeko ondoko pertsona hauengana jo dut. Izen-abizenen ondoren agertzen den zehaztasunean adierazten dut zein kontzeptutan jo dudan beraiengana. Bilatzen dudan informazioari espreski dagokion kargu, zeregin edo lana da.

AGINAGA, Ramon: *Zarauzko erretorea*
AGIRRE, Jose Mari: *Diputazioko kidea*
AGIRRE, Marisol: *Diputazioko langilea*
AKIZU, Jesus Mari: *Diputazioko kidea*
ALBERDI, Antonio: *Udaletxeko kidea*
ALBISU, Patxi: *GBBko kidea*
ALUSTIZA, Miguel Angel: *Golfeko kidea*
ARANGUREN, Manuel: *Lanbide Eskolako kidea*
ARGIÑANO, Karlos: *Ikaslea*
ARREN, Karmelo: *Diputazioko kidea*
AZKUE, Jon: *Koadrilakoa*
AZPEITIA, Alvaro: *Koadrilakoa*
AZPEITIA, Santos: *Golfeko kidea*
AZPIROZ, Eugenio: *Batzar Nagusietako kidea*
BAZTARRIKA, Patxi: *Batzar Nagusietako kidea*
BERGARA, Basilio: *Ikastolako kidea, Udaletxeko kidea*
BIAIN, Agustin: *Lanbide Eskolako zuzendaria*
BUEN, Miguel: *Errenteriko alkatea*
CAMINO, Anjel Mari: *Koadrilakoa*
CIPRIÁN, Ramon: *Diputazioko langilea*
ELKORO, Jose Luis: *Bergarako alkatea, Alkateen Taldeko kidea*

ERASO, Xanti: *Diputazioko langilea*
ETXENIKE, Pedro Miguel: *Eusko Jaurlaritzako Kontseilaria*
ETXEPARE, Carlos: *Diputazioko kidea*
GARAIKOETXEA, Carlos: *Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria*
GOIKOETXEA, Antonio: *Koadrilakoa*
GOIKOETXEA, Julen: *Diputazioko kidea*
INTXAUSTI, Estrella: *El Diario Vasco-rako Diputazioko informatzailea*
IRIBAR, Jose Anjel: *Lanbide Eskolako ikaslea*
LABAIEN, Ramon: *Donostiako alkatea*
LARRAÑAGA, Prontxio: *Legazpiko alkatea, Alkateen Taldeko kidea, Diputazioko kidea*
LAZKANO, Imanol: *Bertsolaria*
LERTXUNDI, Inazio: *Udaletxeko kidea*
LETE, Xabier: *Diputazioko kidea*
LEUNDA, Erramun: *preso zarauztarra, zinegotzia*
LOPEZ LANDATXE, Francisco: *Diputazioko langilea*
MARKAIDE, Juan Jose: *Ekintza-laguna, zinegotzia*
MURUA, Garbiñe: *Arreba*
MURUA, Iñaki: *Anaia*
MURUA, Jose Mari: *Anaia*
MURUA, Kepa: *Anaia*
ODRIOZOLA, Andoni: *Koadrilakoa*
OLANO, Xabier: *Batzar Nagusietako kidea*
SETIEN, Jose Mari: *Donostiako Gotzaia*
SODUPE, Roman: *Azkoitiko alkatea*
UNZURRUNZAGA, Xabin: *Udaletxeko kidea*
URIA, Maritxu: *Emaztea*
URKIA, Pako: *Laguna*
URTXUEGIA, Ana: *Lasarte-Oriako alkatea*
ZABALEGI, Arantxa: *Udaletxeko kidea*
ZABALETA, Maritere: *Diputazioko langilea*
ZUMETA, Jose Luis: *Margolaria*